


Eusebio Erkiaga

GOIZEAN ETA ARRATSEAN

ESKUBETE NEURTITZ • 1

Sarrera:

Igone Etxebarria



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA



Euskal Biblioteka Labayru



1038641
LITERATURA / N. 7583
v.1

EUSEBIO ERKIAGA

Goizean eta arratsean

Eskubete neurtitz

EUSEBIO ERKIAGA

Goizean eta arratsean

Eskubete neurritz

I

Sarrera: Igone Etxebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2006

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren,
Bizkaiko Foru Aldundiaren, eta Bilboko Udalaren laguntza izan dau.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Discinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-2501-06
ISBN (idazlan guztiak): 84-89816-07-7
ISBN: 84-89816-09-3

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopia, erregistratua edo beste bitartekoa berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabetun aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

I liburua

Ataurrekoa. <i>Igone Etxebarria</i>	23
1931	
Mendi goi-goian	63
Aititaren basetxea	65
1932	
Edur zuri	66
Urtaro kutuna	67
Gau-eresia	68
1933	
Aitona zaharra	69
Txintak	71
Atabal-jotzailea	74
Abenda-irrintzia	75
Udako hodeia	78
Baltxerana	79
Ez dira etorri	80
Mendi zoragarri	81
Haren etxea	82
Neure aberriari	83
Alaia	85
Negu-eresiñoa	86
1934	
Euskadiren urtebarri	87
Alde gugandik	88
Errotazuri	90

Etxeko poza	91
Bide ondoko iturritxua	92
Airoko pagadiak	93
Maitaketan	94
Neurri eta doinu	96
Musker	99
Lekeitio!	100
Baserritar	102
Ezkontzea	104
1935	
Kresal-oheta	105
Ontzi gorri	107
Gogoaren irritsa	109
Amari maiatzean	110
Eten kataiok	111
Zeure mahaira	113
Lora gorriak	115
1940	
Arrankuratsu	117
1942	
Negu-goiz bateko abesti alaia	120
1944	
Ama hil jat	122
1945	
Kaieko haizetan	125
1947	
Fauré-ren soinuaz	126
Loraketa	128
1948	
San Markos	129
Marti-azken	130
Izarren orduan	131

91	Lekeitioko andra-aurrekua	133
92	Saltzaile!	135
93	Gaztaroaren iges egite	136
94	Maiatzean igar	138
96		
99	1949	
00	Amets urratua	140
02	Zuri-baltz	141
04	Eguna	143
	1950	
05	Jaioterri kutun	145
07	Landa gizon banintz	147
09	Karmelo Etxegarai	150
10	Bilintx	152
11	Arrantzale zaharra	154
13	Larran	156
15	Nekazariarena	159
	Arrantzalearena	162
17	1951	
	Alaba galdua	164
	Zarama-zaleak	166
20	Maitale bi	168
	Azkueren heriotzan	169
	Ama, hitzik gozoena	171
22	Bihar ezkonduko naiz	174
	Goraminez	176
	Amaren itzala	178
25	Mao gorri	179
	Txibiritak agertzean	181
	Andre Mari	183
26		
28	1952	
	Gabon-otoia	184
	Beti gose	185
129	Olerki-matxinadea	186
130	Leihoan	189
131	Eukaristia, bake oturuntza	190

Minondoko itxaro	192
Oiharzuna	193
1953	
Ilargitan	194
Mahai saindura	196
Amaren giro	197
Bake-soinu	199
1954	
Arbasoen herri	201
1955	
Legorte	203
1956	
Maiatzeko ilunabarra	204
Bide orlegi	205
Zure ezpainak iduri	206
Garbi eduki nazazu	207
Bion errua	208
Izarrak isilik	209
Biok	210
Ezetz	212
Mingots	213
Eguantz	214
Aingeruak jo ninduan	215
Kaleko lerroak	216
Axular handiari, ohore	217
Ibai garbia zana	220
Mirentxuren buruko ilea	221
Beti ere	222
Dundun	223
1957	
Atsetzen	224
Ohetik ohera	225
Ohetik ohera, bigarrenez	226

2	Giltz berriak	228
3	Ilargiak kuku egitean	229
	Bazeneki...	230
	Apiril urregorri	231
4	Gereziak loran	232
6	Txori azkarraren epaia	233
7	Bikoitza: 1. Izu; 2. Itxaro	234
9	Egonezin	236
	Nork daki zergatik?	238
	Belu xamar	239
1	Nun zagoz, maite?	240
	Zutik	241
	Zanbuluka	242
3	1958	
	Zeu eta neu	243
	Asperraldi	244
4	Ondo dakizu zergatik	245
5	Ceroko	246
6	Garra bezain garbi	247
7	Orbangabea	248
8	Ezbehar haundia	250
9	Ezta gaur ere	251
10	Langile oihua	252
12	Aipu ona	253
13	Kaiola politean	254
14	Lanean	255
15	Hogei urte dira	256
16	Aldatu zara, bai!	257
17	Haizetako kantu arinak	258
20	Aita ankerra	259
21	Askatasuna	260
22	Ez da egia	261
23	Bide zaharrak	262
	Haragikeri	263
	Gutxi dira	265
24	Kristo bakartadcan	266
25	Atzo bezelaxe	267
26	Berriro	268

Azalkeri?	269
Haurrik gabearena	270
Jaunaren igokundean	271
Basamortuko oihua	272
Ezteuskeri	273
Elkarren etsai	274
Manutxu	275
Ez da berdin	276
Guraiza zorrotzak	277
Mosu merke	278
Kadentasun xume	279
Grina-sarepean	280
Behi itsua	281
Kristo zulatua	282
Nora hoa?	283
Juan Ramon Jimenezi, agur	284
Torrean dago	285
Olala, olala	286
Emazte ona	287
Baietz esango bazenit	288
Lesbosko Safori	289
Margari panpoxa	290
Goiz arre beltzeran	291
<i>Oriveri</i> Leitza	292
Elkarren lehian	293
Begirakune bana	294
 1959	
Ume txiroa	295
 1960	
Bilbo	296
Zinkurinez	298
Ene, Ama!	300
Rosabel	301
Hirugarren gau beltza	302
 1961	
Guraria	304

9	1962	
0	Hilobi izengabea	308
1	Iturri agor	313
2	1964	
3	Maite maiteena	315
4	Arraizpe	319
5	Inular beltz	321
6	Bide zaharrak	325
7		
8	1965	
9	Lekeitio	326
0	Zubiganean	327
1	Imanoletxu	328
2	Urrunetara	329
3	Aitita-amamak	330
4	Emongo deusut	331
5		
6	1966	
7	Neskatxa eta ardoa	332
8		
9	1967	
0	Ene maitea	334
1	Txakolina	335
2	Ezkonduko gera	336
3	Arrantzalea	337
4	Zu gabe	338
	1968	
5	"Aittita Mokordo"	340
	Anaitasuna	341
	Gurari	342
6	1970	
8	Maitatzen	343
0	Guria	344
1	Gure kai politean	345
2		
	1971	
	Lehorrez ta itsasoz	346
4	Lekeitioko kanpaien deia	347

1972	
Ezpatadantza	350
1974	
Lekeitiar entzutetsua	353
1975	
Auresku	354
Gure txistulariak	355
1976	
Portu-errota	356
Itzali ezina	360
1977	
Kanpaiak ere	361
Dirdiz	366
Larrara bidean	369
Orain eta beti: 1. Elegia; 2. Zortzikoa	371
Eskerrik asko	378
1978	
Gernika apurtu da	383
Bidazti, hor dozu ama	385
Iturrigorri	392
Etorkezumaz gogoetan	396
Aurtengo neurtitzak	398
1979	
Lurralde ta herria	399
1980	
Arranegiko zabala	400
Agur, Xabier!	402
Itsas soinua	404
Lumentxako kurtzioa	405
1981	
Kasparren zaldi sendoa	406
81, Antzarraldi baltza, 81	408

1982

Erleen antzera: I. Iturbekoa (Jose Mari Arizmendiarieta); II. Eztingintzan (Bitoriano Gandiaga); III. Izurtzan jaioa (Nikolas Alzola Gerediaga)	409
---	-----

1983

Gorbaiera zoazie?	417
Mingotsak	426
Ipuin txiki	427

1984

Politago zirean	428
Comutagarri doguna	429
Hirukotxa: I. Jaiotetxeko leihotik; II. ...eta iparraldeko leihotik; III. ...ta hegoaldeko balkoitik	432
Lotsea galduta	436
Karraspio txiki	438

1985

Dakustana	439
Errotazurin erostaka	441
Cavaillé-Coll	442

1986

Larrazkeneko neurtitzak	444
Antzoriz	447

1987

Kresalaren penak	449
Aitabitxi	451
Besoak zabalik	453
Astelehen negargarrian	456
Agur, Koldo	457
Don Nemexio	459

1988

Antero ta Sinker	462
Agurrik bako agurra	464
Artxandaren ostean	466

1989	
Argatxeko pekan gabiloi-habian	468
Alperreko deiak	473
Fausto, Abelardo	474
Eulia ta Atsoa	476
Rufo Castor	477
Txalupetxeak	480
Etxenagusia (Karmelo) Jaunari	482
Goierrri ixila	485
Sakabanatzen	486
Mintz	487
Jose Migel Barandiaran jaunari	488
Etxaki laztan	489
Inok entzun barik	491
Gizon urtetsuaren leloak	493
Egumeroko purgatorioak	496
Zikina indartuz	497
Bide zidor	499
Azal barria zergaitik?	500
Emon egidazue	501
Atzenerantz	504
Ai, Alia!	505
Uda bero	506
Aho itxian (erran zahar)	507
Iluntzea	508
<i>Bai</i> eta <i>Ez</i> burruka	510
Izekok esana	512
Euli zirinak	513
Bertso menditarrak	514

II liburua

1990	
Noiz, nora?	539
Santiri...	540
Alkar	541
Bakezko aizkorak	542

	Lekeitioren oraingo ardatz bizkarraldea	544
8	Urteen neurri zoroa	548
3	Ondarru ikusgarri	550
4	Hiru kolore	551
6	Aitzol eta Lauaxeta	552
7	Begietan tristura	553
0	Galarrenaren erpeak	554
2	Harrizko edertasuna	555
5	Ura batez bere	558
6	Lekeitio izena	559
7	Indar bakarra mihinean	561
8	Itsasoak ekarri dau	562
9	Udako ilunabarrean	563
1	Eskolako mutilak	564
3	Iparraize hozkirri	566
6	Ondasun galduak	567
7	Itsas	568
9	Joan behar baina... ..	570
0	Ziri	571
1	Altzipres zorrotzak	572
4	Aldi joana, zein urrun	573
5	Bizitzako aldapan	574
6	Zure begiak	575
7	Urigintzako jolasak	576
8	Gindax txairoa	577
10	Katuak eta sorginak	578
12	Aspaldi bateko kanta zoroa	580
13	Eguraldia, ederra!	581
14	Pasadio zaharrak	582
	Cure sirimiria	584
	Don Antonio Zamora, agur	587
	Ama Teresa Kalkutako	589
	Mokoroo, Justo Mari	590
	Jose Mari Makua, Agur Jauna!	592
	Zingo txiki, zingo handi	594
39	Txir, txir, txir... ..	596
40	Anton, Anton	598
41	Goierra	599
42	Atal txatal	602

Zanetako odol ibiltokia	603
Itsasertzeko maitaleak	605
Hau dok hau...!	606
Orduko treotzarea	608
“Inusente... potente”	610
Samina garaitu nahi neuke	612
Oi, Ameriketako gizon azal gorriak	614
Betoz gazteak	616
Azken unadan	617
Sabin Muniategi hegaz	619
Maitari espiritualak	621
Aldi joanak	622
Arantzazko torreko olerkariari	623
Anton	624

1991

Txomin Jauna	625
Agur-agur azkenak	627
Lau hankako oilarra	629
Txomin abade jauna	631
Ikusgura zolia	633
Matxingarratza	636
Anandarri	638
“Mutxuneneko kabria”	640
Don Tiaoro	642
Antxinako komeriantek	645
Ondo biziko gineala, ta... ..	648
Seina, jarraipena	651
Makina txikiak	652
Ihesi, zetarako?	653
Aro epelean	655
Bagoaz, bagoaz	657
Haize epela urian	658
Urarte, ugarte	659
Masta puntakoa	661
Hiru koplak	662
Lirikor mistikor	663
Enara ameslari	666

03	1992	
05	Espiritua askatasun eske	667
06	Amamaren argazkiak	669
08	Begiak edegitean	670
10	Rafael Uskola	671
12	Euskal burdia	672
14	Neurria	673
16	Lainotzan	674
17	Eguneroko ogia	675
19	Amairik bako egonezinez	677
21	Maitetasuna ereiten	678
22	Isuntzako aldakuntzak	679
23	Mendira begiratu bage	680
24	Bihotzean osina	681
	Oinen ganean gabiltzan artean	682
	Testularia	683
	Bedar txar ugaria	684
25	Geroko tokia	685
27	Anaitasuna, gurari alper	686
29	Txori mutuak	687
31	Itsaso hasarrean zambiluka	689
33	Olgetan eta benetan egun pozgarri honetan	691
36	Oso, alde, atal	693
38	Potin zaharra	694
40	Gizonen artean gizon	695
42	Poesia ezagutu dot	697
45	Lilurea beti da lili	700
48	Arbilagara bidean	701
51	Ogia urdindu da	703
52	Goizak esaten deust	705
53	Ostatua	706
55	Hegalari txolin	709
57	Rosalía Konpostelako	711
58	Tirainik tirain	713
59	Lekeition ikustekoak	714
61	Gurarien laino artean	716
62	Mamuak eta gizonak	718
63	Guraso ongileak	720
66	Ezusteen turrunturruna	722
	Hizlau hotza	723

Abar eta abar	725
Domusanturu	727
Olentzero	729
Isuntza ertzean	730
Hitzak josten	731
Amak bere umea hil	732
Bai, noski	734
Zortzikoan aldrara	735
Zenbat lo eginda?	736

1993

Agur, Jaunak	737
Zipriztin bustiak	739
Emazte ona ta eternidadea	740
Mahats mordoa	741
Aterkinik ez badozu	742
Kaleak	743
Aberri gazte	744
Triki-traka	745
Arimako kili-kilia	746

Olerti-lan luzeak

1959

Bedoñarako ostu Bikoitza	749
Maiteari	751
Olerkariari	753

1964

Zelai Bizia	755
Atadian	757
Itsas ondoan	762
Itsas handian	769
Alkarrekin	779
Luze eta zabal	785
Neke-doinuak	789
Hartu-emanetan	800
Lilurazkoa	804
Maite-giro	806

5
7
9
0
1
2
4
5
6
7
9
0
1
2
3
4
5
6
49
51
53
55
57
62
69
79
85
89
300
304
306

Zortzikoa	820
Hurbil eta urrun	822
1965	
Saihets-hezurretan	829
1969	
Haritz jeikian	837
Hitzak haizea nahi	839
Haritz jeikian	840
Ontzia utzita	842
Eroak	843
Haizetara berriro	844
Ingurumariak	845
Oilarbuzten	846
Jantzia urratzean	847
Ehiztariak dabilta	848
Joko berria	849
Egia, gure ogia	850
Emaidazu eskua	851
Ximist	853
Bertsolariarena	856
Agertuko da	858
Zortzikoa	859
1970	
Gizona, hitz ona	861
Ezerezetik	863
Jaioberritan, zinkurin	865
Plazako poza	866
Gizonak, mintzoa du	867
Beti penetan	868
Gezur, hezur	869
Nekoa	870
Goiko ta beheko	873
Bakartadetik ihesi	874
Aitaren eta amaren	877
Jator	878
Ttum ttun	880

1973	
Isilak jan ditu	883
1983	
Garaiz	891
Jasan beharreko	893
Ziri edo irri	906
Haragi loturaz	923
Mahai-azken	936
1985	
Txortea	937
Lehenengoa	939
Bigarrena	944
Hirugarrena	946
Laugarrena	949
Bosgarrena	952
Seigarrena	956
Zazpigarrena	958
Zortzigarrena	960
Bederatzigarrena	962
Hamargarrena	965
1985	
Gaztezaroko ele arinak	969
Lirika	971
Zirika	999
1989	
Intxaur azalak	1007
Bidaztiarena	1009
Lili zurigorri	1013
Eskuen berbetea	1016
Oturuntza	1018
Higuina lurperatuko dogu	1020
Lokarriz askatu	1022
Arerioak erpeak ditu	1024
Txatxandu direanak begoz txatxanduak	1028
Intxaur azalak	1031

ATAURREKOA

Liburu bion zabalerak idazle eta olerkari fin baten aurrean gagozala erakusten deusku argi eta garbi. Liburuoi lehendik pro-sazko lanak batuta, Andres Urrutiak atondu ebazan beste biak batu ezkeru (*Berbalauaren Kulunkan I-II*, Labayru Ikastegia-Bilbao-Bizkaia Kutxa, Bilbao, 2001), Eusebio Erkiaga idazle oparo eta gure artean ugarienetakoa dala konturatuko gara. Izan be, lau liburuotatik kanpora geratzen dira haren nobelak: *Arranegi*, *Araibar Zalduna*, *Batetik bestera*, *Txurio txoria*, *Jaioko dira*, *Iribarra* *galtzen danean*.

Eusebio olerkiak idatziz sartu zan literaturaren arrastoon, *Euzkadi* eta *Eguna* aldizkarietan XX. mendearen hasierako urte-tan. Beti euskeraz eta Lauaxeta maisutzat hartuta, *Erkiagarre* eta *Endaitz* ezizenak erabilita agertu zan.

Baina nobelak lehentxoago-gerotxoago argitaratu izan badi-ra be, gainerako idazlanak be han-hor-hemen atera izan dira, baina soltean, banan. Hori dala-ta Eusebio Erkiagaren idazlan laburrak sakabanatuta geratu dira, bere corpusaren ikuspegi osoa hartzeko aukera barik. Hutsune horregaz jabetuta, Bizkai-ko Foru Aldundiak 1992ko maiatzaren 22an egin eutsan ome-naldian, ohore-aitorpenaz gainera, olerki guztiak batuta argital-pena egitea agindu eutsan, jakinda material ugari batuko zana eta liburu moduan argitaratzea ezinbestekoa dana haren poesia irakurleen esku jartzeko eta osotasunean irakurgaien ibilbideaz ohartzeko.

Bilduma zabal hau hona dakargun moduan osatu ahal izateko behar-beharrezkoa izan da Eusebioren beraren eta haren familiaren laguntasuna. Eskertzekoa da laguntzeko eta animoa emateko euki daberen jarrera eta pazientzia, lanaren martxan ahal izan daberen guztian euren aldetik ahalegina eginez. Bego argi nire eskerrik bihotzekoena.

Eusebio Erkiaga idazle

Erkiagak berak esaten eban moduan, lanbidez edo ofizioz zenbakiakaz behar egiten baeban be, letra-gizona zan sentimentuz eta zaletasunez. Arlo biak igarri-igarrian ditu bere idatzietan zetan edo hatan. Zer da literatura Erkiagarentzat? Ez da erreza halango itaunari erantzutea, berak emongo eukean erantzun dotore-zehatza asmatzen hastea. Badakigu ha ta guzti be, gazte-gaztetan idazten hasi eta mendearen joanean aldiak, aroak, gustuak eta personak eurak be aldatzen joan arren, berak ez eutsala idazteari itxi azkeneko eguneraino. Horrezaz gainera, burua beti argi eta zabalik euki eban ikasteko prest. Ibilbide luzea eginda gero be, bere burua putzitu eta inoren gainetik dagoanaren jarrera barik, besteek dakiena aitortu eta hareekandik ikasteko borondatea euki eban beti. Idazle unibersalen lanak irakurri eta mira eginda egoten zan, baina baita be unibersidadean hasi barri egoan Euskal Filologia karreran lizentziadu barrien ikerketakaz be.

Literatura-joera guztiak irakurri eta ezagutzeko zalea da Erkiaga, gustuak gorabehera. Prestakuntza aldetik autodidaktatzat aurkeztuko neuke, irakurri eta irakurrita bere bidea egiten joan zan, aldian-aldiko joeretara gitxi gorabehera egokituta, baina beti bere bidetik aldendu barik.

Bankuan behar egiten eban batentzat, zenbakietako prestakuntza eta ikasketak egin ostean, alderdi humanista lantzeko bidea zan literatura. Bere lanbideari egokituko geunskion zehaztasuna igarri-igarrian dau idazlanetan be, hasi itxuratik eta azkeneko zehetasunetaraino. Haren testu originalak erabili doguza-

nean argi ikusi dogu papela garbi-garbi aurkeztu dauela, makinaz idatzikeran akats gitxi egiten dauzala, oharrak zehatz egiten dituala eta edozer egiteko orduan ez dituala gauzak erdizka ixten. Idatzietan zehaztasun hori berori agirikoa da, berbak eta egiturak kasuan-kasuan aukeratuta dagoz, beti hitzen adiera eta zehetasunak kontuan hartuta. Gauza bera esan daiteke testuen egituraketan, hariari emoten deusnan garapenean.

Eusebio Erkiaga gizon fina da, fina berbearen zentzu bietan: alde batetik gizon behargina eta bestetik sensibildade handikoa. Behargina dana begien bistakoa da, ohiko lanbideko beharraz gainera, lau seme-alabako familia ederra aurrera atera, hainbat erakunde eta alkarteri lotuta euskalzaletasuna zabaltzeko zenbat gura behar egin eta ikusi dogun bolumeneko idazlanak prestau, ez da makala, ez.

Idazle moduan genero mota guztiak landu ebazan: nobela, antzerkia, artikuluak, literatur kritika, itzulpenak, danerik. Literatur lehiaketa askotan parte hartu eban, genero guztietan. Lotura handia euki eban hainbat erakundegaz: Euskaltzaindia, *Zer* aldizkaria, Lekeitio jaioterriko kultur ekintza guztiak, Labayru Ikastegia.

Esan dogu gizon fina zala beste zentzuan be, eta horri lotu beharko litxakio hainbeste alkarereakundegaz hartu-emon egokia lortzea be. Literaturaren osagarri diran beste zaletasun batzuk be baeukazan, danen gainetik musikarena segurutik. Musika-jole ezeze, hartu-emon handiak euki ebazan musikaririk handienakaz, baita kolaborazinoan be, bilduma honetan bertan ikusten danez. Hainbat olerki musikeagaz lotuta dagoz, edo berak musika jakin baterako idatzi ditualako edo berak idatzi eta musikariak doinua jarri deuselako. Musikariok honakoak: Francisco Bengoa, Juan Cordero Castaños, Felix Ibarrondo, Juan Orue, Francisco Javier Gargallo, J. Anton Larrauri, Rafael Ruiz de Lejarza.

Eta beste ezaugarri bat be azpimarratuko neuke. Artistak ohi dabenez, Eusebio inguruaren obserbadore ona da. Lekeitio, herria, personen ezaugarriak, jokabideak, hartu-emonak, hiz-

kuntza-erregistroak... zehatz-mehatz jaso eta emoten ditu, kasuan kasurako espresabiderik egokiena aukeratuta.

Eusebio Erkiaga nobelagile

Genero honetan ezagutu izan dogu gehien Erkiaga orain arte, hainbat idazlanen egile dalako. Nahizta idazle moduan poesian hasi, nobelak idazten jarri zan laster, euskal literaturan horren preminea egoala-ta.

Sei nobela idatzi ditu guztira. Ikusi daiguzan banan-banan.

Arranegi (Itxaropena, Zarautz, 1958; Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985).

Nobela honi kresal usaina dario alde guztietatik, Txomin Agirrerren *Kresala* gogoratzen dauela. Hango Arranondoren moduan, kostako herri baten kokatuta dago, Lekeitio. Herriari egindako kantua da nobelea, haren erretratu etnografikoa, zeozelan esateko. Badira pertsonaia batzuk eta argumentua be, baina nahiko ahul edo apalak, eta beti be Lekeitioaren goraipamena egiteko atxakia bihurtuta. Bitarteko betegarriak astirotu egiten dabe irakurgai, moteldu.

Irakurgaiari bizitasun handiagoa emoten deutse betegarri diran pertsonaiek, herriko arrantzale eta arrain-saltzaileen gora-beherek, esaterako. Arrantzale herrietan ohi danez, Arranegin be persona eta familia gehienak ezizenez ezagutzen dira, eta halakoen deskribapen eta pasadizuak polit-polito emoten ditu idazleak.

Nobela kostunbrista da, aurretik Txomin Agirrek eta beste batzuk idatzi ebezanen haritik datorrena. XX. mendearen hasierako hamarkadetako Lekeitio gozoa, ohitura zaharren jagolea goratzekoa.

Ekintzetan ezeze hizkuntza aldetik be beste horrenbeste esan daiteke. Herriko hizketa bizi-aberatsa nobelara ekarten ahalegin apartekoa egin dau, berba, esakera, joskera jator, esamolde eta inguruak jasotzen.

Araibar Zalduna (Itxaropena, Zarautz, 1962).

Berez nobela 1958an idatzia da, eta urte horretan Euskaltzaindiko Domingo Agirre nobela saria irabazitakoa.

Lehenengo begietara joten dauena gipuzkeraz idatzita egotea da. Lehenago Txomin Agirregaz konparau badogu, barriro be haren antzera jokatuko dau, gaia eta testuingurua ezbardina bada be.

Araibar izeneko zaldunaren istorioa da nobelaren haria. Barriro be jatorrian Lekeition kokatuko dau, baina oraingoan ahalegina egingo dau nobelea urira erooten, urira joatea galbidea joateagaz lotuta. Zaldun gonazale horrek aldaketa egingo dau galbidetik bide zuzenera. Liburu osoan andra-gizonen arteko maitasun gorabeherak dagoz, batzuk artezak eta beste asko nahiko ustel, sasi-maitasun eta sexu-kontu arinak baino ez diranak. Azkenean zentzunak eta etikak aurrera egingo dabe, moral kutsua emonaz liburuari.

Pertsonaiak eta egoerak aurrez aurre jarrita dagoz, onak edo txarrak dira, batzuen txartasuna besteen ontasuna indartu edo azpimarratzeko dala.

Aitagarriena, edozein modutan, nobela uritartzeko ahalegina da, ordura arteko kostunbrismotik aldentzeko, horretatik hondino asko geratzen bajako be.

Batetik bestera (Itxaropena, Zarautz, 1962; Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985).

Nobela honek Euskaltzaindiaren Domingo Agirre saria irabazi eban 1961ean.

Nobelako pertsonaia nagusia Nikanor *Zorritzto* da, eta liburuaren haria haren joan-etorriak, txikitatik hasi eta Bartzelonan hil arte. Umetako sasoi Latsetan (Lekeition) gertatzen da eta garai lasaia, baketsua, zoriotsua da. Koskortu ahala, ostera, beste bidezidor batzuetatik abiatuko da, ez beti garbiak gainera. Umearo-helduaro banaketa gogorra da pertsonaia horrentzat eta liburu bitan zatitzen dau. Behin gazte mardula dala Bilbora alde egiten dau, herria txiki geratzen jakola-ta, itogarria jakola-ta.

Han langileen giroan, uriaren zurrumbiloan gero eta azpikeria gehiagotan nahastau eta azkenean Bartzelonara alde egingo dau.

Leku bakotxak esangura oso ezbardina dauka. Umetakoa giro gozo, apartsu, idealizatua da. Uria, ostera, galbide eta zitalkeriaren eskola. Langile fina zanak, sozialismoagaz liluratu zanak, lapurretan amaitzen dau. Egonezinaren egonezinaz barriro be alde egin behar dau beste leku batera, eta oraingoan uri handira, Bartzelonara. Han anarkismoa aurkituko dau, barriro be itsutu arte. Baina noraezean dabil, kartzelan egotea be suertauko jako, azkenean gaisotu eta bertan hil arte.

Barriro be uriko girora ekarri gura izan dau Erkiagak nobela, eta uritartasun horretan beste pauso bat egin dau gainera, uri ez handi batetik Mediterraneo aldeko uririk handienera, esangura oso argiagaz.

Txurio Txoria (Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1986).

Nobela hau 1963an idatzia da, nahizta 1986 arte argitaratu ez. Barriro be uriko girora garoaz idazleak, gaizkileen eskutik. Melki pertsonaia *Txurio* izeneko nagusia ezagutu dauenetik okerbidean sartuta dabil, gaizkin talde baten lapurretak eta antzekoak egiten. Melki bera da narratzailea eta kontakizuna bere bizi-tzaren hariak osatuta dago, *Txurio* ezagutu aurretik eta ostean.

Alde batetik uriko giroan kokatutako intriga osotu nahi dau, baina amaieran Melkik Jaungoikoarengana egiten dauan aldaketa sinisgatxak barriro be ohiko balore etikoetara ekarriko gaitu.

Uriko giroa agertzen da batez be, baina oraingoan ez dago esaterik uri hori zein dan, zein neurriraino Lekeitio edo Bilbo izan daiteken esaterako.

Jaioko dira (Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1984).

Aurreko nobeletatik hogeii urte igarota, giro historikora jo dau idazleak oraingoan. Idazlan hau aurrekoetatik nahiko ezbardina

da, 1936ko Gerra Zibila gaitzat hartuta, orduko gertaerek gure herrietara ekarritako eragin kaltegarriak gogoratzen ditu.

Arranegi-n hartutako bideari helduta, Lekeitiora jo dau barriri idazleak. Baina lehenengoan herriaren ederra eta bakea goratzeko bada, oraingoan agintari barriak bat-batean herrira heldu eta dana hankaz gora euren aginduetara jartzearen kalte larriak darabilz. Agintari barriak aurrekoak zapaldu ezeze, herri-tarrak alkarren barri ezkutuan emoten jarri gura dabez, auzoen artean hartu-emonak usteldu arteraino. Lekeitioko hori, gainera, beste herri askotan gertatutakoaren erakusgarria da.

Gai labana da, zauri handiak itxitakoa, eta idazlea be jaubetu da horretaz. Oraingoan hizkuntza sobrioagoa darabil, irudi eta poetikotasun gitxiagogaz. Ha ta guzti be izenburua itxaropentsua da, jaioko dira barriak, etorriko dira beste gazte batzuk.

Iribarrea galtzen danean (Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987).

Azkena dau lan hau nobelen artean, 1986an Bizkaiko Foru Aldundiak eratutako literatur leihaketan saritua.

Barriri be beste era bateko giro eta gaietara joteko ahalegina egingo dau, barriztau beharrak eraginda. Gizarte gaietara helduko deutse batez be, ezkontza-haustea atxakia hartuta, beste balore askoren aldaketa aurkezten dau, bizimoduaren bilakaerak lehen-tasunetan dakarrezan gorabeherak tartekatzen dira liburuan.

Egitura edo itxura aldetik be ezbardina da, testua ataletan banatu barik txatal labor asko daukaz, hutsune bat tarteko dala.

Alde guztietatik igarten da barriztetako ahalegina, molde eta gai barrietara egokituteko.

Beste genero batzuetako idazle

Esandako lanez gainera, Eusebio Erkiagak prosa-orri asko eta asko idatzi ebazan, beste genero guztiak ukutu zituan-eta. Idazlanok liburu bitan batuta dagoz, *Berbalauaren kulunkan*.

Prosa lanak I, II. Andres Urrutiak, Erkiagaren jarraitzaile eta ikertzaile hurrenetakoak, han eta hor arakatuta, mila eta ehun orri pasau batu ditu liburuotan, Erkiagak, liburuetatik aparte eta poesia ez diran generoetan, idatzitakoakaz.

Generoka bereizita, lehenengo aitakoko doguz haren narratibak. Aldizkarietan eta han-hor-hemen idatzitakoak dira sor-kuntzako lan laburrok. 1936an hasi eta 1990ean amaitzen dira, eta banaka batzuk argitaratu barik egondakoak dira.

Atal honetan sartuko doguz Ibaizabal argitaletxean argitaratutako ipuin bi, *Gizon toloa* eta *Arpeko Mari*, liburu biak 1984an kaleratutakoak dira, umeentzat, irudiakaz horniduta.

Aldizkarietara lotuta dagoz hainbat eta hainbat artikulu be. Orri asko osotzen dabez. Lehenengoak 1936koak dira, eta txorta handia osotzen dabe *Euzkadi* egunkarian 1936-1939 bitartean idatzitakoak. Bera Lekeitioko barriemole agertzen da eta hango barri emoten dau, baina askotan barriok euskereagaz lotuta dagoz, adar horri beti emon izan deutso aparteko garrantzia eta indarra. Bera hizkuntzaren militantea da batez be.

Artikuluetan euskal literaturaz diharduenak be asko dira, idazle baten gaineko azterketa bat dala, idazlanen bat gai hartuta darabilela, edo libururen baten sarrerarako prestatutakoa dala.

Kazetaritza bete-betean lotuta dago 1965-1968 bitartean egin eban *Boletín Informativo de la revista financiera del Banco de Vizcaya* (BIBV). Berak behar egiten eban banketxe horrek Euskal Herritik kanpora eukazan beharginei hemengo barri emoteko zabaltzen zan aldizkaria. Horren barruan hemengo herrietako barri eta osterantzeko beste barri batzuk euskeraz joaten ziran, eta horreek, gehien-gehienak behintzat, Erkiagak idatzitakoak dira, batzuk berak sinatuta eta beste batzuk sinatu barik badagoz be.

Antzerkian be lan batzuk egindakoa da, hemeretzi batu ditu Urrutiak bere edizinoan, batzuk sariak hartutakoak dira gainera.

Azkenerako itzulpenak itxi doguz, eta hemen be arlo guztiak erabilitakoa da. Alde batetik Platonen lana daukagu. Beste bate-

tik medikuntzako gaiak, *Gaceta Médica de Bilbao* aldizkarian medikuntza-gaien laburpenak euskeraz berak jartzen ebazan eta. Eta lege arloa azkenik, Bizkaiko Batzar Nagusietako aktak eta Kontzertu Ekonomikoaren legea.

Labur esanda, hau da Erkiaga idazleak egindakoa, esandako lanetan batuta dagoan moduan.

Eusebio Erkiaga, poesiagile

Idazle honen ibilbidea poesiak idazten hasi zan, eta bide horri eutsi eutsan azkenera arte, bitartean gainerako genero guztiak erabili arren.

Augustin Zubikarai lagunak honetara azaltzen dau Erkiagaren olerkigintza: "Erkiaga, bere bizitzan izan dana: olerkari gozo ta ezti, idazle txukun eta jator, euskal idazle etenbako eta bere sorterriaren maitale gartsu, baina herriminak egiari kerizperik egin barik."¹

Hona liburu hau prestatzen ebilela berak idatzitako oharretan zelan adierazten dauen bere olerkari jarduna:

"Olerkari handien asmo eta burutapen zorrotzik ez dago hemen. Poesi goitarreko zelai-hurbilean ez naz ibili. Sentimentu agerpena, eguneko eta *tokian tokiko* persona, gauza eta jazoerak kantatu ditut. Umore tanta batzuetan, zirikadak hurrengoan. Beharbada, poema edo lan luzeagoetan kemena eta indarra areago azaltzen dau egileak arnasa luzeagoko lanak direanez, labea beroago jartzen dabelako edo".

Bere estiloari lotuta, itu-ituan jo dau, hobeto esaterik ez dago: sentimentu agerpena, eguneko eta *tokian-tokiko* persona, gauza

¹ Augustin Zubikarai: "Bizkaierazko literatura idatziko idazle bi", *II. Jardunaldiak, Bizkaiko euskera bizkaiera?*, Bilboko Udala, Bilbao, 1994, 123-136 or.

eta jazoerak kantau ditu. Halan da, hori igarriko dau irakurleak liburu honeetako poema guztietan. Poesia Erkiagarentzat berba egiteko modua da, bere espresino bidea. Lekeitioko jaiak dirala, ba berso batzuk egingo ditu; baten batek zoritxarren bat euki dauela (gaisotasuna, istripua, heriotza...), ba poema bat dedikau; baten batek zeozer ona daukala (ezkondu, umea euki, sari bat hartu...), ba bertso bat agindu. Horrek beste barik ondorio bi dakarz argi eta garbi: alde batetik olerkien gaietan eta lantzeko mailan gorabehera handiak dagoz, batzuk landuagoak eta finagoak dira, beste batzuk, ostera, arinago egindakoak, traketsagoak. Beste alde batetik idatzien kopurua. Liburuok ikustea baino ez dago Eusebio Erkiagak bertso moldean asko eta asko idatzi ebala jaubetzeko.

Denporan, lehenengo testuak 1931koak dira, azkenekoak 1990ekoak. Ia-ia XX. mende osoa. Argitaratzeko lekuei errepareta, hogeta bost egunkari-aldizkaritan dagoz sakabanatuta, sasoi, aldi, joera askotakoetan.

Datei begiratu ezkerre bi parentesi edo hutsune dagoz, aldi bitan olerki gitxiago idatzi dituana, gorabehera personalei lotuta. Berak esanda, beharlekua aldatu ebalako, seme-alabak txikiak ziran garaia. Horrek ez dau esan gura orduan ez ebala idazten, baina poesian beheralditzat hartu daiteke.

Aldizkarietan gehienetan ezizena darabil sinatzeko: *Endaitz* eta *Erkiagarre* batez be. Urteak joan ahala eta mendean aurrera egin ahala, bere izenez sinatzen ditu, prosazko lanetan moduan.

Baina olerki solteak ezeze, Erkiagak olerki-txortak banan argitaratu izan ditu. Halakoak ez doguz hona ekarri, leku arazoakaitik batez be, eta bere bidea eginda daukielako. Holangoak dira *Gizonaren aldia* (1990, Ikasbide-Grupo Cooperativo Mondragon, Donostia, 70 orri), Jose Maria Arizmendiarraren omenez egindakoa, eta *Ez zaitez Gernikara joan, Lauaxeta* (1989, *Idatz & Mintz-Literatur Atalen Sorta*, 18-19 zk., separata, 31 orri), Lauaxetari buruz.

Poesia gaiak

Erkiagaren olerkietan era askotako gaiak aurkituko doguz, berez edozer da poesiagai.

Olerki serio eta jostagarriak daukaz, narratiboagoak eta liri-koagoak. Eguneroko gauzetatik hasi, herriko gorabehera eta pertsonaiak, nahiz barrukoagoak, danetarik aurkituko dogu.

Hari nagusi batzuk erakusten ahaleginduko gara, dana dala.

– Aberria behin eta berriro agiri da Eusebioren poesian. Norbere herriak, harenganako zaletasun eta maitasuna zabaldu beharrak ez dauka neurririk. Eta aberriari lotuta dago gehien-gehienetan euskerea, gure hizkuntza, berak hain maite eta hainbeste landu ebana. *Eusko, euskal, euskera* berbak sarri-sarri aurkituko ditu irakurleak testuotan zehar.

Herriak iraungo dau
gogo berbiztutea
lortu ezkerero;
arau zaharrei
indar barri
eta
arnasa bero
ernagarria
gehituta;
asmo,
argi,
adore,
hiru tontorreko
torre.

Bidazti, hor dozu ama, 1978.

Euskaldun izatea pozgarria da beretzat, euskerea jakitea zorion eragilea:

Ta batez ere, ene! zorion handia,
Arbasoen mintzoa nuan edaria,
Euskeraz asetua ene belarria,
Euskeraren doinuaz inguru guztia.
Arbasoen herri, 1954.

– Kristautasuna: Sabino Aranagandik datorren euskal abertzaletasunean ohikoa dan moduan, euskaldun-fededun bikotea alkarri lotuta doaz. Jaungoikoa, fedea, sinismena, aginduak, Aste Santua, Gabonak... Kristau eleizearen jokabidea hur-hurretik segitzen dau, baita haren irakasle agertu be.

– Omenaldi moduko olerkiak be ez dira gitxi, norbaiti eskinita egindakoak. Oso samurra da holangoetan idazlea.

Hona Axularri egindakoa:

Ele ederrez predikari on
ta animazai eredua,
bizitzaldian irabazia
lehen-oraiko dedua;
jakitun haundi, asmoz argia,
eleketan txit gartsua,
gizaldi hartan euskaldun orok
plazerki gorai patua.

Zu euskal maisu bikain izanik
ikasle apal naizela,
zeugan gihartsu zenuan mintzo
enegan, aldiz, motela.

Axular handiari, ohore, 1956.

“Garaiz” poema luzean, Rosalía de Castrori egindakoa eder-ederra da adibidez, hona pasarte batzuk:

Rosalía de Castro

Ehun urte laster
hil zinela,
Rosalia.

Eta nik ezin zu
bizirik ezagutu,
alegia. (...)

Oparo erein zenuen
aberriminaren hazia,
ta zoritxarrez ezagutu
mergatz den atzerria.

Hor laga zenigun
inoiz ahitzen ez den
Olertia,
Agur, zuri; txalo, zuri; omen, zuri
Rosalia.

Nori idatzi deutsan, nori eskintza egin deutsan, nor aitatu-
ten dauen errepareta, iturri ezin hobea izango dogu ze zale-
tasun, lagun eta hartu-emon euki ebazan jakiteko.

Idazleen artean txorta handitxoak daukagu, euskal idazle-
ak eta kanpokoak, danak kontuan hartuta. Hemengoan
artean Axular, Eusebio M^a Azkue, Resurrección M^a Azkue,
Orixe, Lauaxeta, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai
daukaguz besteak beste. Kanpokoan artean Juan Ramón
Jiménez eta Rosalía de Castro. Idazle ez diranen artean,
ostera, Jose Maria Makua, Jose Mari Arizmendiarieta,
Ama Teresa Kalkutako eta beste asko. Eta gainerakoan,
etxeko, lagun, hurko eta senideak hainbat dagoz aitatuta
olerkietan izenez zein zeharka.

– Bizitzari eta egunerokoari adi begiratzea gai-iturri amaiezi-
na da Erkiagarentzat. Gertaerak, epika kutsukoak, anekdo-
tak olerkien gai bihurtzen ditu, kontakizunak bertotara
ekarrita. Batzuetan doinu narratiboa emonda dagoz, beste
batzuetan beste era bateko gogoeta egiteko atxakia dira, eta
beste batzuetan zirikatzaile bihurtzeko, anekdota edo pasa-
dizuren bat tarteko dala.

Maitasuna gairik emonkorrenetakoa da Erkiagaren poesian.
Maite bertsoak, maiteari egindakoak, andra-gizonen arteko
maitasun hartu-emonak... Gai ugaria da liburu honetako
poemetan.

Maitasunak, ostera, beste adar asko be baditu. Lehenago
aitatu dogu herriari eta euskereari deutesen maitasuna.
Familia edo senideen artekoa be sendoa da, amarena kasu-
rako. Inguruko gauzen artean be edozer da maitatzeko
modukoa: lekuak, paisajeak, ohiturak...

– Amaren maitasuna: ama pertsonaia apartekoa da poetaren-
tzat, haren maitasuna ez da inoiz agortzen, eta seme edo
alabarentzat be inoiz ez dago sobran. Amatasuna gizakiaren
baloreen artean gorengo mailan jarrita ikusiko dogu. Emak-
kunearen irudia sarritan horri lotuta agiri da. Neskalguna,
emaztea, emakunea orokorrean, maite dau, baina neurri
handi baten andra hori ama bihurtuta ikusten dau. Eta
behin ama danean, orduan doinua sublimea egiten da,
samurtasun eta goraipamenez josita.

Ama hitzaren aldean
ipinteko den hitzik ez dugu
gure lurraren ganean.

Ama, amatxu! hitz labur horrek
ernarazten du barrena,
haurtzaroan guk ikasten dugun
mintzakietaz lehena;

Ama, hitzik gozoena, 1951.

Bai. Etxean dukegun zerik ederrena
—amaren ordezkoa—, emazte ona da.
Pitxirik bikainena, dohaiez betea,
poz bihurtzen daki hark, etxeko nekea.

Bizitzako aldapan diran koxka, zoztor,
eskurakoi aldatzen haura aina ez inor.
Etxeko langile ta orobat erregin,
etxea andrerik bage, okerrago ezin.

Egumeroko lanen zuzpertzaille ernea,
saminen aringarri, ondasun-atea.
Ondasun-atea da emazte zuhurra,
urri dana ugalduz sortzen du altxorra.

Oiharzun gozo duen mintzo ugaria:
senarrak badu onu, umeeek ipuia.
Sehaskatxoan maizter berria denean,
haurra norik loerazi amatxok ainean?

Ta haurra eri jartean amatxo non ote?
Ez zazula galdetu; haurrek baitakite.
Bai. Etxeko ondasuna emazte ona da.
Haren pare zintzoa ote da senarra?...

Emazte ona, 1958.

- Itsasoa eta Lekeitio beti dagoz era batera edo bestera, agi-
rian edo irudian, hizkuntzan edo erreferentzietan. Eusebio
Erkiaga ezin da aitu Lekeitio kontuan hartu barik. Inguru-
ko parajeak be aitatzen ditu, edo leku jakinik ez dago agi-
rian, baina kresal usaina dario liburuari orokorrean, gaine-
rako idazlanetan gertatzen dan moduan.
Lekeitioen historia, ohiturak, lekurik ezkutuenak, herriko
kontuak eta kantuak, persona ospetsuak, gertaera historiko

zein barregarriak. Hori dana jasota dauka Eusebio Erkiagak, esan dogun moduan obserbadore on-ona zan-eta. Hango barri zehatz emoten dau, sarritan miniatura moduan, gauza txikiei aparteko zehetasunez errepareta.

Arrantzalearena bai lanbide latza!
Etxetik urten behar, galda izan nahiz hotza;
Kai maitean utzirik gogo ta bihotza.
Kristal antzekoa dan kresal-lezea, hutsa.
Lan-saritzat sarritan deusez... heriotza.

Arrantzalearena, 1950.

Inusente!...
potente!
Kaixki kaixko!...
Buruen erdian
Sartu deutse.

Inusente, potente, 1990.

– Kostaldeko herrikoa izan arren, Erkiaga baserri munduari lotuta dago, eta hori agirian dago poemotan. Nekazaria, baserria, eta horregaz lotuta natura, behin eta barrero aurkituko doguz. Batzuetan ikuspegi idilikoagaz, beste batzuetan lanon nekearen erakusle, baita be euskaltasunaren errotzat. Hona aitamen batzuk erakusgarri:

Ni ere nekazari
izana nozue,
eta aititaren bordan
laba-arto gozoa
jana nago sarritan.

Eder, larran behi-txahalak
Eguzki gozotan,
Areago gizonak
Jarei lau haizetan.

Larran, 1950.

Hirian jaioa naizen arren
Halare min dut mendia,
Barren hontako maizterrak beti
Du harako egarría.

Landa gizon banintz, 1950.

- Poesía honetan guztian erritmoa eta musika agiri-agirian sentitzen dira. Ezaguna da idazlearen musika-zaletasuna eta olerkietako batzuk kantatzekoak dira. Baina ez hori bakarrik, olerkien erritmoak, egiturak, soinuak musika sortzen dabe eta kantuan moduan eroaten gaitue testuetako asko eta askotan.
- Literatura eta poesía bera gaitzat darabilz batzuetan, literatura egin ezeze haren gainean ze eretxi daukan, beretzat zer dan azaltzen dau behin baino gehiagotan. Hona adibide bi, batean neurrian askatasun gehiago eskatuz eta bigarreanean barruko adierazpena eginez:

Zergaitik gure hizkerea
Lot zanaren emaztea bezela
geldi, nagi, aldaezina,
neurri jauntxoaren jopu egina?

Bertso arinez
bete dagiguzan paperak,
hitzak banan zenbatzeke.
Hemen ditut erreskadan
deituriko eredu zaharrak:
hamar ta zortzi,
zazpi ta sei,
sei ta sei
eta abarreko hitz batzarrak.

Olerki-matxinadea, 1952.

Berandu bada ere,
Poesia ezagutu dot.
Ez dau egunik, ez urterik;
ez gorputzik ez neuririk. (...)

Poesia
inoiz ez da zahar,
gazte da betiro;
biloizik edo jantzita
hor dabil etxean
gizartean,
auzoan, kale gorrian
baina askoren inorantzian. (...)

Ez da poesia
esate soila;
arimearen dardarea da,
putz eta haize ikusiezina;
batzuetan hizkeraz agertua,
baina ez beti neurtua.

Poesia ezagutu dot, 1992.

Literatura arloko aitamenak era askotakoak dira. Idazleei eskinitako lanak gogoratu doguz lehenago, Lauaxeta, Orixe, Mitxelena, Lino Akesolo... euskal kulturean erreferentziatzen hartzen doguzan idazleak eta kultur arloko jentea. Baita kanpokoak be: Juan Ramón Jiménez, Rosalía de Castro esate baterako. Antzeko aitamenak testuan txertatuta be bada-goz: "Orati eta Bergili ditut / ene begien aurrean."

- Ia mende osoko ibilbidea egin dauen olerkigilea izanda, garai horretan gizarteak egindako aldaketen barri agertzen da testuetan, aldiari aldiko ohitura aldaketen aurrean idazleak hartzen dauen jarrera erakutsiz. Gizarte-gaiak dira,

garaiaren arabera indar eta eragin handiagokoak, jakina. Esate baterako langabezia eta horrek familian eta jente gaztearengan daukan eragina; gazteentzat umeak eukiteak dakarrezan arazoak; gaisotasun agertu barriak; autoagaz gaurko gizarteak daukan morrontza; telebisinoa etxeetan sartzearen ondorioak; andrazkoak frakak jazten hastea; ibaiaren zikintasuna. Halako aldaketak testuetan behin eta barrero agertzen dira, gai hartuta batzuetan, bide batez beste batzuetan.

Ibaizabal maite, lehen zilartsua!

Zu ere, gizonek, lasai lizundua.

Ibai garbia zana, 1956.

Han amaitu zirean

Hango berbaroak...

Telebisteak gaukaz

Gaur menperatuak.

Txalupetxeak, 1989.

Estres edo expresak

Gaitu danok jango.

Txalupetxeak, 1989.

- Hau lanau irakurten dauenak Erkiaga zirikatzaile eta umore finekoa be aurkituko dau. Gizon umoretsua da, ingurukoiei barre eginazoteko joera eta erreztasun handikoa, eta idatzietan hori igartzen da, ziri-bertsoen antzera eginda-koetan.

Larrabeitiko Mariak

Izan ditu hiru nobio;

Apostu arratsaldean

Hirurak erre zaizkio!

Ezbehar haundia, 1958.

Txikito kosterarik
ez egoanean
egotaldi nasaia
taberna ilunean,
kuartilerdiko pitxar
zuria aurrean,
mahastiko ur baltza
pitxar barrenean.

Txalupetxeak, 1989.

- Azken urteetara hurreratu ahala heriotza gero eta agiriago dago era batera edo bestera:

To be or not to be...
Badakigu hor dogula
Gure zain
Hobi.

Betorz gazteak, 1990.

- Gai zabal-handiak tratatzen ditu, garrantzi handikoak, baina gauza txikien poesia be bada hau. Berak txikiok handi bihurtzen ditu, oster, hain zehatz eta hainbeste balio emonda tratatzen dituan ezker.

Literatur hizkuntza

Lauaxeta gogoan

Erkiaga idazten hasi zanean, bat egin eban euskal literatura-ren historian poesiaren urrezko aroa osatu eben idazleakaz. Lauaxetaren garaikidea izan zan eta bat egin eben *Euzkadi* egunkarian esaterako. Erkiaga Lauaxetaren jarraitzaile agertu izan da beti, eta halan igarten da bere idatzietan be, bai idazteko eran bai hari egindako aitamen eta olerkietan.

Ez da erraza Erkiaga literatur mobimentu edo garai baten kokatzea, ibillbide luzea egin dauen ezkerero. Idazten hasi zanean, literaturaren gaineko eztabaida bizia egon zan, eta bide bat baino gehiago igarten zan. Eztabaidaren muina poesia gatxa eta erreza-ren arteko hautua zan neurri handi baten. Hau da, alde batetik poesia tradizionala, ordura arte gehien ezagutzen zana, bertsolari-tzan oinarritua, erromantizismoaren jarraipentzat hartzeko modukoa eta deskriptiboa. Eta beste aldetik poesia barria, sinbo-listen poesia lirikoa.

Aldi horretakoak dira Lauaxeta ezeze Lizardi, Orixe, Lora-mendi eta orduko aldizkarietan idazten eben beste hainbat bertsolari eta idazle, ez hain ezagun baina bide erakusle izandakoak. Danakaz dauka antzekotasunen bat Erkiagak. Gaietan abertzale-tasuna, euskerea, natura, maitasuna agiri dira batean eta bestean. Poesia egiteko moduan herri literaturatik hasi eta molde barrieta-ra egokitzeko ahaleginerainoko tartean dagoz, ur bietatik edaten dabe eta. Hizkeran, irudi simbolistak erabilteko saioaz gainera, euskeran bertan sartutako barrikuntzak agiri-agirian daukiez bat-zuk eta besteak. Giro horretan kokatu behar dogu gure idazlea.

Erkiaga Lauaxetaz lotuko dogu gehien, haren moduko gaiak darabilz, eta sinboloetara jotzen dau bere olerkietan. Baina haren aldean, deskripzinoetarako joera handiagoa dauka eta herrikoia goa da hainbat ezaugarritan. Gero ikusiko doguzan ezaugarrietako asko dagoz herrikoitasun horri lotuta: estrofa mota batzuk, herri kantuen erara atondutako estrofa, herri kantuen aitamenak, konparaketak, paralelismoak.

Pasarte edo olerki zehatzetan beste idazle batzuen traza hartzen jako, esaterako Eusebio M^a Azkueren ziri-bertsoak gogoratuten dituen unorezko testuak daukaz eta, haren moduan, antzinako idazle klasiko eta mitologia zaharrera jotzen dau. Txomin Agirreren nobeletako giroa agiri-agirian dago Erkiagaren nobeletan ezeze olerkietan be. Hainbat deskribapenetan Bilintx eta Xenpelarren moduan dabilela esan daiteke. Aitatu doguz Lizardi eta Loramendi be, baina Arrese Beitiaeren zantzua be badago testu batzuetan.

Neurria eta errima

Olerkien neurriari errepareta, hainbeste idatziren artean danerik aurkitu dogu, bertso lotuak eta libreak, estrofatan zati-tuak eta errenkada luzeak, atalka banatuak be bai batzuk. Beste horrenbeste esan daiteke errimaz be, batzuetan errima osoa egiten dau, baina beste askotan hoskidetasunean oinarritutako puntuak egiten ditu. Soinuen efektua garrantzi handikoa da gainera, sarritan bertsoaren barruan be jokutzen dau antzeko hotsakaz. Hurrengo estrofan esaterako, *gorputzari-Puri-nabari* hitzak soinu-z lotuta dagoz:

Zure gorputzari, iratzeko Puri,
Oparo, nabari, zerion hurrina;
Nire inungo inun idoro ezina.

Gaztezaroko ele arinak.

Neurrietara itzulita, bertsolaritzako neurrietan egindako poema asko eta asko aurkituko doguz, zortziko nagusi eta txikiak, lauhoak. Neurri klasikoak be baditu, sonetoren bat be tartean dala. Baina egitura barriagoak egiteko ahalegina be badago, bertso txortak libreago lotuta.

Asko jokutzen dau lerroen ertzakaz, hasierak barrurago edo kanporago jarrita, testuari itxura aldetik irudi ezbardina emonaz. Batzuetan olerkien forma aldetik jostaria da, berbak dantzan balegoz moduan eta irudiak eginez jartzen ditu eta. Irudiok, gainera, esanahiagaz lotuta doaz. Adibidez urkatuaren irudia egiten dau "Isilak jan ditu" izeneko poemaren barruan.

Erritmo eta musikaltasunari lotuta datoz bertso-neurri asko. Egitura lotuetan mamina horren martxan doa, baina gura badau beste efektoren bat adierazo ez dauka eragozpenik neurri lotu hori hautsi eta indar berezia emoteko, edo nahi dan eran molde bat aldatzeko. Esaterako, estrofa bati lerro baten berez ez jagokon neurria emotea.

Hona adibide batzuk.

Zortziko nagusia

Gabiloi-kumak atrapatea
sasoi baten dirua zan,
arrantzaleak habiaren bat
susmatu Argatxeko pekan;
gabiloi-arra eta amea
zuloan sartu-urtenetan,
ahokadaka karriotan ta
kumak be hantxe zirean.
Argatxeko pekan gabiloi-habian, 1989.

Zortziko txikia

Goi ta behe, zeru ta lur
zure mende dagoz,
gure bihotz, esku ta
oinak ere begoz.
Bai gauez bai egunez
zabala dan hegoz
babes gaitzazu, Ama,
babestu betikoz.
Garra bezin garbi, 1958.

Trikiti-koplen antzera

Haizeari hots haundiz
diot nik galdetu
nire maite laztana
nun ote dan galdu.
Nun ote dan galdu,
nun ote dan sartu,
haizeari hots haundiz
diot nik galdetu.
Haizetako kantu arinak, 1957.

Eredu libreen adibideak

Maitatzen bizi nahi dut,
maitatzen.

Ez gara abere,
ezta zuhaitz ere;
badugu bihotza,
badugu adimen;
maitatzen
bizi nahi dut,
maitatzen.

Maitatzen, 1970.

Ama, ama, amama
a, a, a, lolo
a!
Ixil, ixil
dator samina.
—Nun da nire haurra?
Nun da, nun?

Nireak nora dira?
Gaua, ixilik, ilun;
ez eguzki,
ez ilargi.
A!

Abere pizti pizti
haur galtzaileak!
Ene seme,
ene seme,
ene seme,
ene seme!

Basoetan
elurra,
nun da
lurra?

Ezpatadantza, 1972.

Erritmoa

Esan dogu musikaltasunak indar handia daukala Erkiagaren poemetan, eta horri lotuko deusagu erritmoak daukan garrantzia. Bertso-lerro luze-laburrak tartekatzeaz gainera, nahinotz txertatzen ditu puntuak, geldiduneak, galdera edo harridurak, edo berez tokatzen ez dan neurriko lerroa. Erritmo jarraia edo hautsia, arina edo geldoa, astuna edo arina, gaiaren arabera aukeratu tuko dau, baina argi dago garrantzitsua dala.

Arroxa zurbilak esan du goizkanta
ene bizitzako aldi-orrinoan;
zakur baten zaunga
trokaz troka doa. Bildurrezko joan!

Dardar egiten du ene haragiak
inguruko zerbait atzi ezin baitu;
oinaze zoliak
nekezko lokarriz horra dana lotu.

Zer? Nor? Zergatikan irakin gaziok
itsaso-haria nahi didate urratu?
Ez jakin, biziok,
urre-goiz bat nola ditekean gautu...!

Nork daki zergaitik?, 1957.

Olerki honetan, kasurako, estrofa guztietan lerro bat laburra goa da, zeozelan estrofeak daroan abiada eten egiten dau. Baina

horrezaz gainera, lerro barruko puntuazino-markak, geldiuneak, galderak eta harridurak direla-ta, irakurlea saltoka moduan doa, testuaren indarraz jaubetzeko.

Antzeko eragina dauka zangalatrauak, hau da, lerroa amaitu eta gero be esaldiak jarraitzen dauenean:

Orduan ez neutsun nik negarrik egin.
Ez baitzindudazan, ez ondo ta ez gain,
ezautzen; baikeunden hain hurre ta hain urrin;
geroztik, hamaika bidar nik hozkamin
zure idazlanetan gozaro, atsegin.

Karmelo Etxegarai, 1950.

Zu barik zelan biziko
naizen ez dakidan arren,
lehenbiziko zinan hori
utzirik, betor bigarren.

Ondo dakizu zergatik, 1958.

Herri literaturako moldeak

Neurrietan ezeze, bertsoak egiteko orduan, hau da, edukina bera edo mezua antolatzeke orduan be, hainbat bider joten dau herri literaturako moldeetara. Hona adibide erakusgarri batzuk.

Bertso barri batzuek
deustazuz eskatu,
zeure ordu mingotsak,
daidazan gozatu;
barruan egon behar,
ezin kanporatu,
hormartean gu, gatzak
gaitu inguratu.

Ohetik ohera, bigarrenenez, 1957.

Adibide horretan bertsolarien moldean dabil, eta hurrengoan koplak zaharren erara. Koplak zaharretan ohikoa da naturagaz zerkusia daukan irudi bat emotea lehenengo erdian, eta beste erdian gaiari heltzea, bien artean lotura agirikorik egon barik. Halango estiloko estrofak aurkituko doguz Erkiagaren olerkietan be.

Uraren doinuak ez du atsedunik
Bolu zaharrea tinkili tankala;
Ni ere ibilia naiz zure atzetik
Kalean behera ta kalean gora.
Zutik, 1957.

Txorta honetakoa da lehen trikiti-koplen erdua erakusteko aitatu doguna be.

Herri literatureagazko loturea

Herrikoitasuna danean igarten da, halako usaina darie testu guztiei. Orain arte esandakoez gainera, hainbat bider aitatzten ditu kantu ezagunak, jentek edozein aukera daukanean kantatzen dituanak:

Pitxarreko astiz
edan bitartean
batzuk kanta kantari
geratzen zirean;
"markesaren alaba"
kantuen artean,
bihotzak samur-samur
ilunabarrean.

"Amoriua zeukan
barrena sartua"
holan amaituten zan

bigarren bertsua.
Markes baten alaba
txit maitemindua,
arrantzale bategaz
zorabiatua.

Txalupetxeak, 1989.

Berriz berriro gure auzoan
Pello Joxepe ugari...
Antzinan ere baziran eta
Ezta, ordea, mirari.

Giltz berriak, 1957.

Mitologiaren aitamenak dira beste halango ezaugarri bat:

Ai, erreka-ertzean
Galdu artzaina...
-hunen liluratzaille lamina-.

Ilargitan, 1953.

Atsotitz zaharren kutsua darien hainbat aforismo sartzen ditu:

Oinezkorik gura ez ta
Zaldizkorik agertu ez.
Mao gorri, 1951.

Ohiturak be tartean dira:

“Inusente! ...
potente! ...
Kaixko kaixko! ...
buruen erdian
sartu deutse. ...”
Inusente... potente, 1990.

Kostako herrietako beste ohitura bat be nahiko sarri igarten jako, gatz-izenak erabiltearena. Behin baino gehiagotan azalera-tuten ditu holangoak.

Beste ezaugarri formal batzuetan be ikusiko dogu herri litera-turaren eragina, geroago aitatu ahala, errepikapenetan adibidez.

Soinuan oinarritutako irudiak

Liburuotako olerkietan indar eta garrantzi handia hartzen dabe soinuak eta orohar zentzunakaz zerikusia daukien irudiak.

Hots-hitzak esaterako, oso adierazgarriak dira, zerbaiten ize-na esan barik zer dan erakusteko bidea dira sarritan.

Turut-soinuz ohi du
deia adierazi.

Zaramazaleak, 1951.

Kanpai astunak dorrean
dulun ta dulun hitsean.

Azkueren heriotza, 1951.

Pirritxio biribila.

Txibiritak agertzean, 1951.

Uraren doinuak ez du atsedetik
bolu zaharraren tinkili tankala

Zutik, 1957.

Aliterazinoak guztiz garrantzitsuak dira poemen musikaltasu-na indartzeko. Hurrengo adibidean, binaka bertso hasierako soi-nuak antzekoak jarri ditu:

Eguneroko saila
Eginez geroztik
Etxe zokoak apain,
Eltvoak ihesi.

Zaramazalea, 1951.

Azal legorpean
ezo hezez zorne berri;

Halaxen ari zaizkit
ezki ta arkazi;
halaxen ikusi nik
Mirentxu ta Iñaki.

Elkarren leihan, 1958.

Adibide horretan soinu txistukari asko dagoz alkarren ondoan.

Haizearen xilibitu
zakarra lazkiro da ari,
lauorri jartzeko gisan.
Maite maitena, 1964.

Soinuen bidez adierazo nahi ditu azaltzen dituan kontzeptuen irudiak: lehenengo lerroan s/x/i soinuen bitartez haizea adierazo; z/k/rr/k/i/r/i bigarren lerroan eta rr/r/k hirugarrenean, txistukari eta konsonante gogorrek haize indartsua adierazoteko.

Zentzumenakaz jokatu

Aldareak lorez,
kanpaiak dilindan;
grazi-iturritik ur
gardena xirripan.
Azalkeri?, 1958.

Poza adierazoteko loren kolore-usaina, kanpaien hots alaiak, ur gardena, uraren xirrista, hau da, zentzun guztietara jotzen dau garbitasuna adierazoteko.

Loreari buruz honetara azaltzen dau:

Kulunkatzaile
haizea,
eguzkia du
maitea.

Guraiza zorrotzak, 1958.

Deskribapenak

Deskribapenak leku handia hartzen dabe Erkiagaren olerkietan, dala personena, lekuena, paisajeena edo sentimientuena. Personen deskribapena egiten dauenean askotan gogoratzen dau Bilintxen estiloa, gorputz-atal eta ezaugarriak banan-banan zerrendatzean:

Uleak zuri baltzak,
Arpegia tximur,
Begiondoan eta
Kokotean izur,
Mintzokera nagia,
Hitzak isil, labur,
Nekezale ez dirudi
Eta bai jaun gailur.

Arrantzale zaharra, 1950.

Deskribapenekin lotuta dago adjetiboak erabiltzeko modua, asko eta ondo aukeratuta, beti adierazgarriena eta egokiena zein dan asmauta, lirikotasuna handitzeko be balio dabela.

Xistu egin dit udalena,
xistu zehe, eme, guri.

Zure ezpainak iduri, 1956.

Burruka-susmur, gudu-hitz...
giza-zailetan odol, bits.

Atzo bezelaxe, 1958.

Aurreko adibide horretan ikusten denez, berbak eurak ezeze, konposatuak be egiten ditu, berba-pareak lotzen ditu, berez hiztegian daukan aberastasuna handituz holan. Horren bitartez, sinonimoak, kontrakoak eta antzekoak gehitu egiten ditu askorik errepikatu barik. Testua freskoa da, ez dago monotoniarik, ideak errepikatu arren, forma ezbardinaz adierazota dagozanez, beti sartzen da matiz edo zehetasun barriren bat, soinuekaz egiten dituan jokoez gainera.

Berben balioa

Erkiagarentzat euskereak sekretu gitxi dauka, ondo be ondo ezagutu eta erabilten dau. Hango zein hemengo euskerea izan, berak leku egokia egingo deutso, berba bakotxari jagokon esangura, zehetasun eta kontestualizazioa itu-ituan asmauta. Erregistro aberastasun ikaragarria dauka eta konnotazio edo aparteko erabileraren bat bada be, dana kontuan hartuta erabilten dau. Ahaztu barik, gainera, bera autodidakta dala eta ez eukala eskura gaur egun hiztegieta daukagun iturria. Erkiagaren kasuan hiztegiak beretzat iturri izan barik, bera da hiztegitentzat iturri agortezina. Ikusi baino ez dago Retanaren *Diccionario de Autoridades del Euskera* dalakoan zenbat eta zenbat adibide diran Erkiagarenak. Ordura arte beste inon jasota ez egoana hor aurkituko dogu, eta adibidea sarri-sarri Erkiagaren idatzietatik aterata. Baekian Aita Lino Akesolok gure idazlearen zehaztasunaren barri, hiztegi horretan lanean ibili zanean.

Euskal Herri osoko euskera-moduak, eredu zahar eta barrietako ezaugarriak, danerik darabil Erkiagak. Bizkaieradun idazlerik eredugarrienetakoa izanda, euskera-molde guztiak batzen ahaleginik handienetakoa egindakoa be bada.

Horrezaz gainera, hizkuntzagaz olgetaria da, berba-jokoak egin, soinuen antzekotasunaz zentzunak gozatu, adierazkortasunari bidea emon, horrek guztiak bere lekua dauka gure idazlearen olerkietan. Lekeitioko berbetea ondo sendo errotuta dauka eta behin be ez deutso uko egiten. Baina beste joera eta euskalki guztiak be ondo be ondo ezagutzen ditu, eta ez ezagutu bakarrik, baita erabili be.

Aurkientzak han nituen, aspaldiko muino, ibar;
basobide bazterretan sasi, ota, isats ta inar,

Hilobi izengabea, 1962.

Hona berba-jokoen adibide bat, Luis Mitxelenari egindako poeman:

Hegadarik luzeena
eginbarri dozu, ene Mitxelena.

Agur, Koldo, 1987.

Konparaketak

Literatur hizkuntzan ohikoak diran beste baliabide batzuk hemen be aurkituko doguz. Konparaketa da horreetariko bat, eta Erkiagak asko egiten ditu:

Eltxo moltzoak *antzo* dijoaz

Udaran gizasemeak

Uritik iges baso aldera

Gizon, andra ta umeak

Landa gizon banintz, 1950.

Halangoetan konparagaiak argiak dira, eta lotura hitzak konparazinoetako ohikoak: *antzo*, *moduan*, *antzera*, *-ago*...

Izadia eder da, Jauna ederrago.

Adibide horren moduko konparaketak ohikoak eta bereizgarriak dira ahozko baladetan. Harako "Frantzie kortekoa"ren "abadea urrin dago, eleiza urrinago" haren oihartzuna barruntzen deusagu honi. Baita hurrengo honi be:

Gaztelu honen medarra!

Medarrago du leilhoa.

Maite maitena, 1964.

Errepikapenak

Errepikapenak era askotara egiten ditu. Erabileretako bat da estrofa bat amaitzeko darabilen esaldi bera hurrengo hasteko erabiltea:

Ai, neskato ameslari,
Hemezortzi udaberri,
Maite bat urrun joan zaizu ta
Bertze duzu ingurari.

Bertze duzu ingurari
-bihotza ohointzen ari-
dudaz zer egin ez dakizua?
Egin bihotza erdibi!

Maitale bi, 1951.

Halaz ere, nerekin
daramat iduri:
ezpain horien gozoa
begi horiek irri.

Begi horien irri ta
bihotz baten giltza;
betikoz emaniko
maitetasun-hitza.

Ezta gaur ere, 1958.

Bigarren adibide honetan bertsoa errepikatzen danean 'ta' gehitu deuto. Holangoak asko eta asko dagoz, ahozko literatura-ko hainbat generotan erabilten dan modu berean hona ekarrita.

Zeruko Jainko maitea
sarien banatzailea,
alderen alde idekiozu *zorioneko atea*.
zorioneko atea,
hautsierik bizi-katea,
Betiereko arnasaz duke animak hango bakea.
Azkueren heriotzan, 1951.

Olerki horretan bertan beste errepikapen mota bat dago, poema hasi eta amaitu egiten baita estrofa beragaz:

Jondone Martin bezpera,
bozkarioa alper da:
seme handi bat galdu eta Euskal Herria minez da.

Beste errepikapen mota bat da 'eta' gehituta egiten dana:

Zal egon gaitezala; zal, oinen ganean
oinen ganean eta umore onean!
Ohetik ohera, 1957.

Testu horregaz hasi eta amaitzen da poema, biribila sortuz.

Metaforak

Metaforak be euren lekua daukie, hori bai, errez ulertzekoak dira:

Tantta gaziak masailetan (negar anpuluak)
Miñondoko itxaro, 1952.

Buruaren apaingarri beltza
Zilar garbi bilakatzean (heldutasuna, zahartzaroa)
Bake-soinu, 1953.

Amorruaren sutaian
Burniak galda gorian
Atzo bezalaxe, 1958.

Poesia zuzena

Erkiagaren olerkietan ez dago zeharkako esanahirik, irudiak erabilten ditu, baina ez da ezer ostonduten, anbiguedaderik edo ezkutuko esanahirik ez dago. Normalean erraz ulertu eta interpretatzeko poesiak dira.

Irudiak apaingarriak dira, baina ez dabe interpretazinarako aukerarik zabalik ixten. Joskera aldetik nahiko osoa da, nekez jaten ditu aditz edo lotura-ezaugarriak, horregaitik, adierazkorrena izanda be, gozatsua egiten da, ez da trinko-ulertezina, nasai-arina baino, zirrikituetatik ibili barik.

Agurrerako

Orain arte esandakoak Erkiagaren olerkigintzaren ezaugarri nagusiak azaleratu eta nabarmentzen ahalegindu gara. Jakina da lantxo honetan ez dagoala jasota idazlan-corporis zabal honek emoten dauen guztia. Horretarako azterketa sakonagoak beharko dira, baita tesiak be. Lan honen helburua testuak danak batera aurkeztea da, langaia bera atondutea, gerora azterketa horreek egin ahal izateko.

Idazlan asko dira, era askotakoak, aldi edo garai oso ezbardinetan egindakoak, horregaitik aldian aldiko giroagaz lotuta aztertu beharko leitekez, osotasunean homogeneidatea emotea gatxa da-ta.

Zeozer azpimarratzekotan, hizkuntzaren erabilera zehatz-gozatsua gogoratuko neuke. Idazleak berbakaz olgau egiten dau,

baina beti emoten deutse lotura egokia, berez-berez irakurten joan ahal izateko.

Gai narratiboak, lirikoak, umorezkoak, etnografikoak, era guztietakoak aurkituko doguz. Bakotxean deskribapen zehatz-ugariak, aitamena jakingarriak, lerrokada ondo josiak, alkarrizketak nagusituko dira, edukinaren arabera.

Danetan dauka aparteko garrantzia erritmoak, musikaltasunak, soinuakaz egindako jokoak, errimaren oihartzunak. Zentzun guztiak bizi-bizi dagoz testuetan, sentsazioen poesia dala esan daiteke.

Era berean, eguneroko bizitzako gaiak darabilz, eta inguruari emoten deutso lekurik handiena. Obserbadore handia da, sensibilitate handikoa, hurrean daukanari zehatz erreporetan deusana. Sarritan ondoan daukagunari, edo egunero ikusten dogunari ez deusagu garrantzirik emoten, eta hori poesiagai bihurtzen jakin dau Erkiagak, hor dago bere ekarririk handienetakoa segurutik.

Edizinoa

Liburu biotako olerkiak aurkezteko modua erabagiteko, erispide nagusia ordena kronologikoari jarraitzea izan da. Irakurleak urtez urte sailkatuta aurkituko ditu testuak. Baina, horrezaz gainera, beste banaketa bat egin dogu, poema luzeak danak batera atzean, amaieran jarri.

Eusebio eta biok testuak batzen eta ordenetako modua aztertzen ibili ginanean, zalantzan egon ginan poema luzeok holango bilduma baten sartzekoak diran edo ez, baina azkenean baiezkoren alde egin genduan, osterantzean inoiz argitaratu barik geratuko zirala-ta. Horregaitik, nahiz ta beste poemakaz batera ipini, liburuaren erritmoa apurtuko ebelakoan, aparte ipinteari hobeto eretxi geuntsan, eta danak batera datoz azkenengo partean, beti be ordena kronologikoan.

Testua aurkezteko modua izan da erabagi beharreko beste puntu bat, hau da, idazkera. Garai batetik bestera idazleak joera

bat baino gehiago jarraitu izan dau, euskera idatzia finkatzeko egin diran proposamenak gogoan hartuta. Horrezaz gainera, euskalki guztiak erabili ditu, eta horrek be eragina dauka idazkeran, batez be Iparraldeko kh, ph, eta antzeko soinuen idazkeran.

Azkenean danak gaurko grafiara ekarri doguz. Jakinik Erkiagaren ibilbidea euskeraren normalizazioan egin dan bidearen erakusle dala, ha ta guzti be idazlea gaurkotuta aurkeztu gura izan dogu, liburuok irakurriko dituan haren poesia ezagutu eta gozatzer a doalakoan, eta ez azterketa filologikoa egitera. Gainera, bera ezagutu genduanok badakigu egunean egoteko zalea zana eta, barrikuntzak barrikuntza, bideak urratu ahala bereganatu egiten zituana. Labayru Ikastegiak argitaratutako liburuetan inoiz ez eban eragozpenik jarri aholkatutako oharrak onartzeko, testuaren onerako izango ziralakoan. Hori be kontuan hartu dogu testuei eskua sartzerakoan, berak pozik onartuko ebala jakitea.

Testu batzuk egilearen oharrak daukiez, era askotakoak: sari- ketaren batera aurkeztu ebala, aitatzen dan lekuren baten gaineko argibideak, musika nork ipini eutsan eta abar. Ohar guztiok testuaren beraren azpian ipini doguz, ahalik eta ondoen aurkitzeko.

Bardin jokatu dogu olerkiren bat argitaratuta dagoanean haren argitalpenaren barri emoteko, oin-oharretan sartu doguz argitalpenen datuak.

Eta azkenik, gure oharrak be sartu doguz, gehien-gehien hiztegiari jagokozanak. Esan dogu lehenago be hiztegian guztiz abersa dala, horregaitik ikusi dogu berba asko eta askotan argibideak emon beharra. Halangoak oin-oharretan sartu dira, danak ez bada be gure eretxiz ezezagunenak diranak, irakurleari irakurketa errazteko gogoan.

Igone Etxebarria

Goizean eta arratsean

Eskubete neurtitz



1931

MENDI GOI-GOIAN

Mendi tontortxu zorrotz batean
nago begira:
agiri dira
alde batetik itsas zabala
eta bestetik, barriz, lehorra.
Ortze zabala eguzki izpiz
urdina dago,
eta beherago
haize garbia mendi goietan
ta ur gardena iturrietan.

Txoriak jarei hegan dabiltzaz
txori politak,
abeslariak.

Tontorreatan ni bakartadean.
Edertasuna,
askatasuna
mendi-goietan hementxe dago,
eta ixilik oldozkor nago.
Neu... bakarrik?
Ez, bakarrik ez;
beste bat zinez
dot albokoa, ha bai laguna,
benetakoa: Aloroduna.

I

Itsas-uhinak urrunaraka,
ontziak uretan zehar,
ta uhinak baxaz aurkitutean
bits zuriak egin behar.

Itsaso zabal orlegi urdina
horra orain bare-bare,
han urrunean zeruak eta
urak alkar laztan dabe.

Itsas barrurantz mendiak doaz,
hango olatuak lurrerantz,
itsasontziak arraina harturik
pozarren datoz kaierantz.

II

Eusko mendiak sendo jatorrak
dakusguz ernai zutunik,
goialdeetan laino melgeraz
ortziagaz bat eginik.

Mendi-goietan ermitatxua
ixil eta bakartia,
sarritan hantxe geratuko da
joan doan bidaztia.

Landa ta larrak, baso-oihanak,
sagasti eta zelaiak,
muino ta mendi, ibar-haranak
iturri eta ibaiak.

Artzain txabolak artegiakaz,
basetxe zuri-garbiak,
burdibideak, bidezidorrak,
antzinetako harriak.

Baserritarra bere lanean
basoan edo soloan,
etxean ama, ume kutuna
lolo daukala altzoan.

.. ..

Gautu orduko ihes eginez
eguzkiaren agurra,
jatsi naitean badot aukeran
oindino argi apurra.

AITTAREN BASETXEA

Bideak zehar basorantz doa kirin-kirrinka burdia,
hegan ez dabil, kikilik dago udazkeneko eulia.
Gabonileko aldi gagoz: gabonileko eguna
argidiria izan daneko datorkigu gau iluna.

Aita-semeak basorantz doaz behi-buztarridun burdiaz
basetxe ondora ekarteko beterik azpigarriaz.
Seme-alaba txiki sendoak joan zirean eskolara,
aitita zaharra ohetik jagi ta berehala sutondora.
Ezkaratzean sehaskatxuan datza negarrez umea,
bere zaintzaile arduratsua amatxu bizkor ernea.

Basetxea sendo ta zaharra da, harrokeririk bakoa,
gure ibar eta mendietan direanen antzekoa.
Basetxe aurrez labagelea, urruntxuago osina,
atar-tean dau burdilekua, etxaburuan patina.
Basobidean dau iturria bere izenez *Urgozua*,
hango uragaz beterik beti gure edarra piloa.

Etxe ondoan ibiltzen ziran oraintsurarte oiloak,
hara ta hona gelditu barik arakaturik soloak.
Etxetik dakust orain basoan eurena daben tokia,
zur ta zohiakaz eginak ormak, teilatutxua gorria.

Beheko erreka ondoan dago arditxabola lehen zana,
gaur ardiz barik orbel ta iraz beterik egoten dana.
Intxaurrondoak, mahasti txikerra, kerixa eta ikoak,
basalorak eta sagastiak, madariondo sendoak.

Landa ta mota, larra ta baso basetxearen bazterra,
bekazaleak arduraz zaintzen dakian bere altxorra.

1932

EDUR ZURI

Edur-mataza zuriak datorz mara-mara,
ixil-ixilik, bigunki jaisten dira,
izara barri zuri luzeak dagiezala.
Zelako jantzi apaina dan, begira!

Mendiak edurrez zuri dagozanean
negua dala dirausku izadiak,
buruko uleak zuri dagozanean
zahartzaroa agertzen bizitzaldiak.

Oi, zahartzaro latza, eta bildurgarria,
zein ituna dan zure irudia,
zein hotza dan negu edurtia;
ez da ikusgarri horreen arpegia.

Leiho barrutik begiratu eta
begientzat zaiataz liluragarri,
ta su-ondoan, zeure garbitasuna
ikustearren, su-ondoan naz jarri.

Edur zuri, edur zuri
begien liluragarri;
baina zuri hori hotza da, hotza,
ta hori niretzat
txit bildurgarri.

URTARO KUTUNA

Orril loratsua
hilik pozkorrena,
lili usaintsua
irriz dagoana,
izadia piztu,
gauza oro esna,
gogoalaituaz
pozetan barrena.

Etorri jaku bai
hegaz udabarri,
maitasuna, gentza,
ondasun ugari;
txoriak hor dabiltz
txioka urduri,
eta edonor da
eguzki egarri.

Haurtxuen irripar
ezti gozatsua,
neska-mutikoen
urre loratsua,
guraso maiteen
besarka estua,
aitita-amamen
berba eratsua.

Izadi berbiztu
liluragarria,
gazte bihotzetan
zirikalaria,
maite berbak sortzen
jauntxu nagusia,
olerkariaren
ames iturria.

GAU-ERESIA

Joskatetan dabil ilargi zuria
hodeien artean,
noizik behin agertzen da haren irudia
itsas-ur ganean.
Itsas-urrunarak datoz naro-naro
belarrietara,
joaleen hotsak haizearen hego
ganetan dardara.

Gabontza hegan argiontzi inguruan,
orioa guraina;
hortxe ez ete dabil aztikerietan
Loibeko sorgina?
Haizearen murmur biguna, emeki,
zirrikitu bila,
bakea ta atsedena eskeintzen
gauaren ixila.

Izarrak kurika dabiltzan artean
gaueko bakean
nahikunde zindo bat biziro sortu jat
ene bihotzean.

1933

AITONA ZAHARRA

Ortzia urdin dago,
urdin itsasoa,
baketsu eta bare
izadi osoa.

Aitita eleizara
geldiro hor doa,
laguntzat makilea
eskuan daroa.

Baztertxu kutuna dau
bere zokondoa,
bakeak igurtzia
inguru osoa,
errezateko leku
egunerokoa,
hantxe ikusi ohi dot
gizon zahar osoa.

Eleizea isil dago,
altarea argiz,
leiho margotsuetan
eguzkiak dirdiz;
notin bakanak ahuspez
otoika lehi biziz,
aitonaren bazterra
urri, argi-izpiz.

Zokondo kutunean
belaun biak behera,
banku ganean utzi
dau bere txapela;
makilea zut, makur

burua lurrera,
uleak zuri eta
bihotza minbera.

Errezuan gogotsu
ta arduraz aitona
sarri entzuten jako
Jesus izen ona,
erruki-eskale da
hobenez egona,
baina garbai¹ dalako
badau itxarona.

Begiak makal ditu,
entzumena gortu,
bizitzearen sena
orain dau mamurtu,
inoiz hoben bidean
dongaki hats hartu,
baina nork gaurko damu-
malkoak legortu?

Eleizatik aitona
azkenen atera,
garbai-malkoen ordez
bakea barnera,
behazun orde eztia
haren bihotzera,
ilun-truke argia
haren gogo onera.

.. ..

Baina aspaldion ez dot
ikusi eleizan,
gizarajo haundia
hil ei zan, hil ei zan.

¹ Garbai: damu.

TXINTAK

Txori-txinta¹ hotsera
goitzu naz esnatu,
aspaldiz atsegina
nahi neban bilatu;
jo dot hara ta hona,
zetzuna estutu,
halan eta guztiz be
haxe ezin aurkitu.

Urikaleak zehar
sarri ibilia naz,
mendi maldetan gora
maiz neketsu arnas;
atseginen kolkora
pozez daiket hegaz...
ez dot zoztor egingo
inoiz atseginaz?

Hona gaur goiz-goizetik
barrua kantari,
etxe leihoan zehar
eguzkia alaiki,
ta begira hasi naz
sabai urdinari,
begi handi lotu naz
argia ikusirik.

Lilitegietarantz
mitxeletak doaz,
izadia itzartu da,
ez da lagun loaz;
ta atseginerantz
ni be, uste osoaz,
liluratua loren
lurrinkai gozoaz.

¹ Txori-txinta: txoriaren kantua.

Udaleneko izadi
erditze bikaina,
hi ete haz atsegin
ituri apaina?
Heu, alaitasunaren
adiskide egina?
Arren kendu egistak
barreneko mina.

Gaurgeroz uxatuko
ditut ames baltzak,
ta betiko aldendu
oinaze arantzak;
udabarri irudia
maitale bihotzak,
txastau lora gozoak
eta utzi mingotsak.

Bertan behera itxi daigun
lehengo aldi iluna,
maite daigun gau orde
pozkor dan eguna,
mustau² daigun bizitza
ta maitasun-guna,
maite abestia ta
atsegin leguna.

.. ..

Txintan entzun nituan
udabarri goizez,
bihotza alaitu jatan,
lehen neban ilunez.
Eguzkik ni berpiztu
bere mosu leunez,
ni bila nenbilena
aurkitu dot, ustez.

² Mustatu: dastatu.

Ames bide lausoak
nahi ditut ezautu,
arantza artetik landa
gustora hegatu,
min-txinta negartiak
zeharo akitu,
eder dan gauza oro
leratsu maitatu.

Agur, egun goibeltsu,
aro ta aldi ilunak,
agur, neke sortzaile,
arantza ta asunak,
agur, gogo itunbera
ta bihotz arrontak;
barrura sartu jataz
udabarri-txintak.

Txori pio alaiak
eta atsegin-brintzak
urratuko ditue
itunkeri-mintzak;
amaitu dira, zinez,
gaurdaino zalantzak.
Argi-maitale egin naz,
kutun ditut goi-intzak.

ATABAL-JOTZAILEA

Uritxu baten bazan
atabal-jotzailea,
guztiz esaeratsu,
barriketa zalea.

Gaztetatik hasi zan
atabala joten,
ta udal ta saltzaileen
deiak zabalduten.

Arlo horretan jakozan
urteak igazi
ta aldipean uleak
zuritutuen hasi.

Pregoiak buruz, edo
irakurri ahala
zertzen ebazan gazte
eta argia zala.

Zahartzaroan begiak
lausotu jakozan,
betaurreko preminaz
halan aurkitu zan.

Egun baten bandoen
paperak harturik
kalera arin-arin
pregoia jo nahirik.

Jo eban atabala
tarranpantan-pantan...
ta betaurreko bila
esturaz hasi zan.

Oharturik etxean
itxi ebazala,
hasi zan didar eiten
esanik honela:

“Atabalak tanpantan,
jotzailea ixilik...
ezin irakurri nei
betaurreko barik”.

.. ..

Herriska baten bazan
atabal jotzailea,
haren leptik sarri
izan ohi zan barrea.

ABENDA-IRRINTZIA¹

Euskadi,
neure Aberri laztan,
leze amil behera hoan
 ene herri,
 gel adi:
bizitzea don pozkarri
 ta hi ere
bizitza-egarri.

Urre margoa dabe soloak,
garia heldu da eta,
ta artzaina mendi goietan dabil,
aldegina da negua.
Izadia itzartu zan lozorrotik
ta udako jantzi apaina
dau soinean; gure artean dogu
jolasketa aro bikaina.

 Abenda-gogo
 garbi alaia,
 udan poz-atsegindu
 ohi dana
—amesa dirudi
 baina ez da—
 negarrez dago
 zotin bizika.

Mendi-tontorretan eta muino
maldetan ermitatxuak,
horreetan bakotxaren garaietan
ugari jolas-zantzoak.
Atzo haretan, hemengoan gaur,
hurrengo baten beste han...

¹ Getxon Euskal Egunez, 1933-VIII-27, Olerti-gudian bigarren saria.

Eusko abendar neska-mutilak
ez dabe bardinik dantzan.

Corputza
oraindio sendo samar
eta bizkorra,
Hau lotsa...
bihotza
galdu edo egin don,
Euskadi, hi ez haz lehena.

Gaixoa!

Eguzkik urrezko euri jasa,
ira berdea basoan,
lilura hutsezko ames luzea
neska sorginak buruan.
Udazaleak uritxueta
ta hondartzetan ugari,
arrotz hizkuntza lar entzuten da.
Beroa dogu nagusi.

Ortzia urdin,
jaieguneko,
ta halantxe itsasoa.
Ontzia,
txoria
antzo, itsaso erdian.

Katepean
euskoen Herria.

Eleiz-torreko kampaiak hoska,
jaiegunaren ikurra,
gerotxuago plazan agiri
dantzari soinu ta agurra;
txistu-tanbolin zirikariak
bihotzei triska eragin,
zaharrak barreka, gazteak pozez,
dantzarien oinak arin.

Zer? Usteldu edo,
bihotza,

euskaldunen Herri?

Erantzun:
arrotzak jopu
bihurtu
ta jopu azala
zelan jolastu?

Eusko abenda: ezin orain hemen
uda benetakorik,
aberri-arerioen jopuak
gogoa dauka galdurik;
soina bizkorra baina
bihotza usteldurik,
morroi izanik, zelan
dantzan? Ez da lehengo odolik.

Asaben abenda:
itzartu adi,
ta gogoa askaturik
lotsarik
izate ezkerro
buztarria kendu
euskoen bizkarretik.

.. ..

Ta aldi zoriontsu hori
heltzen ez dan bitartean
irrintzi
sendo zoli, ozena
jaurtigi:
Euskadi,
lehena izan hadi,
euskoen Aberri.

UDAKO HODEIA

Udako hodeia, zuriz jantzia
eta oztina hegala,
egurats-zehar hegaka doa
arin, gotzon bat bezala.

Lur legortuak so egin itun
—halatsu maite ezetsiak—
ta begiakaz, hitzez ezinik,
dagitsoz bere eskariak.

Erantzunik ez. Ai, hodeiaren
bihotza altzarena izaki,
ta olde bage, haize-morroi lez,
lurrari joiako igesi.

Ortzi aldean agertutako
udatar hodei zuria,
lilura-amesez bete ondoren
lurra hase bage igesia.

Udako hodeia, bihotz bagea,
eskerren ukalaria...
zeu bezelaxe iges joan zan
nire maitasun guria.

BALTXERANA

Oi, horreek begi baltzok,
ene baltxerana,
tinka-egiten deuste
tinka zeuregana.

Sugearen begiak
txoriari antzo
nire ikusmen oro
jarten deuste lauso.

Hagin zuriak dozuz,
gorriak ezpanak,
ta oinak bai politik
polit eta arinak.

Eta irripar kirkira
leunagorik ete?
Zoragarri zarala
danak uste dabe.

Lora-orri orleia
papparrean txairo
daroiazu; bai, maite,
an betiro.

Orlegi dan margoak
bai damost kemena,
margo horrek ikurtzen dau
ene itxaropena.

Poztu nire bihotz hau
ta bai besteenak;
osatu, maitasunez,
zauri minkorrenak.

Argitu niri bizitz
biderik onena;
ez ahaztu inoiz ene hitzok,
begi baltxerana.

EZ DIRA ETORRI

*Izaro ta Osasuna ontzien
ezbehar gordinaren gomutaz*

Joan zirean bai arrantzuan
itsas barrurantz ontziak,
kai-urtekeran lurrun-indarrez
jorik txistu-hots zoliak.

Joan joiazan itsasontziak
ur-azal ganez dotore,
uhin bizkorrak ontzi arinei
emoten eutsen amore.

Eskuma aldetik lerden Izaro,
arrantzaleen gidari,
ta asago hurbil ez da lehorrik,
bizidunak oro igeri.

Arrantzaleak joan zirean
beti lez, itsas-aldera...
begira nago aldi luzean
noiz datozenetz kaiera.

Zeruko Ama! Ontziok, arren,
eiguzuz kaira igorri.
Itsasora bai joan zirean,
baina ez dira etorri.

(1933-8-27)

MENDI ZORAGARRI

“Maite ditut gailurrak...”

Oi, mendiko ikuskaia,
beti zahar beti barri;
igoaldi bakotxez
zer barriak nabari.

Aldapa gora hasi ta
aldarrika izadia:
“zuzendu, behin honuntza,
behin bestera begia”.

Oi, mendi zoragarri,
beti jantzi barriez;
neurtu gura haut bigun
neure mahai-min neurriez.

Oskarbi hire aiskide
dan aldi oroz, ertzik
ez dazau hire ederrak,
ez begiak nagirik.

Ta, noiz behinka hazanetan
ahul, atsedean beharrez,
heure begia itzaltzen
lainoa dator maitez.

Barrua hasi ezker
maitaleari deika,
hor da bizkor Eguzki
maite-modu eskeinka.

Haren mosu beroa
zinez bizi-sortzaile,
landarentzat kirio,
ortziarentzat lore.

Oi, mendi eder bikain,
beti zahar, beti barri;
heure gailurrenean
oina nahi dot ezarri.

HAREN ETXEA

Etxeen artean bat
nitzat begi bete,
han bizi dan neskatxa
bihotzez dot maite.
Maitasun honen barri
ez dau hark susmatzen,
bihotza eskatzera
ez naz ni ausartzen.

Noiz behin agur gozoak
dagistaz barreka,
ta inoiz aldamenetik
iges agurtzeka.

Bihotz zeken ete da
loreño maitea?
—ene baitan dot galde
saminez betea—.
Ta barruak, ostera,
“ez dago bildurrik;
haren bihotz-atera
heldu kezka barik”.

Bihotzaren esana
nahi neuke nik bete,
eta haregana heldu
itxaropen eske.

Begiz jo dot etxea
—bihotza taupaka—
heldu nadin haraino
ta hasi ate-joka.

NEURE ABERRIARI

Ene aberri maite kutuna
Amatxu laztan samur biguna,
neure oinaze nekeak
ta saminaldi guztiak
zeuri ditut eskeiniak.

Izen samurra, leun ta gozoa,
arbasoen odolez ezoa,
Amaren izen ederra,
izen osoa Euskadi,
munduko ene aberri.

Hutsuneren bat neban barruan
lo haundi baten azken buruan.
Su barri batek biztua
lo alperreko txingarra,
aberi maitezko indarra.

Hegaz egin nahi ta ezin hega,
neure herria ene ziega,
arrotzen menpe eroria,
burdina oboz¹ josia,
negarrez dakust Herria.

Su barri batek horra biztua
ikusgarria txingar gartsua.
Bihotzean dot zauria,
suak damost min bizia,
aberi-arren etsia.

Su gorria dot nik barrenean,
amesen ames, ames artean:
su gori honek urtua
bedi estuntza² moltsoa
eta Aberria askatua.

¹ Obo: eraztun, uztai.

² Estuntza: katca, lotura.

OTOIA:

Jaungoiko ahaltu bardinbagea,
oron egile Urtzi donea,
ene asaben Herria
bedi, Zeure menpe hezia,
bere buru ta nausia.

ALAIA

Udabarriko txori alaiak
baizen alai dot bihotza;
poz zalea naz, ez dot aiskide
negutarra dan izotza.

Abestu nahi dot, beti abestu,
kantarienak bezela
askatasuna, eder bikaina,
benetan maite dodala.

Abestu nahi Amaren mina,
Euskadiren oinazea,
gaurko zoritxar baltz honetan be
itxaropenez betea.

Ama goratu neure txintakaz,
bere semeak alaitu,
ta neure kemen ta itxaropenez
arrotz-kateak apurtu.

Egumeroko nire jarduna
aberri-alde lan egin,
eta aldi labur batean al bait
besteen menpetik jaregin¹.

Eusko bihotzak sutu nahi ditut
eta adimenak argitu,
Amaganako maitasun zindoz
seme guztiak zuritu.

Ta behin betiko hausi birrindu
buztarri lotsagarria,
ta ikusi aske, Euskadi maite,
euskotarron aberria.

¹ Jaregin: askatu.

NEGU-ERESIÑO

Neguaren arpegia
egunokaz badazaugu;
baina ostean udalehen,
Jauna lagun, dakuskegu.

Gabak bildurra damosku
—halantxe negu gorriak—
negu gordineko gabaz
haizearen hots zoliak.

Neguko ekatx-gabetan
txori batzuk erostaka,
gau ilunez hegaberak
intziriz bidekatuta.

Zein kutuna su-ondoa
neguko egun hotzetan!
zeruari esker ona,
hasi nadin otoizketan.

Otoizketan hasi eta
Jesus ta Miren gomuta;
alaitu, kristau maiteak,
Gabonak laster dira-ta.

Belengo estalpetxuan
Seina egoan dardarez;
gu be jaio ginean, ta
ibili beharra lorrez.

1934

EUSKADIREN URTEBARRI

Urtezaharra joan da, barria etorri:
ene Euskadi kutuna, zer deutsu ekarri?

Askatasuna galdu zenduan ezkerro
goiz argi ederraren zain zagoz urtero.
Gau baltzik izan bada, zeurea bai baltza,
egun argi ostean gaua izan be latza.

Aldi baten ugari zenduzan semeak,
zure esanen otseinak, seme maitaleak.
Semeoi gatx makurra barruratu jaken,
ta zeuganako on-nahia hasi zan igartzen.

Igartuten hasi ta gatxa indartsuago,
maitetasuna ahulduz gatxa sendoago.
Ama maitatu ta ama ez zana areago,
gatxa nagusitzeko bide laburrago.

Aberriez osoro jabetu zan gatxa,
makaldu lur onean egoan Haretxa.
Haretxeko txoriek hil-hotsa txintatu,
ta ikaraz, lasterrean asago hegatu.

Harrezkero Haretxak ez dau orri onik,
ama ezin bizi da, ez badau semerik.
Noiz ikusiko dogu Haretxa orlegi,
noiz helduko ete zinez udabarri?

Noiz arte iraungo, Ama, zeure gau ilunak?
noiz argituko zaitu, noiz askatasunak?
Ames-egun hori nik ikusiko ete?
Hemen ez bada, goitik ikusi nahi neuke.

Urtezaharra joan da, barria etorri;
Euskadi, izango zara aurten jarebarri?

ALDE GUGANDIK

Hor dok betilun
negua
adorez aldatzean gora.
Horrek bai indarra
barruan,
noranahi ta hara
joan doa
ta ibili dabil
oin sendoen ganean
inguruan.
Udearen garaile,
aro baltzaren
ekarle.
Bildurra
sartzen daki
bazterretan.
Bihotzik bage
ankerkiro daki
barre egiten.
Negua...
izaki irua¹,
aroetan kaskarrena,
ez dakit
noiz eta zelan
jarri deutsugun
izena.
Negu...
edurte,
txingor ta izotzen
alkarte.

¹ Irua: gogaikarri.

Kanpai ilunen
suspertzaile,
haizeari be
negar eragiten
deutso,
lur-ganea
erdi biloiz
izten dau
ta hainbat pizti
euren zuloetan
lo ta lo.
Arpegi itxusia,
irribarrea zer dan
ez dau ikasi.
Ez jaku
auzo guragarri,
baina badau
bere misterioa,
guretzat ez
errez ezaugarri.
Horregaitik
ondo etorri
esatea
ez jaku atsegingarri.
Bai ostera
deadar hau egitea:
alde gugandik,
Negu,
beste hiruren izenez
hain ezbardina,
hain mozolo
ta poxelü.

ERROTAZURI

Erreka ertzean haltza,
ertzerago errotea,
inguruetan ederren
errotako alabea.

Marti-zozoa kantetan
bidez goiko sagastian,
astotxu zaharra zamautu
nekezka aldapa erdian.

Erreka ondoko bolu,
zuria goitik beheraino,
gordeta daukan pitxia
ez dot ikusi gaurdaino.

Boluko neskatileak
larrosa ederra dirudi,
ibar osoan ez da inor
bera baizen ikusgarri.

Epaila lehenen egunak,
garia aspaldi erne zan,
artean ez da lorarik
ezkaratzeko arasan.

Neskatila zoragarri,
hemeretzi udabarri,
bere ibilera erneak
haundikiena dirudi.

Txakurrak zaunka kanpoan,
atak¹ errekan igeri,
neskearen ezpanetan
barrea loratu bedi.

Errotako alabeak
urrezkoa dau bihotza,
ai, ederra, nork leikean
entzun ezpanon baietza.

Mendi artean ibarra,
errekertzean errota,
bolu haretan euskaldun
neska garbia gordeta.

¹ Atak: ahateak.

ETXEKO POZA¹

*Adiskide ona, aita egin danean,
bere berbak bailirean*

Ene alaba, bihotz zatia,
kutuntxu pinpilinpauxa,
entzun maitea, ene lorea,
jan egingo haut mosuka.

Heure sehaskan ez nahi egon, e?
maltzur zahar tolesbagea,
benetan bere atseginago
hiretzat beso neurea².

Gaur be, *drogatxu* ez haz hasi ba,
goizean goizik negarrez?
Uste al don zain gagozala hire
ederra egin beharrez?

Orain barre, ezta? *maturrangatxu*
heureaz urten ostean.
Mosua mosu, etxeke poza,
ta egin lolo bakean.

.. ..

Lo, lo, lo egin, babalorea,
udabarriko lilia;
ta entzun ames gozotan goiko
soinu hots zoragarria.

¹ "Etxeko poza", *Yakintza*, 12. zk., 1934ko azaro-lotazila, 407 or.

² erdu, ba, neure besoetara,
txikitxu lotsabagea.

BIDE ONDOKO ITURRITXUA

Iturritxu bat ezagutzen dot
bide-ondotxu batean,
haretx haundien babes gozoan;
hantxe nengoke bakean.

Haize samurrak orri guztiak
hor darabiltz bizkor dantzan;
mendi aldean euren pentzudan
ardi ta bildotsak larran.

Bazter honetan ixil ta nasai
nik neure egotaldia,
bidean gora, bidean behera
baserritarrak burdia.

Harestipeko iturritxuak
bere soinu ta abesti:
“Neu naz iturri garbiena, ta
edan hementxe, bidazti”.

AIROKO PAGADIAK

Igon mendi aldera
euskaldun gaztea,
igon, gomutautera
asaben etxea.

Muinoaren sorbaldan
basetxe zuria,
baserritarra dogu
geure jatorria.

Hara, eguzki alai
zeruak betean,
bazterrak jarri ditu
alaitasunean.

Txoriaren goizeko
atsegin soinua,
hegan garaitu nahi dot
goian arranoa.

Ene bihotz hau dodan
Askatasun zale!
Goirantz gura dau beti,
goirantz neurri bage.

Udalen jantzi aratz¹
ene aberrian,
gazteak legez, otak
loratsu mendian.

Basetxe agurgarri
bakedun habia,
gure asabentzako
gaztelu bizia.

Asabek jagoniko
pagadi ederrak,
nork dakaz zuekana
zatar diran lerrak²?

Artzain: hona gu esne
ta gatzatu eske.
Mendiok lez nahi dogu
iraun eder, gazte.

Maitatzaile ta sendo
geure mendiok lez,
euren laztan gozoa
hartu nahi dot pozez.

Igon, jo gailurrerantz
askatasun bila;
han dakuskezu jarei,
han, artzain mutila.

¹ Aratz: garbi, eder.

² Ler: pinu.

MAITAKETAN

Kantau eben amilotxak¹
iluntzeko maite-kanta,
mendi ostera da eguzkia
ikusi arte agurka.

Iluntzeko oskorri eder
—sorginen gona barrena—
zelaian xomorroak xirxirka,
zapoak hots bardinena.

Artzain mutila, zer dinok?
Maite dok itxaroten.
Haize epelaren mosu guriak
gazte bihotzak goritzen.

“Ene maite, bihotz-atal,
ezpanak urrunederrez
begi baltzon dirdira argiak
jarri ohi nau ni kemenez.

Artizarrak barre dagi,
areago heuk, kutuna;
ezer baino be nahiago jonat
ai, heure maitetasuna.

Gaba datorkigu bizkor
ikusmena moteltzera,
baina ilunak be ezin garaitu
gure alkarminon lera.”

¹ Amilotx: sagutxori, katanar.

Ixi, ixi, olerkaria,
nahikoa edestu dozu;
inoren maite arazoetan
beste inork zetan dau sartu?

Orraztu, iluntzeko haize,
gazte biren berbetea;
lagundu, itsaso, susmur ixilez
gazteen bakartadea.

Basetxeko sukaldean
txinpartaka su gorria;
ta goriago mila bidar be,
neska-mutilen zoria.

NEURRI ETA DOINU

Urdin, udalehenez goia;
musker panpina, zelaia;
ene oldeak tai bage dauka
norbaitenganako nahia.

Urak laztan hondarrari,
haize meheak hostoari;
kutuntxuaren irribarreak
atsegin, maitalari.

Lan eragile, akulu;
ilun gauean ikuilu;
neskatilatxu baten bihotza
enetzat ezti-gordailu.

Hatxak soina dau sendoa;
haretx mardulak erroa;
gure nahitasun barri hau bedi
enexu, areagoa.

Muino ganean gaztelu;
ezkaratzean zizelu;
lagunak zintzo maite bazaitu
bedi dana abespelu¹.

Eguzkik argi-erreinu;
adu on sorginak keinu;
neska pinpirin ezpan gorriak
opaldu² deust maite-doinu.

Sapailopean³ enarak;
solo ondoan burdinarak⁴;
sutei⁵ gorian artez landuta
bion irrirts eta lerak.

¹ Abespelu: konfiantza.

² Opaldu: opatu, eskeini, *emon*.

³ Sapailo: balkoi.

⁴ Burdinare: itaila, golde mota bat.

⁵ Sutei: arragoa.

Baratzean lili guri;
larran artaldea zuri;
gure alkarmin on egartiak
edur barria dirudi.

Horma zaharra laztan huntzak;
olio gozoa hontzak;
ezotu begi gure amesa
eten barik maite-inontzak.

Bizkor, usoak hegala;
eder, udaran itzala;
neskatoaren begiradeak
dirdizean dau zidarra.

Eder, hitza mingainean;
guraria barrenean;
bihotzak tinki alkartu beitez
urrunean nahi hurrean.

Eder, udaondo uzta;
bazkal ostean loxusta;
inork eskeini arte ezin daiket
maite-edontzia musta.

Eder, alasan mertxika;
neskatxak alai, maixika⁶;
euren irribarre gozoagaz
zoratu dabe karrika.

Bihotzak alkarri tinka;
maho⁷ gorriak zotinka;
ilunabarreko orduetan
gazteñoak maiteminka.

Ipar-haize bigunak putz;
txibiek karpinei⁸ zaputz;
kezkaz itxaiten dagoanari
neska-lagunak ezin huts.

⁶ Maixika: maiseka, marmarka.

⁷ Maho: klabeledina.

⁸ Karpin: *hiru-lau amuen moltsoa, ainguru itxuran.*

Liluragarri amesak;
urratzaileak arantzak;
barruko soinu hotsez alaiak
neska ta mutilen dantzak.

Eder, goian artizarra;
maitearen irriparra;
ez dau erreto inork ahaztuten
zorieko sagarra.

MUSKER

Bagila adineratu da
—hogeta bigarren egun—,
baso ta mendi margoa
esmeralda dot edonun;
ikusgarri zelai ta mun.

Txorikunak hegaketan
galanto dabe ikasi,
euria urritu da eta
erreken bularra jatsi,

Gaztainak garbaz apainki.

Lurra dogun emoilea!
motan¹ basoko mailuki,
bidertzean kerixea
hor da eskeinka ale gorri,
bidaztiaren pozgarri.

Basoan irea gazte,
etzunteko ohe ezti,
gariak otantza hartzen;
orail, bedar-meta guri.

Abaroan txinta abesti.

Artoa jasean gorantz,
jorraketa dau eskatu,
berorik bako iturriak
emoirik ez dau ukatu.

Han guk egarria akitu.

Atsegingarri benetan
begientzat izadia,
onurea besoetan;
bagilak dakar zoria,
gizonarentzat saria.

¹ Mota: muna, muga.

LEKEITIO!

*Paskual Abaroa herriko seme
ongile eskuzabalari omen egunean*

I

Putz, putz, ipar-haize mehea,
hondarrez uraren behia;
baltz-moltsoka jolasketan
tutulutik goirantz keia.

Kaia, apain, lehor-ertzean
itsasoaren aurrean;
ontzi askoren etxea
uretan, kai-barrenean.

Oihal, sare ta burdina,
nunai oraldi mamina;
egurats garbiaz nahaste
kresal-usain atsegina.

Luzangak hiru-lau nasa
—nun dago gure lanbasa?—
nasa bakotxak ugari
harri-mailadi erreza.

Talatik begiratuta
ura zeruaz mosuka;
erdialdean lerdetik
islea uragaz muturka.

Lehorreruntz urre-jantziz
hondartzak hare ta ur garbiz;
ausart eta nasai samar
gure barraktxak¹, barriz.

¹ Barraktxak: barrako hatxak.

II

Ai, geure herriko kaigana,
danetaz kutun dodana.
Nun ete da antzinako
lekittarren sinismena?

Atzerri-usain zatarra
honaino be errez heldu da;
lehen euskaldun ginean,
gaur erderea barrura.

“Lehor ta itsasoz ahaltzu”
asabek esacratsu;
gerokoan be bide horrer
jarraitu behar deutzazu.

III

Arrantzuan ibilita
ontziak etxera jita;
kaian bizi direanak
betiro luzeretzita.

Lemazainaren semea
mutikotxu errime
ontziei begira dago
ta dino: “haxe, gurea”.

Gerizpearen susmora
autuan hiru agura,
sarri itsasora begira,
itsasora ta zerura.

Nasan dagoz neskatilak,
bidean datoz mutilak;
berbaroak urratu dau
aurreko une ixila.

Beterik datoz ontziak,
karelak euren neurriak;
albista onak portuan
argitzen ditu begiak.

BASERRITAR

Nekazari kanta

Aida Gorri, aida Txuri!
baso aldera daroat burdi
burdi kirrinkalaria,
goizean goizik agurtu dogu
eguzkiaren argia,
mendi-hegian edegi da ta,
hantxe egunaren begia.

Goizeko izarretarako
jagi ohi naz jagi egunero
barruan poza dodala;
gorputza garbi ipini gura;
garbi, gogo bezela;
ikusi ditut ene umeak
lo betean dagozala.

Gero ikuilurantz noa,
eta nigaz emazte zindoa;
behiak eratsi ditugu,
tangartetara¹ erroberoa²
ta ondoren arduratsu
amaren errapera egarri
zekorra bildua dogu.

Askea ondo beterik
abelgorriak atsegindurik;
ene emazte maite zuhurra
kalera doa gaiak saltzera,
badaki bide laburra,
aldamenean zamaritxua³,
buruganean otarra.

¹ Tangart: txalupetako balde, galdara.

² Erroberoa: esne batu barria.

³ Zamari: zaldi.

Amama prest sutondoan
—aitita zerura joan—
etxekoandere maratz
aspaldion da Otaegiko
erregin garbi aratz,
larogei bidar ikusi ditu
sagar barri eta mahats.

Eder, eguzki argia;
ainurik⁴ bage garbi mendia,
urdin-urdinik ortzia;
zerua baizen eder urdina
ume neureen begia.

Emazte ona etxeratu da...

Kirrinka ene burdia.

Aida, Txuri, Gorri!
ene hots zolia.

⁴ Ainu: laino.

EZKONTZEA¹

Txit argi ortzea —egun maite lehenen—
urdin dana eta gorriska ekalden².

Altara erdian Kristo dago zutik³,
esku oinak untzez, gorputza zintzilik.
Neska eta mutil, bitzuok ezkongei⁴,
apaiz ta laguna, lekukoak hogei.

Hamaikatxu begi gaur zuei begira,⁵
eraztun horrek bai maitezko distira!
Zidarrezko azpil txukun ta garbian
horra, hamahiru diru; andra-saneurria.

Emaztea diruz erosi al dozu?
Ez, jopu⁶ ez da-ta. Kristok emon deutsu.
Etorkizuna, ustez, amesti, zoritsu;
baina poz artean zenbat gurutzetxu.

Kristok gurutzetik onetsi zaitue;
zeuon nahi bizia gaur bete dozue.⁷

¹ "Ezkontza", *Yakintza*, 14. zk., 1935eko epaila-jorrraila, 101. or. Argitalpen horretako aldaerak ekarriko ditugu hona.

² Ekalde: ekialde, eguzkialde.

³ *Han oholtza erdian Kristo dago zutik.*

⁴ *Mutil bat ahuspeztu, alboan ezkongeri.*

⁵ *Hamaika begi gaur zuei begira!
Eraztun harek bai maitezko distira!
Zidarrezko azpila txukun ta garbian
hara, hamaika diru: andre-saneurria.*

⁶ Jopu: zerbitzari, esklabu.

⁷ Amaieran beste estrofa bat gehiago:
*Alkarberatasun Jainkoak sortua,
malko ta atseginez bedi oretua
gero izan daitecan osoz saritua.*

1935

KRESAL-OHEA

Itsaso urdin
barre negarti,
arrantzaleen
hobia,
inoiz amaitzen
ez dan altxorra
eta itxaropen
habia.

Gazia zeure
ur guztia ta
sakona, leze
antzera,
ai, zenbat gizon
zeugana joan
ta itzuli ez
etxera.

Ekatxaldian
bildurgarria,
goi argietan
urdina,
zelairik zabal
eta lauena,
hortxe bizi da
arraina.

Ama emonkor
gose itsugarri,
beti heze ta
dantzari,
erraldoi gizen
sabel haundia
zenbat lagun zuk
iruuntsi?

Urmendoi¹ jaso
mardoak dabiltz
zaldi sailak bailirean,
etenik bage
ontziak dantzan
kezkaz uraren
ganean.

Gizonak sortu
ta eginiko
ontziak bide
labana,
apar eta bits
ugariduna,
egarbera txit
bakana.

¹ Urmendoi: olatu.

Bare garaian
zoragarria
bai iretargi
zuritan,
eguzki jantziz
baina, ederren,
itsaso, urdin
izpitan.

Hainbat bihotzen
hezitzailea,
amore emoile,
itsaso;
gizonak zerbait
idatzi gura,
erreten orok
hor lauso.

ONTZI GORRI¹

*Mundakako "Juan Bautista" ontzia, geure uriko
kaian, hutsik ikustean, 1935-II-6an galdua*

Txalupa, gorriz jantzia
bihotz odoltsu irudia,
kaian zakust geldi, hondar-jota;
ixila dozu nausia,
mingaina sor²; hits³, irria.

Bost arrantzale barruan
zenduzala joan zinean,
eguzkia baino lehen jagita
itsasora goiz baten,
bost gizon haen menpean.

Ontzi abarotegitik⁴
atera zineanetik
sorterriak ez dau ikusi izan
seme haen gerizarik,
ez entzun neke-intziririk.

Etxera ordua jo ta
ez zu agertu, txalupa;
lehortar begientzako
uretan erdi ezkuta,
heriotzeaz kukuka.

Ta egun barria hastean
huts-hutsik itsasganean
idoro zinduzan bakar, deslai;
ura ingurumenean,
urdina goian ta behean.

¹ "Ontzi gorri", *Lekeitio*, 2. zk., BBK-Kultur Ekintza, 1990, Lekeitio, 62 or.

² Sor: torpe, itun.

³ Hits: triste.

⁴ Abarotegi: babesleku.

Txalupa bihozkatua⁵
atoian⁶ kaira heldua;
gizonen barri jakin gura nik,
baina ixilik zuk barrua,
zoritxarrak mingostua.

Ontzi gorri, margo bizi,
oinaze odol irudi;
hondartzan ixil zagozan arren
bost etxetan negar zoli,
bihotzen samin-iturri.

⁵ Bihozkatu: adorebagatu, gogoa galdu.

⁶ Atoian: erremolkean.

COGOAREN IRRITSA

Argitasun distira
bazter guztietara
naro zabaltzen dauan
eguerdiko izpi,
gaua baino nahiago,
goiza baino minago
ene barruak nahien
lirlarka eguzki.

Abesteli lekura
behe-behetik sapailora
mailaz maila goiraino
helden dan antzera,
ene barruko lehiak
haizea baizen meheak
lur-azaletik iges
goi aldeetara.

Lur barruan sustraiak
dituan landarea
bezela nago hautsen
erreinu honetan;
baina lili gurien
usain zoragarrien
taiuz, ene gogoak
beti amesetan.

Zuti dagoan haretx zahar
—erdoi zirrituz azal—
baina bizitza esnez
beteturik zanak,
zugatz horren antzera
dala nire gorputza
irauteko asmoa
beti dau gogoak.

Ume arpegi gorri
begi zabal ta urdin,
makurkeria zer dan
ez dakian pitxi,
bildots zuri otzana
baizen eder, barrena
bare euki nahi neuke
egun ta eguzki.

Aterpeko zokoak
gaiztoen batzargoak
baino enekoiago
ozkarbia bekit,
burrumba aizunen orde
mendietako bake,
muga zidor ziuerra
dala nik badakit.

Bedi ene bihotz hau
grinen hezitegia,
ekatxen urmendoiek
garaitu ezina;
ta higitu begikedaz
ez narraz, ta bai hegaz,
begiok ta gogoa,
eta iritxi Gaina.

AMARI MAIATZEAN¹

Zuriaren zurimin,
ederretan eder,
ama danen artean,
andra danen ganean
Amatxu, zeu goren.

Zelai eta landetan
lorak jaio dira,
ta gure bihotzetan
naro ernaminetan
maitasun-distira.

Bake aingerutarrez
urdin dago goia;
bego guganik urrun
txerrenaren adur-mun
hobenaren lohia.

Pagopean gozaro
dago artaldea,
abaro gerizeak
eta bazka hezeak
ardion hasea.

Sagastia loratsu
hor begi aurean,
ez al deust huts emongo
ene madariondo
lerdenak udaran.

Maho ta zitoriak²
opa nahi neuskizuz,
baina lora atseginik
gaur aurkitu ezinik
nabil, lor ta estu.

Lili bat baino ez dot:
bihotz gaixo hauxe;
ta berau eskeintzera
natortzu, oinetara,
Ama garbi maite.

¹ "Amari, maiatzean", *Argia*, 1935eko garagarri 9, 739. zk., 11 or.

² Maho eta zitoriak: klabelinak eta azuzenak.

ETEN KATAIOK¹

Negar intziriz makalik dogu
geure Aberri laztana,
aspaldiotan zuri gorriez
atsekabez dagoana.

Seme gehienek
utzirik dauke
bizia emon
eutsena,
ez da harritzeko
ama gaixoak
daukan arnasa
astuna.

Maitetasunik inun ez dogu
Amari zor jakon haina;
erbestekoa nahiago dogu,
bego Amaren samina.

Gure lurreko
zerualdea
orain baltz ta lehen
urdina...
lokarri bage
legoke Ama
seme zintzoak
bagina.

Adore barriz jantzi gaitzean
euskotar seme guztiok,
antzinan lez ikusi daiguzan
euskaldunpean mendiok.

¹ "Eten kateok!", *Euzkerea*, epaila-jorrraila, 1936, 80 or.

Atzerri danak
arrotzik begoz,
euskaldun hutsik
herriok,
euskaldun zaharren
bidetaz zuzen
joan gaitez
biziok.

Ez dau gizonak katerik behar
ez herriak buztarririk,
guztiok gara Jaunaren nahiaz
sortuak ezerezetik.

Gizon handiak
giza txikia
joteko ez dau
zuzenik,
Euskal Herria
zapalduko
beste herrik ez dau
eskurik.

Ene asaben herri maitea,
Euskadi zorigaiztoko,
ehun urte baino lehen ez al dogu
morrontza barik utziko?

Ama lotuten
dauan kataia
oinazpiratu
orduko,
etsaiak Bera
hil badagisku,
agur, euskook
betiko!

ZEURE MAHAIRA

*Bittor Alegria Uriarteri,
bere mezabari egunean*

Zenbat urrats ez ditut nik alperrik egin!
jatetxe bila sarri ta aurkitzeko arbin¹;
oztopoen ganez nahi asetu ene min,
irritsa honen lorraz azalpenik ezin.

Uriko kaleetan jaio ohi dan bedarra
ta bideetako sasi eta otabarra
sarritan intzeztatu dituan negarra
ene begion emoi eskaritsua da.

Bai zadortsu² sakona barruko gosea!
jatetxeetan be inoiz ez ase,
arroztetxeko mahaian lorak ikustea
ez nahiko, suspertzeko bihotz-lili zehea.

Ez nabe mahai otseinek egundo asetu,
ez amantal zuriak begia zoratu;
azpil txukunetako jakiak ez ditu
ene zentzunen lerak nahi haina atzipetu.

Emon ahalean erre daroan su-garra
ta jaurti haina iruntzi ohi dauan itsasoa
kideko ditu ene barrengo beharrak:
beti dendun³ batean eskari didarrak.

Baina... tira, bihotza, uxa etsipena,
gizonaren minak ba, badau gozapena;
gaur izan dot abegi txit atseginena,
adaska barriez dot jantzia barrena.

Gaurdanik ene ezpanok begoz ixilduta,
zeure mahaira, Jaun on, deitu deustazu ta;

¹ Arbin: artega, urduri.

² Zadortsu: misteriotsu.

³ Dendun: oreka.

Ogi ta Ardau santuz neu alikatuta,
bihotz hau ezin neizu oparitzat uka.

Bai, zeure mahaira, Jauna, dei egin deustazu,
gaurdanik jataile⁴ ta morroi nerau nozu;
Zure otseintza honetan nahi nik indar hustu,
Eztegu urenetara⁵ eroan naikezu.

⁴ Jataile: mahailagun, bazkaltiar.

⁵ Uren: noble, handiki.

LORA GORRIAK¹

Lozorroan egoan
elorri zuria
arnasaldi beroaz
barriro itzarri da;
baneban itxaropen
atsegingarria
zugatz hori ikusteko
lehen baizen bizia.

Ez da agiri lainorik
Lumentxa-hegian²
ez orbelik zumardi³
txairo betargian⁴
urdintasun polita
zabaldu ortzian,
orbanik ez dakusgu
eguzki zurian.

Gerizpe hozkirria
gaurgero basoan,
alaitasun gozoa
dardaraz kolkoan;
ezpanetara nahiez
nik bihotzondoan
kanta maitagarria
irakin harroan.

Kemena dariela
urte-malda gora
gazteak datorkiguz
amesez ganezka;
Udabarria heldu
jaku edonora,
irribarrea aboan,
paparrean lora.

Odola dirudian
zerbait eskuetan
han-hor jaurti daroa
parraztaka irradan⁵,
sustarturik sendo da
lotu bihotzetan,
nork ez dau zer hau izan
barruan gaztetan?

Maitetasuna dogu
barruko zer hori,
gorri-gorria da-ta
odola dirudi,
sorgin antzera dabil
zirika nornahiri,
kezka ziztagarria
bihotzean zauri.

¹ 1936ko bagilean, Lekeitioan, Olerti-Egumez "aipagarri" eretxitako lana.

² Hegi: mendi-lepo, magal.

³ Zumardi: zugazti.

⁴ Txairo: lirain, lerdin; betargi: alai.

⁵ Irradan: eskukadaka.

Zauri honen barririk
buruak ez daki,
maitetasuna itsua
gehienez izaki;
begibako izan arren
zorrotza harek gezi,
aldakor dala baina
ezin inork hezi.

Ordurarte ezaguna
ez zan taupaldia
gogoak nabari ohi dau
zaztada zolia,
egundo isiltzen ez dan
kardin⁶ kantaria,
beti erion dagon
gurari-iturria.

Soinu honek ez dauka
eresi bardinik,
batean pozgarria,
hurrengo itunik;
irudimena lagun
hegadak eginik,
nik ez dazaut oinaze
bako maite-minik.

Maitetasunarena
bai sutei gorria!
jungura⁷ bikaina dau
oso egokia,

hantxen egin daroa
mehe zoragarria
kate ikusi-ezina
bihotz-lotzakia.

Bakarrik egoanak
laguntxu bat nahi dau,
amestia ez zana
amesez dago gaur;
bere kolkorako hark:
“artega nagon hau,
nundiko zorakeri
barrik jo ete nau?”

Bere gogoia urduri
norbaitenganako,
gertu maitearekin
beti egoteko;
harengandik urruti
geldi dedineko
begia malko gaziz
estaliko jako.

Udabarriko egun
argi ta urdin batez
birloratu egin zan
irudi ederrez:
arpegi zurbiltxo bat
ikusi ebanez
berak ez ekiala
maite-minak ganez.

⁶ Kardin: kardantxori, kaiolaxori.

⁷ Jungura: jungude, aingura.

Irudi laztan hori
ikusi ebanetik
ezin aldendu izan dau
inolaz burutik,
bere kutunarekin
hitz egin geroztik
begi-ninian dauka
liluraz beterik.

Kaperio ertzean
enara tokia,
kukuak amaitu dau
bere abestia;
urreztatzen hasi da
soloan garia,
intzirika susmau dot
larrosa gorria.

Bihotz-lora mardula
kimatu baino lehen
egizu habitxoa,
ene gazte lerdan;
ozkarbia hodei ta
lainoz josi arren,
heriotzak bakarrik
maitasuna eten.

1940

ARRANKURATSU

Luma, ene luma hori!
behinola azkar arina zinan
nagirik bageko ardatz;
hainbestean ez txori
eguratsean zeharkari
zalu, jolasti, arina,
zer dala-ta orain horren latz?

Zu ere zahartu egin ote zara,
ala tamalago dana, zure ugazaba?

Bildurgarri da herdoi,
ez baita geroz erraz lohi
hori kentzen.
Ez negar ez hasperen
kukuriko
baztertxo baten.

Barreiatu gura ditu
hodei ziztrinak
arteuneko¹ haize gotorrak;
hitz gaiztoek badute zitu²
—edenezko³ ur zirinak—
gogoa makal darakar lorrak.

Gurarien maindire txuriak
ebakiarazi nahi dituzte;

¹ Arteun: txalupako oholen arteko zirrikitua, arraina eukiteko.

² Zitu: fruitu.

³ Eden: pozoin.

anitz neke,
anitz urte,
ta inguruak sorgor beharriak.

Luma, lehen alai eta langile,
zu ere zarkildu ote, zu ere,
jabe landerraren⁴ pare?

⁴ Lander: pobre, txiro.

1942

NEGU-GOIZ BATEKO ABESTI ALAIA

Adiskide kutun baten ezkontzan

Mendi-bizkarrak nabar,
gorrizka zerua,
goizeko izarra igesi
lainoetz bildua;
laminen azken-kantak
ziztaz itzartua
eguzkia alai dator
albistaz poztua.

Zeruaren urdinak
milaka diztira
udaran epel-giroz
izarren izpira,
orduan maitasunak
ernemin ohi dira,
bihotzak kilibera
alkarri begira.

Larrosa apain panpoxa
zauri bat iduri
behinola idegi zan, ta
geroz, zelan ertsi?
Hondartzea ta uginak
hasarretan sarri
baina ezin inolaz
alkar-beharra hausu.

Tinko, bizitza-itsaso
arropuztu hontan
tostarteko lerdena
bezela arraunetan;
kaia jadetsi nahirik
asmo ta lorretan
atsegin ta oinazez
legorreko bandan.

Gizakiaren asmo,
ames sakon, bizi,
biren gurari gozo
bihurtu nahi egi;
hodei arrearen zai
ekaitz bildurgarri,
baina ilunpea urratuz
txinpartazko argi.

Kabi, urrezko kabi,
haretx-adarrean
esege eta koka
oihan itzalean,
kardantxiloa txintaz
ari dan artean
lore eder bat erne
zelai gizenean.

Lore! —sorginen emaitz—
gogoaren dirdai,
zorionaren txistuz
belarriok ernai;
loreak zitua zor,
etxeak apaingai...
sehaska zahar kutuna
seintxu barrien zai.

Eskuan urre-edontzi,
ezpanak parre alai,
mingainak oparia:
Zorioneko jai!

1944

AMA HIL JAT

Heriotzak, makurkeri zitalean,
izara zuri bi zabaldu ditu;
haretxezko kaixa ilunean
amak tolestuak aspalditxu.

Amestoki epel dan ohea,
bestelako bihurria gaurko zure dohaia.
Argi-zirrintaren orde, gaua;
dana lotua, isil, geldia.

Ez dot ezagutu hau lako egunik.
Gaur

neure amak
ez deust egin
ohi eban lez,
mosu legunik...!

Nire mosuak gaur ez
beti ohi eban erantzunik!
Ez dakit bihotz hau
zelan ez dodan hausirik.

Dei garratzaren hotsera
heldu naiz herrira,
sartu etxera.
Egia, bai, egia,
albiste larria.
Ene arnas itoa,
bularrean zapaldua;
konorta galurren,
begietan lanbro,
saman kusunka txistua...

—Amatxu, ama!
ene oihu apala, makal.
Isilik...
 dana isilik...
Soilik gorpua,
 lo irripar, izoztua.
—Ama, nun zuk gogoa?
 Badakit.
 Zerura igoa...?

Horra nik izan neban
ontzi bakarra hautsita;
itzalia
bidean neban ilintia¹;
nire bizitz-iturria
agortua,
ta isilik musikarik gozo
gozoena
—mintzo garai, amarena—.
Iges egin deust
 andrarik onenak,
ha barik beharko nik
nire ordurik zailenak.
Neureen neban zerbait
 joana, suntsia,
Astiaren esku zigurrak
erraia barik erauzia.

.. ..

Ez dot inoiz ezagutu
gaurko eguna lakorik,
nik amari mosu egin,
ta amak ez niri jamonik.

¹ Ilinti: errondo, itxindi.

Haren bekoki gurena
hotza egon da benetan;
nire ezpanon beroak gaur
dardara-izua gunetan.

Amaren hitza azkenengoz
oin aste bi entzum neban:
herritik alde egitean:
—“Zoaz ondo, ta bakean”
Hitz ederrok ezin ahaztu
nik, bizi naizen artean.

.. ..

Jaun errukiorrak badau
zorionezko Altzoan
ni be egunen baten hantxen
jarriko al nau alboan...!

1945

KAIIEKO HAIZETAN

Ene kai garbi
atseginean
txalupetxeak¹ hor hemen,
ate txikiko
leku bareak
ekatx-bildurren ondoren.

Nasa ganean
odol ta zikin
laster dabez garbituten,
goiko balkoi ta
leiho askotan
zapi zuriak legortzen.

Hamaikatxu kanta eder eta
bertso barriak esanaz
gure itsasgizon bildurbageak
dakian halako jasaz.

Abesti zaharren ezti gozoa
besteoi irakatsi,
eresi samur eta sendoak
hurrengoei eskeini.

Antoisin² bete
ardautxu baltza,
batzuetan txetxu-erdi³,
Berceo zanak
irakatsia
kantarien lagungarri.

¹ Txalupetxe: txalupa-jabearen etxea.

² Antoisin: txolet, txonil.

³ Txetxu: kuartilo.

1947

FAURÉ-REN SOINUAZ¹

Bart izan dot apari,
ez jakin sorgin-ema
ala baso-jaunen edari.

Pianu zaharrak barrutik
atara-ahala, jaurti
ertzikabe dan eresi,
neurrigaitz, mugaezin.

Fauréren arima
gure artean zan nabari,
esanbako hitzez,
betseina² neban etzina
oherik gozoenean,
betazalak loaren kabian,
belarrietan durun,
mingaina sorgor
hitzak txito urrun,
egoera txorakor!

.. ..

Musika betegarri horren menpe,
astiaren eskuak batzandu,
ta dana bego
bertan behera gozo.

¹ Fauré (Gabriel), frantziar musikaria (1845-1924), bere lanen artean dau-
de *Requiem*, *Prometeo* (pianoa) eta *Penélope* opera.

Gerardo Diegok, Bilboko Filarmonicau hitzaldia egin ostean, haren obra bat
pianoan jo eban. Orduan gustura sentitu eta horregaitik egindako olerkia da hau.

² Betsein: begi-nini.

Ateak ertsi, baita leihoak bere.
Ez da ez goiz ez belu.

Lotu zaldiok lotu,
hemen behar dogu gaur gelditu.

Gaua, mozkor, beioa aurrera.
Amets barri batek
enegan dau, ba, sorrera...

LORAKETA

Martiak galdu ditu
egunik erdiak;
basalorak, horra ba,
lehenbiziko jaia.
Negu-estalki motza
urratu gurarik
hego haizeak badau
puzkada ederrik.
Zorapenezko bultza
jostunen kemenak,
edozer jantzi behar
bai lur, bai gizonak.

Arnas horren beroaz
Ama Lurra jagi,
begi eder zabalak
osoro edegi.

Indarra be jagi da
lurpetik ganera,
lândaren anporrera¹
eta adarretara.

Errekastoa aparrez
bertso berrietan,
zelaieri lilura
txertatu nahiean.
Tontorrean egoan
edurrak urina²
bialdu dau noranahi,
uraren sein-mina!
Zelai ta alor ta arru³
hezetu ostean,
itsaso-eske doa
errekabidean...!

¹ Anpor: enbor.

² Urin: ur.

³ Arru: troka.

1948

SAN MARKOS

Ira¹-metatzarrak, urez gaineztuak
pixkanaka ibituten²;
bizkarra gero ta makurrago
etxondoan ardatz-inguruka;
ta basoan
ira jaiobarri
guri, orlegiak
—hirusta mozten dabilta
kantari, itaiak—
soina lirain, besoak goian,
eskuak txaloka,
guraso zaharrei oleska³ alaian,
oinordekotasun jatorra ager-nahian.

Nagi, oraindio,
intxaurrondo ta pagoa
—hori dok mutil, lozorroa!—
esna bai esna,
alper-sunda⁴ zoroa.

Sagastiak eskatu ditu
soineko berriak,
gorri-ttanttoz
elur-maluta txuriak.

Horixe ikusteko bizi naiz
negulehenetik azkeneraino...
Kuku-soinua maiteago baitut
hegeberarena baino!

¹ Ira: iratze, garo.

² Ibitu: baretu, arindu.

³ Oleska: deika.

⁴ Sunda: kirats.

MARTI-AZKEN

Arbigaraz apain
soloak horizta,
kerizondoa zut
zurizko jantzita.
Ikuskari eder
suzko iturria
mendien ostean
etzinik, geldia.

Ez argi
ez ilun,
ta ezerk
ez itzal:
une pakezkoa
isilik, ez hiztun,
gauak esku leumez
estalkia zabal.

Urrutiko muino
dirdai egarrian,
diztira makal bat
hiltzeko zorian...
Errainu luzeak
gaina zeharkatuz,
lurrazala, eme,
laztanka hegatz.

Ta ni itzar, erdi lo,
noranahi begira,
nire niretarrak
nontsu galdu dira?...

Ilunak
emeki
belztu du
guzia;
malkoak
busti dit
xamurki
begia.

IZARREN ORDUAN¹

Eder zeruan zehar
binaka txoriak,
eder basora bidez
kirrinka burdia.
Ene bihotz gaiso hau
lehen soil, bakartia,
irribarre eme batek
orain igurtzia.

Goizetan txoriandrak
lainoa urratuaz
eguzkiaren bila
amesetan doaz;
neugan ernemin² dodan
gogoa, itzartuaz,
irudi kutuna nun
dagon galdetuaz.

Beroak erreten dau
udan bedar, orri;
maiteminak halantxe
alkarren lokarri;
barru-dardara honek
hegaz al balegi
haren bular barruan
ingo leuke habi.

Intxaurrondo bik itzal
borda zuriari
—kurutza teilatuan,
atean elorri—
ostu al banengio
bidea urrunari
poz emongo neuskio
ene barruari.

Kantari diharduan
neskatxa bitxia
—txindorraren antzera
doinu bihurria—;
sari urrun nabil, ta
hutsik belarria
baina durundi gozoz
izate guztia.

Gaur ikusiko al dot
ilunabarrean,
uste horrek narabil
oraingo lanean,
begi haen dirdaia
nireganatzean
ahaztuko dira minak
nire bihotzean.

¹ "Izarren orduan", *Egan*, 1951-1, 15-16 or.

² Ernemin: erne, begi, kimetz.

Agur, maitetño ezti,
izar ordurarte,
haizearen eskuak
gezna³ hau daroake;
zeru-arnasa, iruntzez⁴
daitenean bete
zoroki ilargi-izpitan
zugana naiteke.

³ Gezna: mezu.

⁴ Iruntz: inontz, garo.

LEKEITIOKO ANDRA-AURRESKUA¹

Urte asko ez dala
neure herri maitean
Doniane jai batzuk
egiten zirean;
jai berezi bat beste
askoren artean
Andren aureskua zan
eberdi-aurrean.

Danok meza nagosi
ostean plazara
—lagunez jurjiduta²
batetik bestera—
ohitura begiko hau
pozik ikustera,
hoba geure egumotan
bagendu aukera.

Gona baltzak jantzirik
ta gorantz gorriak,
buruko zapietan
harro txori biak
sorbaldetatik txairo
loradun krespoiak,
Manilan eginiko
sedazko mantoiaik.

Auresku honen barri
Azkuek badaki,
soinua paperetan
ez al dauko euki?
Tanbolinteru zaharrak
ez leuke ahazturik;
harako bertsotxua
gogora datorkit:

“Zeure bular arteko
klabelina alpaka³,
zeuri begira dago
herriko eskribaua...”
Luisatxu Kaiganeko
gaur be gomutaua
aureskua eiteko
berez izentaua.

Neskatila ikusgarri
gitxitxu lakoak
sokan ohi diran lora
udabarrikoak;
laguntzat bai topau be
euren gustokoak
mutil kolore eder ta
bana-banakoak.

¹ “Lekeitio'ko Andra-Aureskua”, *Lekeitio*, 1. zk., BBK-Kultur Ekintza, 1988, 19 or. Azken estrofa falta dauala argitaratu zan.

² “Lekeitio'ko andra-aureskua”, *Egan*, 1951-1, 13-14 or. Osorik dago.

³ Jurjiduta: josita, bete-beterik.

³ Alpaka: alpakazkoa.

Bira eta artaziak
irradan⁴ puntuak,
aurrera-atzerakadak,
oin-muturrekoak...
Gure neska-mutilak
bizkor fandangoak,
arin-arinak eta
biribilekoak.

Geure mahastietako
txakolin gozoa
edaritzat, kentzeko
egarri beroa;
kai eta lehorrean
poz herri osoa,
kale zaharrak betea
ujuju zantzoa...

⁴ Irradan: ilaran.

SALTZAILE!

Lehen niri hitz emon
ta gero, besteri;
alagalako¹ morroi!
bestelako azeri!

Ehiztari bihurri
zizpa galtzarpean;
kurumino² zital,
eztena noiz azal.
Lakario³ zorrotz
muturra amoduna,
hegazti gaixoren bat
hor errez jausten da.
Ondoko aparrio⁴,
oroldi artekoa;
olatu azpiko
olagarro zipotz...

Atzo niri aitor,
gaur auzora zidor;
ai,
hire barrua,
ardatz okertua;
txerrenen goizeko
ardo-katilua!

¹ Alagalako: egoki, apropos.

² Kurumino: liztor, erlaster.

³ Lakario, lakirio: lakio, segada.

⁴ Aparrio: arrainetarako aparejua.

GAZTAROAREN IGES EGITE

Loretu jataz garunak
—belarri-inguruan zidar-
aldiaren lorratz—
ta mehaztu ule baltz ilunak.

Ohetik jaikitean banekian
kantari jarduten,
ametsak irakiten,
leioha osoro idikiaz
oinetakoak jantzi baino lehen.

Grinak bare-aldian ditut.
Larrosen orri leguna
nun sumatuko
nabil, ta jezarleku biguna
atseginago
bide harritsuak baino.

Bego bidertzeko asuna,
bego auzo-hesia zut.

Harako odol-galda
ta zainetako txinparta
ibitu, naretu¹ da.
Maizter okerra lez jaurti dot.

Ene baitako baratzeak
bere horma ta ezpel hesia;
lehengo maita-zauriak
osapen² ta gantzu guria.

¹ Naretu: baretu, nasaitu.

² Osapen: osatze, sendaketa.

Ta zokondoan neban lira enea
barrero neureganatuaz
ta manu³ dituan hariak
tinkan⁴ zal⁵ jarraraziaz
jo dagidazan soinu barriak,
bizkar astunduan
sortu daitekezan
doinu baretsu pozgarriak...

³ Manu: laso.

⁴ Tinka: sendo.

⁵ Zal: gogor.

MAIATZEAN IGAR

Arbola bakar
orri-eske;
lagunak, bipilak¹,
urratu ditue.
Lo ete oindino,
ala igar?
Egunak egun
nire lanera
noalarik
begiak zuregana
ohi ditut sarri
arduraz itzuliak.
Besteek orrimin deia
nun entzun dabena,
egizu zuk galdea.

Belarriak, sor;
soina, biloizik;
muturrak, gogor.

Enborrean,
zauri bat,
misor latzean.
Eri, bakarrean...

.. ..
Egunak aurrera.
Ez orri ez lore,
ez zitu,

inundik ere...
Negargurea dot
begion sare.

Ito egin ete da
eztarran gora
azken mailak bila
etorri ohi zan ezoa²?
Azken arnasa
emona ete dot
nire bideko
arbolatxoa?

Etsaia, atea jo barik
sartu da zure zanetan,
hazi hilkor erein inguru,
ezoa edendu³,
enborra gogortu
ustel-hiro⁴ barruan.

Antsi⁵ egin deust
ene arimeak.
Bekaitzez hil deuste
arbola maitea.
Dongaren⁶ baten
birao errea...

¹ Bipil: kementsü, ausart.

² Ezo: umeltasun, hezetasun.

³ Edendu: pozoitü.

⁴ Ustel-hiro: ustel-kirats.

⁵ Antsia: hasperen.

⁶ Donga: doilor, zital.

Adarrok azkenez, hazur mehe,
gerriak izur ta zimur,
zedenaren⁷ habia,
susterrak,
bizilekuan bertan hobia.

Noren ainenak⁸ eratzia?
Gaurdanik, papargorria
hil-txintaz da hasia.
Arbolatxu, arbola;
zuretzat azken-agur berezi
Arratseko eresia.

⁷ Zeden: pipi, sits.

⁸ Ainen: madarikazino.

1949

AMETS URRATUA

Negarrez ikusi zaitut
(malko-iturri begi lirainok)
bizkarra makur,
zotin haundiaz arnas-estu,
gorputza ikara ta izu.

Zeugan al dozu samina,
gaurdaino ikusezina?

Beti eztitan bizitea,
gaitz dana,
ez al zenkian jakin?
atzoko nire dama,
nire birloragilea?

Nora da, nora,
atzoko irribarretxua
zorrotz, lilurakorra
harrezkero niri ukatua?

Ibilaldiko txiorrak
aintzina lora hezez
ta gaur idorrak...

Zeugaitik josi jatan
barrua amesez;
gero, egin nituen negarrak.
Bide berdinetan
zehir joanak gara.

Ai, bihotzeko landare txuri,
gaztetako eri
sukarrez betea;
klabelina panpoxa
orain orri eze bagea.

Amets-orbel ximelak
udazken goiztarrak hil,
ta ostean,
erreka zikinean,
lotsa antzean,
amil.

ZURI-BALTZ

Kendu zakidaz leiho ondolik
ihun egiten deustazulako.
Olerki zaharren liburu bat
eskuetan dodalarik,
kristalen geuna¹ garbituaz,
eztizko abao² guria
irunsi nahirik
nagolako.

Leioha edegi egidazu isilik,
zeruak daukan gandua
hobeto ikusirik
egunsenti ala ilunabar dan
jakin beharrean nago, ba, ni.

Emoidazu igitai zorrotza
lanbroaren sabela urratzeko,
eltzun edo urkien erpinetik³
ortzi-azala ikutzeko.

Halangoren baten be...
Badator, badator
opil erreten hasia,
urrezko talo borobil
gazte ta zaharren maitea.
Eguzki bizigarria,
ertzak ez zuri bai hori,
ta azkenez, urregorri.

¹ Geun: lauso, gandu.

² Abao: abaraska.

³ Erpin: mutur, punta.

Ene nagiaren astun,
zuribaltz dot gaurko egun

.. ..

Musak irrigaiztoka joan dira.
Alperreko lana
oraingo hitzen bilera!

EGUNA

Zilarrezko turuten algarazko irria...
Ibarren esnatzaile oilar-eresia.
Leiarrez¹ jantziriko goiz jaioberria,
narru gorritan dagon haur gizen guria.

Esnetzan du sehaska, ta aparrez betea.
Egunguentiak keinuz, berotu haizea;
lehenbiziko dirdaiez ezti-kolorea,
urresaldaz edertuz sapaiko ertzea.

Ene besoetara, hatoz, gabaren sein,
aspaldiz itxaroa, erdu, usu², lehenbailehen;
ezer begininiak ames badu hemen
hire betartea duk, erdilun bederen.

Ikusmen enearen zelai loretsua,
gogoak arnas duen leiho zabaldua.
Eriak irrirts³ ohi dun alde neurtua
ta urkatu-epaituen bildurrezko ordua...

Haurtxo masail betea, gorrixka ta garden,
gizenezko txoloak⁴ maminaren barren.
Garranga⁵ potoloak beso eta iztarren
inguruetan; estu, axala noiz eten.

Ama beltxeranaren umetxu kirrua,
goi ta behe ihintz ezoez xamur gantzutua;
haurra garbitzeko ur garbia gertua,
ala, amaren izerdi larriz osindua?...

¹ Leiar: kristal, beira.

² Usu: arin, laster.

³ Irrits: irrika, gurari.

⁴ Txolo: zulo txo.

⁵ Garranga: girgilo.

Larreko izakiek besakada gaiez
jaioberriarentzat opaka alai deiez.
Liliek ontzinoak bete hurrinkaiez,
txoriek egutea⁶ josi eresiez.

Ta hor, jauzi ta ijutiz⁷ jaun orail⁸ argia:
mendien bizkar-gora, xixtuz, Eguzkia,
parrea ezpainenetan, irrika begia,
gauz orori ukituz, eskeini bizia...!

⁶ Egute: eguraldi.

⁷ Ijuti: jauzi, saltu.

⁸ Jaun orail: eguzkia, Lizardik esaten eban moduan.

1950

JAIOTERRI KUTUN

Isuntza¹ zubipeko anpor luzeak
isil dagoz, uretan etzunak,
luze, hondoa joten;
geroago, uraren gainez
urrunetara joango diranak!

Oraldiaren igurtziz
soineko ilun xamarrez dagoz;
pinadi gizenak eta sagasti
emonkorrak ditue ikuskari,
begi ilun, urpeko lanbroz.

Etorkizunak, ontzi zati eginik,
eroango ditu, luze edo zutik,
beste zeru eder ta itsas urdinak
ikusten; untzi lirain arinak.

Zubipeko ene anpor luzeak,
arrakala barik, oraldiz beteak!...

Loibe ta Marierrotako iturriaren
ur hondakinak,
—hantxen sarri laminak
amodiozko zinkurinak—
kresalaz batzen dira, maiteminak.

Uragorak harro ta indarrez
bustiten ditu bizkarretan,
ta urabehera samurrez

¹ Isuntza: toki-izena, Lekeitio.

kilikili gozoa dabe sabeletan,
hondar ibiltaunak
basatzatik iges nahian dabiltzanak.
Izkira arinak, karramarro motzak
ibili dabiltz artega,
batean jolas antzean,
bizibeharrez bestean,
hondotik azalera purrustila gardenak bialduaz.
Ontziaren lepokazur ala haize oihalez tantai
izango diran anpor zuzen, lerden, garai...
Isuntza, zure inguruaz ez dot ahaztu nahi!

LANDA GIZON BANINTZ

Bizkaiko itsaso hasarreberan
ta hogeigarren mendean
Orati eta Bergili ditut
ene begien aurrean;
hek izan zuten Musa sorgina
orain banu nik aldean
bertsu xehe horiek bai giro, lorak
maiatzez duten antzean.

Hirian jaioa naizen arren
halare min dut mendia,
barren hontako maizterrak beti
du harako egarria:
goian zerua, zelaia behean,
landan atsegin-alkia,
hiriko kale ta hango istiluak
uzteko dun iririkia.

Hiriko jopu zaigun gizonak
ez daki mendia zer dan,
ez baitu inolaz aintzinetako
jainko-edaria edan,
askatasuna zein dan ederra
dio arranoak hegan,
noiznahi ortzira, gero lurrerantz
gogoak hala, orekan.

Udara dala, nahiz udagoien
zelaian dut etzantoki,
belartza guri, garotza gizen
ene soinaren lotoki;
hariztiaren orri artetik
urdinez aratz zeruki,
hango izakien zorionaren
zertxobait ohi dut eduki.

Landa erdian jauna bezela
ingurutako nagusi
—urteak alper suntsiak ote?
Erdi-mendea berpizi—;
ondasun eta bizitza oro
nekazariaren uzi¹,
abelgorriak, zaldi ta ardiak,
larra, alor, baso ta guzi.

Errege gudu laboraria
bordaren lau hegaletan,
olaetako² morroi-txisturik
ez du hark lanaldietan;
ordulariak eguzkia ta
zilar-argia gauetan,
mandioan³ du zer jana, eta
ur gardena iturrietan.

Bego ogiduna goizbeluz lotan,
esneduna bidean gal,
dendari oro bihoaz nagi,
noizbait, saltokiak zabal;
aintzirak urez urri daudela
turtuki-lanik ezin ahal,
hiriko etxe harroak ilun:
jauregi ala leze-hegal?

Nekazariak gaur lehen bezela,
hor dauka ogia laban,
badu esnea, erraberoa,
zintzilikan laratzean;
eltzekaria noiznahi ohi baitu

¹ Uzi: irrika, gurari.

² Ola: lantegi.

³ Mandio: aletegi.

tupina bete alean,
suspergarriztat sagardo ondua,
ta argia, zeru betean.

Eltxo moltzoak antzo dijoaz
udaran gizasemeak
uritik iges baso aldera
gizon, andra ta umeak;
izurritea zaldi gainean
ala herio-belea
haien inguru ari ote dan
nekazariak galdea.

Mendi-hegian ala haranean
negu nahiz uda gaztelu,
inoiz ez dio laborariak
aldiarri iritxi belu;
haren urratsak betiro baratz,
barruan oharkeak⁴ leku,
mundu honetan nahien dudan
hantxe dut: lurreko zeru.

Hogeigarrena dugun mendean
Bergili berpiz baledi
hiri handiko bizitzearen
asper kutsua hark ageri;
giza bihotza lehen ta orain
zorianaren egarri,
landa-bizitzan baitu pakea
landazale bihur bedi.

⁴ Oharka: ohandze, kamastra.

KARMELO ETXEGARAI¹

Haren heriotzaren XXV urteurrenean

Mutiko nintzala zentzuna lo-zorro,
heldu jatzun anker, herioren erro.
Euskal Herriaren nekearen orro.
Semerik onenak gabe epel, lehen harro,
argiak lausotua, oro itzal, zomorro.

Euskaldunentzat bai pozgabeko ordua,
edestien hotsa baitzan isildua,
lehengo aldiaren isil-ekzutua
argitzen ari zan gizon ausartua
zerraldorik zetzan geldi, hotzitu.

Haren bihotzaren ederra, samurra!
Hogeta bost urtek geroztik agurra,
baina haren gomutea —hain on ta zuhurra—
ezin errez gure gizaldiak urra.
Harrorik bego gaur gipuzkoar lurra.

Gure herri zaharraren kondairagilea,
larru lerinduen² irakurzalea,
anaien burruken adierazlea,
gure gauzetara gogo-esnalea,
zure lanetan guk mardulik, alea.

Orduan ez neutsun nik negarrik egin,
ez baitzindudazan, ez ondo ta ez gain,
ezautzen; baikeunden hain hurre ta hain urrin;

¹ "Karmelo Etxegaray", *Egan*, 1951-2, 11-22 or.

² Lerindu: heldu, zahar.

geroztik, hamaika bidar nik hozkamin³
zure idazlanetan gozaro, atsegin.

Euskerarentzako zure maitasuna!
“Behin ta betiko”-zaz idatzi zenduna
gogoan dot orain; arima lurruna
mehe, zehe, usaintsua lerrotan barruna;
kutun arbasoen hizketa leguna.

Euskal edestiko zuzi dizdizari,
elerti sailean bazka gizon, jori;
kristau zintzoa arras, guraso leinargi⁴,
euskal semeetan jator, bihotz handi:
Jaunak bemokizu irabazi sari.

³ Hozkamin: kirri, hozki.

⁴ Leinargi: noble.

BILINTX

“Loriak udan intza...”

Donostiako seme jatorra,
maitasun olerkari,
nire gaztetan zugan edan dot
samurtasun edaria;
euskal elerti zelai urrian
bihotzaren kantaria,
ehun urtekoan egin nahi deusut
neure opari txikia.

Opari hauxe txiki izan arren
baita bihotzetikoa,
horrexegatik har egidazu,
holan dot uste osoa;
sari askotan kantau izan dot
zure bertso txit gozoa,
zure kolkoan beti irakiten
maitetasun itsasoa.

Asentzi eta Kontxesi, eta
Juana Bizenta Olabe,
Dolores bat ere izan zenduan
zure barrenaren jabe.
Zenbait aingeru, hainbat larrosa,
anderetxo ta mirabe,
donostiarrik ez zan gelditu
zure hitzak kantatu gabe.

Zalantza gaberik euskaldunok
Becquer bat izan zaitugu,
andrak zugandik hartu eben, ba,
maite-txera ta palagu;
argizaia lez zure barrena

urtuten ikusi dogu,
baina andrak marmola izan nunbait
ta ez entzun zure erregu.

Egun batean txori izan zinan,
txori kabirik gabea,
kabi-tokitzat begiz jo zendun
arbola lerden gaztea;
hurrengo baten arroxa-zale
ta izarren begiralea,
barrenen zendun maite-egarrria
egundo ezin ase.

Indalexio Bizkarrondo zu,
donostiar txit jatorra,
ziribertsoak esaten ere
ez zinan inolaz sorra;
zure kanta haiek bildu ezker
gazteentzako altxorra,
ikas dagien zelan bigundu
neskatxen bihotz gogorra.

ARRANTZALE ZAHARRA¹

Pablo Bilbao Aristegiri

Urrunera begira
itsaso ertzean
aspertzeke egon dago
ke ta ke artean,
pipa zaharrari teinka
egin bitartean
kaioak dabilkioz
hegan goienean.

Egunaren sorrera
uda nahiz neguan
sarri ikusia da
Bizkaiko itsasoan;
beti itxaropen dirdai
bular ta buruan
lehengo oroipen samurrak
ames, gerokoan.

Txapel maiz zuloduna
buruan jarrita,
praka adabakituak
belaunak puxika,
alkondara ukondua
txatalez josita,
begiak zidar garbi,
geun, erdi itzalita.

Uleak zuri baltzak,
arpegia tximur,
begiondoan eta
kokotean izur,
mintzokera nagia,
hitzak isil, labur,
nekezale ez dirudi
eta bai jaun gailur.

Lekittar arrantzale
honek esakera
soinuaz egiten dau
amai isilbera,
badirudi apaizen
jai-abestukera
mezatan heldutean
Ogia onestera.

Eskuak geldi daukaz
mintzo bitartean
itsas-semeak holan
hitzera barean;
mila elezahar eder
entzun ondorean
aldendu natxakio
ondamu antzean.

¹ "Arrantzale zaarra", *Egan*, 1951-1, 17-18 or.

Urrunean begiak,
soina lehorrean
utzi dot laguntzarra
Talako kurtzean;
goian artizarra ager,
kanpotsak dorrean...
marinela burutsik
isil, otoitzean.

LARRAN¹

Larreko ta Irular adiskideei

Ni ere nekazari
izana nozue,
eta aittitaren bordan
labarto² gozoa
jana nago sarritan,
aste labasua
zortzian behin genduan
umeon zerua!

.. ..

Aldiz-aldi egoten
nintzan baserrian
anai-arrebak utzirik
kaieko herrian;
amaren itzalpean
—ni uzkar une izan—
saia zeru goira lez
basoratzen nintzan.

Bizargabe aroko
bizi atsegina,
orduan ez jakin zer
zeitekean mina;
ene barne-landarak
ez lei ez gorrina,
garden ta izurrik barik
bihotzaren grina.

Mutikoa izan arren
behiak nik menpean,
akulua sorbaldan
gizonen antzean,

¹ "Larran", *Egan*, 1951-1, 19-20 or.

² Labarto: artoa, labean lehortua.

abereen aurretik
errekaratzean,
han ura edan aurrez
gozaro larrean.

Behiak otzanak ziran
bai, bat ez, besteak
bat honek begi bizkor,
apatxak gazteak;
bakartia, zoranga,
baltz-baltzak uleak
hark nahiago auzoko
larra eta aleak.

Zerbait aldegitian
heltzen nintzakion,
ta akuluagaz zizta
ezer balerion,
errekaldetik goirantz
lehenengo nik igon,
handik sokil³ bat jaurtiz
izualdi emon.

Hori ikusita azkar
bigantxa izubera
larrari agur eta
etxera bidera,
nik zidor laburra hartu
ta urten aurrera,
bigaia barrero be
ene esanera.

Behi-bigantxa haek biak
"Baltxa" eta "Arrio"
izengoitiz nituen:
"Zoro", "Zorabio";

³ Sokil: mokil, zokor.

haura erosia zan,
hau etxean jaio;
senide zirudien
biek, horraitio.

Urrun, tontor aldean
herriko eliza,
eguberdian ozen
Andra Marin hitza;
arratsberan ostera
gabaren geriza,
haiek nik orduzari
jatorraren gisa.

Larran edoski neban
nik haizutasuna⁴,
txoriaren hegada
jareia, laguna;
haien kanta alaietan
musta askatasuna;
geroz, gorroto hil arte
kataien astuna.

Eder, larran behi-txahalak
eguzki gozotan,
areago gizonak
jarei lau haizetan;
uritzarko bizitza
neketsu honetan
kai eta zelaietaz
beti amesetan.

.. ..

Ni ere laborari
izana nozue,
gaur ere hozkamin dot
labarto gozue...

⁴ Haizutasun: askatasun.

NEKAZARIARENA¹

Zahutu zituan azilak egunik gehienak,
auzoko arkaziak galdu orri denak.

Nekazaria zaintsu
goldearen jarrai,
aurretik nagi idiak,
akulua ernai;
itaurreko, mutiko
pizkorra azkar, alai;
lurraren azalean
zauriak ildogai.

Txindorrak txio ituna aspaldi jo zuan,
geznari huts-etzina baituzu neguan.

Nekazariak erein hazia soroan,
lurrak eman ohi dio galburu geroan.

Txikia zana haunditu, lastoa tantaitu,
maiatzeko loretan lastoa burutu.

Alor heze muskerrak
giza-gerrien gain,
laboraria pozik
balu igazko lain;
bitartean, artoa
erein zana arestin
buru txut agiri da
mardulik goramin.

Baina hazia igali-gai kozkondu artean
igazko uzta-adarra ganbara zaharrean.

Neguko gau luzeetan arto txuritzean
su iratxoak aurreku enborren gainean.

Noizpehin labore lanak lotan badaude ere,
ikuluko jendeak egunero galde.

Egunero galdea,

¹ Donostiako "I Concurso de Poesía Eúskara"-n, nekazari sailean saritua.
1950-XII-21.

ta nolatan, gero!
lehendabizi intziri isil,
entzuen al? Ez edo...
Gero, murrusa ozen
ta are ozenago,
azkenerako organu
zaparrada ero.

Orduan bai beharko eman zor zaiona,
hortan baserritarrak etentzeke lana:
belar igarra inoiz ta bai belar gizona,
baba, lasto, arbia, sasoiari ohi dena.

Deitu ta jeiki bitez etzinda daudenak,
aska bete ezkerroan zuti dira denak.

Hiruzpalau behi lodi
errapez haundiak,
txekor eta bigantxak
guri ipurmamiak
urde lotsagabeak
—lukainka iturriak—,
idizaharren auzoko
asto belarriak.

Horiek guziak dute bakoitzaren ago,
—sabelean zuloa ote duten nago—
beharko lana egin erruz eta naro
horientzat; horregatik, artzain nik nahiago.

Artzainak luziritziz negu gordinari
adi egon ohi dira kuku-soinuari...

Ta galeperrak doinu
bakarra agertzean
igitaiak irritsez
sorora nahiean.
Gari-ebakitzean
ta gari-jotzean
baserri euskaldunak
joranez betean.

Basetxe ondoan ta larrein zabaletan

etxe ta ingurukoak horra auzo-lanetan:
landan bazkari eder, gero lo itzalpetan,
lo-xumearen ostean berriz saiaketan.

Urtearen gurpilek iraul-bitartean
kolore-sorta agiri euskaldun lurrean:

negu-atean nabar
biluizik alorra,
urrun, ubel-margoa,
edo-ta elurra;
arbigaraz horizta
udalen aparra,
maiatzean orlegi
soroa ta adarra.

Berun-hodeiak urre ta uda urdin heltzean
urresalda gainezka garitza ertzean
ta amapolak odol-huts, zauria agertzean;
ozkorria zein eder garoa igartzean.

Nekazaria halare, beti ez lanari:
igande arratsetan giz-andrak musulari;
azoka ta dema aldiz joko ta bazkari,
jaietan neska-mutilak emanak dantzari:

“Tirikitauki tauki,
mailuaren hotsa,
laster ezkontzen ei da
gure neska motza,
ai, ai, ai, gure neska motza”...

Gure neska motza ta
auzoko txoria,
horiek izango dute
urrezko kabia,
ai, ai, ai, urrezko kabia.

ARRANTZALEARENA

Arrantzuko nekeak

Ene seme-alabok, Ester eta Txabi
bakoitza bere ohean sartuta isil jarri;
gaueroko ipuintxoak entzuteko adi:
Arrantzaleen lan ta lor astunen barri
jakin nahi al dozue? Erne, ba, belarri.

Abenduko gau baltza. Ta amaitu baino lehen
deitzaileen oihua kalearen barren;
arrantzaleak utzi dau loa lehenbailehen;
ura izoztu hurren eta teilak dirdiz garden,
egun-ilentia ez artean, ekalden.

Jagi da arrantzalea; jantzi bitartean
otoiak lora ditu ezpanen artean;
urari ikutu eta bildurra uxatzean
emazteak irripar maitasun betean,
izan ere, itsasemek beti ura aldean.

Otzarara jaki ta ogi tatoa sar,
ta oinetan zurezko txikitxokoa jar;
umeak bitartean lo, zurrunga ta abar,
aitak begitu deutse, bihotzaren atal
haek lo ikusiaz ez inolaz poz txikar.

Sudurreko dindirri, lehiak gogortu nahi,
arnasaren lurruna izpitan ikusgai;
ontziratuak dira gizon ta lemazai:
agur-egin ta utziaz (betiko?) euren kai.
Hotz, ilun, itsasoa; uhinak irri, nasai.

Uhinak barre, nasai, gosea ase nahirik,
ateko bandan gizonak uste txar bagarik,
—antzinan abantean arraunak jasorik,

gaur sukalde ondoan, berotu gurarik—
alkarri galde izango ete dan arranik.

Arrantzale euskaldunak begien argian
itxaropen txingarra baitau agirian,
bestela nola azaldu zintzilik harian
biziaren arnasa beti galtzorian?
Lehortarrak ez dauka zer hori igarrian.

Kalara heldu eta tresnak antolatu,
tretzak eta tuntuizak euren lekuratu,
hotzaren hotzez, alaz, eskuak mangutu,
ondasunak ugari, ustez han bilatu;
ahazturik han dabela hilobia gertu.

Kalan arrantzu ona hartzen hasi eta
gizonen begietan pozak agerketa,
ogi, jantzi, etxea... diru-banaketa,
dendan zorrak ordaindu ta beste pusketaz
oinetako barriak, txapel, txurruketa...

Eguberdi ingurua heldu jakenean
hodei ilun ezainak ager goibelean,
mustur erre itsusiak zemaika lehertzean
uhinak irakiten hasarre antzean.

Aduaren ankerra galmendi haretan!
gizon bulartsu haek alkarri itaunketan
ekaiz gogorra sartu al dan bat-batetan.
Ta ontzia iperloka zoro dantzaketan.
Gero? Gu, arrainen zain. Haek, ito uretan.

Arrantzalearena bai lañbide latza!
etxetik urten behar, galda izan nahiz hotza;
kai maitean utzirik gogo ta bihotza.
Kristal antzekoa dan kresal-lezea, hutsa.
Lan-saritzat sarritan deus ez... heriotza.

1951

ALABA GALDUA

—Aitatxo, nik dudan zoriaren beltza!
Noizbait ezti iduri, egun bai mingotsa!

—Zer dinon, alaba, etxeko loretxo
ez dinat hitz hori entzunik eguno.
Hatozkit neugana, beso artera hel,
hire oinazea niri isilik ager.

—Aitatxo alargun, lagunik gabe,
zuhurtz egon zaitzu zure alabea;
ama galdu nuen; zu, aita, urruti
ta grin en lezea zabal dut iduki.
Zabal dut iduki gizonen artean
haien hitz aizuna¹ sinetsi bainuan.

—Oi, alaba maite, zori beltzak joa,
lehia makurrak hori dun hondoa:
lilizko bidea zabal lehenean
arantzezko zidor malkar azkenean.

—Ene aita, barka nire oben handi
ahalkeizun² zaitzu, ez duzu merezi.
—Isil, ene haurra, zigorra dut zinez,
aita batek ezin umetxoa mincz
bertan behera utz behar mundu huntan:
deramagun huts hau bion lepoetan!

¹ Aizun: faltso.

² Ahalkeizun: lotsa.

Aita eta alaba elkarri besarka
zinkurinez otoi, zeruari barka;
garbitasunaren jauntzia urratzean
ordaina soil-soilik nekezko bidean...

ZARAMA-ZALEAK

Huna zer dudan zinez
egun ikusia:
zikin artean usain
gozoen antsia,
zarama-orga zabal
sabel idekia
kalez kale ari da
goizetik jeikia.

Orga horren gupilak
bai zalu¹ arinak!
zaldirik ez du baina
bai hegal sorginak,
ordu laburrez ditu
bideak eginak
hiri eder handiko
kale lau berdinak.

Turut-soinuz ohi du
deia adierazi
—zimistindar denean
ate-txirrin bizi—
eguneroko saila
eginez geroztik
etxe zokoak apain,
eltxoak ihesi.

Zein, baina, zikinetan
dela usain gozo?
Zikin lorreta hortan
zer dela eroso?
Zer hauk ez, numbait ere!
bainan eder oso
orgako bi mutilak
ta neskame asko.

Orga muturbeltz horrek
Kalez kalekoan
gainean gazte eder bi
ditu, jaun antzean,
heien zain, irriparez
ate bakoitzean
hiruzpalau neskatz
jantzi arinean.

Mutilen poz handia
goizeko orduetan
neskatzak ikusteko
soineko ilaunetan,
ta neskame zoroak
—ames, kolkoetan—
mutilen hitz egarriz
jeiki ta batetan.

¹ Zalu: bizi.

Kale gorrian berez
sortu bertsoñoak
gazteri ederraren
maite izpiñoak!...
hortxe dabil bizia,
dardar, kirioak,
ahoek par, bihotzek
zabalik hegoak!...

MAITALE BI

Atzo ikusi nuen lerdan,
begi ederdun Madalen;
kolore hitsa ostu zeraukon
zume¹-ostoei gau baten.

Zume-ostoak haizetan
garagarril egunetan;
lastokara² du ilea, garden,
zintzilik lepo gainean.

Ba omen du beltzeranak
zadorrez³ betea barna,
bainan emazteko hunek ere
bere zadorra darama.

Begi urdin garbi oso,
egun-abarrez itsaso,
nini zurixkak badute estaliz
zalantzarik gazi-gozo.

Ai, Madalentxo, Madalen,
maitea ez duzu hemen,
baina maitagai berria duzu
lehena ez duzun arren.

Begi zurien zadorra!
—amets urdinen alorra—
nahi bazenu, laster zenuke
gazte hunen maite-zorra.

Ai, neskato ameslari,
hemezortzi udaberri,
maite bat urrun joan zaizu ta
bertze duzu ingurari⁴.

Bertze duzu ingurari
—bihotza ohointzen ari—
dudaz zer egin ez dakizua?
Egin bihotza erdibi!

¹ Zume: sarats, zumitz.

² Lastokara: lasto-koloreko.

³ Zador: sekretu, isileko.

⁴ Ingurari: inguruka.

AZKUEREN HERIOTZAN¹

Iondone Martin bezpera,
bozkarioa alper da:
Seme handi bat galdu du eta Euskal Herria minez da.
Oskarbi dago oskarbi,
hegoa dabil zoroki;
Billboko ibai ertzean biltzen jende mordoia isilki.
Gora da lerden iguzki,
ez da hodeirik ageri,
halarik ere nire kantua egun, hileta eresi.
Kanpai astunak dorrean
dulun ta dulun hitsean,
zinkurin bana gorde ezinik bat-bederak ezpainean.
Azkue handi, Azkue!
Euskerak zuen zutabe,
amarengandik ikas-mintzoak euskaldunon irakasle.
Orain soilik, maisu gabe,
alorra itzuliren larre?
Berde gizona genuen soro, geroz nabar eta arre.
Ohidura, ipuin, kanta,
herri baten barne antza:
anitz liburuk kutun gorderik dute hark egin urratsak.
Joare hotsa berriro,
negar isilaren giro,
elkarrengandik banatu behar, bihotzetan sarrakio.
Atalasean² gorpua,
agure eder zimurtua,
haren begien urdin betea zeruak zeken hartua.
Berrogei apez zurizko,
bertze berrogei beltzezko,

¹ Saritua Donostian, 1951-XII, "II Concurso de Poesía Eúskara".

² Atalase: ateburu, ategane.

erdi-erdian gurdi arin bat hiltzaren ebasteko.

Apez kantuak geldiro

betiko bakea, dio:

anima-artzainak, euskal artzainak sailduki ukan du herio.

Zeruko Jainko maitea

sarien banatzailea,

alderen alde idekiozu zorioneko atea.

Zorioneko atea,

hautsirik bizi-katea,

betiereko arnasaz duke animak hango bakea.

Iondone Martin bezpera,

bozkarioa alper da:

Seme handi bat galdu du eta Euskal Herria minez da.

AMA, HITZIK GOZOENA

Zerbaiten bila ibili nabil:
musika gozo nun aurki?
oroipen samur nun idoroko,
amets lorea nun kausi...
Lehia bizian ene barruan
muinak irakin diraki,
doinu iturri, susmur biguna
ene baitan dut isilki.

Ene baitan dut jario emez
betiro etengabea,
hitz bakar baten oihartzunak dit
musika sortzen barnean.
Hitz hori zein dan? Zein izango da:
Ama hitzaren aldean
ipinteko den hitzik ez dugu
gure lurraren ganean.

Ama, amatxu! hitz labur horrek
ernarazten du barrena,
haurtzaroan guk ikasten dugun
mintzakietaz lehena;
bizitzaldiko bide hoietan
batean poz, hurren pena,
Amaganako dugun joera
lehena dugu ta azkena.

Ginanik ere ez genekiela
amak eman zigun bizi,
amak odola, amak arnasa
—Jainkoak anima, noski—;
mundura agertu ginan orduan
amaren minak bai hasi,
dezaiokegun guztia baino
amak gehiago merezi.

Jaio ondorean, odoletiko
esnez hark ninduen hazi,

iturri gozo, ta emailea,
amatxuren bular ezti;
lurreko bazka ta janariak
haurretan alde bat utzi,
amak sortua amak asetu,
deuseza gitxi iritxi.

Nork egin leza holako lanik,
nork ezerezaz gizaki?
mundu gainean ama bat aina
ezertxo ez da izaki:
diru, ahalmen, ospe ta aipu,
jolas, dantza ta bazkari,
urre ta zilar, jauregi, dorre...
amaren pare ezin jarri.

Zorion betez gagozanean
adiskideak ugari,
ingurubiran ingumak antzo
izaten ditugu sarri;
gazte garela, eder garela
emakumeak ere bai,
diru soinura otseinak mila
gure aginduaren zai.

Baina ekaitza ziztuka agertzen
zaigun aro gaiztoetan
dirurik gabe, lagumez urri
soil gelditzen garenetan,
gure osasun galduen galdez
oihan minez gaudenetan...
orduan Ama! deitzen dakigu,
Ama! estu larrietan.

Ta bizi bada bizi, amatxu...
dena utzi berehala
laster askorik dugu ondoan
gure minak osatzera.
Ta, baldin ama hilik dela ere
haren oroipen gozora

gure saminen aringarritzat
Ama! dugu ezpainera.
Ene amatxu maite zinana,
beti zure oroipena,
bertsu hobeak egin nahi eta
ez da hau betarik onena;
odola eman zenidan arauz
ta bizi ta arnas lehena
eman bekizu Aita goikoak,
arnas amaitzen ez dena.

BIHAR EZKONDUKO NAIZ¹

Ama! noizpait ere bihar
ezkontegun,
niri begiraka egonen
zenbait lagun.
Oi, biharko goiz ederraren
zoragarri!
gau beltzak erdiren iguzki
dirdizari.
Nire jantzi harro apainak
zuri-zuri,
orenak oro lore itzuli,
usain-lili.
Ama, emanen derautazu
onu² azken,
alaba hau musukatuz
onetsiren.
Aldiak duen legearen
betetzea,
belaunik belauñ gizakiak
kimatzea.
Laster helduko zait hegalez
senargeia,
txoriak antzo zeharkatuz
goi hodeia.
Gaurko arratsak lasterko du
ilun nahi;
etzinaldean³ laino beltzak
ote zemai⁴?

¹ Algortan gertatua, 1951-VII, hegazkin istripua.

² Onu: aholku.

³ Etzinalde: mendebalde, sartalde.

⁴ Zemai: mehatxu.

Ene! orain bat-bateko
 haize ziztu,
zanbulu izugarritz kulunkan
 adaburu⁵.
Ama, hegazkin hotsa entzun
 ote dozu?
Hegazkin hortan pozik dator
 norbait, usu.
Ene ba, zeruan ximistak
 ari dira,
barreanean min zolia dut
 nabaria.
Alderen alde zurikatuz
 oinaztura,
samin edontzia dut musta
 nik, ardura.
Ama... entzun duzu arrabots
 ozen hori?
Agian, hegazkina ote
 hor erori?

Haritzondo malda perdean
 hegazkina
zatiturik zetzan, zeharo
 puskegina;
barruan zerraldo, gazte eder
 ta gordina.

⁵ Adaburu: arbola-buru.

GORAMINEZ

Josemari, Augustin ta hirurok¹

Mendi garaian eder, lizar, hurritz, pago;
izadia eder da, Jauna ederrago.
Beti gora nahirik du gizonak gogo,
gorputzetik arima askatua bego.

Muinoz muino goraka zerurako mailak,
erpin garaienean arrano arkaitzak;
goian zerua zabal, hodeiezko larrak,
mugaz ahantzi dira haizeen hegalak.

Arruetako bake aspaldi gezurra,
bake ediren ezina, larre hutsa lurra;
aberekoia baitu gizonak makurra
ta areagotzen orain gure soin bihurra.

Utz, adiskide onok, ibar urduriak;
utz, ordu batzuetaz eta igan mendiak;
lainoen pare bitez arima intziriak,
arin, goiaren gale², lurrez biluziak.

Aloñaren maldako gandor medarrean
hirur adiskideok uda goiz batean
ikusia nagotzu zorion betean
mintzaldi gozoetan, asper ezinean.

Mendiaren ederra artalde txuriez,
txabola zahar batzuk zurezko hesiez;
ardiak nare³ han hor belar mizke⁴ galdez,
ikuskaria hiretzat, adiskide apez.

Behera xamarrago eleiz aipatua
Andre Mariren alki askok ikertua,

¹ Jose Maria Arizmendi, Augustin Zubikarai eta Eusebio Erkiaga, 1937. *Egunako idazleak*, gerratean.

² Gale: gogo, gurari.

³ Nare: nasai.

⁴ Mizke: gordin, guri.

mila eratakoen joera lekua,
gizabihotzen berri, hik, filosofoa.

Eta hirugarrenak —beti ametsetan—

galdegin zerauen, zer ote zeruetan?

Hemengo berrietaz betiro eletan

ari ordez, zergatik ez amets goietan?

Ta solasok gozaro entzun bitartean

Iguzkik irrialdi hodeien artean;

hodei txuri apainak urdin nahastean,

lerra ez dugu eder pagoa hainbestean.

Oi, mendiaren deia, sorginkeriz bete,

negu ordez nahiago dut udako epe;

nigar herri hau dugu arru beltz, negute,

non ote dauka hemen zorionak ate?

Hiriko bizi behar latz hunek hezita

halaere ez utzi goibide bisita;

gauetz ilargiari zakurrak ausika,

hekien antzora gu maiz maiz intzirika.

Baina ez hasperena soil, iguzkiari,

iguzkia ere ba, noizpait itzul ledi;

iguzkiaren Jabe, zeruen Nagusi,

Jainko eder bekigu minon osagarri.

Mendi garaian eder urritz, pago, lizar,

zeru urdinean are, gau zardoiez izar;

soin ustelkor hau dugu hemengo hirizar,

Hiri Berrian ikus dezagula elkar!

AMAREN ITZALA¹

Munduko bide hontaz
larri gabiltzala
maiz ahanzten dakigu
anaia garela,
gizonak, iraintzeko
badu sen ergela
denon gain bego zabal
Amaren itzala.

Amaren itzal eder
nik ahantz ezina,
ama galduetz geroz
enea dut mina;
anai artean inoiz
hasarre bagina
itzal horrek birlotzean
kateak adina.

Euskal semeak dira
mundu bazterretan,
adu gogorak ditu
elkar urrunetan,
hurbil ez egotea
badugu kaltetan
ez gerta euskaldunok
elkar hasarretan.

Itzal-zuhaitz horretzek
badu igalia,
amaren emaitz denez
eme ta ezitia:
Zuhaitz sailduak antzo
zitu berezia,
barkatutzen dakien
bihotz-isuria.

Badugu oraindano
Arbola maitea
guztion bihotzean
zuzentza-bidea,
ta are badugu Ama
zoririk gabea,
gure lan eske dugun
Amatxo gurea.

Gauden, bada, euskaldun
ta elkarren laztan,
guti bagara ere
beti lehenean;
zintzoak sari duke
egunen batean,
bat gaitzean anaiok
Amaren aurrean!

¹ "Amaren Itzala", *Gernika*, julio-septiembre, 1952, 20. zk., 200 or.

MAO GORRI

Maho gorri,
xuluf¹,
atzo hamar,
gaur hogei.

Gazterik asko senargei
ditun beti hire hitzetan;
atzo hamar ta gaur hogei
hire ondorik minetan.

Mao gorri,
xuluprei;
atzo hamar,
gaur hogei.

Hamaika bihotz-eskeko
hiregana ate-joka;
hi, barriz, marfil-dorreko
erreginkume panpoixa.

Mao gorri,
xuluprei;
andereak
noiz eztei?

Bata besteen ondoren
mutilak isil-mandatu;
eta hik irriz, ez lotsarren
muxin bihurritz ukatu.

¹ Xuluf¹: klavelina.

Mao gorri,
xuluprei;
andereak
noiz eztei?

Bihotzak, heldurik, zabal
eskuetan abailduak;
bainan hiretzako gezal
maiteen hitz gozatuak.

Mao txuri
xuluprei;
lehen bero,
orain lehi.

Heldu diranak ugari,
alde eginak areago;
baina lehio urratua
inguru zuriez dago.

Mao txuri,
xuluprei;
lehen gori,
orain lehi.

Oinezkorik gura ez ta
zaldizkorik agertu ez;
sagar heldua umautu dau
astiak geldu egonez.

Mao ubel,
xuluprei;
atzo, barre,
gaur, enei...!

TXIBIRITAK AGERTZEAN

Ongi etorri udalehen argi
begiok alaitutzero,
landaren azal orainon itzal
soineko bitxiz jaztera.

Lurgane nahi goi dituzun morroi
lili eta mitxeleta;
bildots zuriak jaio berriak
jo neguaren hileta!

Kardantxiloa oztan hegoa,
hau bai eskola mutila!
bertso artean maisu antzean
pirritxio biribila.

Mutil koxkorrak kabi lapurrak,
sasitza eta txaraka
urduri dabiltz neke ta izerdiz
txorikumak nun harrapa.

Haize-egarriez etxetik iges,
umeteriak jai eder
kaleen gerri neurrien berri
hoiek bai ikasi laister.

Ta ene enarak gertu otzarak
bidealdi luzerako;
mosu beroa urrutikoa
gure egutearentzako.

Loretegian harri-aulkian
lagun bi esna, ametsetan...
gazte alaiak asmo argiak
kolko eta ezpainetan...!

Adaburua borobildua
etxaurreko arkazia,
lainoa galdu (hodeiek saldu)
urdin-jaio ozkarbia.

“Urdin jantzia; are, begia...
neskatx tankera irudia”
holan esaten ari izan zan
euskaldun olerkaria.

Oroitzapena bihotzarena
usain gozo bihur bedi...
Udaberriko loren zimiko¹!
Oroiak nauka mineri...

¹ Zimiko: atximur.

ANDRE MARI

Ikusi duzua txori polit horrek,
Andre eder bat hemen zehar iragaiten?
—Zerua zeraman soinekotzat harek,
oinetan hegalak haizea urratutzen.

Ikusi duzua lili txairo horrek,
Jerikoko lore baino hobe denik?
—Bai, eta haranetan sortu loreñoak
hura ikusiz geroz, huna ahalkerik.

Ikusi duzua ene iturri garden,
deus garbiagorik zure barna baizen?
—Andre Eder-en pare ene kolko barren
hau lohia duzu, arre ta beltzeren.

Ikusi duzua, gaueko izar zuri
ilargi antzeko argi xarmantarik?
—Zilar ilargia oinpean hartuki
iguzkia baino aregoko Iguzki...

Zer duzue, beraz, ikusi hain eder,
txori, lili, iturri, zilarrezko izarrok?
—Erregin handia, Andrerik ederren,
Andre Mari dugu ikusi guztiok!

1952

GABON OTOIA¹

Gauetan gaua!
Neguminean sua,
nahaspil artean bake eder...
Zer duzue, artzainok?
Zer, harru eta gainok?
Zer?...
Zeru beltzean izar berria ager!
Jaungoikoaren errainu,
gizonentzat maite-soinu.

Din, dan, din!
joareak egun, ez dizu min;
haizean barna aingeru
eta kerubin.

Dan, dan, din, dan!
Har ezazue zuen hegalpean
otoiaren oiharzuna:
gure arimen zoriona,
gure Herriaren osasuna
mendecn mendetan!
Din, dan, din, dan!

Ta Jaunaren eskuetan.
Din, dan, dan...!

¹ "Gabon-otoia", *Gernika*, 25. zk., octubre-diciembre, 1953, 213 or.

BETI GOSE¹

Goizeko izar hori agertzen denean
soina dut katigu, geldi, lo betean;
egunaren lehen intziri gorbera
ihesi doakit hedoi en artera.

Eguna aldaparen gailurreratzean
lanari nagoko, zut, jende artean;
Eguzkik gandorra² orduan harroen,
ta ni, so egiteke, arazo en barnen.

Baina artizarrak agur egitean
arima atzarri³ dut amets en menpean;
ta ilunabarra ure mihisez jartzean
zerumina sortzen giza bihotzean.

Zerumin bizia, Jaungoiko gosea,
gizonak barnean dadukan lezea;
alperrik bilatu laket eta atsegin,
lehia min horren asetzea, ezin.

Ortziko zelaia izarrez jostean
orduan ez iraun sinis gogorrean;
eskuak bildurik, belaunak hurrean,
idortu begiok esker-negarrean.

Begiok idortuz esker-negarretan
zeruko zituak niretzat aletan;
egunez ni sorgor bizi za aldapetan,
ta zu, Jaun, gauean bihotz-lapurretan.

Erkiagarre⁴

¹ "Beti gose", *Gernika*, 17. zk., octubre-diciembre, 1951, 34 or.

² Gandor: gangar, kukulu.

³ Atzarri: izartu, esnatu.

⁴ *Gernika* aldizkarian (Buenos Aires) erabilitako izenordea.

OLERKI-MATXINADEA

I

Gorpu-lorra

Kristalezko kutxa baten
maitekiro gorde dot
gari-lastoz bildua
nire bertso zaharren liburua.

Luma igerra, ugartua,
lurpean dot sartua,
galtzairuzko tresna motz.

Urrezko ortz zorroztua
hartu nahi dot,
barriraztua barik
jaiobarria izan dadin
nire asmoa.
Halan be, lehengoak
esku ta burua.

Betor ba, nigana,
suspertze bardinbagea,
edur-urtute osteko
iturri gizen betea,
ta irakinerazo odol barria,
mordo maminen ardau gorria.

II

Erbestetuak

Ondarzabalera dei egin deutset
banan banan, bertso lotuei;
Lea ibaiaren azkenertzera,
zortziko nagusi ta txiki
ta enparaukoei.
Uretara bota dot
neurri kordela.

Zergaitik gure hizkerea
Lot zanaren emaztea bezela
geldi, nagi, aldaezina,
neurri jauntxoaren jopu egina?

Bertso arinez
bete dagiguzan paperak,
hitzak banan zenbatzeke.
Hemen ditut erreskadan
deituriko eredu zaharrak:
hamar ta zortzi,
zazpi ta sei,
sei ta sei
eta abarreko hitz batzarrak.

—Erduze, maiteok,
orain arte jauntxu
zakiguzanok,
Eta horretara ezkerero
bego Berzeo
alde batera,
ta ez neurtu guk
hatsez-hats lehengo antzera.
Sasoia zan, bai gero!

Ta orain goazan, eskutxutik,
izaroko horma-bidean zehar, kontuz,
txirrist egin barik.

Hor gertatu deuntsuet
atseginezko ugarte,
larran ibili zaitezen
aspertu arte.
Itsas urdina gerribiran,
urrezko hondartzak urabeheran.
Neguan, gordezuloa babes

ta udan, pinadian geriza ederrez.
Ez zan hain gozo, ai ene,
bere jaunarentzat Muñatones¹.

Hor edonoiz, kresal-usaindun orroa,
—mugabako zurrunbiloa—
udagoienez taldeetan
pasako usoa.

Munduko geznari²
hango ta hemengo barri
itsastar ibiltaunak,
santza³, kaio ta kalatxori.

Antzinako komentu zaharraren
harri bananduetan
salmo samurberak
otoiez kantetan.

Ta ni, noiznahi
zeuen adi,
ta gero be,
zeuekin sarri,
auzokide kutun
berberton, edegiak leiho ta ate,
zuekandik ez urrun
harrikadea bitarte.

Lumentxaren⁴ oinean,
neure habia maitean,
eliza ondoan,
hilerriaren alboan.

¹ Gaztelu horretan Garcia de Salazarrek egun gogorak izan zituan.

² Geznari: meztulari.

³ Santza: itxas txori.

⁴ Lumentxa: Lekcitioko mendia, "Kalbario" be baderitxoe.

LEIHOAN¹

Leihoan nago
—berinak lano—
maiteñoaren begira,
zeru goiean
zilar antzean
izar zurien dirdira.

Izar zuriak
dirdiz begiak,
Maitea ez dut agiri;
sagutzar baltza
hegal zabala
inguru dabil ibili.

Behin ta berriz
eskuz igurtziz
berinetik ken lanoa;
halarik ere
lagunik gabe
ingurabira osoa.

Begiak bizi,
belarria adi,
—zaldihotsa dut haizean—
orain, ene Jaun,
gainezka joran
ene bihotzak aldean.

Barneko argi
—lehen itzali—
berriz ari da dirdaiez,
zaldi zaloa
arin zangoa
ikasi dut belarriez.

Ai, baina, ene!
haizeak eme
sarats artean zinkurin;
apatxots hura
nonbait galdu da;
heldu ordean itzuri.

Honerat muen
zaldiñoaren
aztarnak galduak dira;
zaldun ederra,
bihotz ankerra
ihesia urrutira.

Ai, ene leiho,
hik ukan lano
enegana duk aldatu.
Ene zoria!
nik iguria
bertze anderez senartu.

¹ "Lehioan", *Gernika*, abril-junio, 1952, 19. zk., 118 or.

EUKARISTIA, BAKE OTURUNTZA¹

Elurkara jantzizko Oturuntz zuria,
ekiak zakarguzan zerutar Ogia!
Padu² huntako mana, goizero berria,
ene barneak zaitu garazi³ iturria.

Ur bizien iturri, mundukoez bertze,
ene ezpainok hor ditut egarriaz eske;
oreina bezala ni zalu bainoake
iturburu hortantxe uros⁴ naizateke.

Eliza ilunbezuko bazkari handia
—han isil diren hitzez erasi eztia—
begiok lanopean badute nahaspila,
gogoak, begigabe, Zu zaitu Iguzkia.

Zu zaitu Iguzki eder arimatxo humek
—hori ezagun nahi ez dute gizonek—;
Zure izpi soil baikara, zure haur, zure ume;
zer dezake egingaiak Egilerik gabe?

Ene barneak gogo duen etxeliar,
osasun dakarkion Soin tinko ta gihar,
idorraldian ezo, makalean indar,
galtzer nagoenetan zeruko deiadar.

Aingeruen ahala dut, gizonen janari,
Geroa argitzen duen oraiko dirdari;
heriotze beltzean galdua iduri
baina Zuhaitz saildutik odolez erosi.

Ni erosi ninduen odol baliosa,
Kristoren saihetsari oparo dinotsa;
aldiak azkena du, Kristok heriotza
ukanik, ideki du Ate bat niretzat.

¹ Oturuntza: jan-edan, otordu.

² Padu: basamortu, eremu.

³ Garazi: grazia.

⁴ Uros: zorioneko.

Zeruetako Ate, zorion muga arrai⁵,
bizitzak betiere han du lur ta zelai,
goi urdina tai gabe, nehoiz ere ez ekaitz,
maitetasun beteaz han du errege gai.

Bego aldebat gizon zirtzilen eroa,
nik badut mahai baten zorion arnoa,
Bildots zuriak duen Aragi beroa,
barneak nahi duen Ogia, gozoa.

Bego munduko oihana, ergelen biltzarra;
bego arrabots ozen, karraska, nigarra.
Garazi ibai ondoan eihara zaharra,
han biraka gau ta egun arimaren garra.

Isil-isiletako soinu isilbera,
mintzorik ere ez duen aingeru hizkera,
aldare apalean belaunak lurrera,
Janarien janari baitatort barnera.

Janarien janari nireganatzean
ezereza naizenik ahantz, maizenean:
hunelako zorion dudala lurrean
Betikoa nahi dut Kristoren aldean⁶.

⁵ Arrai: alai.

⁶ Congreso Eucarístico, 1952, Eleder Sariketara, Bartzelonara bidalia.

MINONDOKO ITXARO

Ene bihozpeko hots hori!

Ixi, ixi,

zagoz ixilik;

ene gogamena lo baitago

gauaren ohatzean etzinik.

Atsedeen nahi dut, atsedeen,

ametsaren hegal gozoetan;

lorreta huntarik irten

eskuak garbi, poza begietan.

Ezin!

Arantzak ditut oinetan;

gorputz osoan min,

tanta gaziak masailetan.

Badut zeri nigar,

zeri hileta soinu;

atsekabe ibarrean

ezin ixil neke-zeinu.

Bainan...

Ixi, ixi! Ene Nagusiak

eman derauzkit lor askiak

geroko geroan

Atsen bete ukan dezadan.

OIHARZUNA

Badut barnean
isil-isila
atsekabe baten samina,
 oinaze mamina,
intzirin-su ezin hila:
 sorterri-mina
 nigar-iturri egina.

Banituen aintzinan
mendietan oihan eder,
ezpainetan mintzo uxter¹:
 Euskara mina.

Egun,
beharriok sorgor
nehon ezin entzun
amaren intzirina.

Iturburuak agortuak ote?
Oihanetan susmurra sumtsi?
Kaleak barna,
mendiak zeihar ere
erdara-usaina soilik.

Ardi galduen arrana
muino gainetan dalandan, hits.
Bertzeena maitatzekotz
nolatan norberarena utzi...

Amaren intzirina...
semeetan auhen zikina!

¹ Uxter: samur.

1953

ILARGITAN

Ilargiaren izpi esnekara¹
—olerkariaren maitari hauta—
ibaiaren bular leguna
urre zuri itzuliaz,
sorginek irradaz
dute gaueko biltzarra.

Ai, erreka-ertzean
galdu artzaina...
—hunen liluratzaille lamina—
gau ilunaren diztira urdinpean
zure anima dabilkot
ene oroimenean
larri ta hersturik.

Hontzaren urubia²
ihintzez ezotua dabil;
oiharzuna lahar³ artean
askatasuna galdurik.

Corputzaren lerak hautetsi
zituen bide linburietan
hor ari dira teiuki⁴,
Zugarramurdiko zokoetan
atso likits, mutil, neskatxi.

Halatsu, orainez orain,
Saint Germain aldean
soin erotuak lerde jario
ardoaz ta abere antzean.

¹ Esnekara: esne-koloreko.

² Urubi: ulu.

³ Lahar: sasi.

⁴ Teiuki: zikinkiro, lohikeriaz.

Mozkortzen dakizun
ilargi eder horrek
zergatik duzu barne aizun?
Zer dute zure izpi emeek
gizonen bihotzak
humela tutulikatze⁵?

Baina ene hitzon hotsak
ez dute ihardespenik ukan;
Eta, ditzira isilen tolesetan
hontzak, urubio motzeko
oiharzuna sortarazi zuen,
han, inguruan.

⁵ Tutulikatu: lihuratu, limurtu.

MAHAI SAINDURA

Ezkon-anaia zaharrenari

Uhin harroen gainez gain
zoazan untzi hori,
nun dozu atzo zurekin
zegoen gazte gordin?

Hainbat lur ta itsastxori
zeru ezberdinetan
ikusten ditu untziak
joan etorrietan.

Mendi heze, hondar gorri,
bazter urdin emeak,
ta izpazter zoragarri,
hiri urrez beteak.

Itsasgizonak kaietan
han hor hemen maiteño,
lilurazko ele horrek
nornahi mozkortzeraino.

Uhin artean zabiltzan
untzi horrek erantzun:
joera emaile hura
oraingoan nun duzun.

Nora joan da ihesi
mundu alaia utzirik?
Porturik portu lagunak
mentura amets eginik.

Untziei agur eginda
joan zan gazte hura;
soinean jantzi zuriak
igon da Mahai saindura.

1953-III-25, Silos¹

¹ Aita Pedro Tellería, Silosen, Meza barri eguna, ta ha bera, beneditanoa.

AMAREN GIRO

Dirdira zuri bat ene baratzean
sartu zan, betbetan, isilean;
anartean, laino zegon oro
inguru eta barnean.
Ostoak orbel ziran,
enborrak goroldio,
haizeak bazekarren eden ta herio.

Iguzki-izpi ote zan,
ala ilargi-adar?
Zirrara zorrotz bat ene baitan
irauli zan, aparretan,
iduriz uhinak haitzetan.

Argi-zitzaren ikarara, gero,
haizea bero zan, eguratsa giro;
zuri zegoan elorria, areago sagastia.

Eta lotatik itzarriak
ene haur laztanak
—bata xurixka, bi beltzeranak—
baratzera ziran, argiaren deira.

Irudi berri bat islatu zitzaien
zilarrezko nini garbietan;
dena udaberriz jantzi zuen
irudi maite hura, neure ama zan!

Jauzi eginik harmailetan
nire hurrekin batera nintzan;
ta zorion ametsa, ustez, haragi itzuliaz
oihu egin nion abots zoliaz:
“Ama, aspaldi utzi ninduzuna,
etorri al zatorz berriro enegana?”

Ta amak, oskarbia zedukan begietan,
abaraskaren ezitia, betiko antzera,
jario emez ezpainetan:
ene zaurien gantzu, negarren oihal,
lorraldietan paregabeko itxaro-dirdai.

Izadiak eman lezakidaken
zorion behin bakarreko!
Sortu ginduzena idukitzea
gure lagun ta auzoko.

Munduko zeru: ama ari zitzaidan
enekin mintzo gozoan
lorategiko zokoan,
eta —aingerutxo ziruditela—
bilobak haren ondoan.

.. ..

Jaungoikoaren esker berariz
munduan ama bat nuen;
hartaz berriro jabetzearren
nik dena utziko nuke hemen,
bizia pozik emanen!

BAKE-SOINU

Ene itxaropenaren zeruan
izar berri bat izetu zan;
—ametsaren zoroa!—
gazte nintzan ni orduan,
ezjakina bizitza bideetan.

Geroztik, urte laburretan
asko ikasi nuen,
zeruko ta lurreko suen
distira liluragarrietan.

Buruaren apaingarri beltza
zilar garbi bilakatzean
ene barnearen zokoenean
pake bat sortu da, jori, maratza.

Bai dela eder
bizi-giro gorrian
grinak bezatzea;
oker-bideaz zeiber
argi-iturrian
bakez bazkatzea!

Gurari-zelaiaren hezea
emetutzean
belar onduaren gozoa
dut ahamenean¹.

¹ Ahamen: kopau.

Orduan, bai, orduan
oroimenaren argia haizetuz
bide galduak utzirik,
bihotza zituz
betea izanik,
atseginez nagoke
Maitetasunaren galtzar beroan,
Zorion mamiaren iguripen osoan!...

1953-III-14

1954

ARBASOEN HERRI

Udazkeneko egun urretsu¹ batean
heldu nintzan mundura itsas ezpainean,
Kantauri harroaren hegi politean
sortu eta hazia naiz pake eder betean.

Itsaso, arkaitz, hondar, zeru azkengabe
mendi, ugalde², baso, uri ta basetxe,
egunero nituan ene begiz aurre,
Arbasoen herria nigan gain ta barne.

Ta batez ere, ene! zorion handia,
Arbasoen mintzoa nuan edaria,
euskeraz asetua ene belarria,
euskeraren doinuaz inguru guztia...

Geroz... bildur lainoa dut nik bihotzean,
urteen zimur-antza ote dut enegan?
Edota inguruko izaki hoietan
aldakuntza larria al dut bat batean?

Ezin dut nik ulertu aldakuntza hori:
hor dagoz itsaso ta basetxe ta mendi,
hor lehengo seme, alaba eta uri,
lehengo abizenak, odol eta aiurri³...

¹ Urretsu: urrezko.

² Ugalde: erribera, ur-bazter.

³ Aiurri: izaera.

Zeren hutsa du, bada, gure Euskal Herriak?
Zeren huts gure begi eta belarriak?
Ai! badakit zein lan beltz egin dun aldiak:
euskaldumeri ostu mintzo bereziak.

Mintzo ta gogo gabe ez dugu lehena,
azal berdinkara⁴ ta... galdurik barrena.
Arbasoen herria idurizko dena:
hala dut bihotzean minaren eztena!

⁴ Berdinkara: antzeko, pareko.

1955

LEGORTE

Uda legor gori
idorteak joa:
belarrik inun ez,
ta zimel artoa.

Zekor gaztea nuan
aurten gizontzeko,
neguminean hil ta
gatza emateko.

Alperrikako amets,
ez, noski, beteko.
Hodeiok, igesika,
ez ditut menpeko.

Ekaitz gabeko lainoz
zerua da agertzen,
haize epela nagiro
gau ta egun sortzen,
iturriak, antzumin,
sabelak urritzen,
nekezari begiak
nahigabez iluntzen.

Ene ibai zabaltxo
etxeondokoa,
ahatak maite duten
urezko txokoa...
Hezuruts dut, gorria,
haitz ta harriz itoa.
Noiz ikusiko ote dut
berriz blei, ezoa?

.. ..

Uda legorbera,
euritez alargun;
zekor gazte hura
nik saldu dut, egun.

1956

MAIATZEKO ILUNABARRA¹

Hor dut Serantes mendia
begien ikusgarri;
ailarta, jeikia,
Kantauriren bularrez-bular jarria.

Elkarri agurka
suma ditut inularrean
Txorierriko muinoak,
beti goxo, emeak!
halatsu udaberriz neska gazteak.

Eliza berri batek
oihu bigun zolia
barreiatzen du maldak zeihar;

Andre Mari txuri,
Fatima
herritikoa da, tipi maitagarri;
ta badaki ostutzen anima.

Enekuri muino gain
oihartzun biguina dilindan!...

Urrutian, Serantes mendia,
iluntzeko eguzkiz, urrez jantzia.
Txorierriko mendixkek
—neskaño sail bitxia—
Serantes dute itxastar maitaria.

¹ "Maiatzeko Ilunabarra", *Euzko Gogoia*, Intxauspe Etxeko Lanak, 1956ko ilbeltza-otsaila, 7 or.

BIDE ORLEGI

Euskeratua¹

Barriro joan naiz
bide orlegi hartatik,
bide hori ondo dakit
gaur estu, lehen zabala.

Barriro egon naiz
Andra Mariko ermitan,
eskatu deusatz sarritan
alkartu gaitezala.

Bide orlegi zehar
bide polita
ermitatxora,
alde zenduanetik
beti intzirika
negarrez lorak;
agortu da iturria
ta zitotriak
zimeldu dira,
zu joan zinanetik
lora gaisoak
beherantz begira.

Barriro joan naiz
bide orlegi hartatik,
ta gomutauaz bakarririk
galtzen dot zoriona;
gure izenak ditut
jarri arte-azalean,
ta muinora naizenean
begiotan negarra...

¹ Orijinala "Por el camino verde...", gaztelaniazkoa, herriak abestua.

ZURE EZPAINAK IDURI¹

Xistu egin dit udalehenak,
xistu zehe, eme, guri.
Txirintxoi² zuri artean
arroxaz gorri,
zure ezpainak iduri.

Ostoak kurika ari dira
adar muturretan,
kolore bila dabiltz
belarretan,
berde-minak jo baititu erraietan.

Zelaiaren esnatu-beharra
negu-nagiak aterarik!
Berriz dator mendi-bertsolaria
—kuku soinu berdinean—
zuhaitz zaharren atsegina.

Hemen hiritzar barrutian,
ta nere kaleko lorategian
ernea dagoz tulipanak;
eta txirintxoi txuri-ubel artean
lirain, jori,
milaka arroxaz gorri,
zure ezpain beroak iduri...!

¹ "Zure ezpainak iduri", *Euzko Gogoia*, Intxauspe Etxeko Lanak, 1956ko ilbeltza-otsaila, 7 or.

² Txirintxoi: txidar.

GARBI EDUKI NAZAZU

Zoragarriak
dituzu udaran
garitza mardul horiak,
ikusgarriak
gari arteko
amapolatxo gorriak;
sasi ta larrez
inguraturik
dagozan soro joriak
poli-poliki
zaitu ohi ditu
nagusiaren begiak.

Grinen artean,
ene Jaun maite,
nik ere badut soroa;
berau lantzeko
eman zenidan
mundu-bizitza osoa.
Baina kemenik
nahikoa ez ta
nahasirik dut gogoa,
ez nuke gura
inolaz ere
galdu ene uzta-arloa.

Gaurdanik beti,
ene Jaun hori,
izan zakidaz alboko,
nire asmo ta
burutapenen
hasiera ta lekuko.
Gazte denporan
zakur-ametsak
ez baininduen oso ito,
garatutzean
ere ez al naiz ni
galdumendira helduko.

Garbi eduki
nazazu, Jauna,
lore berria bezela,
Zure argia
eta eskerra
nire inguruka daudela.
Samina baita
hemengo aldi
—ezin bizi ni horrela—
berotu zazu
zure arnasaz
nire itxaropen epela.

BION ERRUA

Hamalaukoa

Zuk ere baduzu errua, maite.
Izarrak, isil, erran zidaten bart.
Nenbilen bidetik oker nenbilke;
zuk ere, sartu zenidan gezur bat.

Gure alkar minaren hasiera hartan
inguruko gauzak bazuten zerbait;
bakartade-bildur, agian, zinan;
ta geroztik gure bihotzak gogait.

Zuk ere bazenduan zure lera
niregandik urruntzen zinduzana:
agertu dira zerok azalera.

Oraindik bagindezke elkarrengana;
sua izetu genezake atzera:
aski dugu biok ukatze bana.

IZARRAK ISILIK¹

Zilarra urtu dute goiko zelaiean
ta diztiraz josi dizkidate begiok;
zidorrez zidor, oihan-bidean
mintzo isilez goaz biok.

—Maite, ez didazu adierazi zure pozik.
Zure begien firfira, motel dago;
irriparre iturria idor, murriz;
zure haginena zuria ere, ilunago...

—Ez zazula horlakorik aipa,
ene laztan, ene bizigarri;
kezka bat dabilkit aspaldi zirika
ta horrek jarten nau apal, larri.

—Badakit zure kezka petral horren berri:
nire maitasunaz zalantza duzu.
Miren zure adiskidearen lakio ta ziri
bertatik baztertu ta ahiztu itzazu!

Zeuri eman nizun hitza, dardarti,
gizon bezela, aitonena semearen gisa;
izar ederron begi argipean alkarri
betiko demaiogun aitor-hitza.

¹ *Las cien mejores poesías de amor de La Lengua Vasca*, Gran Enciclopedia Vasca, Seleccionada de S. Onaindia, Bilbao, 1975. 88. zk.

BIOK¹

Zure begietan ikusten nuen nik
nire gorputzaren irudi gaztea;
eta nereotan hartzen nuen pozik
zure soinak zuen tankera betea.

Gure genituen
parkeko bideak;
guretzat zituzten
irri ta loreak.

Alkarrenak ginan, alkarrentzat noski;
zure osabaren erleen ezitia
alkarrekin, parrez, genduen edoski.
Gure maitasunak bazuen astia.

Arratsalde leunak
genituen jori,
ta udazken emeak
hats epel ozkorri.

Zu, lore zindudan, liluragarria;
ene kordea² zuk lapurtu zenidan.
Lore hori nuen maitasun kabia.
Maitasun orduen goxoa, egitan!

Ene zoriaren
minbehar gordina!
Nun ote zegoen
oinaze ernamina?

¹ *Las cien mejores poesías de amor de La Lengua Vasca*, Gran Enciclopedia Vasca, Seleccion de S. Onaindia, Bilbao, 1975. 89. zk.

² Korde: sen, konorte.

Erlabioaren³ eztenaren zorrotz!
Hark bai egin zuen lorean kabia!
Agur, zure begi... ta besteren bihotz.
Kabi behar zena, geroz hilobia...

³ Erlabio: liztor.

EZETZ

Entzun dut zure hitza
—aspaldi sumatu nuan—
ta geroztik nire bizitza
enegan soilik dago, ez zuregan.

Ezetz erantzun didazu;
zure bihotzak ez du zirkinik egin;
alperreko nire urrats eta pausu,
azkenera mingots eta samin.

Zergatik duela zazpi urte
ez zenidan berdin esan?
Tutuluturik oraintsurarte
zure ondorik nik liluretan.

Kabia urratu dien txoria bezela
txinta itunez nabilke.
Zuk egin zauriaren urratua
agian, beste batek osa dezake...

MINGOTS

Ez dago gaur ortzean
ilargi, ez izar;
hodeien nahastea,
beltz, arre ta nabar.
Pagoak ez du itzalik;
ximel-giroz belar.

Atea zabal dago,
dan gino argiz blei;
halarik ere, muker
ene begion sein.
Irripar galdez daukat
ahoa, parre gei.

Alperreko nahia.
Suntsitu da poza;
txindorra isil dago,
zimurrik arrosa.
Hauts artean, beltzik,
liluren ametsa...

EGUANTZ¹

Etxe-zokoak ilun dagoz oraino,
sabel zuri-beltzez dugu laino,
ibarretan.

Bainan zure eskuak, ene Jauna,
zer orori damaio iraun
egun eta gauetan.

Zer duzu begi horietan
nik ezagutzen ez dudanik?

Negar egin behar nuke
nire akatsen parka-eske.

Zure arpegiak ez du behinere zimurrik,
eneak bezela,
ez kezka ta minik.

Utz ezadazu zure oin txurietan
musu bero egiten.
Zure ontziko gizonetan
ea noiz nauzun hartzen.

Nahi bainuke, nahi,
kai hartan
sare graziz beteak
biltzen ari
iluntzerik ez duten egunetan.

¹ Eguantz: goizabar, egunsenti.

AINGERUAK JO NINDUAN

Hegal biguinez, igurtzika
aingeru batek jo ninduan
—zeruan ote nengoan?—
buru-buruan.

Lehenbizi, bildurrez nonbait,
begiak itxi nituan,
izu-laborri¹, konorte erdi galduan;
inor ez nire ondoan.

Geroxeago jaiki nintzan,
begiak iriki, begira inguruan
lorratza nun ikusiko ote nuan,
taupadak denduan².

Lurrean, hautsa, astindua;
haizetan hutsa ta isiltasuna,
xoilik uso batzuen urtuma;
goian, ke-lurruna.
Ta nigan, ikaraka barne-guna.

¹ Laborri: bildur-ikara.

² Dendun: oreka.

KALEKO LERROAK

Kale ertzeak berdin-berdin,
zugaitzak lerroz lerro,
gizonaren ikusmena
geometrizar betea dago.

Lerroak zuzen,
borobilak berdinkara,
ez dute gure begiek
politaren arabera.

Lerro aspergarriz josia
uri haundia;
kea ugari, hautsez betea,
lur mamingabea...

Jaioterriko zugaitz,
kale medar bihurri
ta uginen aparra:
horien huts-minez ene begi;
itsas-hegian dan ikusgarri
arrats-ondoko ilunabarra!

AXULAR HANDIARI, OHORE¹

Kanta dezadan pozez gainezka
garai gogoangarria;
jaso, eredu izan zitzaigun
AXULAR gizon handia.
Guregan bedi haren itzala,
batipat mintzo garbia,
haren arnasak suspertu beza
gure Euskal Herri guzia.

Bil bitez zailu zeruan barna,
bil bitez kantuz txoriak,
iriki bitez hurrin-jarioz
inguruneko liliak;
jaietan eder bikaina baitu
egun Sarako herriak,
kantu, ohore, hurrin ta iguzki
bitez naro eskainiak.

Ele ederrez predikari on
ta animazai eredua,
bizitzaldian irabazia
lehen-oraiko dedua²;
jakitun haundi, asmoz argia,
eleketan txit gartsua,
gizaldi hartan euskaldun orok
plazerki goraiapatua.

Hitzaldi denak galduak omen
hizlaria joaitean,

¹ "Axular handiari, ohore!", *Gure Herria*, 1956ko hazil-abendoa, 6. zk., 351 or. Saran, Lapurdin, 1956-IX-9-an, Eskualzaleen biltzarreko sariketan —Axular-en omenez— olerki-sailean lehenbiziko Saria irabazitako neurtitzak.

² Dedu: ohore.

hitz eta bihotz bukatzen dira
aldia heldu denean;
bainan Euskarak badu zorion
gizon hunen izaitean,
bere jakintza utzi baitzion
liburu eder batean.

Urdazubin sor ta harat-hunat
ibilitako gaztea
geroenean Sararatu zan
kausituz bere xedea;
hemen egin zan gizon betea,
hemen har maisu-legea,
geroztandikan Euskal Herrian
ezin nehork ken ospea.

Mendeak mende gureganaino
heldu zaiku zure fama,
ta zure eskutik, Axular gailen,
sortutako eder-lana;
Euskara baitan muga lehenak
zure izena darama,
zure lerroen muinean dugu
bazka gozo ta ahamena.

Iduritzen zait gure artean
oraino bizi zarela,
arbasoen hitz ozen beteen
berretutzaile³ bezela;
zu euskal maisu bikain izanik
ikasle apal naizela,
zeugan gihartsu zenuan mintzo
enegan, aldiz, motela.

³ Berretutzaile: berretzaile.

Barnean dudan inharrospenak⁴
kaupora-galez dirudi,
oraikoz duen pozkarioa
ezin loturik iduki;
iguzu lagun, Axular maite,
ez dadin Euskara itzuri;
gaitezen jator, aitorren seme,
euskaldun orain ta beti!

⁴ Inharrospen: astindu, astinaldi.

IBAI GARBIA ZANA

Nork zikindu zaitu, ibai lehen garbi?
Nork ezarri dizu kolore erre hori?

Coizero nentorren zure ezpainetara,
zure soin gardena parrez ikustera.

Gardentasun haura galdua duzu bai,
arre zikin hortaz, sakon, barren ta gain.

Gizonak dirutu ta aberastutzeko
hautetsi zaituzte eder ta aukerako.

Zeruaren begi argien ispilu,
orain lokatzaren uriol zirtzilu¹...

Ibaizabal maite, lehen zilartsua!
Zu ere, gizonek, lasai lizundua.

¹ Zirtzilu: lotsabako.

MIRENTXUREN BURUKO ILEA

Hareinegun txorta eder bi zeneramazkin
sorbalda gainetan apain;
atzo txorta bakarra, bainan lodia;
goizeon, ileak zabal, pikondoa bezela.
Ta orain ilemotza, mutiko iduria.

Bihar, Mirentxu,
zure ileak nola?

Andreen gogoaz badugu itxedon.
Oraiko ile eredu, behintzat, horra Marlon¹.

¹ Zineko gizona, Marlon Brando.

BETI ERE

Egunabarra pozez
erditzen denean
ta belar eta lore
ederrez janztean,
ez zazu hazi txarrik
erein bihotzean.

Eztarrian soinua
sortutzen denean
kanporat ihes nahirik
leher beharrean
ez giltzpean hertsu zuk
bular barrenean.

Kemen indar duzuno
zeure gorputzean
eta adimena argi
daukazun artean
bil onoimen-eztia
erleen antzean.

Baina egun bakoitza
ilunperatzean
noizbaiteko Herio
beltzaren antzean,
zagokez, beti ere,
Jaunaren bakean.

DUNDUN

Ene ametsa badoa
zalui zeruan zehar;
ez du hesirik
ez oztoporik,
lehia gori batek
baitarama
zintzilik,
halabehar.

Gizarte mailetan
aiherga¹ ditut gizonak,
bakoitzaren sabela
beginini du edonork.

Ondasunez blei, gizen jario
goikoek urrez estaltzen
huts eta pekatuak;
behartsuek ere
badute etzangio²
ardo zaragietan,
horien garrik gabeko suak
dauzka zoratuak.

Oihartzuna
hutsartean,
zeruaren dunduma
ene ametsean.

Gizoneñ eskuak erpegabe
ta bihotzak bakun
ditezenean,
amets horrek
leku du eginen
gizakien artean.

¹ Aiherga: gogobako.

² Etzangio: ganaduaren azpi.

1957

ATSOTZEN

Zer duzu gertari, harro zinan horrek?
Zer beltz daramate zure jantzi horiek?
Zure bizitz hortan, dena argi ta lore;
ez nik sinisten min legokenik ere...
Ordea, haitz sendoen lekuan, horra, hare!

Elurkara duzu buru ingurunean
ta ximur tantoak begien ertzean;
ez du aspaldion jardun makalean
aldiaren ziak zure gorputzean,
gaztetan alai zen soin nabarmenean.

Hemen edozerk du maila eta neurri,
atzo ugari izan ta, orain, ostera, urri:
eguneroko oihu lelo duzu hori.
Lehengoen jarraika, horra giza berri,
arroaren oinak, nornai-pare erori.

Oroitzen naiz neska xarmanta zinala.
Nun duzu orduko grazia, odola?
Gabe ote zara, noiztik eta nola?
Ezin dut sinistu ikusten nagona:
nik zahar, bihotza; zuk, gorputza... hola.

1957-I-3

OHETIK OHERA

*Rufori*¹

Aititaren txalupa gozo bigunean,
hemen gagoz gu biok luze zabalean;
hobeto zagozala entzun dodanean
poz haundia hartu dot barren-barrenean.

Noiz alkar ikusiko?... Hurrengo batean,
Goiko Manuel² onak gura dauanean.
Ordu atsegin hori heldu dedinean
zal egon gaitezala; zal, oinen ganean...
oinen ganean eta umore onean!

¹ Adiskide kutunari, tokian tokiko hizkeran. Indautxutik Basurtora, 1957-IV-6.
Bata operazinoz; bestea, sukarrez geixo.

² Goiko Manuel? Jaungoikoa, arrantzaleen hizkera apalean, etxeoian.

OHETIK OHERA, BIGARRENEZ

Bertso barri batzuek
deustazuz eskatu,
zeure ordu mingotsak
daidazan gozatu;
barruan egon behar,
ezin kanporatu,
hormartean gu, gatzak
gaitu inguratu.

Goizero entzuten dot
txorien kantua,
torretxoriak¹ euren
arteko autua;
kanpatorraldekoa
eta hemengoa
eskolaz eta kantuz
bardin antzekoa.

Han ei dago Isuntzan
Aitita Mokordo²,
sekulako nahasteak
laster ikusteko;
itsasoz gertu dagoz
desenbarkurako,
baita legotarrak be
jo ta su eusteko.

Kontra-atakerako
ei dauke kuartela,
Garratxeko zuloan

¹ Torretxori: artatxori, txolarre.

² Hatx txiki ta bakar, hondartza erdian. San Antolinetako jai programan agertu zan.

talaia ederra.
Elun-n burdia blindau
dabe goitik behera,
ta Petakazala da
euren koronela.

Zubietatik eta
Kardin-txikinetik
urtengo dabe tropak
zenteilak harturik;
ta desenbarkokoak
atzera botaurik
Petakazala garai
izarrez beterik.

Gaurko nahikoa da-ta
—seigarren bertsoa—
gauza asko esan nahi, ta,
etorri txatxua³.
Oiloa jan joat gaur,
mamina, tatua⁴...
heuk be, izango al dok
bardina tratua!...

1957-IV-10

³ Txatxu: zuztarbako.

⁴ Tato: zati.

GILTZ BERRIAK¹

Oraingo andre gazteen grina!
joera makur zakarra;
gorputza ezin menderatu ta
senarrarentzat adarra.

Peilo Joxepék eman zizkigun
espa mingotsik nahikoa,
ordun bezela oraintxen ere
berdintsu dabil jokoa.

Praken gainetik baziran gonak,
orain gonarik baterez;
andrak? nolanañi dijoaz eta
gainez igarten ez errez.

Entzunik dugu: lotsa... azakin
Aulestian jan ei zuten;
gure aldiñ zera zereñtik
garai baino lehen eten...

Berriz berriro gure auzoan
Pello Joxepe ugari...
Antzinañ ere baziran eta
ez da, ordea, mirari.

1957-VII

¹ "Giltz berriak", *Egan*, 1957 (5-6), septiembre-diciembre, 304 or.

ILARGIAK KUKU EGITEAN

Ez du Martinek inoiz esango
bart gertatu zitzaiona;
hezurrak birrin omen ditu ta
mutil ona dago, ona!

Ilargitxoak argia badu;
badu, ez ordea, beti;
beharren zuan unean bertan
egin baizion bart tati.

Harizti hartan zuen gau-biltzar
—ta ilargia laguntzaile—.
Irenetxoren zain zegoan han
etxekeok jakin gabe.

Ilargi zoro aldabera hark
aldatu zuan iritzi,
ta argirik ez-ta, ezin Irene
Martinengana iritxi.

Bildurrak jota, oihuak iges
egin zion neskatzari;
aitak, entzunik, makil sendo bat
eskura zuan, gidari.

Geroztik ez zan izan Irene
iritxi zana hariztira...
bai ilunpean tankatekoak
Martin gaisoaren bila.

.. ..

Ez du Martintxok inoiz esango
bart gertatu zitzaiona!
Bizkar-hezurrak minbera eta
sukaldean du egona...

1957-VIII

BAZENEKI...¹

Bazeneki zuk buru-eiheran²
nik ditudan gogoetak!
Alez beteak, leher-aginean,
nire ametsezko lekak.

Begi horietan zure irudia
inoiz zitzaidan dantzatu,
eta harrezkero, kilikaria,
hementxen zaida geratu.

Alper-alperrik aldatu ohi dut
herri, kale eta haizea;
zuga zenuen usain gozo hark
galarazten dit kordea.

Bazeneki zuk arrats haretan
egin zenidan zauria
izango nuke zure aldetik
opa nukean saria.

Bai sari eder osagarria
amets hau egia balitz...
Bainan nire ta zure artean
eragozpenak dira hagitz³.

¹ "Ba'zeneki...", *Olerki*, 1959, urtarrila-epaila, 10 or.

² Eihera: errota.

³ Hagitz: asko.

APIRIL URREGORRI

Nire lehioak edan
goizeko lehen-argi,
Hermesen¹ orkatilak
hegoak zabalik...
Etxaurreko arkezi
adapurua artezi
oso borobilik;
orri heze joriak,
irrinotsu begiak
eguzki egarri.
Parkearen zilean
urmael zabalean
atakumak igari,
arroxa ta liliak,
osto jaioberriak
poz-festa nagusi.
Begitandua?
Ez, egi mamia agian;
hutsezko abarkaz
Udaberri, haize-zaldian;
neska kriket²,
lilura ta laket
emanaz bihotz-erdian.
Gazteak axanpaz³,
helduok, damu bizian...

¹ Hermes: greziarren jainkoa, Zeusen semea. Erromatarren Merkurioren parekoa.

² Kriket: apain, dotore.

³ Axanpa: nahibage, atsekabe.

GEREZIAK LORAN

1

Ingumak ari dira
lehendabiziz hegan,
epaileko iguzkiak
sua hegaletan;
gerezien adarrak
oparo loretan,
edertasun kutsua
dakust bazterretan.

2

Basetxearen txuri
berbera ikusten dut
adarretan jarria
mardulik eta zut;
bizia, berriz dator
—begiok ez txulut¹—
inguma goiztarrak hor
goxoaren zurrut.

3

Berriz, zeru ta itsaso
ahizpa urdin dira;
berriz zelai ezoan
lilieak bigira²;
elorri maiteari
nagoko begira,
maiz ernazi baitit
ametsen pilpira.

4

Zabal ditut begiak
muino tontor baten,
zelai dira zidorrak,
ibai-urak garden;
ardi eta arkumeak
alha guriz hemen...
Edertasun honek dit
bihotz-guna eten!

1957-3-10

¹ Txulut: porrot.

² Bigira: barriketa.

TXORI AZKARRAREN EPAIA

Xiri-ezten

“Atarratzeko jauregian
zitroin bi doratu...”
bertze txoriren doinu gozoz
ederki kantatu.

Luma apainez jantzitakoa
gure txori azkar,
txinta¹ ezti eta samurra
aidean du zabal.

Nundik eta nora ote da
horren kanta hauta?
—bertze txoriok galde zorrotz,
damuz, ta harrituta...—

Haizean barna bazebilen
zalantza sistakor,

bertze txoriok jakin gura
eskola hain jator.

Inoren doinuz jabetua
txori kantaria,
lagunek badakite orain
horko ohoinkeria.

“Kukuak egin, amilotxak jan”
kanta zaharrak muin...
Elerti medar hau, horretara
nola jori egin?

Bertzeren doinuz kantatea
lan errez ta goxo...
Epai-orduan ez beharko
begietan lauso!

1957-XII

¹ Txinta: txorien txistu.

BIKOITZA¹

I. IZU

Arrabete lur, Jauna,
aski dugu azken,
gure hautsak biltzeko
heriotz-ondoren;
halaz ere badugu
suminik guk hemen
begirakume zital
ta deadar ozen.

Hilarrieta² baten
izan berri nauzu:
hobi edegi, leze
aho ilunbezu;
zerraldo zena, puxka
besterik ez duzu...
Hezur banakak han, hor,
txoil, hits, mamin-hustu.

Euli makal zikinak
sar-urtenka hegan;
amio-usain³ murriz
barnean ernetan;
kiratsik, halabainan
ez guk sudurretan...
Hutsaren kide itzultzen
baikara benetan!

¹ "Bikoitza", *Euzko-Gogoa*, 1957, epaila-jorraila, 8-9 or.

² Hilarrieta: hilerri, kauposantu.

³ Amio-usain: ustel-usain.

II. ITXARO

Eder, mendian, uda-minean
pagoak duen itzala;
hamaika bidar nik ames egin
herio-gaindi nintzala,
herio-gaindi nintzala.

Hilerri hartaz kanpora eta
bestelakora jo nuan:
herioz aitzi Bizi-Iturria
etxe isil baten zegoan,
etxe isil baten zegoan.

Inguru zuriz mahai bat apala,
horra Maiteak su-labe;
kutxa tipian... ikus ez ikus
bizitzaren Jaun ta Jabe,
bizitzaren Jaun ta Jabe.

Begiok lauso, makurtu nitun
belaun gogorak lurrera,
ta harako uste laudardukorra
uxatu nuen atzera,
uxatu nuen atzera.

Eta baita hasi ere, Jaunari
barka eskeka orduan...
herio-gaindi Hark baitu nitzat
jarlekutxo bat zeruan,
jarlekutxo bat zeruan.

EGONEZIN
Neurri nagiez

Eguratsean belartxoak
zanbuluka dabiltz pozik;
eguzkipean dantzari,
edertasunez dirdari.

Halaxen nire animan
sartzen dira ilun-izpiak:
arratseko beltzak baino
tinkoagoki josiak.

Lerroaren zuzena min dut
urrutiko itsasoan;
arranoaren hegada
haizearen bular arroan.

Adarrik adar
jauzi ta jauzi
txoria saioari dago;
hark soinu, ta dei ta albotiko,
ni isil, bakar ta bakarrago.

Harri koxkor, ta hauts, lupetza,
oinpeon nahaste zikin;
aintziratxo batean ur gardenak
ortziaren islaz dirdigin.

Jo dut bularra, jo dut gogor,
Jeronim¹ doneak antzo,
lozorrope hontan ez nadin, nagi,
betigiroz auzo.

¹ Jeronim: San Jeronimo. Buruhazur batez bularra joten eban penitentziatzat.

Landa hezean belartxoak
zanbulu egiten dute...
Gure gogoak halatsu
grazi artean behar luke!

NORK DAKI ZERGATIK?

Urratu nahi du itsasoak muga
niregan dabilen asalda¹ ikustean;
gau-argia galdu da
hodei zirtzil batzuen maindire belzpean.

Arroxa zurbilak esan du goizkanta
ene bizitzako aldi-orrinoan;
zakur baten zaunga
trokaz troka doa. Bildurrezko joan!

Dardar egiten du ene haragiak
inguruko zerbait atzi² ezin baitu;
oinaze zoliak
nekezko lokarriz horra dana lotu.

Zer? Nor? Zergatikan irakin gaziok
itsaso-haria nahi didate urratu?
Ez jakin, biziok,
urre-goiz bat nola ditekean gautu...!

¹ Asalda: asaldura.

² Atzi: harrapau.

BELU XAMAR¹

Agertu zara, ta zertarako?
nire begion aurrera;
agertu zara beranduegi
nire etxetik hurrera,
agertu zara ta beharbada
ene bakeau galtzera?

Nun zengozan joan urteetan
hemen hurrean urruti?
nun zengozan ni nenbilenean
maitasun bila, amesti?
Bazkal-ondoren heldu zatzakit
ta zergatik ez goizetik?

Nik bidea hartu dudanekoxe
egin zatzakit agertu;
begi sakonok, ezpan lodiok
niri torika zuk gertu.
Ai, ez ederra, hartu bidean
ez nuke nahi okertu!

¹ "Belu xamar", *Euzko-Gogoia*, 1957, uztaila-dagonila, 2. or.

NUN ZAGOZ, MAITE?

Zugatzak ez du arrasti hontan
itzalik egin beharrik,
goibel eman ez dabil eguzki
oporgirotsu ta alperrik,
laino lodian bildurik.

Maite-orduak jo zuan baina
maiterik ez dut agiri,
hamaika lore marguldu ohi da,
lehertu hamaika gurari,
karmindu¹ on zen edari.

Honuzkeroan ez dakusket nik
zure masailen kolore...
zauri hau nola osatuko dan
jakin nahi nuke, halare;
nork emango ote adore?

¹ Karmindu: garrastu.

ZUTIK¹

Uraren doinuak ez du atsedenic
bolu zaharrearan tinkili tankala;
ni ere ibilia naiz zure atzetik
kalean behera ta kalean gora.

Apainik zegoan galondoa² zutik
Madalentxoneko soro zabalean...
maitasun-ogia egingo hartatik
buru zedinean, ordun, uztailean...

Bolu zaharreko doinuaren gozo
garia eihoko zulakoan, nunbait...!
Ai, Madalentxoren galondo harroko!
Mamirik ez eta, azal huts, iro³ bai!...

1957-VII

¹ "Zutik", *Egan*, 1957 (5-6), septiembre-diciembre, 303 or.

² Galondo: galtzu.

³ Iro: ardail.

ZANBULUKA

Uztailak badu egun
zeruan jai bete,
makarririk inun ez-ta
urdinezko parre;
ames nereak ere
jareirik du larre,
ta hesiak askatuz
mugarikan gabe.

Ume, neska ta gazte
inguruka ditut,
zilar soinu horra ari
iturrien mutur;
alda ahal baneza orain
urteen herdoi¹-izur!
ezin, aldiz, gelditu
joan-bide makur.

Berriz maite-zelaira
nahi nuke agertu,
berriz lehengo soinu
ederrak kantatu;
lehen bainon hobeki
eskaini palagu,
besteren begietan
eneak bilatu...

Barneko uzi honek
badu bai galera,
gazte nahi degu baina
ia gazte ez gera;
lilura barrutian
gutiziz aukera...
Irudi bat heldu zait
begion aurrera.

Irudi horrek nigan
ez dakit zer duan;
kezka urduria sortu
bai, niri, kolkuan;
hagin txuri, musu beltz,
irrihoa ahoan,
dei bai, dei ez, hor dago
gerizpe ondoan.

Nundik iges egina
ote zera, neska,
niri zirikatzeke
bihotzean kezka?
Zoaz zure bidean
gazteen galdezka...
Ni ez nauzu haizeak
igitzen dun seska²!

1957-VII

¹ Herdoil: uger.

² Seska: kainabera.

1958

ZEU ETA NEU

Zure masailean duzu
ozkorriaren kolore;
musu egin guraz nago
ta ez dut nahikoa adore.

Ezpain horietan zer duzu,
apirileko arrosa?
Ez dakit zer duzun, baina
iturri hortaz dut poza.

Guzien gainez, ordea,
zure begiak nik kutun;
horietan neu ikusiaz
baitakit nor dudana lagun.

Laguna dudano, zinez,
ez nagoke bakarrean;
gorde dezagun bi-biok
maitazarre¹ hau barnean.

Gorde dezagun barnean
zelo-belarrak jorratuz;
maitasunez garenean
arrotzak azkar uxatuz.

1958-III-13

¹ Maitazarre: maitasun.

ASPERRALDI

Zure barruak zarabilkez
eragozpenak menperaturik,
auzokoen ardura ezak
ez damaizu minkatxa besterik.
Norberekeriaren sakon!
Egin dizudan galderak ez du
erantzunik errez iritxi.
Bakoitzaren lorrak gaukaz estu.

Lurraldea latz agiri da,
ez du gaur urertzak begi urdinik.
Nardagarri, orduaria
unearen hutsa bete ezinik.
Aski da, Jauna. Atzaparrok
baldar ditugu, baldar ta nagi;
inguruan axolakabe
datzate idekoak, ta ez adi.

Laino ur-esne horrek bekar
ozkarbi baten ederra.
Nagoen bakartadean, soil.
Adiskide aizuna dan alperra!...

1958-III-13

ONDO DAKIZU ZERGATIK

Banijoa zuregandik,
banijoa, ta betiko;
gehiago nire hitz gozorik
ez duzu berriz entzungo.

Ez egidazu galdegin,
ondo dakizu zergatik.
Hitza jan zenduan, eta
are, ez dugu behar hitzik.

Zu barik zelan biziko
naizen ez dakidan arren,
lehenbiziko zinan hori
utzirik, betor bigarren.

Munduko egunen labur,
—arroxak gordea arantza—
itxaropen-lore zenak
barruan zedukan gaitza.

Banijoa zuregandik,
muxugorri, ezpain gizen:
neroni xoil eskeinian
gozaro dabil edozein!...

1958-III-17

GEROKO

Hutsaren hurrengo izanik
mundu-zil naizela uste nik.
Harrokerizko belarra jan ta
arolik¹ eta zutunik;
ez nik nahikoa egunik.

Inarrostean abarra
hondora doa sagarra...
Ama gureak zekian sarri
esaten: "Cauza beharra,
han beheko su ta garra".

Amaren filosofia
ez omen ahanzgarria.
Baina buru hau beltzez duguno
nonahitik zorakeria.
Helduko da ile txuria.

Neskatxa batek leihotik
irriparre bat egin dit.
Arraiopola! Inularrean
neskatxa hori behar nik;
bestelan ez dut bakerik.

Soinu ta soinu, panderu,
soinu ostean zer dugu?
Soinu ostean zer izango dan
harek eta nik dakigu.
Corputzak nauka katigu.

Noizbait joango da indarra,
orduan, aurki, negarra.
Izan... gogoa badut hartzeko
onbidetxior bakarra.
Borondatea... makala.

¹ Arol: harro, apatz.

GARRA BEZAIN GARBI

1

Goi ta behe, zeru ta lur
zure mende dagoz,
gure bihotz, esku ta
oinak ere begoz.
Bai gauzez bai egunez
zabala dan hegoz
babes gaitzazu, Ama,
babestu betikoz.

2

Eguzkipean ez da
Andre ederragorik
behinere agertu izan
mundua denetik;
Nazaretheko neskatx
haren hitz batetix
mundukuok dukegu
zorion, eskutik.

3

Ederretan ederra
dugu gure Ama,
oroimen-iturri ta
eskarren bilduma,
pekatuak guregan
zuen lor ta zama
Amaren Seme onak
bakarrik darama...!

4

Inor ez hainbatean
ume zoragarri,
sortu orduko Jaunak
zinduzan hautetsi,
beste inor ez bezela
beti eder garbi,
gurasoen kutsua
Zuregan zan hautsi.

5

Zitoriaren pare,
garra bezin garbi
Zu zaitugu hilkorrok
itxaropen berri;
erakuts egiguzu
Zeruko atari
han ospatu dezagun
betiko Bazkari.

ORBANGABEA

AMA

gabe zurtzik dugu mundua,
egunantzik ez, etengabeko gaua,
lainoz mendia,
bidea hertsia,
amets-leiho urratua,
Amaren hutsune larria!...

BIDE

hauxe bai latza, lagungabe!
Sasiak errotsu, zidorra larre,
uda ta negu ere
ezin lo egin nare,
gogo minenez ta erre;
inguruan etsaiaren sare...

GARBI

denik, nor hemen ote Amaren iduri?
Zuriminetan zuri,
zeru goitiko izar dizdizari,
mendeen mendeko argi.
Andre eder, Ama guri,
Kristoren inude jori!

ITXARO

galdu ezina dut adiskide zintzo,
Goiko Amarekin nahi beti mintzo,
hitz eta soinu naro
bizitzako nekeak oro
eskeiniaz, bihotza ez iro
ta bai esker-urez ezotu aguro.

ZERU

zoragarria Kristok du aipatu
—ez begik ikusi, ez belarrik aditu—
hango poz ta atsegin-zitu
gureztat sortuak ditu.
Arren ba, AMA, guzaz errukitu
iritxi dezagun Zorion okitu¹!...

¹ Okitu: bete.

EZBEHAR HAUNDIA

Hiru nobio omen ditu
Larrabeitiko Mariak,
hiru nobio herrian,
hirurak ile gorriak.

Lubarriko sagastian
zozoak daki kantatzen:
“Mariak ikasiko du
noizbait muxua garbitzen”...

Senargaiez hornitua
Larrabeitiko neskak;
bata gor, bestea konkor,
hirugarrena hanka motxa.

Nor izango, eta izango
haren bihotzaren jabe?
Apostua egiteko
hirurak gerturik daude.

Proba horretan epaile
Maria berbera dugu:
apostua, heltzekoa
nork ondoen maneatu.

.. ..

Larrabeitiko Mariak
izan ditu hiru nobio;
apostu arratsaldean
hirurak erre zaizkio!

1958-IV-25

EZTA GAUR ERE

Ezta gaur ere, maite,
ezin hemen geldi;
arazoen erpeak
mende naukate ni.

Egutegia eta
orduaria are,
ditugu gure uneen
nagusi ta jabe.

Utz dezagun geroko
laztanen ordua;
hodei arreen gainez
urdinik zerua...

Gaur ere ezin, gaur ere
alkarrekin egon;
samin-tantak enegan
bai azal, bai sakon.

Halaz ere, nerekin
daramat iduri:
ezpain horien gozoa,
begi horien irri.

Begi horien irri, ta
bihotz baten giltza;
betikoz emaniko
maitetasun-hitza.

1958-IV-16

LANGILE OIHUA

Laister da eguna
jaiki gazteok!
poz damaikeguna
gora guztiok!

Zerupe ta urgain
lana dan eder,
pakearen etsai
jauntxo eta alper.

Lanari zor zaio
bere saria,
gauari darraio
egun berria.

Egunsenti horren
begira gagoz,
garbitu ditzagun
begi ta bihotz.

Zagozte gerturik,
gorputzak ernai;
betor zuzentasun
argien dirdai.

IV-14

AIPU ONA

Denek diote omen zarela
aingerutxoaren pare;
haien antzean merezi izango
ote duzu zuk aldare?

Aldaretako irudietan
zein dan politen badakit;
zure bizitza nolakoa den
ez dut ezautzen, horratik.

Gorostiaren makil zuzenak
arantzak ditu inguru;
ura darama, noski, erreka,
zabaltzen baitu dunduru.

Gaztezarroan alkarrekin gu
ibili ginan eskolan,
eskolan eta doktrinan ere
elizondoko etxolan.

Orduan bai zu aingerutxoa!
agian... nerau ere bai;
gure animak txuri zituan
orriak, nolatsu orain?...

Orri txuriok ongi betetzen
zuk eta nik bageneki,
bide bertatik gu joatea
izango litzake egoki.

Aspaldidanik entzuna nintzan
aingerutxoa zinala,
aipu hoberik ezin nik eman...
Jaunak bedeinka zaitzala!

1958-III-22

KAIOLA POLITEAN

Askatasunak nora
iges egin dizu,
karnaba polit horri?
Nora? Esaidazu.

Hor, urrezko kaiolan
gordea zaituzte.
Lokarria noizdanik
ote da birtute?

Zertarako dituzu
bi hegaltxo horiek?
Min-txio jo dizute
sarritan anaiek.

Gizonek, alafede,
badakite jakin,
lokabe biziguraz
gaudela beti min.

Halarik ere, hortxe
urrezko kaiolan
zaukate anker horiek.
Ta beurak... kanpoan.

1958-I-3

LANEAN

Lanean
ari naizenean
badut leiho bat,
goialdean irikia;
handixek dakusket
zeruaren zatia,
batzuetan arre goibela,
besteetan, urdin garbia.

Lanean
ari naizenean
atsegingarri izaten zait
geldialdia;
eskulan ta burulan
zakarren etengarria;
ametsetan jarduteko
une egokia;
aberea utziaz, gogoia hegaria¹.

Lanean ari naizenean
irrikiz ohi naiz
lilura-zelaietan
noiz ibiliko,
inoiz bezin maiz.

1958-X

¹ Hegari: hegalari.

HOGEI URTE DIRA

Iragan-beharrak duen seta gorri!
astiaren ale txikerrak erauziz¹;
atzoko eguna luzea nabari
ta halaz, ere, gaurko hau badoa irrist.

Ez dut oraindaino misterio hau jo,
ezina dudala sobera baitakit;
hemengo egona, igesi aguro...
ordua, alabaina, ezin dogu igarri.

Hogei urte dira: gudate larrian
bala zorrotz haura ene iztarreratu;
zulo bat nahikoa izan ez bailitzan
hiru gino egin zizkidan odoltsu.

Etxean dut bala zulatutzailea,
haizean barruna arin zetorrena;
orain geldi dago mahaitxoan, botea.
Hogei urte dira, badut aztarrena.

Arestian zala uste nuen egun!
Geroztik enegan badut aldakuntza.
Gaztezero aldi hain dagokit urrun,
ta ume ote ginan, dudazko ametsa.

Ez dut, orde, amets, haur izan nintzana:
ene haurrok oroiz gainditzen bainaute...
Ta elizan kantuz gaur entzun dudana
oihartzun durunduz nigan xamur bete...

Seta gorria du, bai, iragan-minak,
urteen-katea ehundu-beharrean...
Horri esker ditut nik, seme-alabak
ta emazte ona, ene etxe maitean.

1958-V-5

¹ Erauzi: garandu.

ALDATU ZARA, BAI!

Ez egidazu, neska, jaurti zipriztinik;
zure bizitza berri hortaz urrun nago;
garbia zinanean nenbilen ni pozik;
ni nahikoa izan ezta, zuk inor nahiago.

Dendua dugu zintzil gure egitadetan,
onak alde batean; txarrak aurrez, noski.
Begi haien urdina galdua benetan;
garbi zan bihotzean zerk du orain toki?

Zidorra ezetsi ta bide zabala hartu,
hasieran atsegin denik uka ezin;
birtuteetaz landa, gaitzean gogortu,
hondamendizaleen adiskideekin.

Ahaleginduko naiz, bai, ez zikinduteko
zure bizimoduko zipriztin beltzetaz.
Nork esango zukean ele hau, orduko
zure gorputz ta arimak zuten goi-lurrinaz?...

1958-V-14

AITA ANKERRA

Hotsegin diot, telefonoz hots,
ene maiteari,
bihotza tuntun, geldi ezinik
jauzika, taupari,
Neskameak du nire hitza jaso,
—hariak geznari—.

Isilunea. Noiz ote dator
ene Katalintxo?
Belarriok nik erneak oso,
gertu eta txintxo.
Isilunea. Urduri nago,
eta arnasa, itto.

—“Nor da hor ari dana?” “Zer nahi du?”
—ahotsaren gogor—
—Arraio t'erdi —nerekiko nik—
haren aita zegok...!
—Katalintxo-z dut galde egin, noski!
—“Hil arte zaude hor!!!”...

1958-3-8

ASKATASUNA

Bego lanaren behar estua;
gogoak ez du lotu nahi.
Soinuz beterik daukat barrua,
kopetan txingar bat dirdari.

Zabal-zabalik ene bihotz hau
eskale baten arabera,
utzi ditut gaur lege ta ordu,
kate-usain oro bertan behera.

Askatasuna dugun bikaina,
jainkoen dohai paregabe;
nornahik maite ez du, ez, behar aina:
hortik ditugu zenbait neke.

Ez dugu behar hainbeste muga,
hesi ta horma ta oztopo;
auhengarri¹ da jauntxoan sua,
kartzela eta jopu-zulo.

Inartxi² damait beti txoriak
haize-tarteen jabe baita,
lur-axaleko lerro zirtzilak
aizukeriak ohi dira ta.

Ai, al baneza egunero nik
hesi bihurra gainezkatu!
Nire ta auzoko gizon ta herri
gaitz orotarik aisa askatu...

1958-V-7

¹ Auhengarri: errukarri, negargarri.

² Inartxi: enbidia.

EZ DA EGIA

Ez da egia, adiskide,
zuk diraustazun guztia;
ez dute ematen loreak
beti mardul igalia.

Arantza eta behazun
ugari bildu dezaket;
hau gezurti balin bada
bihotz gogorra du horrek.

Harrokeriaren suster
luzeak duen erroa!
Hutsa bezenbatean du
gizon apalen gogo.

Ez du horren barruraino
fedea ezpata sartu;
larrua du lodi, sendo,
ezin inolaz urratu.

Kanpo eder, ez da, noski,
sarritan barru agerkai¹;
ezpain labainetan dantzan
gezurraren haurrak lasai.

¹ Agerkai: agerraldi.

BIDE ZAHARRAK

Odol-egarriz dabil berriro
gizabarneko piztia;
ez da haragia, ez da dirua,
grinen grina nagusia.

Gorrotoa da, harrokeria,
besteak ikusezina;
auzokoaren onak damaigun
erpekadaren sumina.

Ezin honela, Jauna; ezin da
gizonen elkartea sor,
nire ona txoil zait eder, eta
besteren minaz entzungor.

Hagin-artean, kanibal antzo,
ehio genezake sarri
ingurukoen hezur ta mamin;
izen ona... lehendabizi.

Ostoak eze, ostoak igar;
belaunaldiak jαιο ta hil;
mundua mundu, birabiraka
lehen bezelatsu dabil.

Hagin txuriak ez dira beti
irrinoaren agurra;
ta ez uste izan urrun dagola
kanibaltarren mutturra...!

1958-III-28

HARAGIKERI

Kukurutxo luzea
buruan zuela
heldu zitzaidan heldu,
gure Pimpinela.

—Zer nahi duzu nitaz,
Pimpinela ezti?
atzo nik galdetzean
baitzeuden zapuzti¹?

—Barka zadazu, gazte,
barka ahaztutzeraino;
atzo beste maite bat
baitzitzaidan jaio.

—Zenbat maitari duzu,
zenbat, Pimpinela?
—Egunez guti, bainan
gauetan aukera.

Ta ele zalaparta
horren ondorean
mosu egin zidan hark,
mosu, masailean.

Ene masailak ordun
gorriaren lorratz;
kolorete zikina,
ez maite-arkakarats.

¹ Zapuzti: zaputz.

Kiribildu zizkidan
besoak lepoan;
hainbeste maitakeriz
txororik nengoan.

Piztu zidan odola,
linburtu ninduan,
haragiak zapartaz²
laket nahi zuan.

.. ..

Pimpinela panpina,
ez bihotz, bai, grina;
hobe nuan gau hartan
heldu ez bazina...!

1958-IV-19

² Zapart: leherketa.

GUTXI DIRA

Urian ibilteko
gutxi dira begi bi,
edonundik baitabiltz
bai bus ta bai beribil.

Isokarro horiek duten
abiada ta gatz!
Harretaz ez bazabiltz
arriskuz duzu galtza.

Lau gurpildun piztiak
ugari diran arren,
hamabikoak zinez,
omen bildurgarrien.

Argi gorri ta berde
bizitzaren gidari,
lurrean baditugu
lerro ta azkon¹ ugari.

Urian ibilteko
ez dira asko begi bi;
Argos²-eri eskatu
beharko dozenerdi!...

1958-IV

¹ Azkon: gezi.

² Argos: Greziar printze alegiazkoa, elhun begiduna, lo egiteko be berrogeta hamar zabalik zituana.

KRISTO BAKARTADEAN

Zer nahi dute
herritik iges
Aste sainduko egumetan?
Jolas-giroa.
Nun? eta auzoan,
hondartzan eta mendietan.

Astunegi
zaio
gaurko gizonari
egun biko
dolu,
ez zine ez dantzaldi.

Egun hauetan
ere, Sugeak
zorrotz ta gertu al du mizto?
Aste sainduan
ere, gizonek
soberetsirik dute Kristo.

.. ..

Ilunbezu
zagoz
gurutzean zintzil,
gure alde
zinez
nahi izan duzu hil.

Idiki zazu
saietsaldean
duzun urrikal-iturria,
ta bete zazu
asko ta askoren
bihotzak duten gabezia.

1958-III-31

ATZO BEZELAXE

Ez digu pakerik eman
eguzkiak goiz beltz huntan.

Burruka-susmur, gudu-hitz...
giza-zailetan odol, bits.

Amorruaren sutaian
burniak galda gorian.

Ixterbegi ta gorroto,
noiz ez ote orpoz orpo?

Hodei dunduen azpian
aitzakiak gar bizian.

Gudotsak dira ibarretan,
gudotsak gizonen baitan.

Zorroztu ezpata hori,
bila zazu etsai berri!

Etsai berri bila zazu,
pakea maite ez baituzu!...

1958-III-31

BERRIRO

Zer isuri dute
kristalezko ene
ontzi zaharrear?
Bildur nintzan eta
horra berriz ere
edena barnean.

Garraztu zait zehatz
eztia, maitero
gorderik nuena.
Murko¹ polit horrek
hutseman dit, horra:
goxo orde, edena.

Bideko loreak
izotzak jo ditu
udazken goizean,
intzaren begira
eguzki-eskale
antsiz zeudenean.

Nork ez ditu, nork ez
arbin²-aldietan
penak bihotzean?
Belar-zorne errea
dute isuri berriz
edontzi-barnean.

1958

¹ Murko: pitxer.

² Arbin: artega, urduri.

AZALKERI?

Kristo piztua da,
kanpaiak dilindan;
garizumak kuku,
hildurak¹ iragan.

Pekatu zaharrak
erauzi ditugu,
ta grazi berriez
barne epelok sutu.

Aldareak lorez,
kanpaiak dilindan;
grazi-iturritik ur
gardena xirripan.

Ahuntzak mendirako
bidea maite du,
hildura itxuretan
azalkeriez gu.

Iraungo ote dugu
damu-egunotan?
Indarrik ez dugu
gogo erkinotan.

Kristo piztua da,
kanpaiak dilindan!
Zergatik berriz gu
pekatu-larretan...?

1958

¹ Hildura: laztasun.

HAURRIK GABEARENA

Auzoko uneen algara ta pozak
ematen didaten zer unkgarria!
Ez dut nik esango, harako mahatsak
ikustean Lukik aipatu ziria.

Emakume baten ederrak lilura
ninduan zeharo; gorputzaren lerak
asetzea nuen irritsezko gura.
Seme-kutizia bota alde batera...

Batu ginan batu, bide okerretik;
harengandik, soilik, atsegina opa;
ez genduan gura ondorenik, haurrik.
Larruaren grina, barruan borborka...

Ene buruaren erotasun haundi,
neurriaren sena galdu nuen zehatz!
Andre batekin nik ez nuen, ez, aski.
Sutara ohiturik, su-gaineko laratz...

Aldiak dadukan erloju zolia!
Kanpairik jo gabe eman zidan muga.
Lilura-zelaian, idortu lilia...
Zain pekatariok minaren ulua.

.. ..

Gazte nintzanean ez nuen nahi haurrik:
atsegin zitzaidan emazte antzua.
Zeruak eman dit zigor hau isilik.
Auzoan pozkarri zait haurren kantua...!

1958-III-20

JAUNAREN IGOKUNDEAN

Fr. Luis de León-ena¹

Ta uzten duzu, Artzain on,
ibar arru ilun hontan artaldea
txoil, malkoz ezinegon;
ta Zu, urratuz haizea
bazoaz betiereko babesera!

Lehen zoriontsuak,
ta orain atsekabez eta larri,
zuregan bulartuak
geroztanik Zeu barik
nogan asetuko zentzun-gurari?

Zer ikusiko dute
zure musu ederra zekustenak,
baizik eta atsekabe?
hots goxo hori entzunak
zertan ez duke zorigaitza suma?

Itsas nahastu honi
nork balazta ezarriko? nork bildu
haize hasarre hori?
Alde egin baitiguzu,
kaiera, untzia nork eramango du?

Hodei bekaizti hori,
atsegin labur hontaz zeri espa?
norantz hegaz hain zoli?
aberats hoa igeska,
lander ta itsu uzten gaituzula, kezka!...

1958

¹ Orijinala "En la Ascensión del Señor".

BASAMORTUKO OIHUA

Oihu haundiz, larri, hots egin dizut nik
kalean, etxean, ta bakartadean;
alperreko oihua; zure gerizarik
ikusterik ez dut, ene inguruan.

Bideko harriak, lupetza kentzeko
jarriak zituzten gure aurrekoak.
Harri lodi horiek nerau erortzeko
behin baino gehiagoz, alagalakoak!

Oihu haundiz, larri, deika ibilia naiz
jendartea ere basamortua da-ta;
han goiko izarrak ikusteko, garaiz
lortu nahi baitut laguntxo bat hauta.

1958-III-28

EZTEUSKERI

Goiz bakoitzak badu
bere soinua,
anima nereak
bere kantua.

Iturriaren poz
unerokoa,
beti ezpain zabal
ta irriz kolkoa.

Gauzarik tipienak
dute lezio,
guk ordea, aise
aitzaki zio.

Kolore, izpi, hots
eta usai gozo.
Eta gu entzungor
sor eta lauso.

Abereki dugu
zerbait guregan
ta adimena, sarri
nagitsu, lotan.

Aharrausika hasi naiz,
ez ur, ez ardo.
Gogoa makal dut,
gel bedi arlo.

1958-II-1

ELKARREN ETSAI

Zeru-aldean dugu eguzki
guztionezat egunero,
lurazal hontan ezin elkartuz
gizonok zital ta ero.
Egunsentian ez dakigu inoiz
zer eginen dugun gero.

Dantzaldi zoroan
hamar pekatuak
gure inguru beti;
etxean, kanpoan,
egunak, lekuak
guztiak setati.

Halarik ere, jarrai dezagun
maitetasun-kantak joten,
negarrez jaio ginan guztiok
ta negar dugu egiten.
Gora bihotzak! Nekeak ere
izango du noizbait eten.

1958-I-31

MANUTXU

Ai, Manutxu, Manu,
mutil gazte lerdan;
ederki dakizu
bihotzak ostuten.

Hitz bat esan dizut,
zuk lehen esana;
buru txarra edo,
ahiztu zaizu dana.

Ai, Manutxu, Manu,
atzoko senargai,
gaur ikusi zaitut
Mirenekin alai.

Ametsez beterik
sortu nuan kabi!
Ederra irten da
harako zen txori.

Negar guraz nago,
ahul oin ta besoak;
norentzat ote gaur
zure pa gozoak?

Ai, Manutxu, Manu,
gaizto, latz, samina!
Halare, berriz, ai!...
helduko bazina!

1958-I-31

EZ DA BERDIN

Ez da berdin, neskatxa,
ez da berdin.
Lehendabizi ez da minkatxa
bizitza; atsegin
ugari eskeintzen dizu:
bizitza-atadian, begizabal
minbera, izu:
zelaiak lore,
ta loran adar;
ezpainak eze,
bihotzak dardar.

Ez da berdin, maitagarri,
ez da berdin
hamazazpi urte
ta berrogei.

Hamazazpian
geldi zaite,
beti gordin,
beti gei.

1958-III-29

GURAIZA ZORROTZAK

Lerden dago
txortena,
burukoan
lorea.

Kulunkatzaile
haizea,
eguzkia du
maitea.
Neskatxa horrek
ordea,
begiz jo du
lorea.

Ai, zorigaitzez
betea!
Guraizak duten
erpea...!

1958-III-29

MOSU MERKE

Okitua nauzu zure mosuez,
lehen aingerutxo gurbil¹ zuhurra;
ni eta bertzeak neurri berdinez
garabiltzuz zoro, zuk dakizula.

Zure irudiaz gustatu nintzan,
begiko zitzaidan zure gogoa;
eta gorputz hori polita bazan
zure bihotza nik maiteagoa.

Hasierako hitz haien gozoa!
Mundua inguru, ta biok erdian;
barne eneak zukan zuen ezoa,
umezurtz bidexka idor gorrian.

Lehenbiziko mosu, zure kopetan
egin nizun, mozkor, arrats batean;
—txoriak ixilik kabitxoetan—
ta ilargia parrez, mendigainean.

Ikusten zindudan bakoitzean nik
dardare xamurra sentitzen nuan;
pozez jarten nintzan zugaz egonik,
eguzki baitzinan nire neguan.

Geroz... ipar beltzak zartatu zuan
zure ezpainetako axal biguina...
Ta gaur, azkeneko zure mosuan
nardatu² zait, zehatz, pozaren guna!

1958-2-3

¹ Gurbil: zuhur, zoli.

² Nardatu: gogaitu, nahigabetu.

KADENTASUN¹ XUME

Kolkoaren izurretan
kaden xumea dut minez,
bihotzak nahi duana
orain iritxi ezinez.

Arkitu zaitut arkitu,
ta halare jabetu ezin:
hurbil eta urrun, batean;
ene siratsaren² gordin!
Maiz ikusten zaitut irriz,
zuri bea nik begiak;
zuk ere, nakuszun arren,
ez jaso ene adiak.
Zergatik ez duzu ulertzen
ene barnearen giro?
Ez al dakizu nauzula
hil-mugaratzen geldiro?

Zikin dut, egun, ortzia;
haizeak, aizto bizarra;
zure besoetan nuke
soil legortuko nigarra.
Hurbil nauzularik urrun,
errairik gabeko neska;
agertu nizuna, berriz
ez dezaizuket nik eska.

Kolkoaren izurretan
zauriaren beroa dut;
Goi-larrainean ez ote
oraindio izarren bat zut?...

1958-X-20

¹ Kadentasun: malenkonía.

² Sirats: halabehar, patu.

GRINA-SAREPEAN

Zurea da errua, zurea.
Haizetan jarei dabilen txoria bezelatsu
nenbilen ni ere,
maite.
Zuhaitz guztiak
zitzazkidan adiskide;
iturriak,
lore ta liliak,
neskatxa politak.
Mutilekin, zenbat bidar
egin nituan jolasaldiak,
jai pozgarriak,
—egunez urre-argi,
gauetz zilar—
dantzaldi alaiak,
musu arinak,
edari finak...
Zure maite-amarruzko
sarepe ertsian erori nintzan
itsumustuan haragitzan,
gizagaiso hau,
abere-atsegina arau.
Loturik naduka zure haragiak,
makal bainaiz
zuregandik
igesik
egiteko.
Gogo-indarrik
ez, ezertarako.
Katiguarenak ditut
gau beltz ta egun argiak.
Nolatan galduarazi
gintzakezan haragiak...!

1958-X-21

BEHI ITSUA¹

J. Maragallena²

Anpor hontan eta hartan oztopo,
zingiraruntz, aztamuka ibiliaz
heldu da behi bakartia. Itsu dago.
Habailaren³ kolpe xuxen bihurritz
begia hustu zion artzai-nausiak.
Bestean, gandua du. Horra, ba, itsu.
Iturrira dijoa, edatera
lehen bezela, bainan ibilera
sendo gabe. Lagun gabe. Bakarrik.
Haren ahizpak, muino ta tontorretan,
zelaietan ta ibaiondoetan
arranak hoska, larran daudela.
Ura, erori egingo litzake.
Aska kokkatua muturraz jotean
esti egin⁴ du, zorabioz. Berrero
uretarantz burua, ta bare, edan.
Gutxi edan du, gogo gabe. Gero
jaso du goirantz buru adardun
haundia, zeinu itzalez. Beginini
ilen gain, itxi-irikiz betazalak.
Eguzki goriaren argiaz zurtz,
itzuliz doa bide ezagunetaz,
buztan luzea motel igituaz.

¹ "Bei itsua", *Euzko-Gogoa*, 1958, epaila-loraila, 123 or.

² Juan Maragall: "La vaca ciega". Katalan horren olerkietarik onena dala-ko.

Andima Ibiñagabeitiak *Euzko Gogoa*-ko artikulu batean Orixek be itzuli ebala aitatuten dau.

³ Habaila: sendel.

⁴ Esti egin: atzera egin.

KRISTO ZULATUA

Ezin nezake inolaz, Kristo hori,
zure izkutua azaldu;
bakar-bakarririk dakit eskier
nik ere zindudala saldu.
Burnizko untze horien gogorra
haragi hori zulatzean!
Isurarazi nizun odola
esku, oin eta sahietsen.

Odol hortan —jazoera bakan—
ez nintzan lohitu ez zikindu;
odol hortaz, aitzitik, ninduzun
betiko ondu ta txukundu.
Zuk garbitu arren, halabaina,
neure erru berriak, berriro
nadukate ustelgai, edentsu,
galdumendiaren giro.

Bainan ez!... Soilik ezin baneza
—ta ezin— gogo hau jaregin,
Zeuri eskatzen dizut eskerra
noizbait Zuregana nadin...

NORA HOA?¹

Nora hoa, gazte urduri,
begiak zabal eta bizi,
bihotza geraka,
odola sastaka?
Nora hoa, mendiz mendi,
uriz uri, gazte hori?

Bainan ez hadi,
hik uste baino lehen
niregana itzuli
nigar-malkoak legortzen;
antola hadi bakarrik
bartzertxoren baten.

Ez al dik goizak eskeini
bizitza-poz berezirik,
edota ilunabarrak, isil,
maitetasun-garrik?

Arpegi zurbilen batek
sorgin-keinua egin al dik?
Mozkor-usamez loreek
hire barnegiroa zoraturik?

Ez ote hire kolkoan erne
zalgi, zital belar erre?

Hoa, ba, hoa, hire bideen eske;
hoa txairo, zal eta gazte;
galde hitzak
neskatxen begiak,
hurrenik hurrena
—noiz poz, noiz edena—;
gaztezaroko odolkadak,
maminean atximurkadak.

¹ "Nora oa?", *Euzko-Gogoia*, 1957, iraila-gabonila, 10 or.

JUAN RAMON JIMENEZI, AGUR¹

Animan zeneraman zuk
ederraren uki goxo;
animan zeneraman zuk
olerkia, gordin, ezo.

Zure hizkuntza-barrutian
hutsaren haundi ta sakon!
Andaluciako lurrak
zeure minez, ezin-egon...

Hango zeru, lur, zelaiak;
hango belar ta hango lore;
hango haizearen doinu,
eguzki eta kolore...

Loreil baten azkenean
aidean hegal-dardara.
Gogo urrinez beterik,
Juan Ramón, suntsitu zara!

Beharrik, hurbil dantzugu
zure esanen oihartzuna,
behinere idortuko ez dan
poesi-edertasuna.

Nik ere badut intziri,
—euskalduna naizen arren—,
zure lerroetan baitut
leraz xurgatu olermen².

Animan zeneraman zuk
ederrak duen usaina.
Bihotzean gordeko dut
eman didazun eskaina...!

1958. urteko loreilean

¹ In *Egan*, Diciembre, 1958, 3-6, 147 or.

² Olermen: olerkirako gaitasun.

TORREAN DAGO

(Ume kantak)

(Doinua: "Camino ancho de San Fernando...")

1

Ene maitea
torrean dago,
torrean dago
ene maitea;
giltza nahi nuke
idekitzeko,
idekitzeko
hango atea.

2

Ate-ostean
herensugea,
herensugea
ate-ostean;
gure etxean
ezpata zahar bat,
gordeta dago
gure etxean.

3

Zorroztu zazu,
ene aitatxo,
ezpata hori
zorroztu zazu;
mamu bizartsu
beltza omen da,
nola hilko dut
mamu bizartsu?

4

Maitagarriak
ezpata berri,
niri eman dit
Maitagarriak;
etsai guztiak
hilko ditut nik
maitenoaren
etsai guztiak.

5

Ene maitea
torrean dago,
torrean dago
ene maitea;
etsai guztiak
hil ditut eta
nirekin dago
maite nirea.

1958-IV-19

OLALA, OLALA

Zuregana jarri nuan gogoa,
zuregana itxaropen osoa;
beti nenbilen pozik,
nekeetaz biloizik,
zure maitetasunez eroa.

Olala, olala!
Orain badakit ez zela hola,
barrenean zenduan gezurra ta
airos, panpoixa ta eder axala.
Olala, olala!
Orain bai dana bukatu dala!
Ene gazte,
gezur nahaste,
zuntzun¹ eta ergela.
Olala, olala, olala...

E. Erkiagak euskerara atondua.
1958 urrila

¹ Zuntzun: inozo, kokolo.

EMAZTE ONA

Bai. Etxean dukegun zerik ederrena
—amaren ordezkoa—, emazte ona da.
Pitxirik bikainena, dohaiez betea,
poz bihurtzen daki hark, etxeko nekea.

Bizitzako aldapan diran koxka, zoztor,
eskurakoi aldatzen haura aina ez inor.
Etxeko langile ta orobat erregin,
etxea andrerik bage, okerrago ezin.

Eguneroko lanen suspertzaile ernea,
saminen aringarri, ondasun-atea.
Ondasun-atea da emazte zuhurra,
urri dana ugalduz sortzen du altxorra.

Oiharzun gozo duen mintzo ugaria:
senarrak badu onu, umeek ipuia.
Sehaskatxoan maizter berria denean,
haurra nork loerazi amatxok hainean?

Ta haurra eri jartean amatxo non ote?
Ez zazula galdetu; haurrek baitakite.
Bai. Etxeko ondasuna emazte ona da.
Haren pare zintzoa ote da senarra?...

1958-IV-22

BAIETZ ESANGO BAZENIT

Eder, neguan, hotz-ondorean
hegoaldeko haizea;
aspaldi ez-ta, gaur ikusi dut
begiko zaidan gaztea.

Etxaburuan briskondoa¹ dut,
ta etxabeen pikoia;
alkarrengandik bereixi ordez
zuk eta nik bai bikoia!

Bikotezale dira txoriak,
haiek ohi duten kabia!...
Kabi enea zein izango ote,
baztertxo baten jarria?

Baztertxoa nik begiz joa dut,
ta begizago, laguna.
Lagunak baietz esan ezkerro
Jainkoak eman eguna.

Nire bihotza zuk ostu ondoz
zu eta ni bat gaitean
itzal zadazu bihotz enea
zurearekin batean.

Etxaburuan briskondoa dut,
ta etxabeen pikoia.
Badut kabia; maitea banu...
nik zorionik nahikoa.

1958-III-15

¹ Briskondo: mertxikondo.

LESBOSKO¹ SAFORI²

Aski ez zan, agian,
zuretzat legorra.
Maitariak hutseman zizunez geroztik
aise nahi zenduan
bizitzaren zorra
ordaindu: itsasoan sorgor murgildurik.

Ai! gaurko maitariak!
Ez dira itotzen
ez, uretaratuaz;
ederki dantzatzen
dira beste gizonez;
txanpaneaz asetzen.

Bihotzak lera berdin
badu orain ere
aldiak eman digu ohitura berria.
Ez daiteke nolana
arki zure pare;
diruaren hotsak du berdintzen guzia.

1958-III-10

¹ Lesbos: greziar uhartea, Egeo itsasoan, Turkia ondoan.

² Safo: greziar poesia idazlea, Lesbosen jaioa (625?-580 K.a.)

MARGARI PANPOXA

Lirainik baldin bada
horra zure garri, (3 bidar)¹
nundik zu ikusiko
nenbilen, Margari (3 bidar)

Aztalik² politenak
dituzu agiri,
mutilak zure galde
irritsez, Margari.

Bizkarra txairo duzu,
bularra ikusgarri;
badakizu gizonak
zorutzen, Margari.

Zure begi beltzetan
zerbait ziztagarri,
horietaz zuk edonor
berotzen, Margari.

Hagin txurien gainez
ezpain lodi gorri;
bekatu-sua dute,
kontuz ba, Margari!

1958-2-3

¹ Kantatzeko 2gn. eta 4gn. lerroak hiru bidar esan.

² Aztal: berna, zango.

GOIZ ARRE BELTZERAN

Ez du gaurko goizak besteen taiurik,
ez du distirarik eman goiznabarrak.
Etxean eta kalean txoriak isilik,
hodeiak akarrez ortzi bazterretan.

Ezpainak gogor-antx,
irrinorik gabe,
itun larri gagoz
senar ta emazte.

Etxeko txikia isilik dakusgu,
gaitz ezkutu batek mende baitarabil;
alaba txikia sukarraren jopu
ohe-kabitxoan, bai gorri bai zurbil.

Nolatan dezake
pozak iges egin
guregandik, honen
usu, zailu, arin?

Bai samina dala txol¹ sakon hontatik
edari mingotsa dastatu beharra!
Batez ere beste oimaze batetik
irtetzeko betik izan ez dudala!

Begiok ez dute
harako soera²;
betazalok astun
datorzkit
behera.

Egunsenti honen erditze nagia:
txoriak ez baitu bere kantarik jo.
Halare, ene emazte, hasi zuk otoia!
hor baitugu Kristo, erruki jario.

¹ Txola: kopa.

² Soera: begirakune.

ORIXERI LEITZAN¹

“Ta argi bat izetuz...”

Barnan dugun ilun, argiez egarri;
norabaitera nahi ta ezin igarri.
Gaztezero kolokan nor biderakusle?
Zein joeraz ekingo? Zein ote ibilbide?

Alper nagia utzi ta jite bat berezi,
zaletasun guztien gainez, bat nagusi.
Zaletasun errotsu, leraz maitatua,
egun eta eguzki maitetzat hartua.

Maite horrek bihurtzen dizu maite-zorra,
loriazko ereinotz-uztai distikorra.
Gure Euskerak aspaldi bere kutun zaitu,
Euskal Erriak zugaz zor haundiak ditu.

Herriak eskergabe maiz ohi diren arren
gure endaren oiharra² bildu da gaur hemen.

Lehengo ta oraiko euskal-maitaleak
zuretzat dituzte eiki³ esker on aleak.
Esker oneko uztaiz zure bururako,
letretan zure izena duzu betirako!

1957-XII-22

¹ “Orixe'ri”, *Egan*, enero-abril, 1958, 12, 9. or.
Orixe cuskaltzain aulkidun egin zan egunean, Leitzan bazkalondoan irakurria.

² Oihar: oihartzun.

³ Eiki: nonbait, antza.

ELKARREN LEHIAN

Nire etxetik hurbil
lehiaketa dabil.

.. ..

Elkarren lehian diote
ezkiak eta arkaziak
“Negu-zahar hil dela;
guretzat halan hobe,
—diote pozkiro; biziak
guregan du suspertze”.

Azal legorpean
ezo ezez zorne berri;
inguruko haizetan
Epelak muturra ageri.

Irrino gozo, mendiak;
maite-keinu isil, eguzkiak.

Halaxen ari zaizkit
ezki ta arkazi;
halaxen ikusi nik
Mirentxu ta Inaki...

1958-III-9

BEGIRAKUNE BANA

Kalean ikusi dugu
goizean lehenengoz elkar,
zer duzu, zer, begietan?

Aurrera ekin beharrak
eraman gaitu gu biok;
ezin ahaztu nik begiok.

Beltzeranak dira oso
bai begi ta bai azala;
arnasean dut dardara.

Ez dira berdinak, noski,
gogo guztien nekeak;
zer dute begi zureak...?

Eguzkia ager-orduan
kezkaz, arbin, jarri nauzu.
Oraindio, barruan su...

1958-V-10

1959

UME TXIROA

Haize ta euria
aterraldi gabe
ari dira hotza
gizentzen, haunditzen.
Kalertze batean
eskale txiroak
ikusten du inguru
jendea igaroten.
Batto ere ez zaio
benaz urrikaltzen.

Txiroaren seme
dalako, badu bai
ondare bikainik:
hutsaren Ondare.
Argia ta iluna.
Eguzkia udaran
ta neguan hotza
eta gosea are.
Haren soinekoak
iduri du sare.

Gure semetxoek
bero ta ogia
aukeran dutela
jakin nahi genduke;
ta hortaz ditugu
—atseginez inoiz—
gure gain jasoten
samin eta neke.
Txiroak, dirua
behar, esker-truke.

Gizonok berdinak
geranik ezin dut
inolaz ere nik
osoro sinistu;
urlia ni baino
aberatsago dut,
ta gainera, orain,
zenbat zorri hil-piztu!
Bainan landerrari
urdailak huts-xistu.

Kristo Haur eginik
agertu zitzaigun
—izan dute, geroz,
urteak sortarik—;
baina ez da ontzen
gogo-zuhaitzetan
alkarrenganako
maitemaitz mardulik.
Gezurak garabiltz
sasikoz beterik.

—Zoaz, haur behartsu,
bai, kalertz hortatik!
Ez baitugu eman
gogorik batere.
Bihotzak, harrien
senaz du kutsua:
ez dugu ezagun
maitetasun-lore.
Ezer ez duanak
hilobia hobe...

1960

Patxi Bengoa musikariarentzat lau abesti euskeraz jarriak

BILBO (Bilbao)

Canción-Marcha

I

Bilbo hor dago mendi artean
langilea da ekinahalean,
legorrean ta itsasaldean.

Hau bai herri jatorra,
pozkor eta begiko,
maitagarria da-ta
Gora Bilbo!

ESTRIBILLO

Lirain ta alai
bilbotar neskatilak
gure apaingarriak beti!
euren jasa
gogoa eta arnasa
"Made in Botxo" da txit egoki.

Behin batean
ingeles bat etorri zan
ta lotu zan maitemindurik;
ta harrezkero beste edonork
hementxe nahi kabi egin.
Neskatilok, maite ditut,
tamalez baina eurek ez ni.

II

Bai galtzairu, ta bai burdina
sendoak ditu Bankuak aina;
itxastarren txoko bikaina,
kirolzaletasuna
zainetatik dario,
zintzo ta bihotz zabal...

Horra Bilbo!!

(Al Estribillo)

ZINKURINEZ

(Dulces quejas)

Lied euskeraz jarria, mezzosoprano eta piano

I

Maite zaitut nik, etengabe biziro
maite zaitut nik bihotzez ta benetan,
ta zuk ezentzun egin didazulako
ene aiuma badarama haizeak.

Zinkurin hauek parrez hartzen dituzu,
ez baitakizu maitasunaren berri;
zure hitz horiek muina dute edentsu,
ta iltzez bezela gogor josten naute ni.

REFRÁN

Zinkurinez dago landa,
zinkurinez haize epela,
ene hotsa hor joan da
baso-zehar min duela.

Zerua ari zaitzu minez
mundu oker honen aurka;
barrena dut zinkurinez,
nik zu galde, zuk ni uka.

Zinkurinez txoritxoak
kabia nun ote dagon,
minak ditut nik gogoan;
behinere zuk ez jaramon.

II

Zintzo-zintzo nik kutun izango zaitut
ene begiok ilargiari soka,
ene gogoan ongi gordeko zaitut,
izango duzu samurkiro nun koka.

Zinkurin horiek bijoaz zuregana,
soinu gozoen ohiartzun durundia,
ta haiza bezate, ene maite laztana,
lehen niganako zenuan guraria.

(Al Refrán)

ENE, AMA!

Lied euskeraz jarria, soprano eta piano

I

Amatxo! jakin ezazu
nire barruko nekea,
zugandik joana nauzu
utzirikan sortetxea.

Ona zinan, ona zara,
zuhur eta langilea,
ene argi, ta atsedena
betiko laguntzailea.

Amatxo, banatorkizu
nire lorra esatera,
zugan nahi dut atsedendu,
ene izar, ama onbera.

II

Amatxo, loren erdian
nahi zinduket euki beti,
ta ene beso artean
laztan gozoez igurtzi.

Hegan dijoa enara
zeru-ertza jotzeraino,
haren hegalen dardaraz
haizaturik dugu laino.

Ene ama laztan hori,
nire ametsen erregin,
zaite zu ene gidari,
nagoan pozez zurekin!

(Al Refrán)

REFRÁN

Sortetxe maite lazтана,
entzun bada, nire hileta,
bizitza gozo nuana
orain arantzaz beteta.

Gaurtik zure aterpean
bizi nahi nuke hil arte,
isil-isil ta bakean;
zurekin bat, ama maitel (BIS)

ROSABEL

Serenata euskeraz jarria

I

Ez dakit nik zergaitik
behinola aurkitu zindudan,
orduantxe hitza nigandu nuan.

Orduan esan zenidan
nirekin nahi zenuala,
gezurra baldin bazan
zergaitik lotu ni hala?

REFRÁN

Gaizto... dirudizu zuk
bata nahi bestea
ala xuritzean;
ai! zure oinazea
larria izango da
maitasun zintzoa
galduko duzu-ta.

II

Ez zaite txoroa izan
gizonekin mintzatzean,
ez ari inoiz txantxetan
maitetasun-jardunean.

Zeharo utzi itzazu
xurikeri beltz gaiztoak,
ez bezate inor lilura
zure atzipe-xiztuak.

(Al Refrán)

HIRUGARREN GAU BELTZA

“Parisen hil da...”¹

Egungo kantagaiaren
mami, odolik gabea.
Bihotza geldituz gero
bizitzak eten epea.
Eta hirugarren gau beltzak
Ilundu ditu bazterrak.

Siratsaren ukaldi hau
ez zaigu orain onura,
atsekabearen latzez
animan dugu tristura.
Eta hirugarren gau beltzak
Estaldu ditu bazterrak.

Haizean barna dantzari
etsipenezko berriak.
Zergaitik hainbeste zigor
ene asaben Herriak?
Bai. Hirugarren gau beltzak
Armindu ditu bazterrak.

Euskal gizon zintzoaren
azken arnasa bai labur!
Ezin jakin nola atzeman
luzarokoa dan agur.
Eta hirugarren gau beltzak
Ilundu ditu bazterrak.

¹ Jose Antonio Agirre Lekube.

Alperrik diet galdetu
ene begioi negarrik,
ez didate oraikoan
eman batere malkorik.
Bai. Hirugarren gau beltzak
Zertu dizkit begi-ertzak.

Bazuan eginbeharra
epelok zuzper-arazten;
abendaren izaera
guk utz ez dezagun galtzen.
Eta hirugarren gau beltzak
Edendu, euskal emaitzak.

Beluegi ditekean
baino lehen, euskaldunak:
aintzat har ditzagun, otoi!
arbasoen ohiartzunak.
Eta hirugarren gau beltzak
Sortu, soroan lupetzak.

Hainbeste bihotz erkinen
ordez ari zan bihotza!
Urtzik onetsi du, nonbait,
zintzoaren heriotza.
Gure hirugarren gau beltzak
Zauritu, euskal sahietsak...

Billon, 1960-III-22

Getsemanirik ez guk, artean, ezagun;
Iorrinaldi latz honek ez al du mugarik?
Eta haragi makala dugularik lagun,
gogoia makalago, hobenez ernamin.

Hutsen garbigarri dan edontzi mingotsa
eskuetan hartzeko kemenik ez dugu.
Harrokeri doilorra ez da motz, ez lotsa
uztarripe jarteko besteen aburu.

Auzokoaren haurra maite ez dugun arren
anai artean ere, narda³ eta laino.
Inoren izerdia elkor bilakatzen
pozago dakusagu, garaipena baino.

Norentzat gorde nahi ote dugu irria?
Aho muker hauetan amurruz haginak;
esku bigumen ordez erpeen ziria.
Noiz dugu sendatuko anaiaren mina?

Gure baso saildutatik egotziak gagoz,
Paradisutik Adan ta Eba bezala.
Halare entzun ez dugu Jainkoaren ahoz
euskal enda zaharra dongetsia⁴ dala.

Beraz... itzul gaitean oihan atarira,
oinetan daramagun hautsa xahutuaz.
Maitagarriek duten maitezko bigiran
ken, izterbegi oro, anai aldenduak.

Egun, hautets dezagun harrobi gizena
bertatik erauzteko harlandu mardulak;

³ Narda: iguin.

⁴ Dongetsia: txartzat jo, madarikatu.

etxe berriztatzeko behar dan kemena
oraindino baitauka enda euskaldunak.

Moria mendirik ez Golgotarik ere
ez ditugu aukeraz geronek jarriak;
opari egokia ez bedi... abere.
Ahalkez hutsik dagoz aldare harriak.

Osapide iturriko ur berri gardenaz
egarrituak gagoz; eta nun ediren?
Ikol⁵, antzu ditugu gogo-muinak, benaz;
nolaz hasi gindezke hola aberriaren?

Ikus al genezake barruko emaitzik,
opari saindu garbi ta duin izan dedin?
Agian, mendiotan ez ote intziririk
asaben oiharzunaz dezagun galdegin?

Jar ditzagun eskuak suaren gainean:
jantziak urratuaz zauriak agertu.
Ta bakoitzaren mina gozatu hainean
anaiaren zauria gantzuez asetu.

Joan gaitean ortoz, Jordan berri bila,
bekokietan hautsa, garbaia⁶ barruan.
Mendez mende euskalduna beti txit bipila,
ez da, sortterri gabe lotuko munduan.

.. ..

Gure lan, atsekabe ta nekeen sorta
bekizu opagaia, txukun ta zintzoa,
gurazko aberria;
eta seme bortak
har bezate galduen deitura ertzoa.

⁵ Ikol: huts.

⁶ Garbai: damu.

1962

HILOBI IZENGABEA¹

Pinondoaren lerdeak malko geldia iduri;
haren dizditzalea goiko eguzki zuri.
Anaiarteko gudua bukaturik zanean
zauriak eta urratuak genituen muinean.
Gudu guztiak baitute gizodola lurrean.

.. .. .

Zuhaitz lerdenez zegoen pinudi ezaguna,
gure aitaren denporan, hura harizti txukuna!
Goiz erdian joan nintzan bakarbide hartatik,
oroi zaharrak nituen alde guztietatik;
bideko harri leunduak lehenaren lekuko,
euskaldunek mendez mende zapalduak orduko.

Ezagutu nuen lehen, bala arinen xistua,
entzun nuen suhaga² ta kanoi latzen orrua.
Hainbat gurdi ikusi nuen etxe-tresnaz beterik,
alboan zahar, andre, ume ta ez gizon gazterik.
Etxeak hutsik, exodu samin erdiragarri,
gudu-oinak genituen hondamenezko iturri.

Su-lerroaren aldekal³ ari ginan burruka,
ta alde bakoitzaren barne, gorrotoa nork uka?
Bidertzetan eraleak heriotzak ereiten,
leotz⁴ eta hilerrietan gizonek gizon hilten.
Ontziak ere, kartzela bihurtu ziran hor, han;
mendi-bizkarretan ere, odol-egarriak joran.

¹ "Illobi izengabea", *Egan*, 1962, 1-3, enero-junio, 1962, 12-15 or.

² Suhaga: kainoi.

³ Aldekal: albo banatan.

⁴ Leotz: ziega.

Pinudi gora hark badu gurdibide nabarra,
ezin ahantz nezake han izan nuen zarrada,
neurtitzok sortu dituen barneko deiadarra.

Oroipenak ene baitan nituen irakiten;
joandakoen itzalak ninduen lainoz biltzen:
batzuek luban⁵-ondoan eman zuten arnasa:
zenbaitek borrrupean heriotza enasa⁶.

Alargunak, unezurtzak, kalegorrian deslari;
eta hamaikatxo lagunek azken beltzaren zemai.
Horma zaharren ondoan fusilak egunsentian,
zuzentasunaren bila gizonak sarraskian...
Bularra balaz josteko bi oinekoez jita!
garunetan, lepondoan azkena ezarrita.

Joanak ditut joanak, adiskide maiteak,
bai batetik, bai bestetik, etxeratu gabeak.
Izugarrizko saria eskatzen du pakeak:
anker, etoi bilakatzen guraso onen semeak.

.. ..

Udaberri atsarreko goiz argitsu batean
zapi zuriak zegozten gerlarion aurrean;
zelai-mendian berriro pakeak sortu-lore,
lilura hutsa ote nuen txuriaren kolore?

Gogoak osatu-asmoz hasi nintzan lanean
parkamen-kantak kantatzen gizaseme artean.
Beti gorrotatu nuen iskilu beltzik gabe
libre ibili nahi nuen, erromesaren pare.

Danbadak isildu arren, ez zan amaitu gerra;
giza-bihotzetan maizter izaten baita herra⁷.

⁵ Luban: lubaki.

⁶ Enas: lohi, saskil.

⁷ Herra: gorroto, amorru.

Hirietan, herrisketan, etsaigoaren indar!
edonori zaio goxo auzokoaren nigar;
borondatea saltzeko, nahikoa da inoiz, zilar.

.. ..

Haizetan barna dijoaz hondamendiko tresnak;
haizetan barna dijoaz gezur, zemai, ainenak.
Urduritasun ezoak durduziatu gaitu,
inpernuko zazpi indarrak ezin ditugu zaitu.

Nekaturik nauka orain gizarte gezurtiak:
Jaungoikoa ta geidea⁸ gurutzetan josiak
nunahi soma genitzake, baditugu begiak.

Bakartade-irritsaz nago, hiriez aspertua;
nahiago ditut ibai, landak eta zerua.
Guduez lehen aldiko adiskideen minez
zelai ta bide ezagunei galdegin diet zinez.

Isilaren ezpain mehiek hitzen ordez, irria;
zenduekin ezina dut orain solasaldia.
Gizon berriek bete ezin haiek utzi tokiak:
madarikatuak bitez gerlazale guziak.

.. ..

Aurkientzak han nituen, aspaldiko muino, ibar;
basobide bazterretan sasi, ota, isats ta inar,
pinondoaren lerdeak malko izoztua iduri;
ene bihotz hau pilpiraz, lehen-minez urduri.

Azkenengo bidarrez han ibili nintzanean
gerlaren grina suarra zebilen lur gainean.
Nik ere banerabilen burni ta berun-zama;
ez nuen balarik jaurti, bat heldu zan nigana.

⁸ Geide: lagun hurko.

Iztarrean, sabelpean nuen odol-jario,
orduan ikasi nuen biziaren balio.
Aldamenean nituen gazte eroriak, hilak;
bizi-haria ebaki zien guraize isilak.

Bala haren lau zauriak osatu zitzaizkidan;
bihotzeko bost zauriek minez diraute nigan.
Gaztezaroko ametsak goitzxo lorrindu ziran.

.. ..

Oroipen zaharrek berriz ninduten zorerazi⁹,
bide bakartiko gauzek bazuten dohai, grazi:
iturri aspaldikoa hantxe neukan begira,
ur-kolko ispilu tipian ortziaren diztira;
garden, emaro zerion ur metal gorritzua,
bidaztiak heze zezan idor zeukan txistua.

Bidaztia lipar hartan gizaiso hau, neu nintzan,
erromes zaurtu¹⁰-osatu, amesti pakegintzan.
Iturriondoko ihiez izan nuen bekaitza;
legor neraman ahoa, legorrago bizitza.

Jo nuen liluraz goirantz, erpinera beharrez,
sasi-larrez medartua zegoen gurdibidez.
Begi erdi-lauso horiek zabal nituen jarri,
aldameneko zerbaitek egin zidan aldarri.

Pinadi ilunbezu hartan harri-saila inguruka;
belar gizenez betea; erditsuan gurutza;
egur-zati bi laztanki, lokarriez bilduak;
lore ordez, pinu-orri hezea goiburuak.

Bihotz honen taupadarik ez nuen nik sentitu;
ez zitzaidan halaere, betikoz erdibitu.

⁹ Zorerazi: zoratu erazo, urduritu.

¹⁰ Zaurtu: zauritu.

Norena nuen hilobi, lerrartean galdua?
Gerraldiko oparia zan, gizon baten gorpua.
Gerlari gazte, zaharra? Txuri, urdin, gorria?
Poetaren bat? Apaiza ote, han ehortzia?

.. ..

Maiz joana naiz mendiko gizobia ikustera,
ta beti idoro dut hezez, gurutzaren joskera.
Hilobi-begiraleak maitagarriak ote?
Gizaki damuz betea balitz agian, hobe.

Gurdibide bazterrean hobi bat, izengabea...
Gizona gizon erale orain ere legea.
Geroztik badut animan itxaropen ezia,
beste nunbaiten dugula pakedun Aberria.

ITURRI AGOR

Ken ezazu, ortzia, jantzi garden hori;
zure urdin horrek mina sortzen dit neroni.
Zigorrik gogorrena: landak murriz, hori;
zelai ederra zanak, hauts igarra lodi.

Hodei etoiak noizpehin hegalak zabalik
begi honi irrigaizto laburra emanik
agertzen dira goian; eguzkiagandik
emaitz ziztagarriak ditugu jasanik.

Sorginek bazekiten hodeiak sortutzen
ta mila itxurazkoak bapatez taiutzen.
Murumendin ta Anboton ekaitzak izutzen
besterik ez dakite gaurkoan, hain zuzen.

Amaitu genituan etxe-janariak;
hutseman zigun aurten soroko gariak.
Arto ta babarrunak, idor, iraungiak;
abelgorriak, horra, ogi-truke utziak.

Ortziaren ederra gorroto dut egun;
trumoiaren orrua sarri nahi neuke entzun;
neguan hain ankerra ekaitzetan berrehun,
orain, neurriz gain txeraz, beti giro legun.

Haizeak al du erru, erraiagabeki,
euririk gabe, hala gu izateko beti?
Hodeiek, malko gabe, urdinezko begi,
iturrien muturrak alperrik ideki.

Dugun behi bakar honek noiz belar hezcea
jan ote zuan, azken? Gosez dut ase.
Goizean ihintz apurra, gosaria xehea;
arratsean iparra, ta haitzosto¹ berdea.

¹ Haitzosto: haritz-arbazta.

Inularre dundua, egunsenti txuri,
erauntsi-usaia arren, lainoak itzuri.
Inguruko sasiak bizirik iduri,
behi bakar hau ahuntz batez beharko ote itzuli?

Nik ezagutu nuan belardi gizona
goizean ikusi dut kixkaldua dena;
larrain itzul diteken lurralde zekena,
dantzarako tokirik aukerakoena.

Basetxe-ondoan nik banuan osina,
orain gorde liteke —bagendu— irina;
errekak ageri du uberka-haitz gordina,
iturri berria dut gaitzorduz egina.

Egarriak itoa emazte nereaa,
noiznahi du ezpainetan uraren galdea;
bularreko haur hori hazteko nekea...
Ote ditut galduko haur eta emaztea?

Haritz tantai bi ditut oraindio ezo,
hauek ez dute, uruski, udateko gaixo;
iluntzez osto-kiman aritzen naiz ertzo,
abarren bila nabil, nekez oin ta beso.

Lur gaineko euria neronek ez aski,
barrukoagoa dut egarria, naski.
Idorra ta ezoa zeruak dakarzki,
arima-uzta handiaz maiztxo nabil gaizki.

Ken ezazu, ortzia, soineko urdina,
urdin horren bikainak baitit eman mina.
Uzta eta abere gabe, bihotzak samina;
auzokoaren pozak arindu ezina.

Lur emankor nuana, horra, orain antzu;
ilargi eroxkoak ekaitza du aztu.
Ortziak nahi izan du hurgaina zehatu.
Lurra, zerurik gabe, alargun geratu.

1964

MAITE MAITEENA

Maite maiteena, maitetxo!
Bete-hurren dut nik epea
lurreko aldi zoroan;
ez daukat ezer uzteko,
soilik, azken-hitz nerea
sar zenezake gogoan.

Zurekin ezkondu baino
nahiago ninduan monja
aita jaun gaizto nereak.
Ortziri, haize ta laino,
mendi-malkarrean nauka
bele ta mirotz artean.

Aitak jakin zuanean
alkar maite genduala,
setakeriz esan zidan:
—“Zirtzil horren odolean
nahastu ezin inola
gure jatorri garbia.

Zu horren emazte eginik,
alaba, ikus ez zaitzadan,
komenturatuko zaitut;
osterantzean, ertsirik
—zedorrek duzu erasan—
lau horma artean katibu”.

Ta beste ziorik gabe,
borreru biren menpean
ninduan atxilo jarri;

soka gogor eta kate,
eguna gautu zanean
hona ninduten ekarri.

Gaztelu honen medarra!
Medarrago du leihoa,
nire janarien bide.
Otso ulu deadarra
bazterrik bazter dijoa
bildurrarekin senide.

Burni zut-zeharrak ditut
leihorearen estugarri,
hura estu ez bailitzan.
Haizearen xilibitu
zakarra lazkiro da ari,
lauorri jartzeko gisan.

Noiz behinka sumatu izan dut
eguzkiaren urrea
leihotxoaren zuloatik;
izarrak aspaldi kendu
zizkidaten, ta ortzea
ez dut gehiago ikusterik.

Bigarren negua hasi da
—begiak txiki, mutur beltz—
eremu legor hauetan;
aintzinako maite-ipuinak
izua baizik ez dute
surik gabeko gauetan.

Udaldia nuanean
egarriak sarri itotzen
ninduan, sargori beroz;
orain negu goibelean

itusurak naute jotzen
errukigabe, irri eroz.

Ohatze honen gogorra!
Lurraren azala bera
baitut etzangu borobil;
igaz, banuan garoa,
aurten dana ezereza,
artile ordez lur-mokil.

Sagu iruak ditut auzo
ene gosezko bizitzan,
gabeziaren mahaikide;
ogi beltza zaidan goxo!
Ez ohi dut egunero jan,
aitaren galena¹ bide.

Beltzeran banintzan ere
zurbilik ditut azalak,
zainak tartean urdinxka;
linaberazko maindire...
marratsezko soinekoak
bizarturik, zintzilika.

Monja nahiago ninduan
zurekin ezkondu baino
aitajaun bihotz matxarrak².
Baina ziega barruan
hark naukanetik gaurdaino
bizirik ditut ametsak.

Noiztik, Jauna, ote dugu
hoben larria eginik

¹ Calen: zigor.

² Matxar: itxurabako, zatar.

gure bihotzok lotzeaz?
Ba ote da munduz mundu
zigor berdina duanik:
heriotzazko dotea?

Hezurak ditut nabari
ta kontagarri arean.
Halare bizirik nago.
Aitak ez dauka begirik
amurru atzaparpean;
zakurra du laztanago.

Gaur sumatzen dut arnasa
makaltzen eta bakantzen,
lo nagusiaren zantzu;
esku ta oinetan hotza
ari da niaz jabetzen,
behar osoko behartsu.

Izeki ezazu laister
kandela apal bat etxean,
nire heriotzaren lagun;
ta duzu izanen, isilpe,
argi hori itxungitzean
ene amaia ezagun.

Maite maitena, maitetxo!
Agur luzea dan labur
une gorena heltzean!
Senargei zorigaitzeko:
betirakotz zauzkat samur
atxikia bihotzean...

ARRAIZPE

Música del maestro Fco. Bengoa. Letra de Eusebio Erkiaga.
Tríptico Coral a cuatro voces de hombre

Aititaren egunetan
zer zan Errekaldeberri:
solo, zelai, zugaztiak,
mendi-barreneko baserri.

Orain, uri haundi-nahiak
guztia iruntsi gura:
zelai, solo eta basetxe
gun eta azal aldatu da.

Bizimodu baketsurik
ez dogu lehengo landetan,
dirugoseak garabiltz
arduratsu eta neketan.

Belaunaldi honek ezin
utzi auzoa gogaitan,
Errekaldeberri barrero
jarri dagigun goimailan.

ZORTZIKO

I

Ene Iturrigorri,
basoko umea,
ibitu ohi deustazu
egarri neurea;
Aspaldion zara izen
onaren jabea,
mardo nahi dot ikusi
zeure izatea.

ESTRIBILLO

Iturritxu, iturri
mendi-artekoa,
neure maitearekin
sarri ikerturikoa,
niretzat zeure uraren,
uraren gozoa,
zeinbat bidar ezotu
deustazu ahoa.

II

Aintxineko bidea
erreka-ondotik,
Pagasarri ta Arraizko
zidorrak albotik;
iturria kantari,
kantari basotik,
maitaleak amesez
alkarren besotik.

BIRIBILKETA

Arraizpeko neska
alai gurbilak,
zeueri begira
begira mutilak.

Etxekandre maratzak
geure pozgarri,
Errekaldeberriko
lora usaingarri.

Entzun nahi genduke
garbi ta soilik
maitetasun-hitza
zeuen ahotik.

Ta auzo laztanean
berpiztuko da
aurrekoen kemen,
indar, gogoa...

1964-IV-19

INULAR BELTZ

Goi urdinean hegalak zabal
zoin den eder arranoa;
ni ere hala nintzen gaztetan
askatasunez harroa.

Gaztezaroko ametsen muga
lerrogabea omen da,
goizean zabal den eremua
inularrean zerrenda.

Untzira nintzen gazte geraka
menturazko goiz batean,
untzilaguntzat neska xarmanta;
bat ginan itsas barean.

Honen laztanak nireak ziran,
nirea haren gogoa,
zinez genduan ingurubiran
zorionaren giroa.

Arrainak antzo murgildu ginan
amodiozko itsasoan;
hala dijoaz txoriak binan
udaberriko aroan.

Maitetasunak badu halako
indar, zoratzen duena,
zoin den mingotsa gaur niretzako
pozkanta honen goena.

Ekaitz-haizetan zart urratu zan
ene untxiaren ohiala;
ene arrano zailak orduan
zaurtua nunbait hegalá.

Itxungi ziran azkar zuziak;
ta lore-txortanak hautsi;
leihoez kanpo zeuden argiak
denak besterentzat utzi.

Zeureganaino heldu ezinik,
emazteki lehen maite,

zuganat berriz joan nahirik
nik bai alperreko ibilte.

Atzenduberri den bidazia
bezala nenbilen deslai,
lorratz zuzena, bide-haria
kausitzeko ez nintzan gai.

Ene landare bitxi uxterra¹
bustitzen zuen ibaino...
txit agorturik zeukan uberka²,
zakarririk saihetseraino.

Haizetan galdu zitzaidan noski
amets ezoen lurrina;
bide-zorroa euritan busti,
lorrindu nuen irina.

Guk alkarrekin jango genduan
ogirik ez da erreko,
halabeharrez bion erruan
asperkundera beteko.

Ezpainok penaz baztertu dute
gorrimina, odol-irri;
laru³ kolorez nago negute
anker hontan hits ta mirri⁴.

Oin nekatuak oinazez ditut,
behatz-arteaz zauriak,
nire xangrin⁵ hau ezin ibitu
beste andreen liliak.

Akelarreko pago txuria
noizbaiten lekuko zintzo,
milaka izenez enbor joria
oraindino landan trinko.

¹ Uxter: samur, bigun.

² Uberka: uharka, uraska.

³ Laru: hori.

⁴ Mirri: erre.

⁵ Xangrin: atsekabe.

Ez, ez inola, neska xarmanta
ez zaite begitaratu,
nahikoa baitut kondaira ausarta,
xoxokumeen bekatu.

Hitzen doinua bai eder dala
andre batzuen ahoan;
egun bateko lore ximela
atsegin labur ondoan.

Itsas-orroen eskariz ditut
belarri zoldu⁶ horiek;
doinu zaharrik ezin aditu,
lehen latzaren gazitze.

Inular txoila⁷, gero inular beltz
zitzaidan damuz itzuli,
haragiaren loraketa amets,
izotzak galdua iduri.

Egun ta iguzki nik ezin jakin
izan dudan gertagia⁸;
neska, zergatik, hain larri ta arbin
utzi zenidan bizia?

Beste gizon bat nire ordainez
omen duzu ohelagun,
izara baltzak azpi ta gainez
agortuko zuen egun.

Bihotz erdian sartu zenidan
erdoitzen ez den iltzea,
aztru-antzea⁹ ustela nigan,
herio zait bizeitza.

Nire bordako ate gaineko
lizar-abartxo igartua,
zuk uxa itzazu parte txarreko
ditezken oldar ta sua.

.. ..

⁶ Zoldu: zoritu, zornatu.

⁷ Txoil: bakar, besterik bako.

⁸ Certagi: gertari.

⁹ Aztru: azti, igarle.

Urratuko du egunsentiak
gau ozpelaren gandua
ta entzungo du nire hilobiak
hezur minduen kantua.

1964-III-25

BIDE ZAHARRAK

Odol-egarriz dabil berriro
gizabarneko piztia;
ezta haragia, ezta dirua,
grinen grina nagusia.

Gorrotoa da, harrokeria,
besteak ikusezina;
auzokoaren onak damaigun
erpekadaren sumina.

Ezin honela, Jauna; ezin da
gizonen elkartea sor,
nire ona txoil zait eder, eta
besteren minaz entzungor.

Hagin-artean, kanibal antzo,
eiho genezake sarri
ingurukoen hezur ta mamin;
izen ona... lehendabizi.

Ostoak heze, ostoak igar;
belaunaldiak, jaio ta hil;
mundua mundu, birabiraka
lehen bezelatsu dabil.

Hagin txuriak ez dira beti
irriñoaren agurra;
ta ez uste izan urrun dagoenik
kanibaltarren muturra...

1965

LEKEITIO¹

(Hitz eta doinu)

Itsas-ondoan, mendien oinetan
dagoan herri txiki zoragarria,
ene sehaska,
neure Lekeitio,
herri guztietaz maiteena.
Urteak badoaz, joana ez dator,
guraso laztanak aldeta betiko;
halan be niretzat
emon eusten eurak
amaitzen ez dan Jaunagan sinismena.
Ez egin negarrik, ene bihotza,
hemengo egunak iges arren,
geroko herrialdea
bikainagoa dalako
ez dago han oinazerik, ez etsairik,
goiko erreinua, Aitaren etxea,
Jaunaren zerua betiraunerako.
Itsas-ondoan, mendien oinetan
dagoan herri txiki zoragarria,
ene sehaska,
neure Lekeitio,
herri guztietaz maiteena.

¹ Euskal kantaldiak, 1965g. Donostian, Iruñan, Gasteizen eta Bilbon, V. Saria. Hitz eta Soinu, E. Erkiagak atonduak

ZUBIGANEAN

Zubiganean nago
urari begira,
ibaieko urak gaur
eguzki-dirdira;
ontzia egotzi diot
uraren erdira,
honen iges-beharra
ukatu ezina.

Zubiganean nago
ontziari soka,
haize ta tirainpean
urgaina koloka;
ene ontzi maitea
urduri alboka,
dakustan bitartean
begiontzat poza.

Zubiganean nago;
ontzia urrundu da,
begiok lasterrean
ezkutuzko muga;
ontzian joan barik
hemen geratuta
arimatxu neureak
nahiago legorra.

ALBISTA ARINA
Mitxeleta nabarra
lora bila amesti!
Halantxe gura neuke
ibili nik beti.
Landa ta zelaietan
haize epel ereti,
nabilen ni be hegazka,
laino ta eguzki.
Mitxeleta albistari
zatozke zerutik,
udalehena zu bage
niretzako hutsik.

IMANOLETXU¹

Imanoletxuk
badau txakur bat
goiz ta arratsalde
txau, txau, txau.
Nik bere laster
dodala izango
esan deust aitak
barrez gaur.

Imanoleren
txakurrak daki
erbitokiak
aurkitzen,
erbi haundia
harrapauko dau
ta jango dogu
bazkaiten.

Imanoleren
txakur zuriak
zapatak ditu
oinetan,
mendirik-mendi
joango gara
erbien bila
domekan.

Imanoletxuk
nebatxua dau
mutil polita,
Iñaki;
neskatotxuak
hari begira,
eta Iñakitxuk
ez daki.

Imanoletxu
gure laguna
neska pimirin
jatorra,
gure jolasen
azkortzailea
Imanoleren
txakurra.

Imanoleren
txakurrak, horra,
txakur azkarren
sena dau;
goiz ta arratsalde
hara ta hona
gure inguruan
txau, txau, txau!

¹ "Imanoletxu", *Oleri*, 1966, garilla-lotazilla, III-IV, 29 or.

URRUNETARA¹

Bedar-kolorez
ontzi barria
osabeak deust eskeini,
oihal txuriak
tantaitxueta
egingo ditut esegi.

Urdin jantzita
uhin eta bagak
ontziaren azpigarri,
azal kolokan
dantza-dantzaka
urrunera jungo naiz ni.

Urrunetako
ugarteetan
mila altxor dagoz utzita;
baso ilumetan,
artzuloetan,
kutxa baltzetan jarrita;
nire ontzian
sartuko ditut
isilpean ibilita,
zorabiozko
altxor zaharrak
lilura-amesez josita.

Bedar-kolorez
ontzi barria
osabeak deust eskeini,
tantai goretan
oihal txuriak
deutsadaz gaur nik ipini.

¹ "Urrunetara", *Oleri*, urtarrilla-bagilla, 1966, I-II, 45 or.

AITITA-AMAMAK¹

Etzetik urrun
bizi zirean
bai aitita, bai amama;
txiki nintzala
joaten nintzan
beti pozik eurakana.
Aititak buru
zuria eukan,
makilatxua eskuan;
niri jostailu
politak gertu
eta emoten eustazan.
Amama, barriz,
beti irribarrez,
arpegi zuri-gorria:
udan niretzat
okaran, sagar;
neguz, intxaur ta eztia.
Gure etxeraino
etozanetan
jaia egiten genduan,
aitak eta amak
mahai zabala prest,
ume ta nausi, inguruan.
Etzetik urrun
bizi izan arren
gure aitita-amamak
liluragarri
ohi nituan nik
eurèn berba ta laztanak.

¹ "Aitita-amamak", *Olerti*, 1966, urtarrilla-bagilla, I-II, 46 or.

EMONGO DEUTSUT¹

Ez deutsut emon, maitetxu,
nire bihotzaren giltzik;
txoriak maite, habia;
ez dau nahi gizonen hitzik.
Ez neutsun emon, maitetxu,
eskubide hain haundia;
txori-kantak maite ditut,
maiteago goi-bizia.

Emongo deutsut, emongo,
noizbait ni naizen guztia,
batera lortutekotan
betikotasun zuria.
Ez deutsut emon, maitetxu,
bihotz neurearen giltza.
Giltz horrek euki dauka-ta
zerutiko urre-bitsa.

Emongo deutsut, emongo,
maite-laztan eta mosu
biontzat gorabidea
zeuk eskintzen badeustazu.

¹ "Emongo deutsut", *Olerki*, 1966, urtarrilla-bagilla, I-II, 47 or.

1966

NESKATXA ETA ARDOA

(Verlaineren hariora)

Ez zenidan hori esan
azkenengoz ikustean.

Zilarrezko
soinuz estali zenidan
zure hitzen hots maltzurra,
zapokiro birritan.

Zauri bizi bat urratu
zenidan;
nola osatu baneki, osatu,
sastakai horren mina enegan.

Hautsez igurtzi nahi dut
atzoko egumen dirdaia,
lozorroan estali zehatz
mosu beroen alkar-lehia.

Itzaliko da noizbait
ilinti erdi haustua;
ez du nire lur honek erneko
zugandiko hazi zimurtua.

Mozkor-galez naiz ibili
Zazpi Kaleetako tasketan;
zaragiei ta kupelei
irrimo goxoz dei eginaz.
Errukizko xirripan
isur zezakidaten
barneko mama gozoa.

Kristalartean bai eder
ardoaren distira!
Kanta zaharrak dakarzkigu
biguin, lo-giroz, belarrira.
Parra-keinu xamur, begira.

Ez dit inongo neskatxek
halako goxorik eskeini;
atsegin iragankorrek baino
nahiago nik
ardoaren distira!

1967

ENE MAITEA

Ene maitea, maitea,
aldegina urrumera.
Zergatik utzi nauzu,
utzi, maiteminez urturik?

Biona zen kabi epela
urraturik, urraturik,
hemen nabil bakarrik;
bazter ilunen batean
ez ote da hobirik?

Ezin dut ahaztu, maitea,
aspaldiko poz betea.
Orduan zoriontsu
elkar beharretan suturik.

Biona zen kabi epela...

TXAKOLINA

Edan nahi nuke
txakolin txakolina,
edari garbi
gozo eta atsegina,
gau txuri batean
sorginek egina.

Udako atsalde beroan
maitearen ondoan
txakolina dugu bizigarri,
auzoko ta etxeko
larrituak poztutzeko
aukerako edari.

Edan nahi nuke...

Ekarri ezazu pitxarra,
badut edan bizarra,
sabela ederki poztutzen du
gogoz edan ezkeru
soina eta zainak bero,
egarria atzendu.

Edan nahi nuke...

.. ..

sorginek egina;
txakolin txakolina.

EZKONDUKO GERA

- 1 Goizean goizetik *Mercedes* ederra
bialiko dizut etxeko atera,
eztai ondokoan ilargi aldera
biok alkarrekin jungo gera.

Tralara, laralara larai,
ezkonduko gera badegu aukera,
tralara, laralara larai,
lalararai, goizetik gabera.

- 2 Bederatzi bider eman dizut hitza,
ez dezu sinisten nire esan bortitza;
alperrik ari naiz hitza eta pitza,
zuk nahiago baitezue etxe berriko giltza.

Tralara, laralara larai.

- 3 Ezkonduko gera hurrengo urtean,
ezkonduko gera egunen batean,
haizerik ere ez dan ilunabarrean
ezkonduko gera... motroilu gainean!

ARRANTZALEA

Nere kaiera
ontzi politera...
Itsasoa bare dago,
gaur ez du hasarrerik.
Banoa kaiera,
nere ontzi politera;
etxe eta herri
isil eta geldi.

Itsas handi ta zabalean
etxetik urrun gaudenean,
maiteenak ezin ikusi;
goian zerua, behean ura,
oroipen hutsez giza bizi,
oroipenez eta amets-guraz.

ZU GABE¹
(Jatorrizkoa)

Ene samina bezin
astun ez da harria;
harripean zapaldua
harripean zapaldua
.....
ezin askatua dut anima.

Hil zindudan
errudun zinan-ta,
hil zindudan
errukirik gabe,
etenazi
nizun bizi beltza,
ta geroztik
mina nire jabe.

Ametsa zirudian
aldi bateko pozak.
Udaberri samurrak
kendu zituen arantzak.

Iluntze ura
bai goxoa,
ez mingots ta ez neke!

Biok batean
muxu ta laztan
zoriontasun bete.

Nola?
Nola?

Zu gabe, nola bizi naiteke?

Bilbao, 1967ko abendua

¹ Juan Cordero Castaños-ek musika ipini eutsan abotsetarako.

SIN TI
(Castelaniaz)

Tanto como mi dolor
no es pesada la piedra;
bajo piedra, aplastada
bajo piedra, aplastada tengo
.....
sin poder libertar mi alma.

Te maté
porque eras culpable,
te maté
sin compasión,
hice cortar
tu vida negra (infame),
y después
el dolor (es) mi dueño.

Ensueño parecía
de algún tiempo la alegría;
la tierna primavera
había quitado las espinas.

Aquel atardecer
¡cuán dulce,
sin amargura ni dolor!

Los dos juntos
besos y abrazos,
felicidad plena.

¿Cómo?
¿Cómo?

Sin ti, ¿cómo vivir puedo?

1968

“AITTITTA MOKORDO”

(Tokian tokiko)

Hondar txikia eta
gero Ondarzabal,
hatx koxkor bat daukagu
sendo baizen bakar;
batzuetan morrosko,
hurrengoan txatxar,
“Aittitta mokordo” da¹
guztion laguntzar.

Munduan zehar dabil
lekittarrik asko,
esatea bakarrik
ez da sarri nahiko.
—Erdia! berbatxu bi
entzuidazuz ondo:
badakizu nun dagon
“Aittitta mokordo”?

Galde horrek behar dau
zuzen erantzuma,
hori ez dakianak
nun dauko zentzuna?
Ur bizietan harro
kresal erastuna,
uraberan ederren
“Aittitta” kutuna.

Hondar txikia eta
gero Ondarzabal,
hatx koxkor bat daukagu
sendo baizen bakar;
batzuetan morrosko,
hurrengoan txatxar,
“Aittita mokordo” da
betiko laguntzar.

¹ 1735eko eskuidatzi baten “Aelmocordo” irakurten da.

ANAITASUNA¹

Anaitasuna arkitu nahirik
kalera noa goizero,
urduritasun barnekor honek
erremindu nau zeharo.

Hamaika ordu
ditut eman,
dardare hitzak
argi esan...

Jaio eta hil egingo gera
bakoitza bere lurrean,
halare gizon guztiok degu
amai berdintsu azkenaldean.

Anaitasunak zer eskatzen dit
munduko gizon bezela?
Zuk nirea aina, nik zedorrena
begiratuko dedala.

Hasarre antza
utz dezagun,
elkar-premia
gure lagun...

Eskubidea badet nik eta
ez dezadala galdu inun,
maitetasunak eragozpena
bihur dezala elkar-ondasun.

¹ Musika Félix Ibarrondo, letra Eusebio Erkiaga.

GURARI¹

Eder da
mendi garaiean elurra,
ederren
nere amatxoren musu xamurra;
haura ezin det nik beti ikusi,
bizitza latzak narama urrun ta
igesi.

Eder da
ilunabarrean zeru-ertza,
ederren
ama goxoaren mintzo baietza;
haura ezin det nik beti ikusi,
bide luzeak alde gauzka ta bere-
zi.

Mingarri
izaten zait nere bakartade,
hutsetan
bizi naiz neketsu ta zorigabe;
ama ezin det nik beti ikusi,
bakardade hau txit geroztik
nahi det hautsi.

Ama maitea,
laztan nerea,
zuregan nahi det
nik bizi.

¹ Musika Félix Ibarrodo, letra Eusebio Erkiaga.

1970

MAITATZEN¹

Maitatzen bizi nahi dut,
maitatzen.

Ez gara abere,
ezta zuhaitz ere;
badugu bihotza,
badugu adimen;
maitatzen
bizi nahi dut,
maitatzen.

Nire epaia
nigan ez dago,
bai areago
bestegan,
zer gerta ere
kontuak argi,
eskuak garbi
ditzadan.

Atzerri ta auzo,
seme ta guraso
behar dugu jakin
atsegin ematen;
maitatzen
bizi nahi dut,
maitatzen.

Sentimendu gabe
ez inor halare,
bakoitzak berea
ohi du eskatzen;
maitatzen
bizi nahi dut,
maitatzen.

¹ Juan Oruec musika atondu "Kanta Berri" lehiaketarako, Arrasate, 1971.

GURIA

(Canción bailable)¹

Guria, Guria, Guria...

Goizean ikusi zindudan,
arratsaldean maitatu,
nire ekaitzaren haizea
laster zenidan baretu.

Guria,
Guria,
goizaldeko argia;
Guria,
Guria,
bidelagun berria.

Gau luze iluna joan da
gure bizien erditik,
egunero landu dezagun
maitetasuna gogotik.

Guria,
Guria,
goizaldeko argia;
Guria,
Guria,
bidelagun ezia.

¹ "Kanta Berri" kanta Ichiaketan lehenengo saria hartu eban Arrasaten 1971an. Doinua, Fco. Javier Gargallo-k antolatu eban; Barakaldoko Musika Bandako artezkaria zan.

GURE KAI POLITEAN

Gure kai politean ontziak seguru,
ur handiago dago, ez da ezer galdu,
batzuk urteten dabe ta besteak sartu,
haundi ta txikientzat lekua badogu.

Uriko ontzi guziak eta erbesteko
neguan hona datoz arrantzan hasteko;
gauza premiazoak hementxe hartzeko,
gero ateko bandan itsasoratzeko.

Neguan holan dala, udaldean, barriz,
aberatsen ontziak harro-harro dabiz;
gureak atunetan arrainen gurariz,
whisky-rik ezin edan batzuk marierdiz.

Nasa zaharra zana orain zabaldua,
ontzi-lanetarako behar dan lekua;
zoritzarrez kotxeek dauke dana hartua,
garaje bihurtu da libre zan portua.

Erregu egin deusat alkate jaunari
turismorik ez dedin moilara etorri;
oinezkoak bakarrik gaitezen ibili,
libre moila guztiak, libre Amandarri.

1971

LEHORREZ TA ITSASOZ

“Terra marique potens...”

Amandarri sendoan
urrunera begira
 itsasgizona,
 lehorrekoa.
Ta, zer agiri da?

Gure itsasaundia
beti geldiezina.
 Berrogei kaio
 hegan luzaro
 zeozeren bila.

Itsasbideak luze
baizen zabalak ziran.
 Gaur, estuago,
 neketsuago
 gizonak lurbiran.

Hurrerago begira:
uria, aldatua,
 haundiagoa,
 taiu bakoa,
kaitik urrundua.

Uri txiki zanean
polita zan, garbia.
 Gaur, diruz eskas
 neurri estuaz...
ez hain egokia.

Zer eskatuten deusku
jaioterri kutunak?
 Bera jasoten,
 bera edertzen
 gaitezan lagunak!

LEKEITIOKO KANPAIEN DEIA¹

Kanpaiak eban berbeta argia
gaztetan jakun ezagun,
erradiorik ez telebistarik
hemen ez geunkan guk inun.

Kanpa nagosiak eberdian
dangada astun sendoak,
hiru ta hiru ta hiru entzunda
etxeruntza etxeoak.

Gurma² gogorraldietan, edo
su handirik inun bazan,
luzarokoan ekin ta ekin
nagosi horren dangadan.

Gaixoren bati eleizakoak
etxera eroatean
bosnako saila hiru jotaldiz,
gero txilina eskuan.

Hilarra³ betiro da lazgarri,
—urrunean norbait hil da—,
ez hildakoa, ez katabutik
ez doa, ez, hilerrira.

Kreduak meza nagositan Kredo
bat, bat, bat jota agertu,
etxean dagoanak errezuz
sinismena guztiz gertu.

¹ "Lekeitio'ko kanpaien deia", *Lekeitio-1*, BBK-Kultur Ekintza, 1988, 72 or.

² Gurma: gandu, lanbro.

³ Hilar: hil dana kanpoan (erbestean, itsasoan) hil danean joten dan kanpai.

Albako kanpai itzartzailea,
Aremaitekoan be bai;
hiru binakoz oleazino
une larria agerkai.

Jaiotean ez dogu kanpairik;
azken-kanpaiak danok gei:
zazpi dangada... gizonezkoa,
emakumea bada, sei.

Kanpa nagosia ta kredoa
zirean hileta-soinua,
ta aingerua be, hirugarrena,
euki ezkeru dirua.

Ezkiloi biak, etorte-deia
meza nagosi aurretik,
arratsaldean errosario
unerako da ereti.

Eta Salbe esturazkoa be
kantauko dala iragarri,
premina latzez, arren bai arren,
Antiguako Amari.

Aingeruak ba, izen polita,
baina bakarrean ez da:
aingerutxu bat joan dalako
ames galduko hileta.

Egun-amaian azken dangadak
arimenak dira izaten;
zapatuetan albakoan be
txintxina dogu entzuten.

Urteak badau Aste gorena,
Kristoren heriotzaldi;

bariku santuz Trikimakia
motel, motz, legor ta geldi.

Kanpai guztiak direanean
orkestarik ederrena,
jai-antza dakar, poztasuna ta
behar dan itxaropena.

Mezatarako txilina...
eta Kofradiakoa...
bitzuok ixildu dabez eta
ilundu deuste gogoa.

1972

EZPATADANTZA¹

Ama, ama, amama
a, a, a, lolo
a!
Ixil, ixil
dator samina.
—Nun da nire haurra?
Nun da, nun?

Nireak nora dira?
Caua, ixilik, ilun;
ez eguzki,
ez ilargi.
A!

Abere pizti pizti
haur galtzaileak!
Ene seme,
ene seme,
ene seme,
ene seme!

Basoetan
elurra,
nun da
lu rra?

¹ Musika aurrerakoia daukan lan bakan hau, J. Anton Larrauri bilbotarrak atondua da, eta honen gurariz, berbak eta esaldiak ere, bakanak dira. Orkestra ederrak eta ABAO-k Bilboko Buenos Aires antzokian entzunarazi eben, txalo eta goratzapen ugari lorturik. Geroago, Madrilen entzunarazi eben, eta garaipen biribila lortu eban lan bere.

Hartzuloetan
heriotza,

su a

su a

hotzak erre erre
haur beroa,
gaxoa.

Jeiki, jeiki

egun egun

egun...a.

Txir txor txirtxor txibiritxi, i...

Bai, badator eguna,
bai, bai, bai, uda.

Itzarri, gazte;
pizkortu, zahar.

Gurpila suaren inguru.

Haitzetan go ra,

ibaian behe ra.

Ho rra!

Horra, aitamak
haur berri jabe; horra aitamak.

Izar berri.

Hel, argia!
Irrintzi zolia, gazte-eztaiak!

Bai!

Itsaso ta ortzi
mugarri

bu ruak,
ilargipean
gure suak;
jeiki, jeiki
gizaldi berria

be ti.

Hazi, bizi,
lehen, gero, goraintzi!

1972-I-21

1974

LEKEITIAK ENTZUTETSUA (1864-1951)
(Hamalaukoa)

Lekeitiar gizonik famatuena
ahaztu samar daukagu aspaldi,
astindu daigun gure oroimena
ta gomutau herriko seme handi.

Azkue Aberasturi zan bera,
Resurreccion Maria izenez;
harek bai ederto jakin euskera,
harek bai ekin borondate onez.

Haren izena Europa osoan
jakintsuek jakin dakie orain,
hizkuntzalari handien ondoan
lekeitiarra dogu Maisu apain;
Euskal Herrian sortu diranen gain
gorengo mailan, Euskera arloan.

1975

Letra nueva para **AURRESKU** (Reverencia)
de ANTON LARRAURI

Zatozte
zelaiera paketsu
jai-egunean

asaba zaharren
ohidura jakinean.

Gure gogoa
atzo eta egun
lehenetan bezelatsu
alai dezagun.

Doinuaren aginduz aritzean
oinak dabiltza azkar eta ernai

gazteak nahiz jaunak ere berdintsu
solas-giro hontan dezaten atsegin

Guztiak
bozkario handi
bihotz eta buru

dantzariak elkarrekin,

(ta) herri dena
beuron inguru.

75-VI-21

GURE TXISTULARIAK

Horra, hor, txistulariak,
guztiok lerdin jarriak;
gure ohiturak iraun begie
zaharren ondoren barriak,
horra, hor, txistulariak.

Arranegi eta Ateak
luzeak daukez kaleak;
txistulariek poztuko dabez
bai zaharrak ta bai gazteak,
Arranegi eta Ateak.

Kalerik kale goizean,
jai-eguna heldutean;
txistularien beharrizana
"Kaxarranka" egitean,
kalerik kale goizean.

Horra, hor, txistulariak,
alai soinu ta begiak;
"Agur Jaunak" jo ezkerokoan
agurka Euskal Herriak,
horra, hor, txistulariak!

1976

PORTU-ERROTA¹

(Jatorrizkoa)

Errota, "Portu-errota"
haran baketsuan,
itsasoaren indarra
galtzen dan lekuan.

Gernikaldeko harana
urez, lurrez zelai,
baditu Euskal Herriak
mila mendi garai.

Eguzkipean sari dago,
laino artean sarriago:
"Portu-errota" ate zabal
adiskide jatorrentzako.

Indar ta bakez bazter eder,
zureganako naiz zoroa;
eiho ta eiho diharduzu
euskal lurreko artoa.

Bizitzako errotan
eihoko gu ere,
askoren ordez
bat bihurtuko
gu guztion ore.

¹ "Portu Errota", Eusebio Erkiagaren olerkiak Anton Larrauriren doinuentzat, *Oleri*, 1983, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta literatura, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1984, 174 or. Anton Larraurik musika ezarri.

Ene "Portu-errota"
milazka artean,
lehenez bakar izana, orain
inguru betean. Kla, kla...

Errota, "Portu-errota"
haran baketsuan
 itsasoaren indarra
 galtzen dan lekuan
leku-lekuan, leku-lekuan,
lekuan...

Gernikaldeko "Portu-errota"
haran baketsuan.

1976-IX-17

PORTU-ERROTA

(Gaztelaniaz)

Molino, molino de Portu,
en pacífica vega,
en lugar donde la fuerza
del mar se sosiega.

Vega del Guerniquesado
eres de agua y tierra,
mas ya tiene Euskal Herria
mil elevadas montañas.

Bajo el sol está muchas veces,
pero más entre la niebla:
"Portu-errota" es puerta abierta
a la íntima amistad.

Rincón bello, de fuerza y paz,
hacia tí soy enamorado;
mueles y mueles el maíz
que la tierra vasca nos ha dado.

En el molino de la vida
también seremos molidos,
y en vez de multitud
se convertirá en uno
la masa de todos nosotros.

"Portu-errota" mío,
entre tamarindos,
donde antes hubo uno solo
hoy te rodean por entero. Kla, kla...

Molino, molino de Portu,
en pacífica vega,

en lugar donde la fuerza
del mar se sosiega

en tal lugar, en tal lugar,
lugar...

En el Guerniquesado, "Portu-errota"
en una vega de paz.

ITZALI EZINA¹

Hutsunez dugu etxea
asabak hil baitziren,
soinez ez ditugu, baina
haien gogoa hemen.

Bazter horiek zer diote?
zer diote herriek?
Mintzo ixilez zaizkigu
mintzaten beti haiek;
sendoa den mintzo goxoz
mintzaten beti haiek.

Aurretikoen
argi,
itzali ezina.

Adaxka berri baitu,
zuhaitz zaharra zaitu!

Argi egina,
itzali ezina.

Eman eta zabalduko
esku eta zubiak,
halare etxeak begoz
lurrari atxikiak.

Mendez-mende dirauanak
beharra du jarraipen,
bide jakinen lorratzez
berriak urraturen.

Argi egina,
itzali ezina.

¹ "Itzali ezina", Eusebio Erkiagaren olerkiak Anton Larrauriren doinu-entzat, *Oleri*, 1983, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta literatura, Eusko Ikas-
kuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1984, 174 or.

1977

KANPAIAK ERE¹

BEHAR ditugu kanpaiak ere,
behar ditugu.

HAURTZAROAN
eta gaztetxotan ere,
kanpantorre ondoan
durundi jario atseginez
egunen iragan-jokoan.

KANPAIAK aldatzeke du aho-mihi;
hala ere, mintzo ta esangura,
doinu ta oihartzuna,
maiz aldakor eta berri.

ANITZ esangurako baitira
joareen durundak,
noizko, nungo ta nolakoak diren;
zoli, azkar, arin...
astun, motel, ilun;
batzuetan argibide,
inoizka negar-eraginen.

ZERTARAKO ta zergatik
oihu berezi?
Aho-mihi duten gauzak
direlakotz,
hitzik gabeko mintzo bizi.

¹ *Agiriak*, euskal poetak eta artistak eginda, G. Arestiren omenez argitaratu
zan liburua.

GAINERA
kanpaia
olerki
aina da,
gurari
betea
doinutan
emana.

GIZONAK
eskuak
ukitzen
duena
ez baita
betiro
gauzetan
onena.

AI, Goethek entzun kanpae
Pazko-goizekoak!
Ele ederretan barrena xurga ta
ura zirrararen goxo,
sentimenaren muinean!

ETA halaxen urteoro ailitz,
bake-soinuzko goiz ura,
Jaun onari dakiono.

HAIZEAREN hegoetan
oihartzunak bide bihurri,
baina beti aske,
txoriek baino ere askeago,
albakoan, eguerdiko hamabietan,
abemaritakoetan,
eta arimen kanpaietan.

GAUEZ ari kanpaiak, ordea,
izua du emaitz,
neke eta gaitz
aldarrika:
estura-hitz, hel-oihu,
kezka, ximiko ta
auzo-premiaren ulu.

IZUA hurbil denean
kanpaia nahi guk lagun;
deusez baikara,
zurtz eta alargun.

EGUNEZ entzun kanpaiak
zaizkigun atsegin,
neurrian emanak,
ebakia berdin;
halaxe odolak
bere igi-tintin
osasun denean.
Entzumenak atxikia,
ez eskuk ukia.

EZ baita
betiro
gauzetan
onena
gizonak
eskuaz
ukitzen
duena.

ETA kanpaia bera
uki badeza ere,
doinu-durundia
ihesi doa,

animaren intziria
doan bezela,
ezin atzemana,
haizetan barrena.

HERRIMINEZ mozkortzen gaitu
joare² jakinen mintzairak,
hiri haundira bizibehar honek
giro itogarrira erakarriok,
ta hala, urrun-minez ero ditugu
begi ta belarriok.

KANPAIAK ere behar ditugu,
kanpaiak ere.

CAINERA
kanpaia
olerki
aina da,
gurari
bizia
doinutan
emana.

ZERUMINA sorrarazten duena,
olerki esan-ezinaren
muin eta kemena,
inoizka elkarrizketaz
argi ezin ditekenea.

AI, Goetheren
kanpai xamurrak,
alaiak

² Joare: zintzarri, arran.

Pazko-goizean!
Munduko bekaitzen hondagarri
hodei txurien hegalean.

GIZONEN mintzoak
—bai gezurti, ez zintzoak—
zitalagotzean,
zoin den eder
dilin-dalan leuna
gizonaren bake-gosean,
zuzen eta askatasunean.

Fragmento de **DIRDIZ**,
para mezzo y piano¹
(Jatorrizkoa)

.. .. .

Doinuan batzarre
ta ixiltzean ere,
kantuz, kantuz ta jauzika;
kalean gora, kalean behera
txistulari jauna;
kantuz gizonak, gazteak, neskatxak,
batean zutinik,
hurrena makurtu makurtuta
kanta-kantari
jauzika guztiak gogo argi.

Txistu doinuan
dantzari, kantari
euskaldun kementsu, urduri
doinu alaiean
biribilketari,
hurrena ixil, geldi
atzaparra lurean...
berriro zut.

¹ "Dirdiz", Eusebio Erkiagaren olerkiak Anton Larrauriren doinuentzat, *Olerti*, 1983, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta literatura, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1984, 175 or.

Argitalpen honetako bertsinua nahiako ezbardina da. Hasieran estrofa bat gehiago dauka, hurrengo hau:

"Muino horretan
agertu omen zihian.
Agerkizun berri
opa dizut nik:
Gizadiaren arbola
ilunean, ikus
ditzan gizonak abar guztiak."

Artaganean agerturik Ama,
ametsa, egia?
Esana ote, egia ote?
Lainoaren truke eguzki
dirdiz
dirdiz berriztatua arbolan.

Artaganeko irudia:
emaiguzu, eman
dirdiz berriztatua
betiereko den argia.

1977-VI-3

Eta hurrengo be ezbardin doa nahiz eta antza handia daukan:

“Doinuan batzarre
kantuz ta jauzika gizonak
baita ixiltzen ere
lurrari atxikiak.
Txistulari jauna
biribilketa berri
emaiguzu beti.

Doinua dugula
dantza ta kantu, euskaldunok
eta bitarteka
atzaparra lurrean
ixil eta geldi
txitu-hotsaren adi.

Bakea gurari, bail

Artaganean agerturik
ametsa, egia bihurturik.
Esana ote, egia ote?

Lainoaren truke, eguzkia;
amets-orde, egia;
gizonak du premia.

DIRDIZ
(Gaztelaniaz)

.. ..

En la música la asamblea
y también en silencio,
cantando y saltando;
calle arriba, calle abajo
el señor txistulari;
cantando hombres, jóvenes, muchachas,
unas veces erguidos,
a continuación muy agachados
cantando
saltando, todos con ánimo abierto.

Al son del txistu
bailando, cantando
los bravos euskaldunas, inquietos
al alegre aire
en pasacalle,
después silenciosos, quietos
con el dedo sobre el suelo...
y de pronto erguidos.

Sobre Artagan (sobre encina), apareció la Madre,
¿ensueño, realidad?
¿Es leyenda, es verdad?
Se trueca la niebla en sol
fulgor
fulgor renovado en el árbol.

Imagen (de) sobre la encina:
dádnoslo, dadnos
el fulgor renovado,
la luz que sea eterna.

LARRARA BIDEAN¹

Hamazazpi bider heldu naiz honera,
Larrak ohi duen Olerti-jaiera.
Udazken ostoak orbel bihurtzean
arima minberak abaro eskean.

Muinoak inguru, bertakoan zelai,
badu bazter honek gozoa den emai;
ezo antzeko du azaleko giro,
larrazkenak² urrez jantzia leunkiro.

Larrazken arnasaz artisten biltzarrak
hogei olerkarik kantika suarrak.
Zaharren ondoren gazteak ernamin,
betoz bertso sakon eta kanta arin.

Zeren bila dabiltz, zeren bila datoz,
hainbat olerkari amets-neurtitz mordoz?
Zer du suspergarri euskaldun bertsuak?
Agian, Olerti Musaren muxuak.

Egunero dator argisenti berri,
askok, ohean lo, ez inoiz igarri;
ez ilunabarrak noiz duen ederrik,
ez eta zeruan ote den izarrik.

Gizarte errukarri, pözez hain baraurik!
Asmoak lurrean josita, zerurik
denik ere askok jakin ez daki ta,
sor, entzumena ta begiak itxita.

¹ "Larrara bidean", *Olerti*, 1985-86, Separata de Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta literatura, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1988, 231-232 or.

² Larrazken: udazken, udagoien.

Hamazazpi bider heldu naiz honera,
aldi latzez ere genduen aukera:
euskaldun bilerak, oi, zein diren eder!
Gizonaren hitzen doinuak halaber.

Poesi-preminaz ari da mundua,
oro zuzentzeko ez aski burua.
Ez du politika soilak osatuko
gizarte samina. Gizona lekuko.

Gizarte errukarri, gorrotoak joa,
deabruak dizu jarririk jokia.
Jokia jarri ta nork irabaziko?
Arrisku larria, hil ala biziko.

Ondasumengana gizonak gaur grina,
non-nahi dakus mauka ta harrapakina.
Abereak ere doinuz emarazten³;
gu, irain mintzoka, elkar gerraratzen.

Hainbeste inbentu, hainbeste makina!
Gorreriak dakar ulertu-ezina.
Gizarte errukarri, gorrotoak joa,
deabruak dizu jarririk jokia.

Lantua jotze hau, zertako, ordea?
Atera dezagun barne-indar gordea,
haizatu dezagun giza-maitasuna,
goi-olerti garrak agertzen diguna.

Haizpean bolbolka, horra, iturburua,
hatsarre ur eskas, gero mukuru⁴;
urian, hormetan, bertsoek oihua:
bezate poetek erabil, mundua.

³ Emarazi: baketu, gozatu.

⁴ Mukuru: ugari, bete, oparo.

ORAIN ETA BETI¹
(Jatorrizkoa)

I Elegia

Itxaro-lore genuen seme...

Gazterik ederrena zen,
sua zeraman begian,
osasuntsu zen mutila
hilik datza mendian.

—Aberriaren seme eder,
bihotz zabaleko,
bizia eskaini zenion eta, horra,
odolusturik zaude.

Aidean ez da txoririk,
denak adar-arteana gorderik.

Gazterik ederrena zen,
sua zeraman begian,
osasuntsu zen mutila
hilik datza mendian.

—Aberriaren seme eder,
bihotz zabaleko,
bizia eskaini zenion eta, horra,
odolusturik zaude.

¹ "Orain eta beti"; Eusebio Erkiagaren olerkiak Anton Larrauriren doinu-
nuentzat, *Olerti*, 1983, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta literatura, Eusko
Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1984, 175 or.

Lauaxeta gogoan dauala egina. Lauaxeta gartzelan hil eben. "Contracanto",
musika bi alkarregaz

Gazterik ederrena zen,
sua zeraman begian,
osasuntsu zen mutila
hilik datza mendian,
ez du odolik zaurian.

ORAIN ETA BETI

(Gaztelaniaz)

I Elegía

Nos era como flor de esperanza...

Era el joven más hermoso,
tenía fuego en sus ojos,
aquel joven lleno de vida
yace cadáver en la montaña.

—Hijo hermoso de la patria,
de corazón generoso,
le ofreciste tu vida, y he ahí
que estás ahora exangüe.

Ya no vuela pájaro alguno,
todos están entre el ramaje escondidos.

Era el joven más hermoso,
tenía fuego en sus ojos,
aquel joven lleno de vida
yace cadáver en la montaña.

—Hijo hermoso de la patria,
de corazón generoso,
le ofreciste tu vida, y he ahí
que estás ahora exangüe.

Era el joven más hermoso,
tenía fuego en sus ojos,
aquel joven lleno de vida
yace cadáver en la montaña,
y no tiene sangre en su herida.

II Zortzikoa

Egunsentiak gauazkena
puxkatzean oskarbi,
neska-mutilak dantzan ari
eta kantari.

Gazte eder bat galdu zela-ta
atsekabetan ginen sartu,
huts haundi horren
bete ezina
aberri-minak
gaindu² digu.

Aurretikoen maitasunean
haien etxean hazi, bizi;
gure Herriak eskatzen digu
gure lana
ta gure bizia
atergabe,
ta saririk gabe,
zut iraun dezan jaun ta jabe.

Haizatu txalaparta
eta alboka,
jo txistua ere!

Gazte bulartsu harek
erein hazia, horra, erne.

Egunsentiak gauazkena
puskatzean oskarbi,
neska-mutilak dantzan ari
eta kantari.

² Gaindu: betearazi, gainditu.

Geurea zaitugu, Aberri gozo,
egonleku xarmagarria
menderik mende, Euskal Herria.

Gazte eder bat galdu zela-ta
atsekabetan ginen sartu,
huts haundi horren
bete ezina
aberri-minak
gaindu digu.

Aurretikoen maitasunean
haien etxean.

Haizatu txalaparta!

Aberri, Aberri!
bakarra zara euskaldunontzat
orain ta beti.

Bilbon, 1977-X-8

II Zortzikoa

Cuando el alba quiebra
el fin de la noche, clarea el cielo
los jóvenes bailan
y cantan.

Por haberse malogrado un joven
la pesadumbre nos acongojó,
la dificultad de reemplazarle
el amor a la patria nos lo superó.

En el cariño de los ascendientes
y en su casa nos criamos, vivimos;
nuestro Pueblo nos demanda
nuestro trabajo
y nuestra vida
sin tregua,
sin premio alguno,
para que perdure señor y dueño.

¡Haced sonar la txalaparta
y la alboka,
tocad también el txistu!

La semilla sembrada por aquel
joven valiente, mirad que ya brotó.

Cuando el alba...

Nuestra (te) eres, dulce Patria,
morada encantadora
por los siglos, Euskal Herria.

Por haberse malogrado...

En el cariño de los ascendientes
y en su casa

¡Haced sonar la txalaparta!

¡Patria, oh Patria!
única eres para los vascos,
ahora y siempre.

ESKERRIK ASKO

(Jatorrizkoa)

I

Itsaso zangarra, lehor sendo:
auzoak ditu Herriak;
gizonek, lanez dituzte
alor, etxe eta kale,
itsasoetan ontziak.

Hemen eta urrunetan
euskaldunak ernaiak
arriskueta.

—Ontzi bat emaidazu
eta joanen naiz ni
txit urrunera,
txit urrunera,
aurrera,
mundua besarkatzera.

Hemen eta urrunetan
euskaldunak ernaiak
arriskueta,

Hiri, alor eta bide,
etxe, lantegi ta kaiak,
hurrenez hurren jardunik
bildutako dohaiak.

Burukaz, lanez ta nekez
jasotako Euskal Herri,
izadiaz zein arrotzaz
zureek ezin etsi,
burujabetzaz baitute
lilura berezi.

Buru jardunez
beso jardunez
gurean erori den orori
arima-oroi xamurra
maitasunezko opari,
muxu bana bekokian,
guztiak ditu Herriak
oroipen bizi-bizian.

ESKERRIK ASKO

(Gaztelaniaz)

El mar bravo, la tierra firme:
los tiene por vecinos el País;
los hombres, por su trabajo, poseen
campos, casas y poblaciones,
y navíos en los mares.

Aquí y en otros confines
los vascos son despiertos
en los peligros.

—Dame un navío
y me iré
muy lejos,
muy lejos
avanzando,
a abrazar al mundo.

Aquí y en otros confines
los vascos son despiertos
en los peligros.

Poblaciones, campos y caminos,
casas, factorías y puertos,
son bienes que se han amasado
por actuación de generaciones.

Con luchas, trabajos y dificultades
Euskal Herria ha sido forjada,
ante la naturaleza y el extraño
los tuyos no se pueden resignar,
porque por tu soberanía tienen
una seducción excepcional.

Los que en su labor intelectual
o en su trabajo físico
en nuestra esfera hayan sucumbido
un dulce momento en el alma,
como ofrenda de amor,
un beso a cada uno en la frente,
que a todos el Pueblo los tiene
vivísimos en su recuerdo.

II

Sentimenduak eraginik
ezpainetara kantua,
kantu ondoren gel daiteke
pakez barrua.

Lainoak urratzeko gerturik
eguzki argia hor dator,
seme-alabek umeak sortuz
Herria jarrai doa bizkor;
hodeiak uxa, lainoak suntsi
ta josi oskarbi distikor.

Negu ondoko susperraldia
landaren puntan jartzen den antzo
arbasoentzat bitez liliak,
haien goraipaz gure mintzo.

SOLO

Aipamen eder, aipamen orokorra
mardul ta osoa,
kaban txorinoak
kutun du aitamen gozoa.

LÍRICO

Sentimenduak eraginik
ezpainetara kantua,
kantu ondoren gel daiteke
pakez barrua.

Gizaldiz gizaldi
Herri gogoa,
bizinahi aitonen seme,
aitonen seme
jende mordoa,
aurretikoei maitezorrez
eskerrik asko,
eskerrik asko
esaka doa.

RELIG.

1977-X-5

II

Impulsado por el sentimiento
a los labios va la canción,
tras la canción puede quedar
tranquilo el corazón.

Presto para rasgar la niebla
viene el sol luciente,
nuestros hijos/as engendran seres
y el Pueblo sigue con vigor,
ahuyentad nubes, rasgad nieblas
y clavad un cielo de esplendor.

Así como la reanimación surge tras el
invierno en los extremos de las plantas
para los antepasados sean nuestras flores
y para elogiarles, nuestra voz.

Bella mención, mención universal
vigorosa y plena,
asi al pajarito le es dilecto
el delicioso alimento de sus padres.

Impulsado por el sentimiento
a los labios va la canción,
tras la canción puede quedar
tranquilo el corazón.

De generación en generación
el alma popular,
ansiosos de vivir los hijosdalgos,
los hijosdalgos
enorme muchedumbre,
para sus antepasados
en deuda de amor
eskerrik asko,
eskerrik asko
va diciendo.

1978

GERNIKA APURTU DA¹

Zortzikoa

COMPASES

- 1-2 Udabarriko
 egun bat zelan
 ilundu zan, entzun!
- 5-12 Apirileko
 astelehena da,
 merkatu samina;
 gudu-oinetan
 burruka, baina
 urian, jarduna.
- 13-20 Aretxagan askatasunak
 hor dau irudia,
 etoi eta gaizkileek alperrik
 babes-eskaria.
- 21-26 Gernika, ene Gernika,
 euskaldunen santutegi,
 Gernika, ai, Gernika!...
- 27 TIMBAL
- 28-35 Bunbunbun burrun
 burrun, burrun,
 bunbunbun burrun

¹ Doinua Rafael Ruiz de Lejarza.

burrun, burrun, burrun,
burrun, burrun,
bunbunbun bunbunbun
burrun, burrun, burrun.

35/36-43

Bizkaiko ibar maitea
ganean hegazkin-taldea;
amurruz burdina ta sua,
hondamendi ta heriotzea.

44-47

BOCA CERRADA

48-51

Bizi diranak, ihesi;
izu ikara da nagusi.

52-55

BOCA CERRADA

55/56-65

Gernika, Gernika...
Gernika apurtu da;
Gernika, Gernika...
Gernika apurtu da;
apurtu da,
apurtu da.
Aaaaa!!!...

Billbon, 1978-II-10

BIDAZTI, HOR DOZU AMA

Sua
eta haize oldartsua
ekazan gazte bizardun harek.
Begietan distira,
sakoneko urrutira
lehenera begira,
geroaren susmoek
barruan irakina,
izangoaren ernamina.

Saskarea¹ eta
hautsa
mende ta erdian
euskal sutegian,
aro apal eta latza;
ahaztuaren ahaztuz
makaldu,
zidor, burdibide ta galtzarak
larra ilunak
zapaldu
gura zituan.

Euskal buruek
lanbroz ikusmena,
lurra ta legeak
zutundu guran
... erdi hondatu.

Ugerra jungudan²,
auspoa arrakalaturik;
ura, egondua

¹ Saskara: saskarri, sastar, zabor.

² Jungude: aingura.

usteldua
haize garbirik barik.

Halan bere,
hauspean ez ete
ilintiren bat?
Areak
txingar itzalgatxa
arnas-eske?

II

Odolak giza-zanetan
bere etorri ta joanetan
aterrunerik behar ez badau,
—bestela horra hor, eguna gau—
zirkin isil gorde hori
sorgor geldi lotzea
zer litzateke?

Heriotzea;

lorrinaren azkena,
orriak orbel,
haragiak ustel,
bizi-hari
mehekoak etena.

Bizi pilpirak
kemen
dinoan hainean,
ezerezaz burruka maminean
izpirituaren indarrak
bai horixe!
iraunerazoko;
narru zaharkilduetan
epika barria auzoko,
hurrenik hurren datoza
belaunaldiek landua

ekina barria,
barria kantua,
haizeetako uneetan
egitada haundien doinua.

Odola ez da
zauriaren ahotik
soilik
galtzen;
bizia eskaini dauanak
arnasea berari urritzean
odol-isurketa hainean
egin dau opari,
bizidunak bere bizia
hildura-mahaian ezartean
gurari batean
laga ta emon dau
guztia.

III

Herriak iraungo dau
gogoa berbiztutea
lortu ezkerro;
arau zaharrei
indar barri
eta
arnasa bero
ernagarria
gehituta;
asmo,
argi,
adore,
hiru tontorreko
torre.

IV

Apalen arimak
nahastauteko
zitalagoak prest dira,
ta indartsu-aldeko.
Historia barri
ta leheneko:
Herri txikia dana
bestek dau menpeko.

Gure zuzenari
arrotzak uko:
gure jabetzea
Madrilek dauko
(eta Parisek, Sabin;
Iparrean bere
gure herriak min).

Izpiritu zaharrak
belaunaldi hau
barriraztu al baleu!
Asaben arnasaz
Basojaun azkarrak
bete eta asaskau
eredutsu,
jator,
lurrekoak lurreko
jaun,
etxeko semea
burujabe
ta arrotz oro
adiskide:
horra hor, bada,
gure doktrina soilaren
gun eta bide.

V

Deadarra entzun eben
gure mendietan.
Deadar horren barri
egokirik
ez dabe oindino
Gaztelako mesetan,
are ezago
Sena inguruetan.

Dardar egin eben
gizasemeen
eta gízalaben bihotzek,
urdurizko joana
nabari
odolaren gunetan.
Deadarra entzun eben
gure ibarretan.

VI

Hasieran nekez
baina gerora
epeletik berora,
txinpartak gori albora,
ta sua, lerdén, gora.

Mendiko negarra
baina bihotzetan garra.
Lehenago hil?
Ez.
Bizi ta biziko
abenda zaharra.
Gazte bizar baltzaren oldarra...
Begiak zabal,
adimena itzar,
oinak lurrean tinko

Abandoko errepublikan
hemeretzigarren mendeko
burruken osteko kinkan.

Adimen-ezpataz
urratu eban
bestek esegiriko oihala,
ta etxeko gela
lehen ilunik zana
horra argiz betea
argi alai, otzana.

VII

Ehiztari trebe zan
gazte bizar baltza
asmo baten ereile,
bide ilunetan gidari,
ez sari ta sari-ondo
lehendabiziko martiri,
ondasun,
kartzela,
osasun;
opari-harriganean
Amaganako maitetasun.

VIII

Hor dozu Ama,
eusko-bidazti on horrek.
Nekatsu diranen lorrek
ez zagiezala hilerazo.
Ez da Herririk jaso
seme-alaben
ahaleginik bage,
lehenetan legetxe
gerora bere.

Hor dozu Aberri,
bidazti on horrek.
Zazpitan bat
bakarra:

Euskadi barri,
Euskal Herri zaharra.

Albir (Alacant)-n³
1978-X-23 gn.

³ Opor egotalditsuak egiteko lekua.

ITURRIGORRI

Kantua egiteko berbak

Ene Iturrigorri, basoko umea...!

Iturritxu, iturri
mendi artekoa,
inguruan zenduan
maitale giroa.
Guretzat zure ura
urmetal gozoa,
hamaika aldiz ezotu
deuskuzu ahoa.

Aintzineko bidea
errekondo zehar,
Pagasarri ta Arraizko
zidorrak hor alkar;
udako arratsetan
eguzki distiraz
gazte beroentzat zuk
maite-edari bakar.

Iturritxu, iturri
mendi artekoa,
inguruan zenduan
maitale giroa.
La ra rai la rai,
la la la rai,
la ra rai la rai
la rai, la rai...

Ene Iturrigorri,
basoko umea,
zuk dakizu hasetzen

egarri gurea,
aspaldiotan zara
izen on jabea,
iraunkor izan bedi
zurrutza zurea.

Iturritxu, iturri
mendi artekoa,
zure inguruan zan
maitale giroa...
Iturritxu,
iturri,
Iturrigorri...!

ITURRIGORRI

(Gaztelaniaz)

¡Iturrigorri mío, criatura silvestre!

Fuentecilla,
fuente de entre montañas
a tu alrededor tenías
ámbito de amores.
Para nosotros tus aguas
dulces ferruginosas,
innumerables veces
nos refrescaste la boca.

Camino antiguo
parejo al regato,
ahí se unían los senderos
para Pagasarri y Arraiz;
en las tardes del verano
el sol con sus resplandores,
para los jóvenes ardorosos
tenías licor de amor.

Fuentecilla, fuente
de entre montañas,
a tu alrededor tenías
ámbito de amores...
La ra rai la rai,
la la la rai,
la ra rai la rai,
la rai, la rai...

Oh, Iturrigorri mío,
criatura silvestre,
tú sabes calmar
nuestra sed,

desde antaño tienes
la buena fama,
que permanezca inalterable
tu chorro, tu manar.

Fuentecilla, fuente
de entre montañas,
a tu alrededor había
un ámbito de amores...
Fuentecilla,
fuente,
¡Iturrigorri...!

ETORKIZUNAZ GOGOETAN¹

Goizero isil-isilik dator
eguzkiaren argia,
zahar ta gaztek premina dogun
argi/bero iturria,
gure onuragarria.

Herri goiztarra zan Lekeitio
itsasorate-zalea;
gau-ilunean gizonak bizkor
kai ganerako bidea,
deitzaile, emakumea.

Herri alairik bat inun bazan
geure herri maite hauxe;
jai ta domekaz eleizan, plazan
gazte-zaharren alkartze,
maitasunaren loratze.

Herriko seme jatorrak deslai
berrogei urte luzetan,
errazoi bako zigor okerren
bildurrez beti penetan,
zuzenik ez bazterretan.

Guztiontzako goizero argi
Jaungoikoaren begiak;
halan, guraso maite ziranak
guretzat gogo biziak,
laztantsu gara haziak.

¹ "Etorkizunaz gogoetan", Lekeitioko jaietako programa, 1978.

Ezin gineike ezelan eten
aurretikoen katea;
zimelduko da berandu barik
sustrai bako landarea;
biziak bere legea.

Etorkizuna, lana, bakea
gaurko gizonen ardurak;
ikasi, landu, ikusi, gertau
eta garaitu esturak;
ez usteldu haize-urak.

Lanaren bidez gorantz edonoiz
munduan herri azkarrak;
atzeratuak ez dira izan
aspaldi lekeitiarrak.
Alkar daiguzan indarrak!

Lekeitio, 1978-VIII

AURTENGO NEURTITZAK

Edertasun bila dabil
gehienbat gizartea;
bada, orain, apaindu beharra,
bai, soineko, bai etxea.

Bere barrua dotore
zeinek ez dau jarri gura?
Horretarako bada, inor be
ez da diruaz ardura.

Kaleko horma zikinak
osterat, ez ziran eder;
ta garbizale dan gazteria
ez da izan nagi ez alper.

Etxe eta kaleak garbi
hori herriaren jasa;
ta garbirik arrantzu-ontziak,
garbirik kaia eta nasa.

Horma-farolak polito
zahar-barria alkartu,
kale-izen aldakuntzaren bat
ez jat atsegin gertatu.

Bostehun urte inguru
"Beascocalea" zana
ez dogu *beheko*, ez *barrena*;
ikusi, paper lehena¹.

Beaskoa bizkai-berba
esanguraz egokiak
orain arte lez begirunea
ondotxu dau merezia.
Ez murriztu hiztegia!

¹ Ikusi "Padrón de la Hacendera de los vecinos de la villa de Lequeitio, formado el año 1510". "Orduan *Beascocalea* baino sakonerago *Urybarren calea* egoan, gaur Eskolapea dan horren zatiune bat. *Dendarycalea*, *Beascocalea* ta orduko *Urybarren calea* izakeran alkarren antzeko hiru kale ziran, hurazalari atxiki eginikoak, Lekitioko alde zaharrenekoak izan be. Arranegi aldea orain-tsuagoko dana, goitik beherako kale zuzenak erakusten dabe."

1979

LURRALDEA TA HERRIA¹

Lekeitio, polita zara!
—heldubarriaren esana—
Itsasaldean
lehor-ertzean
urdin eta berde artean.

Hondartza txairo, portu, mendi,
jokera aukeran Amandarri...
begiak pozik
ikusgaririk
politenak hor ikusirik.

Heldubarriak ezin jakin
herriaren gogo ta mamin:
azalekoa
ez da nahikoa,
barruan zuk takarakoa.

Zer dozu zerik ederrena?
Andren ta gizonen kemena.
Alkartasuna,
laguntasuna,
lekeitiarren bihotz biguna.

Itsasoa baizen emonkor,
arnasa sendoz herri jator;
beti kantari,
begiak argi,
agur-agurka edonori.

¹ "Lurraldea ta herria", Lekeitioko jaietako programa, 1979.

1980

ARRANEGIKO ZABALA¹

Arranegiko zabala, baketsu,
itsasoaren auzokide zintzo,
zutzat gaur nire neurtitz eta mintzo;
hemen, begira pozez naiagotzu.

Bost bide ditugu zeuganatzeko:
Atxabal, Narea kantalebarrenak,
ta bi, zeure kale luze horrenak,
ta moilakoa, nasai igoteko.

Haizebean² dozu bazter gozoa,
ez dozu iparririk ez mendebalik;
ez dozu hor barruan tabernarik,
ixil manatan³ gaulehen osoa.

Lekeitiar nire nobelatzuko
Zuriñe, Arranegiko lorea,
hortxe haren etxe ta atetea⁴;
mutilak, zain, bera noiz agertuko.

Arranegiko zabal horretara
helduko da Xirido, neska-laguntzen;
maite-kontuak ixilik esaten.
Zeruan dirdiz keinuka, artizarra.

Kaxarrankeak hortxe be ekina,
uiuiu zantzo zolien artean,

¹ "Arranegiko zabala", Lekeitioko jaietako programa, 1980.

² Haizebe: haizetik babestua dagoan zatia.

³ Mana: itxura, antz.

⁴ Ateta: atari, aterpe.

orduan beti zan arratsaldean,
orduan bai San Pedro egun final

Kantal-barreneko bazter argia,
eguzkia dozu uda nahiz negu;
zeure andra garbien batzar-leku;
umeek, maite zeure iturria.

Arranegiko zabala, goiztarra,
herriko bazter askoren artean
txit minbera zaukadaz bihotzean;
hain dozu zeugan, amesen indarra...

AGUR, XABIER!¹

Xebe adiskide ta anai-arrebok

Ez dira Jaunaren bideak
noski, beti gureak.
Joan dan asteazkenean
gaulehen ordu makalean
euskal lan bat burutzen
atseginez niharduanean
barri mingotsa ate-joka,
ta sinisgaitza, ezin uka:

—Xabierren izenean agurra
maite zuan lurra
utzi bezin laster.
Oi, udazkeneko iluntze eder!

Ez nekian ezer,
harekin udaberrian
urrutizkin-harian.
Gero, udara;
ni honera, haura Tolosara.

Orain, haura urrun eta zuek
—eta ni ere—
norbaiten beharrez;
aulki bat hutsik,
gehiago ez haren hitzik,
haren hitz gozorik.
Azken orduan ere begirune,
halaxe baitzan
euskal kristau ume.

¹ Xabier Peña Albisu.

Jaunarena bedi gure nahia,
Bera bekigu gure kaia,
kai bakar, kai eder.
Agur, Xabier!

Lekeitio, 1980-X-4

ITSAS SOINUA¹

Itsas haizea bigun gozaro
lehor aldera jatorkula
kresal gazia bitsetan dabil
ta bauan bauan urazala.

Haize ta kresal, bits eta laino
itsas soinua entzungarri,
Lekeitiotik zabalduko dau
munduarentzat bidebarri.

Itsas soinuak
beteten deusku
igarri barik
ingurua,
horretxegaitik
bakarrak doguz
bai itsasoa,
bai soinua;
bai itsasoa,
bai soinua.

¹ 1980 inguruan edo, Endeiza kapitanari emon neutsan lantxu hau, eskatu eustalako.

LUMENTXAKO KURTZIOA¹

Giza talde handi batek
Kurtzioagan asmo ta bidea
ezagutzen, onartzen ditu;
hortxe dau itxaropen atea.

Inoiz kainoien leku
izaniko tontorra,
Lumentxa gotorra,
Likularratik² granadak...
orduan liberalak laga,
eta karlistak laster gora.

Garratzeko hartzuloa
antxinakoen bizitoki;
aurrean, zabal, itsasoa
beti indartsu, beti bizi,
Jaunaren besoa.

Irudi zutuna
besoak luze dozuzana,
orain nekatsu izan arren
zakiguz gero zorion-giltz,
eta mendeen mendetan
Egia, Arnasa, Hitz.

¹ Kurtzio: kurutze.

² Likonalarra, Talaiazaharra egoana, Loibegoiko basetxearen goitiko tontorra.

1981

KASPARREN ZALDI SENDOA¹

Harrizko zaldi eder sendoa,
nun da Drake itsaslapurra?
Gizon gaizkile harentzako be
azken orduko egurra.

Zerualdea hodeiz jaztean
hor zagoz dolidu barik,
ekatx gogorren ostean une
barea dala jakinik.

Iparraizeaz ezkutuan zu,
arerio, mendebala;
herriko haize epeltzan tente
zeure buru ta bizkarra.

Noiztik zagozan inok ez daki,
ezta Gaspar nor zanik be;
hainbat olatuk landua zara,
misteriozko ixilpe.

Gizaldi eta gizaldietan
barrako orazinoa
sari entzuten zenduan lehen,
hori be galduaz doa.

Kulpitua hor ikusten dozu,
ez *Prailearen burua*,
kresalez garbi zure apatxak
ta *Islako Surtziluak*.

¹ "Gasparren zaldi sendoa", Lekeitioko jaietako programa, 1981.

Gorputza lerdan, burua zutik
lehorraldera begira,
Antzar-Egunez lekeitiarrak
zeugana joango dira.

81, ANTZARRALDI BALTZA, 81¹

Horrelakorik ez da
herrian ikusi,
lotsea galdu eta
portua itsusi;
antzarraldia eten
lagunak ihesi,
Lekeitioaren izenak
ez hori merezi.

Demokraten herririk
alai zindoena
geurea izan dogu
entzutetsuena,
orain barrikeriez
ahaztu lehena,
lotsea galtzea da
herrien azkena.

Uste-uste bagarik
faszismoak gaitu
bide bihurrietan
gogor azpiratu,
gurasoengandiko
jaia da urritu,
okerra dana ezin
onean amaitu.

Bertso laburrok ditut
benetan mingarri,
etxeko pekatuak
beti dira larri;
Lekeitio goratuten
ekin deusat sarri,
gaurkoan behaztuna
barruan igarri.

Antzar-egunak eukan
aparteko jasa
erregimen danetan
irribarrez poza,
izualdi honetan
gogorkeri giltza,
gizonak berbaz barik
ukabilez mintza.

Barrabasak darabiz
zazpi ezpiritu,
gizonak lorrintzeko
erremintak ditu;
beharrizanik barik
matxinadak biztu...
hemengoak ziranik
ezin nik sinistu.

¹ "San Antolinetan kai-jolas horretako ontzi batzuetako gazte batzuek agintariakana hasarrez hurreratu, eta udal-gizon batzuei amuruzko zapladak eta ukabilkadak. Jai baketsu aspaldietakoa burruka zital bihurtu. Horra!... Inoiz ikusi ez zana. Negargarria."

1982

ERLEEN ANTZERA¹

I

Iturbekoa

(Jose Mari Arizmendiarrjeta)

Basetxe zuri haretako
mutiko zolia,
etxauntzea uzteko
goiminez igurtzia,
Iturbe izan zan
haren sortokia.

Gaztetan, une artean,
basetxearen gerizean,
lanak eta pozak
umetako gauzak
beste ames batzuen eskean.

Ikasi,
ikusi,
jakingurea,
bizitza barriko
heldubidea.

.. ..

Dunbotsak mendian,
suhagak urian,
gerrate zital mingotsa
heriotza ugarian.

¹ "Erleen antzera", *Olerti*, 1983, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta literatura, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1984, 170-172 or. Lan hirukotx hau, 1982an Zornotzako Larrako "Olerti-Egunean" sarituen artekoa.

UU uuu u, u u uuu u
ai ai ai ai ai ai
ene ene ene ene ene ene
o o o nahikoa da odolik;
gorrotoa bego,
ganezka egina
honezkero.

.. .. .

Jauna zuekin,
Jauna zuekin...
Goizean otoi
ta gero, ekin!
lanaren santu-gatza²,
ez usteltzeko
behar dozuen
lan gozo ta latza.

Mendi heze arteko
uri politean
abadekuntza hasi
ta oztopoak gorabehera
amaituko,
borondate betean;
zintzotasunean
Arrasate-zale,
Arrasaten beti
Jose Mari Arizmendi.
lan lan
eta eta
lan lan...

² Santu-gatza: santutasuna dauan gatza.

Argitasunez buruak,
lanerako prest eskuak;
bakea gizon guztiengan,
bake horretan
kirola, eta lan
lan eta lan,
lan, beti
lan.

Aintza zeruetan,
maitetasuna, jaioenan.

Celdia, atsedena
ez zan haren grinea, uzia;
atseden egiteko...
han, azkenean, Parusia³.

³ "Parusia: *Gizonaren aldia* poeman ere agertzen dot Arizmendiren aburu hau. Bibliako hitza da, Kristoren grazia edo, adierazoten dau; azkenaren buruan zoriona, zerua. Poema hori, 70 orrialdeko liburu polita Arrasaten argitaratu dabe Lankide Aurrezkikoen 1990. urtean (Ikasbide obra social) Grupo Cooperativo Mondragon."

II
Eztigintzan
(*Bitoriano Gandiaga*⁴)

Behinola...

hatx erpinetan
harriak pilatuz
biribilduriko
prailetegian
ezagutu neban
gaztetxu
gozo, ixil,
oldeder⁵,
erditze-minetan murgil,
ameslari ta otzana,
behinola,
Gandiaga.

Gure mintzo

beheratuaren
bizigureak
sorturiko bilera
minberatsuan
batzandu ginan,
aldi baltzeko
laino artean
Aloñapean
bihotzak mintz-zart,
lilura ta bildur
arrotzen agintepean
orduan
eta gaur bere,

⁴ "Bitoriano Gandiaga: Bizkaiko seme olerkari bikaina."

⁵ Oldeder: barruko indar, ederbera; arean, musa ikutuduna.

giza
-bildurra
ta giza-kemena
burruka
etenbakoan,
ene Gandiaga,
bat ete da gizona
ala bi?
ta are hiru bere?
asmo, gurari goitar,
hegadun hegalari
kemen, lur, grina
ta odola
narrastari;
behinola...

Gerogarrenean
Bizkaiko
Larrako
komentu aldean
ikusia,
—epaikari ni—
ta Gandiaga
olerti-saridun,
gogoa pozez igurtzia,
baina atsekabe
txiker batek zuloa
begi sakonetan.

Anartean
bezuzik⁶
txanbelinena
edergoaren
altzora ekarri,

⁶ Bezuzak: erregalu, esku-erakutsi.

Elorri

goi-gizonaren lurruna
amaren berbeta biguna
buru-belarrian barriro,
zeruaren urruna
geureganago
geunkan
zorion txikiko
unetxo laburrean.

Behinola...

mintza-ortzian
izar dirdiratian
zeruko intza,
gogoarentzat ezti;
haize, arimearentzat.

Behinola

bezala
emoiguzu,
Gandiaga,
elorri gazte,
elorri barri,
gogo igarraren
asegarri,
guretzat ezti
txertakari.

III

Izurtzan jaioa
(*Nikolas Alzola Gerediaga*⁷)

Pagoak orriz jantzi
-jantzi diranean
aldegin dozu, alde
ixil-ixilean,
saminez lotu gara
euskal alorrean,
ta ustekabeen.

Gizadi sail handian
banakako ume,
lurtar baina goi-haizez
sendo eta xume;
lehengoez gainera
barri dan hutsune,
maitezko lokune.

Orainaz ta geroaz
barrua urduri,
gizon bakotxak dauka
misterio txuri;
misterio horrezaz
galdeak zuk guri,
ames ta gurari.

Ederrak ikutua
arima zurea,
begietan zenduan
margo-dolarea,

⁷ "Nikolas Alzola Gerediaga: Valentín Berriochoa *Bitaño*, eta beste ezizen ugari bere lanen firmatzat erabili zituan. Pintore, idazle eta liburutegi eta artxi-buetan irakurle trebe ta kritiku. (Izurtza)"

lan txukun zuk bihurtzen
zeru lurraldea,
atal eta alea.

Gorantz abiauteko
azkona bezela
izpiritua zorrotz,
gorputza kartzela;
baina, bidazti zintzo
maite zenduala
herri ta euskera.

Euskal bide horretan
zindudazan topau,
harako ilunaldia
bai egun ta bai gau:
zerbait argitu jaku
oraingoan lur hau;
amesgurea dau.

Jakinguraz beterik
gogoa itzarri,
bidaldian batzaile
inoiz ezin geldi:
ele, ipuin, hizkera
txorta zoragarri,
arduratsu jarri.

Atalak atalkatuz
osoaren bila
zure jardun ekina
apal ta ixila;
orain burutu dozu
ardatza, harila,
Azken Biribila.

1983

GORBAIERA ZOAZIE?¹

Arratiako Gabirel² ene gogoan

Uda beroko
egun jator batean
eguzkia nagiak hartuta
izpiak makaltzen
hasi zanean,
aldapa luze-luzea
neukan aurrean
—gazte adiskidea³
ene aldamenean—
biok bizkarretan zorrotxua,
eskuan gaztaina-makilea.

Egundo zapaldu ez neban
tontor gailurra
—beroaldian lurra,
neguan edurra—,
Bizkaian dogun
mendirik gorena;
ikusi gura neban, ikusi,
inguru birloratsua,
artaldeak gozaro larran
ebiltzan eremua,
pago garri ederren
bakezko lekua.

¹ "Gorbaiera zoazie?", *Oleriti*, 1984, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta literatura-5, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1985, 119-122 or.

Lirika arloan saritua, Zornotzako Larran, "Oleriti Egunean" 1983ko zemen-dian.

² Gabirel Manterola.

³ Rufo Atxurra.

Han genduan geuri
txerea egiteko
aurreraturiko
basosenidea,
tokian tokiko
San Juango ermitea,
asabak laga euskuen
ekandu ezagupidea,
bidaburuetan
lerden, adoretzu,
harrizko ala
zurezko gurutzea.

Bizitzako kale oztopozkoan
izango dogun untzea,
arantzak eta sastakaiak
adierazoten deuskuzala.

Adiskidetasunez guk hari
maitezko diosala:
—Agur, ermitea,
gorantzakoan;
beherantzakoan bere
bekigu zilegi
zuri agur egitea.

Lehenengo aldiz
ikusi eben ene begiok
Gorbaiaren alorrean
pagoaren pagoa,
gerri gizenez heteriko
zuhatzondoan basoa,
inguruan hesirik ez,
lurgune txukun errosoa.
Eta goietan urdina
azkenik ezina,

hondorik bagako
ortze-zelaia,
arranoek eta saiek
hantxe euren jaia
hegarik zabalenean;
mende honetako
hogeta hamaboskarren urtean,
uda beroaren erdiunean.

Hegazkadak egiteko
haek daben lumea
baizen sendo ugaria
balitz orain eta gero
nik dodan idazte-tresnea,
arin, gunetua, joria,
haen hegaden pare joan dadin
nire asmamenaren haria,
begi-belarriak erne,
arimea orekan,
irakiten edermina,
horraitino haek ez daben
txiruliruli ta txinta fina
enegan izanik,
horixe gura nik.

Baso garbi eder
bidezidorrez josia,
landa txukunetan
bedar, heze, guria;
ardiak larran gogara
ama lurraren titia
atseginez miazketan;
anartean, gizonek
lorrinduteke zan
abere-janaria
Jaunak duban eskainia.

Pagoek sekulako
gerizpe ederrak
atondurik eukezan,
korupe jasekoak
txapel antzean izanik;
errekastoek polpol esanik
etxera doan eskola mutikoaren
amesa eben gogoan, joan joiazan
atseden lekura,
jolas egin ondoren
ibai zabalera
edo osin baketsura.

Enbor zuri-baltzeko
zuhazti sendoa,
ederrez ugari
pagoen besoa,
beso morroskoa;
aldorrea⁴ batzen,
aldorrea⁴ aldentzen
adar, barda⁵ eta adaska,
betiro anaitsu,
ez burruka ez gatazka
auzo onen modura
eratsu konpontzen.

Haizeak firi-firi
doinurik emeanean
orri biribil artean,
latsen barbaroa
amamaren
errosarioaren
antzean;

⁴ Aldor: adar haundien sortokia, arbolearen gerritik gorago.

⁵ Barda: abar.

doinua baizen garden
errekastoen kristala,
garagarrilean zein atsegin
orripeko itzala.

Gerizpetako ixiltasunaren
urratzaile bare-barea
ardien arrana,
hodeiska zurien lagun dilindalana,
oihartzum samur, apala,
uri handiek preminea dauken
bake soinu zabala.

Laminaren bat noiz ikusiko
ene barruan pilpirak,
haizearen zurrumuruan
kezkatu nenkusazan
orri arteko eguzki-distirak,
sorgin-jokoa euken
laminen begiek
lotan jarri ez nengien
zuhur nebazan
ene men guztiak;
ixiltasun lar izateak
arean, arrisku zoliak?
Ez jakin. Erakarkor dira-ta
laminen haragiak.
Bildurra emon eustan
amamaren ohar zoliak
behinola,
burlezar ziriak:
"laminak beti dira
mutilarentzat
galgarriak."

Ai, Lamindanao!
arriskua bego
nigandik asao.

—Zuhur ager adi, aiko!
Maitagarriak honago dira,
honeek eskaini ohi dabe
zorionera bidea;
honeen bihotz onbera
txanda onuragarrirako
aukera ezin hobea;
lilurazko lotarako
kirruzko izarak,
bigunkeria lar
izan ez dagian
euskaldun zangarrak⁶.

Zidorren adiskide
handi egitean
haen gain ibili nenbilen
unean unean.
Basetxeak txiker
bihurtu jatazan
han behean
urrinean,
epotx antzeko nebazan nik
begien aurrean;
ardiak larran ainean
etxe zuriak agiri
zuhatz, solo eta
zelai artean,
lurrazalaren
jantzi berdearen ganean,
Herri gurearen zaindari,
gizaldiz gizaldi.

⁶ Zangar: bulartsu, sendo, adoretzu.

Lurragandik bereiz
goietan goietan
urdina zurituz joian
irribarre zuriz
hegal neurtu ezinetan.

Eta... bidea galdu neban
zerurantz begiratu beharrez;
ta hasarre, erremen,
bidezidorrak
niregandik ihes.

Neurea zan errua,
neurea hobena;
edertasun guztiez
jabetu gura izatearena.

Muga guztiak errez
urratu beharrez
lurreko hatxa jo neban
eta jausi, belaunak minez;
gorputzaren oinazeak
ez ninduan arduratu,
lagun ona izan jatan
zidorrari jaramon egin ezaz
benetan nintzan
orduan ni damutu.

Baina, hara!
ardiak joiazala nenkusan,
haen jarrai ni joango
eskortara.

Lainoak asao ziran
iluntze zoragarrian,
Lekanda harro egoan
bere aulki goitian.

Zazpi neke eta
zazpi atsedeen,
hazur samurtuok
anartean
joran apur eta kemen;
eta saritzat
lau eta zabal
Arraba,
Gorbaie esku zabalak
eskaintzen euskun alaba,
ederretan ederra,
asaben batzarleku,
ames amesgarrien
amesezko eremu.

Zorabio zoroa
niregan nebana,
harik lasterrean
Egirinaok guri
opa euskun laztana,
ostatu eta aterpea
eta sutondoa,
egurrez betea.

Cau ilunbezuan
horraitino
haizeen txistu gogorraz
gure etxearen inguru
etenbako durundu,
loa uxatu arteraino;
harako hildakoen burruka
ospatsua barriztau beharrez.
Basojauna zan
gaueko ehizaldian.
Gerogarrenean
ixiltasuna,

gure lo astuna
eta harik lasterrear
leiho zirrikietatik
eguna.

Bigarrenez joan nintzan
hurrengo urtean,
garagarrilaren
hamazortzigarrenean,
gure Aberrian
negarraldi luzea
hasi zanean;
hantxe harturiko hiru gazte,
lehenengo hil-opariak
dodaz oroimenean.

1983-X-28

MINGOTSAK

Kafre¹ bat heldu da
gure Lamerara;
barrua baltza dau,
eskuak erara.

Irudi bakar bat
daukagu kalean,
seme ongilea
gure bihotzean.

Hamaikatxu gose
kendu eban arren,
Abaroa zanak
etsaiak gaur hemen.

Gorroto-bideak
gauza txarra dakar,
ikusi-ezinak
azkenean negar.

Barrua baltza ta
eskuak erara...
kafre bat heldu da
gure Lamerara.

1983ko martian

¹ Kafre: "Afrikako gizon basatia. Noski, Afrikako karea ez da europar giza-semea baino gaiztoago. Geure eretxi harroak itsututen eta itsusituten gaitu."

IPUIN TXIKI

Antxinetan
antxinetan
lekeitiarra
Otaiora
joan zan.

Zeozer jakin
gura eban;
kainubeta
zorrotza
eskuan.

—Otaio,
badaukak
odolik?
—esan eutsan
bero-berorik.

Eta dzast, dzast!
kainubetea
sartu eutsan
Otaio mendiari
gogorrean.

Lurganean
gorriunea
agertu zan,
lekeitiarraren
eskua egoan
odoletan.

1984

POLITAGO ZIREAN

Neskatilak gonakin
politak zirean,
bestelako grazia
euken ibileran.

Prakestuak soinean
hanka zabal harro,
txibi liraina zana
gaur hatx-karramarro.

Moden moda dirala
ezin da ukatu,
besigua zegaitik
botakar¹ bihurtu?

Politago zirean
emeak gonakin,
euren gerribiran bai
irudi atsegin.

Ikusgarri zan gona
egoki egina,
orain zoritxarrean
prakestu berdina.

Lehen, bakarra izaten zan
estu nahi zabala,
gaur matarla² bikoa
dauke atabala.

Neskatilak gonakin
ikusten genduzan...
estimau zan lotsea
betiko galdu zan.

¹ Botakar: lantzoi.

² Matarla: matraila.

GOMUTAGARRI DOGUNA¹

Behinola, han baserrian,
beste une batzuen erdian
mutikotxu bat bizi zan.

Begi edegia,
areago irria,
irribarre gozoa;
betondo bakoa
geratu zan
gure mutikoa.

Udabarrietan
—haize ta lurra kantuetan—
lora txukunetan
haek aina txukun
ziran mitxeletak
ikusten ebazan edonun.

Aldi berean
hurrean eta urrun,
doinuaren ziria
ikusten ohitua,
egunero bedar artetik gora
usain barritua,
izadiaren pilpira gordeena
bere barruan
kilikari
etenbage ohi eban nabari.

Sentimen sakonagoa,
ez nagia, ez loa,
eder-iturri bila
artega urduri,

¹ Zornotzako Larran, Olerti Egunez, zemendiaren 18an irakurria

iturrira uretan
begiak zorrotz,
ezpanak kantari.

Baserriko semetxua
baserri kutsua
inoiz be galdu barik
munduko bideetara zan,
bide bereiz eta
apartekoetan
soloko lana laga eta
muna berdean kantari,
arimen artzain
izateko gurari
ernagarria
gogoaren zanetan.

Harrizko etxe handi
handietan beti
harrezkero goraka
gure fraile barri.

Harik lasterrean
egunero mun egingo
altarako
harri santuari,
amesbideko maizter,
goi-jauregiko txori.
Leihoan jarri dau dirdari
bihotz-labako
su itzalgatxaren ilintia.

Mutiko alai
abade ta olerkari,
atxurtuko, jorratuko
elederraren zelaia,

lunea dau edonoiz
bere soloko laia.

Olerti Egunaren
zidar ezteguetan
hiru eztegu ditu
urteen mutxurioetan²,
mende baten hiru lauren.
Ba ete da besterik hemen?

Diamantezko kataia,
kasik arrano dan saia,
Txorien hegada hotsez
ortze garaia.

Baserritar hori
geure arten dogu,
begietan dirdai,
ezpanetan irri,
ereinotzez bekokia;
tolesbage, barruko
ispilu garbia.

Hegalari
egun eta gau,
izena Santi dau,
ta bere sendia
—zeinek ez daki?—
Onaindia.

² Mutxurio: "Azao batzuk pilotuz egiten zan mutxurioa. Mutxurio handien izena "meta", gari-meta."

HIRUKOTXA

I

Jaiotetxeko leihotik

Ni baino lehenagotik
Lumentxa barrenean
Uriarte bazterrean
dagozan etxe,
baratz, solo, kale...
Baretasun ixilean
nire begiok igiri,
Ederraren eskuak
hementxe jarri ditu
ni baino lehenagotik.

Bizente Goikoetxea be
bizi izan zan etxe honetatik,
nire jaiotetxetik
birlorazko zorabioa,
ikusmena lanean geldia,
gozo-unean goraka doa.

Bizkaiko Jaun Tello¹
bazter honen zalea zan,
Lekeitio zaharrena
alderdi honetan,
Lumentxa barreneko
muino ganean
haren etxe ta jauregi;
orain etxe apain zabalak
kale aldapatsuaren
inguru-minguru,
bake-usoen hegalak.

¹ Bizente Goikoetxea musika-konpositore handia, polifoniar; Tello Bizkaiko Jauna, Aramaioko semea.

Sakonean Otaio,
tontor haretan
ez uso ta ez kaio.

Aldapan gora naiz joana
eskolatxura umetan
Luixa *Monjianera*
lehenengo letrak
gatzelaniaz ikastera,
orain eskolaurreko
deritxagunaren antzera.

Kanpilo baketsutik aparte,
egon ezina dan itsasarte
hor dot uriaren
barrenerago,
seinaroan sehaskan
amairik bako soinuaro.

Hogeta lau urtean
leiho horretatik
edertasunari begira;
gerrateak orduan
ikaragarrizko dirdira
eta guk etxetik aldegin beharra;
malkorik bagako negarra,
negar luzea hainbat urtean,
urian eta erbestean.

Hamaika gomuta bihotzean!

Orainak lehenari deia,
iluntze bakotxaren ostein
goizabarreko argi mehea...
Cauak osturiko irudi zoragarria
barrero euki daiket
begion aurrean.

Kanpilo barrean 1984garreneko udan

II

... eta iparraldeko leihotik

Gure itsasoa ikusten dot
indartsua, bizia, egonezina.
Nigana kresal eta oraldi usaina;
haize hozkirriak niri arpegian pot.
Mosu honen gozoa.

Harrizko torre sendoa,
honeri deutsola eleizea;
teilatu gorri hezea,
eta hostalak antzekoa.

Bion bitartean magnolia galantak
eta marru-marruz olatuen kantak.
Izaroaren muturra eta Labagana,
bitzui urezko esku gaziak
igurtzi laztana.

Hantxe Kurlutxu harroa,
karatx trinkoa dau bere erroa.

Eta goietan urdina,
udazken honetan
bitsezko oihal zuriz jantzia;
haruntz doa amesez nire begia,
haruntz, bihotzak daukan zerumina.

III

...eta hegoaldeko balkoitik

Ene Lumentxa!
zure oinetan nire sehaska
kulunkaria,
nire lehenengo negar ta intziria,
hain zuzen
herri-jaietan
kaleetan
txistua ta tanbolina joten.

Bizkarrean eta alboetan,
Lumentxa,
solotxu eta txaraka,
baina aurrean
sabel-aldean
hilerria daukazu
uda ta negu eguzkitsu,
barrean bizi diranen
geroko atsedeen luzeko leku.

Ixiltasunaren toki horretan
egunero
bizien urrats eta barbaro.
Loraz beteten dabez
hilobiak, eta erreguz.
Hortxe zaukadaz, Lumentxa,
soil, lerdin, alai;
ene mendi bakuna,
guztien artean
nire kutuna.

LOTSEA GALDUTA

Lekeitiarrak sekula
ikusi ez ebana:
Talako kurtziari be
irainezko orbana.

Gazteri gaixoa
gorrotoz betea:
hil, erre, apurtu,
hau al da bidea?

Harrizko kurtzioari
marra baltzak deutsez egin,
mamarro baten taiua
harlandu ederraren gain.

Marinelak itsasora
joaten zireanean
barrako orazioa
apal egiten ebenean,
ez harrokeri, ez gorroto,
bakea euren bihotzean.

Gaixotuta daukagu
gazteria orain,
hamaikatxu gurasok
negarra begian.

Barrako orazioa
eskintzen zan ingurua...
itsaslapurren kontrako
leku sendo babestua.

San Juan Talakon be aurten
santuak apurtu, erre;
igaz Abaroa baltzez
itxusi karenaz bete...

Mingarri da bai benetan
polizi ta txapelokerren
zigorrek leporatzea,
baina aurrekoak hiltzen
aurretiaz ibiltea
ez da modu artez, ez zuzen.

Gaixotuta daukagu
gazteria orain,
hamaikatxu gurasok
negarra begian.

KARRASPIO TXIKI

Hondartza basati
dirautesue orain,
ez ete dago inor
izen zaharren zain?

Karraspio Txiki,
Karraspio Txiki
izen polit hori
nok deutsu ebatsi?

Hor Kurlutxupear
Leari atxiki,
udan iparraizetan
biloizen abegi.

Hondartza basati
kirten berbetatik...

San Juan Talakon bai
lagun basatiak,
etxea erre, ta
bota irudiak.
Igaz Abaroak
baltz, buru begiak.
Hondarra basati?
Oinbiko piztiak.

Hondartza basati,
kirten berbetatik.

Toki izen politak
itxulastutea
norberetasuna
ezereztutea.

Holan ba, euskerea
dogu galtzailea,
mordoilokeri horrek
dakarsku kaltea.

Hondartza basati
kirten berbetatik.

Karraspio Txiki
guk beti esana...
ta Beaskokalea
beti izan dana...
Izenak galtzean
ete dago lana?
Atzerantza zoaz,
ene herri lastana.

1985

DAKUSTANA

Udako egun argia
goian eguzki zuria
urdinaren margoa
inguruetan,
bedarkiak urre bihurtzen,
apurka,
lurrean,
udagoenean.

Arbola bat,
liburua,
emakumearen igurtzia,
laztana
opor egunean.
Ez da dana.

Asmoak,
buru habian
kokatua,
zabaldu guran
urruneko
lilularen deia,
norabaiteko gogoia.

Itsas-azalean
urdin artean
lerro zuta, zuria,
jolas ontziak daukan
bela luzatua,
branka zorrotza
eta popan

ubera sortubarria,
amesen seme biloizak
hortxe igiri.
Oroldioek
hondartzan atzenaldi.

Abuztu epel eta hozkirri,
erdi zoro
hasieran,
bihar
etzikaramun
eurizko azaro,
tarteka
haize brastadak
oparo.
Jentea, nagi;
eguzki egarri.

1985-VIII

ERROTAZURIN EROSTAKA

Berrogeta hamar urte
iragan ondoren,
begira naiagotzu,
begira ni hemen.

Errotazuri eder
behinola zinana,
ta orain zoritzarrez
hutsik zagozana...

Zure hormak oindino
sendo dagoz egon;
errekeak ixilik,
hor dauka erion.

Harlanduak dituzu
leiho ta ateetan,
kataia ta kandaua
itsusi benetan.

Sarrerako atean
asunak ugari,
ateak arrakala
luzeak agiri.

Errotearen klin klon
soinua nun dago?
Garirik ez Bizkaian
zure errotarako.

Nun dozu neskatila
hain ederra zana?
Nun urun zuria ta
sagardauen mama?

Horraitino tximini
sendoa daukazu,
teilatua garbitzen be
nonor arduratsu.

Albatean¹ be, horra,
serraila barria;
barrero izango al zara
euskaldun habia?

Etxe galanta hutsik,
auzoan sabaia,
egin dau horraitino
txakurrak ausia.

Gizaldi hasieran
sariturikoa,
baserri etxe zabal
isurki² bikoia.

Errotazuri horrek
tokitzat Armina,
noizbaiteko gozoa
gaur nire samina.

1985-VIII-21

¹ Albate: alboko ate.

² Isurki: Teilatua alde bitara atondua, euria joera bitan isuriten.

CAVAILLE-COLL

Joan dan mendearen
erditik gora
Euskal Herrian lehenengo
organu erromantikoa hemen,
Lekeition ipini eben:
"Cavaillé-Coll fils"
Parisen egina.
Historia ataltxu ahaztu ezina.

Mila zortzirehun eta
hirurogeta bat garren urtean
gure Basilikako koruan
jotzailerik onena genduan,
Altuna durangarra.

Bai organua, bai Juan Maria,
Uribarren lekeitiarrak Paristik
gure herrira ekarriak.
Uribarren bai esku zabala!

Juan Maria Blas Altuna...
"Gernikako Arbola"
kantu ospetsuaren doinua
euskaldunontzat atondu euskuna.

Doinu hori ez da
Iparragirrerena
Altunak, Garaiko
zortziko
hori
eskaini eutsan hemen
Jose Mariri,
Trinidad kaleko
boskarren etxean,
Altuna hortxe bizi zanean.

Gero, Madrilen
biok estreinau eben:
Jose Mari kantari,
Juan Mari pianuan laguntzaile,
San Luis kafetxean,
euskaldun entzule artean.

Egia da-ta, bego argi,
Garaikoa zan doinu hori.

Eta oraindino be, gu goratuten,
Lekeitioko hilerrian
Altunaren hazurrak
harri hotzaren azpian.

1986

LARRAZKENEKO NEURTITZAK

Oihenartek bere gaztezaroa
hitz landuz idazteko
kemena, astia ta gogoa;
nik, arean bere,
iruntzietara edo, landuko.
Labur zurrian
zahartzaroko
bideko pauso-harriak.
Mailukea zartatua,
besoa indarbako.

Urteen meta neurribagea
ez da soilik gure astungarri,
bakotxak berak dau
norbere osasunaren neurri.
Hortik, gaztegina;
Hortik, zaharkeria.
Aldiak badau, arean,
eskuerakutsirik,
umetan begi haundiak
betixe, harrituta, zabalik;
zahartzaroan be,
sineskatxa dan arren,
munduaren bekoki
eta eskuek
salgei dauke
gauza harrigarririk.

Baina begiok ez dabe
lehengo argirik,
gorreriak gure kaltean
badau ausarkuntzarik.

Eta adimen-jauregian
leihoak, herdoiak itxita.
Azkartasunak aintzina
eginiko ir aizeko¹ bisita
—lehenminak guban ziztatua—
neguaren esku latzak
ezabatu daroa.

Eta nik, orain,
egia garbia,
hotza iguin dot,
maiteago beroa,
eguzkiaren hegoa,
atso-agureen abaroa.

Ai, gaztezaroa!
Baso ilunean galdu neban
altxor parebakoa,
ibilpide behingoa.

Tontorrik tontor
gure oinon arina
birion adorea
noizbaiteko egunetan,
atseginetan
genkusan
aberriaren ederraldea.

Oraingo aldian
kale soila dot nahikoa,
urrun ditut mendi,
baso ta itsasoa,
arrantzale zaharrak

¹ Iraizeko: arin, azaleko.

ohi dauan inoiz-minaren
antzerakoa.

Hirugarren adinaren atadian
hirugarren oinaren preminan,
edota saihetsazurren artean
bihotz-mutil dan tresnea,
aguretasunean albaitinka,
osasun adabakia,
taupadearen lagungarria.

Eresialdi neketsurik...
gau ta egun eztularen
erasoei eutsi ezinik.

Horraitino
kurtzelua isioturik bego,
gau luzea baino lehen
izartxo baten distirea,
gomuta zaharreko
soinu durundi maitea
bularrean gordea,
itxaropenaren orri berdea
gurariaren leiho idegian.
Etorkizun ezagungatxaren
susmo zalantzaz betea.

Goiz barriaren aintzindari
ames helduezina,
behera beharraren ordez
iraupena, bizimina.

1986-XI-23

ANTZORIZ¹

Gurma lodiz
ez zaitut ikusi nahi,
Antzoriz;
bai barriz zeru urdinpean,
bedar arteko lora horiz.

Gure itsaso hau
Amandarritik
ikusten dogun arren,
Antzorizen daukaguz
begiak zabalena,
hor dira hainbat lehor-mutur.
Matxixako
eta Iger, urrunen.

Udako ilunabarrean
Antzorizen
eguzkiaren urrea
zeru ertzean,
edertasuna ikusmenean;
izurdak dzauan dzauan
askatasun betean.

Hor bazan antxina
baseliza apaina:
Santa Katalina.
Gizon gaiztoek abadea hil eben
bere Lekeitio maiteruntz
bidean etorrela.²

¹ "Antzoriz", Lekeitioko jaietako programa, 1986.

² Nikolas kapellaua, Arrietako abadea, 1493ko maiatzean. Ikus *La villa de Lequeitio en el siglo XVIII*, Pedro Aguado Bleye, Bilbao, 1921, 41 eta 42 orrialdeetan. Berebat, *LEKEITIO, Edestia ta Etnografi Aldizkaria*, 1985, 1. zenbakia, 10 eta 11 orrialdeetan Rufo Atxurak egindako idatzia eta argazkia.

1987

KRESALAREN PENAK¹

Antzar egun goizean
urtero-urtero
txistu soinua dabil
alai eta bero,
Patxi ta Sabin honuntz
agertu ezkeru
txistulariok daukez
milaka bezero.

Eguna argitzean
kaleratzen dira
tuntuna ta txistua
alkarri begira,
kalerik kalekoak
jira eta bira,
bizkor doaz Atera
ta Arranegira.

Aitita txistulari,
eta aita be bai,
eurenez holakoak
eurenez dira gai,
lanaldietan lana,
jaia danean jai;
neguan miserian,
udan danok alai.

¹ "Kresalaren penak", Lekitioko jaietako programa, 1987.

Bai Patxi ta bai Sabin
hainbeste urtetan
antzar egunez soinuz
gure kaleetan,
eta holan izango
dalako ustetan
aurten ipinten doguz
programa honetan.

Ansola Erkiaga
euren abizenak,
alaitasunez dabez
beti ahalmenak;
gure Antzarrak orain
hemengo zezenak,
jai bihurtuten doguz
kresalaren penak.

AITABITXI

Aitabitxi neurea,
ene Eusebio,
aspaldion zeurea
dozu Karraspio,
neguan kainaberak
eta lakario¹,
lotarako hementxe
zeure Lekeitio.

Larogeta hamaika
urte bete dozuz,
askoz be errezago
esaten da "Jesus".
Hara ta hona beti
oinez eta eskuz,
begiak ikusgura
erabilten dozuz.

Txikia zinanean
bizkor eskolara,
geroago aitaren
kordeleriara,
Karraspiora bide
estu ta medarra,
geroago egina
da bide zabala.

Besarkada linoa
sokak egiteko,
aurreruntz eta atzeruntz
nekea bideko,
soldau joan zinean

¹ Lakario: txoriak harrapatzeko egur-ziri, kordela ta amua lur-ganean ipi-nita.

ganera kuotako,
Bilbon señoitoak
zure kuadrilako.

Bilboko Garellanon
ezauna orduan
lekeitiar jasekoa
teniente egoan,
Eusebio permisú
aparten asmoan,
lortu eiten ebazan
ta ekarri eskuan.

Joango, ez joango
Afrika aldera,
hoba inontzat laga
halako aukera,
batzuk joan beharra
hango gerratera,
Eusebio bihurtu
nasai bere etxera.

Munduko urte arin
eretziz luzeak
norberak dakiz ondo
eta ez besteak,
hamaika bidar martxan
jaiak eta asteak;
ezin ba, aitabitxi,
beti izan gazteak.

Eroapena behar
azken urteetan,
gauza asko argiago
gure buruetan;
urte joanen bila
zetan hasi, zetan?
Jauna gure begira
goiko izarretan.

BESOAK ZABALIK

Kosnoaga jagole izanik
horra Lumoko lurretan Gernika,
eta hemen Aretxa
bakearen aulki nagusia
haize garbiko muinoan.
Herriaren ikur berezia,
askatasun eguzkiaren zale,
beti baikor, inoiz be ez etsia.

Gizaldietan zehar
bulartsu eta nasai,
harrokeririk bage
gizon jareien erakutsia.

Godoen erasoak jasan antxinetan
eta lautada nabarrekoenak.
Aretxak zutunik zirauan;
Gorozikatiko ibaiaren ura
bare ta nare lauan.

Arerioa goietako hodei artetik
heldu izan zanean
—asmorik makurrenaz kolkoa—
arerioaren kide ta laguna
barrero be, godoa.

Ez daki inork hegazkinen
siratsa eta patua;
uriaren goialdea bego iraunean,
Aretx inguruko auzunea;
beste enparaua
triskantzaz hondatua.

Hori ete zan
misteriozko agindua?

Etxeak hausi, erre;
hil jente gaixoa.
Ezin jakin hegazkinetakoan
ausiabartzako¹ mezua.

Eta hurrengo ekinaldia
bai bihotz erdiragarri:
harik lasterrean
ezereztua Coventry²,
ta are godoen eskutik.

Indarra ete da
bakearen hazia?
Heriotzea berezkoa izanik
zetarako aurreratze gorria?

Munduak, ostera, jakin dau
gudazaleek birrindu ebela
Bizkaian, Gernika uria;
saminaren haundiz
Coventry-ren abizaria³.

Emon eta zabaldu
—bertsolariak oihu—.
Baina lehenetan eta gero
gizonak indarra
darabil maitero.

¹ Ausiabartzako: suntsipen, hondamendi.

² Coventry, Ingalaterrako uria, alemanak guztiz zapaldu, birrindu eben.

³ Abizari: habirakoi, habiوندoko.

Askatasunaren sehaska
beroa izan dan Gernika
askatasun ikurra izan dadin,
euskaldunok egin ahalegin
munduko herriei deika.

ASTELEHEN NEGARGARRIAN (1937-IV-26)

Hor datoz,
hor doaz...

Burrin burrun burrun hegan txori baltzak,
hondamendi tresnak sabelak betean,
gure Bizkaiko lur estuen ganean
bildurgarri diran zemai gogor latzak.

Hor datoz,
hor doaz...

Burdinazko txori gaizkin ereduak
herria birrintzen erruki bagarik,
goian eguzkia guztiz harriturik,
euskaldunon kaltez gorroto itsuak.

Hor datoz,
hor doaz...

Zerutarra ez dan amurru zigorra
txistu ta orroe hementxe da jausi;
zahar, gazte, ume eta abelgorri
heriotza dantzan azkeneko lorra.

Hautsa eta sua,
oinaze oihua.

Gaizkinak hor doaz...
ariman zikina, guzurra ahoan,
Gernika hilerri bihurtu ondoan.

1987ko udabarrian

AGUR, KOLDO¹

Hegadarik luzeena
eginbarri dozu, ene Mitxelena.

Aberri ta atzerri,
mendi ta kartzela,
ikasle urduri,
irakasleetan ez azkena.
Ezinegonak erabili zaitu
haizeak ainara bezela.

Ilunaren ehunak
adierazo deusuz sarri
esku gogorrez
argitasunik bagako
egunak eta gauak.

Ez dozu zeharo urrundu
besteen eskertzarreko saminik.
Oinetan berunaren astuna
gogoaren akuilu zorrozpean
gatazka betean
lan luzeen garaipena lortu ezinik.

Hor aipatu zeuskun
Unamunoren zalantzazko ezbai grina
ta *Oriaxeren* lipizta ernamina.
Baina suhar zeu ere
bitzuok adina.

Horreen itsaserdian
zeunkan zuk ontzia,
ipar eta hego

¹ "Agur, Koldo", *Egan*, 1987, 3-6. zk., 25-26 or.

lemazain ernaia,
hainbat izkuturen argia
nondik bilatuko.
Zidor eta zador
altxor zaharra
dirdiratsu jarri beharra.

Maite zenduan prosa,
zure ezti barririk
ezin daikegu goza:
non dira zure memoriak?
Paperik ez al dozu izan
ala orduen uneak murrizegiak?

Txotxabarretan ibili beharko
jasoko zenduan etxerako,
gaiak biltzen noraezean.

Aspaldiko adiskide,
gogoan dot behinola
Salamancan egon ginala
mahaiaren inguru,
baskari baketsuan gure bihotza ta gibela.

Ta orain barrero dantzut
—nik bai, zuk ez—
mendiko negarra.
Zerutiko manaz ments gabiltz,
areago bai dogu hasarre sagarra.

DON NEMEXIO¹

Egia maite zenduan;
guzurra, gorroto.
Bien bitartean barriz guk
oroimenaren tolesak oztopo.
Oztopo guk izur horreek.
Modan zetarako da jarri
“ez zaitugu inoiz ahaztuko”?

Gizonaren aho ziztrina;
ziztrinagoa mihina.
Ahaztuko ez dogun hori, sarri
gure kaixkarretik aldegina.

Guzurraren senide
izan gura ez arren,
itxurakeriak bustiten gaitu
zipriztin ilunez goien-barren.

Bai, don Nemexio.
Oraingoan txori barriak ditugu
euskerearen eremuan:
arean... euskerazale diranak;
arean... baztertu gura dabenak.
Harrigarria, ezta?
“Ezer ez eta festa”.

Erdal osineko hainbat ugarasio;
zenbat aitzaki eta zio!
Gaitzerdi
batzuei noizean behin
“asto gorotza” emoten deutsela;
horrelakorik zelan jasan, bestela!

¹ “Don Nemexio”, *Karmel*, 1987-4, urria-abendua, 183. zk., 102-103 or.
Nemesio Etxaniz.

Bai, don Nemexio.
Hainbat urtez
mahasti lanetan zu,
eta hona, sasilarrak
mahatsondoen inguru.

“Tomaxa, Peru... eta Ana”
“hauxen da lana”!
Ez dakigu zertarako
honenbeste Hiztegi potolo.
Ipar/Hegoeko idioma biek
deuskuez berbak eskintzen,
ta izkiriataile barriek
horreezaz baliatzen.

Prestamuak?
Bai, bai!
Pantxotarako eta
atunetarako amuak.
Lazio-euskara gaur errez
ikasi daike castellanuak.

Bai, don Nemexio.
Hamazortzi urtean
Larrako hormartean
Olerti sarien puntuak guk
kaltzetorratzean.
Baina, aldiaren zapi zimurak
gomuta-ohol baltzeko
letra makalak ezabatzen.
Ta barriro ez idazteko.

Adiskidetasuna
zein merke saltzen dogun!
Biziak, agertu;
joanak, urrun be urrun.

Bai, don Nemexio.
Urteen buztarriean gu be
okertzen, makailautzen.
Irudimena orriuldurik,
ta hotzak gure odola hartzen.

Nemexio,
saria baino zigorra
areago zenduan jaso.
Giza-grinen olatuek
hasarreturiko itsaso...
Horixe urte luzeetan
ezagutu zenduan mundua.

Orain, ostera,
Jaunak emon bide deutsu
betirako ostatua.

Halantxe zeunkan nitzat
etxeko atea zabaldua.

Larrea, 1987-XI-29

1988

ANTERO TA SINKER

Gure Antero nor zan
dabiz jakinguran,
doinuaren sustraian
ta literaturan,
maisu giputxek galde
urte azkenean,
batxilerrak jarri nahi
ezagumenean.

Lekeitioko seme
uraren ertzeko,
senidedun izan da
orduan ta gero,
jango bazan, beharra
egin egunero,
potinen baten bila
ebilen Antero.

Orduan be baziran
tximinozaleak,
kalak isla ondoa
eta kai-aurreak;
agurarik ez gura
atun-txalupeak,
agur itsas frankuko
itsasorateak.

Potina lortu eban
auzoak itxita,
apario bakarra
ondo iratzita;
horrez ganera berun,
soka eta pitta,
beste asmo bat eukan
buruan josit.

Korainik¹ ez aukeran
tximinotarako
ta baldan lororik ez
bera erosteko;
buruko zapak dardar
goiko eta beheko
modu egokiren bat
azkar asmateko.

—Sinker adiskidea,
erdu potinera,
tximinoiak hor datoz
gure karelera;
Sinker, zuk bibotea
larga ur-ertzera,
korain hoberik inun
ezin lei aukera.

¹ Korain: potera.

Txamarrotea² Anterok,
Sinkerrekoraina,
bibote luzea zan
erreminta fina.
Kanta iluna argitzen nik
neke atsegina,
Sinkarren ta Anteroren
histori txikina.

² Chamarrote: jaka.

AGURRIK BAKO AGURRA

Isilik datoz
hilerrirako mailetan behera
senide eta etxeoak
eguerdi inguruan,
kanpai-durundirik ez da zeruan,
baina norbait jaso dabe,
norbaiten gorpua sartu gabe
hilobian.

Goizean hil da
baina botikaz betea
haren bizitzako azken unea,
eta behingoan usteldu daitekkelako,
hortik estura, hortik itsumustuko.
Izurria, kutsua
ez da gizartearen gustokoa.
Azkenaldi-etena be
laburtu beharrez
pertsonek auzokidetzea
eten azkar,

dandarrez doaz
besterenganako
maitakuntzako
berba samurrak
inoiz egiazko,
areago guzurak.

Guzurra dala
heriotzeak salatuten deusku:
hil zara,
zuloan dozu leku.

“Ez zaitugu ahaztuko ...!”
—nork ete deusku sinestuko?

Isilik jatsi dira
etxeko ta senideak;
baina bizitzeak
baditu bere bideak.

Gehien-gehienak
tabernara sartu dira.
Mundua aurrera,
bira ta bira.

1988-X

ARTXANDAREN OSTEAN

Landa zabal hau dot
begien aurrean,
harrizko ta bedarrezko jantzia
dauka bere azalean,
bide ta bidexkak
zuta-zeharrean.
Nekosta¹ da hemen
 zuhaitz jeikia,
punta zorrotza,
lurrean oinak tinkoa
eta zerura begira
zerbait misteriotsua
iragarri gura baileuan.
 Isila da nagusi
landa zabal honetan.

Bigarren bizitzako abaroa ei dogu
—hainbat udaren ostean negu—
gure odola hoztu danean,
grinak beretu diranean
eta mihina isildu,
leihorik bako etxea
kilkerraren antzera
izango dogu egongu².

Baina gure bururik
ez dogu inoiz gehiago agertuko,
ez gara izango ezaren lekuko.

—Hauxe izango dozu abaro—
esan deuste senideek,

¹ Nekosta: altzifre, zipres.

² Egongu: egoitza, egonleku.

hauxe urteen urteek
zapaldu zagiezanean.

 Zulo baltzaren txapela
 karatx³ harlandu zapala.
Egunero, egunak argituko deust
nire lasterreko egoitza;
gauetan, ilunaren gerizeak
igurtzi arinak egingo.

 Gurutze zutiaren
barreneko zuloan
harrek ez dakie orrurik egiten.
Eta gure hazurrek
biztuerea itxaroten.

1988-I

³ Karatx: karehatx, kareharri.

1989

ARGATXEKO PEKAN¹ GABILOI²-HABIAN

(Tokian tokiko)

- 1 Gabiloi-kumak atrapatea
sasoi baten dirua zan,
arrantzaleak habiaren bat
susmatu Argatxeko pekan;
gabiloi-arra eta amea
zuloan sartu-urtenetan,
ahokadaka karrioan ta
kumak be hantxe zirean.

- 2 Habia hori susmau ebana
Erremueldo *Ilustraua*
moilaldeko sagardautegian
Leturiagaz autua;
argitasunak guztiz egoki,
tokia arriskutsua,
bien artean burua bero,
topau nahi eben modua.

- 3 Han soka behera joan ezker
gauzea etorren ondo.
Harrapatzaile nor aukeratu?
Nor aukeratu? Juan Tonto.
Honek ezetzik ta ez baietzik,
morroia ixilik egongo;
aldamilo motza, gindolia
Santik³ hara eroango.

¹ Peka: itsaslabar.

² Gabiloi: gabirai, mirotz.

³ Santi, igeltseroa zan.

- 4 Santi Sesmaren lagun azkarrak
Enrike eta Sabilo,
polea-sokak sendo lotzeko
aukeran hiru-lau pilo;
peka-ertzean marraz-zakua
hurrez betea gorailo,
sokak narraska ez eteteko,
eguzki, euri nahi lailo.
- 5 Egun izentaua aukeratu:
harako Korpus Eguna;
Kunko, Tomas ta Rufo gehituta
bederatziko bilduma;
Juan Tontok hasi orduko toton,
adore motel biguna,
sokan behera martxan joateko
ez zala hera laguna.
- 6 Holan Juan Tonto talaierutzat
abisugile jatorra,
hatx punta baten egoteko be
agertu eban bildurra;
sokak lotzeko han euken gertu
pilondo gerri gogorra,
Josek eskopeta baltz haregaz
seguridade apurra ...
- 7 *Ilustrauari* ipini eutsen
gindolea popapean,
gindolearen soka bikotxak
ta meheago bat aurean;
zuri-zuri eukan arpegia,
berbak dardar ezpanean,
bere burua aurkitu eban
izugarrizko trantzean.

- 8 —“Zortzi seme-alaben aita naz,
zortzi umeren guraso,
ni arriskuan sartuko naz ta
zuek hementxe eroso;
dindilizka gabiloi artean
ez dakidala ezer jazo;
nire umeen ardura zeuek,
bazarie gizon oso”.
- 9 Dindibili-danbala kanpantorran
prozesinoko kanpaiak;
Ilustraua alkondara hutsik,
manu bere briol⁴ meheak,
tretza⁵-txikota⁶ ingurubiran
lokarri deslai gerriak,
txapel zikila buruan eta
sakon-sakon begi biak.
- 10 Aita-ameak uxatuteko
armaduna Leturia,
Juan Tontok barrero be zarata:
—“Ez dot ikusten pekia”.
Astiro-astiro *Ilustraua*
bistatik zan itzalia,
ilortxuk be ez eban ikusten
beheruntz joian gindolia.
- 11 Berbaren bat edo beste bazan
Argatx-ganean entzuten,
gero hasi zan ixilaldia,
eta arnasak estutzen;
kanpaiak be ixildu zirean,

⁴ Briolak: prakak.

⁵ Tretza: bisigua harapatzeko aparejua.

⁶ Txikota: soka.

bildur-susmoa hor hemen,
zortzi lagunek begiak larri
alkarrerri begirutzen.

- 12 Telegrafoa zan sokameheak
 halako baten tiratu,
 —“Bizirik al dago *Ilustraua*?...
 erantzun barik geratu.
 Zortzi lagunak orduan ezin
 euren kezkea uxatu,
 Josek agindu: “Ixa, mutilak!
 ahaleginik ez ukatu!”
- 13 Ta baetorren, goruntz etorren...
 bai garizuma luzea!
 goikoen berbak alperrekoak,
 erantzun hutsez haizea.
 —“Hementxe izan behar jok horrek!
 Hala dogu guk sokea,
 pisu ixila jatorku hemen,
 akaso nobedadea?...”
- 14 Zer ikusiko... Beharmodua!
 Ilustraua odoletan
 esku ta beso, kokot, matrailak
 ardau baltzen koloretan;
 txapelari eutsi haginakin,
 txorikumak pikoketan,
 galtzarpeetan gindola-sokak,
 haize preskua braetan.
- 15 Tretza-txikotezko gerrikoa
 pekan narrasean eten,
 galtzak orduan bajoiakozan
 iztarretan behera jausten;
 belaun zankabea preso galtzak

ez laga itsasoratzen,
zortzi umeren guraso zana
lotsariak erakusten.

- 16 Argatx-ganean oratu eutsen,
bedartzan itxi etzunda;
berbatxu bi dakiz gure Rufok
Ilustrauari entzunda:
—“Ziarro bat”...ta ez beste hitzik.
Gorputza, erria manda.
Lau zirean lau, gabiloi-kumak.
Pasadizua holan da.

ALPERREKO DEIAK

Ohean datzan agureak
deadar motela:

—Marinazi... Mazi... zi... zi...

Iragangoan zehar doa
oihartzuna makal, apal.

—Gure andreak zetan ete dihardu?
loak hartu ete dau?
Eta ni hemen, premina gorrian
eta jagi ezinik.

Behin eta barrero
egiten dau deia.

—Mainazi... Demonintres hori.

Ixilaren izareak
ito daroaz ohekoaren intziriak.

Gizonari ahaztu egiten jako.
Emaztea gorra da.

FAUSTO, ABELARDO¹

Norbait erakarkor —berez mazal—
aurkitu leiteke bidean,
laneko lagun danean.

Emakumea ta gizona
adinean alkarrengandik
hurrean egon ez arren,
inork ez daki arpegi barriak
barruan zer dakarren.

Begien bistan ez daukagun egoerea,
gizasemeen ta gizalaben joerea
ez da beti, ez da soilki haragiarena,
irritsa² ez da beti sustrai ta azkena.

Badogu gogoan, badogu zerbait
espirituzko dana,
ta espiritu zipriztinek
menturaz
ezotzen dabe
gure ariman ezkutuan
etzunda egoana.

Ez ikusle, ez entzule
ta ez ikutuzale
izan zareen mistikook
ez dakit zelan berotu
ahal izan dituzuen
zeuon deserriko neguak,
zelan menperatu arima-suak,
Fausto doktore jauna,
Abelardo lilureak jana,
sirats belumendua³, zuena!

¹ Dr. Fausto Goetheren pertsonaia eta Abelardo filosofoa, Eloisarekin ezkondu eta gero zigortua.

² Irrits: grina, irrika.

³ Belumendu: berankor.

Zahartzaro atadian
gazte amesetea.
Espiritua tximurtu ezker
ez dau gizakiak itsaso barerik.
Nun da zozo zuririk?

EULIA TA ATSOA

Udea morroskotu da
eta egunik beteenak oraintxe
kanikulak darabiltz
esku jolasetan.

Atsoa —amamatxu gozo—
besaulki bigunean jesarrita
euli urduri baten
hegakadei begira.

—Euli zoranga hori,
zetara hator beti
nire aho ertzera,
nire begi malkotsuen iturrira?
Hoa, lagun ona barik
auzo zirina haudalako.

Euliak, oster, jaramonik ez.

Atsoa, zapi zabala eskuan,
euliari zapladea emoteko
baina eulia hor doa firiri
hegararik bizkorrean,
irria musturrean.

Harik eta atso maitagarria
loak hartzen dauan arte.
Orduan bai euliak
kezkarik bako egona
toki jakinetan.

RUFO CASTOR

Errotarriaren antzera
urtea bere orpoaren biran
 ibili dabil,
hilabeteak ditu aginak;
 eta hilabeteak be,
mordoetan batzen dira, eta horra,
urtaro gogor eta atseginak.

Egunokaz ez dakust
 Rufo Kastor gurea;
honek be, urteak ditu
baina ez da oindino agurea.

Itsas-usaina egun batzuetarako
 bauan-bauan laga,
eta mendiak gora joanik
egutaro ezberdinetara heldu da.

Buruak, etenbako ekinetik,
 atsedena gura,
eta gorputzak be, beti dau
 osasunaz ardura,
itxieztina den jardun-muga.

Ezo-urдинetik
 idor-urдинera
ez da bide handia,
baina gure soinak
batzuetan nagia.

Gure *mutil handi* hau
mutiko koskor ginanetik
 ezagutu dot,
praka motxeko ginan biok;

bera, altara aurreko
eta ni, kantari altara atzean.
Orduntxetik dogu
hartu-emonaren lokarria.

Gaztetxu apostoluen artean,
bera, Aste Santuan
Kristo birritan izan zan.

Handik geroetan
hamaika ibilte astero,
mendirik mendi,
gerrate aurreko urteetan,
harek eta biok.

Gizona aiurriz
aldakoia izan ez arren,
inguruko jazoerek
eta buruaren argialdiek
aldakuntzak ekarri ohi dabez.

Izan be, norbere buruko
armarioaren giltza
norberak bakarrik dauko;
albokoak asko jakin lei,
baina inoiz be ez azken-hitza.

Horraitino, zorionez,
gure *mutil handia*
ez da barruz aldatu:
sinismenean dirau,
sendia eta herria
uneoro ditu maitatu.

Eta testigantza arteza bailitzan
jazorikoaren agerpenak

gordeten ditu ariman
eta liburuetako argazkitzan.

Ikasketa apaletik
apurka-apurka
bere burua landu dau,
eta argazkiak batuaz
begientzako ta belarrientzako dan
gauzaki berezia
deutso eskeini
Lekeitio geureari.

Merezi dau-ta,
beretzat gaur bertsook,
txaloak eta esker ona.

Antxina hasi...
bedi sekulakoz
gure adiskidetasuna.

1989ko irail erdian.

TXALUPETXEAK

“Gure Katalin jaio zan egunean
herria ta Kofradia aparta zirean.
Salomeneko mahaiak baleki berbetan
harek esango leuke hemen zer pasa zan.”

Hainbeste txalupetxe
zirean antxina,
bakotxak berak eukan
baztertxu jakina,
etxean bazkari ta
afari arina,
lauretako gura
aparte egina.

Lauretan gura eban
umeak ogia;
gizonak, barriz, ogi
eta lazeria¹:
ogi barruan jaki
apurra iratzia,
eskua atzekaldean
eta han, amuzkia².

Txikito kosterarik
ez egoanean
egotaldi nasaia
taberna ilunean,
kuartilerdiko pitxar
zuria aurrean,
mahastiko ur baltza
pitxar barrenean.

¹ Lazeria: gabezia, txirotasun.

² Amuzki: beita, jaki. Esakera honetan: gizonezkoak etxean ogia eta jakia hartzen eben, eta erdi disimuloan eskua atzekaldean.

Pitxarrekoa astiz
edan bitartean
batzuk kanta kantari
gertatzen zirean;
“Markesaren alaba”
kantuen artean,
bihotzak samur-samur
ilunabarrean.

“Amorua zeukan
barrena sartua”
holan amaituten zan
bigarren bertsua.
Markes baten alaba
txit maitemindua,
arrantzale bategaz
zorabiatua.

Arrantzaleen kanta
bigun gozatsuak
betiko galdu ditu
giro modernuak;
han amaitu zirean
hango berbaruak...
telebisteak gaukaz
gaur menperatuak.

Zer ikusiko gagoz
eta zer entzungo,
tresna zirina ez da
ixiltzen egundo,
tramankuluak hainbat
kanal eta zingo³
estres edo expresak
gaitu danok jango.

³ Zingo: sakonera.

ETXENAGUSIA (KARMELO) JAUNARI¹

Errekastoaren ura,
ur garbia arean,
beheak behera
udan otzan doanean,
doinua entzutea
ez da errez.

Errekastoaren
ertz bietan
ilarren adarren
nagiak atera beharrak
eta ira berdeen beso naroeak
estaldu samar dabelako,
uraren joanaren
bizkar kixkurra
gure begiokaz ikustea
ez da errez.

Horraitino,
ixilean
—zaratea asao—
geldi ezinean
—ur egondua ona ez dalako—
joan doan ur horrek,
gurari zabalenez
ezotuten ditu
bazterrak eta haragokoak,
eta hortik sortuko
aitor dan hurrean
hamaika emoi,
hamaika zitu.

¹ Derioko Udako Ikastaroak Karmelo Etxenagusiari egindako omenaldikoa, Derio, 1989-VII-14.

Ur ixil hori,
ur estali hori
Arizmendiren harako
saraspeko iturritxuaren
jarraipen antzo,
gure don Karmelo
ez ete da?

Zeruan zehar
arin
irradan
igaro dan
izarki ixila,
lur ganean
geriza gozoaren
azterren suntsikor
iheskaria
erakutsi dauana...
euskal-solo
preminatsu
egarberan
ongile
ta ur-ekarle mazala,
don Karmelo gurea
ez al da?

Gizonon bihotzetan
bizitzako gorabeheretan
sasilarrek sarri
lur emonkorra
ohi dabe estali.

Gaurkoan
larrak mozturik
brastadan beioaz sutara,
Donianek ihes egin deusku

baina ez da ardurarik,
inguruan dabil hegan
sentimenaren auresku.

Esker onaren baratza
bihotz aberatsa
besterik ez da ta,
Labayrukoen omen
txiker gozoan
pozezko txalo ta zarata.

Beiondeizula,
euskal nekazale;
laga dozuna
euskaldunek jasoko dabe,
esker oneko
txorta usaintsuek
zeure barru otzana
onduko,
ta zugan loratuko
iraupenezko ondare.

GOIERRI IXILA

Lumentxa mendiskearen
gerrialdetik beheruntz,
mendebaldera
hortxe dago goierri bat.
Goierrri horren
ezaugarri nagusia
bere egote ixila;
egunean aina gauean be, hor,
zaratarik ez dalako.

Egotetxolo
ugari dauka,
ostatuak harrizkoak dira.
Bada hor plaza ta kale,
eta arbola lerdin sendoak
uda ta negu orrijabe.

Horraitino,
goierri horretara
bertan geratzeko
joan baino lehen,
heterrian bizi behar da,
aldi labur
aldi luze
inorentzako be ez da
epe jakinik.

Hain zuzen be
ezustea, bapatekoa
izan ohi da
goruntz joateko erabagia.
Hobeto esan, deia.
Sekulako itsasoratearen
dei ixila.

Deiaren ostean
kanpantorran kanpaiak.
—Noren kanpaiak dira?
— ... Urliarenak.
—Goierrira doa.
—Doa ez, enetxua. Daroe.

Lorak eta koroiak
ugari eskeiniko jakoz,
ez jakin otoiak.

Altzipresek, beti zutunik,
helduberrri guztiei
irribarre:

—Amaitu da zure nekea,
ta orain, betiko bakea.
Hemengo itsasoa
edonoiz dago bare.

1989-IX

SAKABANATZEN

Oi, Aberri maitea,
aspaldiotan saminez betea.
Seme-alabok
—erbestekoen menpe egon arren—
ez gara alkarregaz ondo konpontzen.

Berba on eta bigunen bitartez,
barriketaldi baretsuz
ezin edo ...
Indarrez,
iraultzez,
odolez beharko ete?

Taldeak eta lerak,
bide ezbardinak
aukeratzen ditugu,
eta horra hor gure neke
ta atsekabe,
sumin eta saminak,
arimako minak,
pozik bako etxakide,
noiz arte ...?
Noiz arte Tubalen lilurak?
Aitorren laino-amesak?

Bihotzen gogorberatasuna,
adimen muinen uxatu beharra,
alkartzearen ezina,
barriro ta barriro
mendiko negarra.

Aberri buztarpetu honetan
aspaldiko dazaugu
gero ta zitalago dan samina.

89-X-15

MINTZ

Harlandurik izan dogu
eta badogu
gure etxeetan, urietan.
Hargin euskaldunik izan da
bazterretan.

Oraingo aldian hizlanduak ere
aurkitzen ditugu
—bilatu bage—
olerkari gazteen lanetan.

Hizginen giroa loran dogu,
—maitearen izatea aina—,
lilurea dakarskue
hizgin gazteok
gure zain zaharkituek
darabilen odolera.

Solasean edo sasoian
ari da norbait,
beste bat mintzominak jo dau,
euron olde jolastiek
bihotz eta besoak
zabalik ditue.

Hiztegi-olerkiaren seinek
—haurrek, jakina—
liburuaren kartzela
orrialdeetarik
ihes egin guran susmatu daikeez
euren buruak;
hitz-haurrak, sorberriak
eta antzaldatuak.
Guztiei, diosala.

1989-X

JOSE MIGEL BARANDIARAN JAUNARI
(Bilbotik Ataunera)

Izena dauan edozerk
badau bere izana,
hainbat bidar aditu dot
zurea dan esana.

Euskal mundu bat kolkoan
erraz daroakezu,
bizipen anitz dozunez
inoiz ez zara kexu.

Gure Herrian, pizkundea
zenduan zuk ikusi,
geroago iluna ta
barriro ere eguzki.

Lumentxapean jaio ta
mutiko nintzanean
hiru gizon kobarantza
aldapa hasieran:
Aranzadi ta Eguren
eta Barandiaran...

hamaika gora ta behera
lehenaren atzean.

Zure adiskide handi
zenduan Larruzea
izan neban Lekeition
nik bataiatzailea;
ta Arizmendiarrjeta,
zure ikasle trebea,
nire ezkontzan apaiz gazte
onespen emailea.

Euskaltzaindian zaitugu
urteetan aurrena,
jakinean ta lanean
etenbako kemena.

Oroipen-xorta txiki hau
neguko oparia,
Sarako atadiraino
dijoa bidaztia.

1989 abenduaren azkenean.

ETXAKI LAZTAN

Etxea betidanik dogu
gizakien leku;
horren atal bat
etxaki laztan,
badogu hementxe
bihotzen maite-hegaden
toki txiker,
toki barru.

Ezaguerea ta
irribarre otzanak
biztanle bakanak,
bakarti samarrak,
arean.
Sentimen-kutxeak
gorderik ustebakoak,
atseginak sarri,
inoizka mingotsak.

Kutxearen giltza
ez da arrunta,
gain-gaineko tresna
txiker ta ikusezina, ausaz.
Gurari, erakarpen,
grina, borondate,
alkar-dei sotil
lotsa-ikutua dauana.
Batzuetan zalantza
eta lanbroa.

Gauko olerkia sor daiteken
habia epel azaldugatxa.
Egote jauregi,
loaren gaztelu,

xumea da bihotz umea,
hazi nahi ez dauana,
ume iraun,
Kupidokide betiro,
umezaroaren harresia
iragitearen alde
arnasa hartzen dauana.

Etxaki laztana,
hantxen irudi maitearen
dan-dana.

Zetarako itxartu
hodei arteko
ames etenzale ez dan
jarraipen oldarretik?

1989-IX

INOK ENTZUN BARIK

San Antolin,
geure santu poxpolin,
hainbeste jai
zegaitik egin?
Horixe nahi dogu jakin.

Oraingo aldian
santurik asko
baztertu samar;
zu, barriz, goisko,
inguruan eta urian.

Izan be,
zein santuk emon
zazpi jaiegun?
Horretan zeu zara
kanpeoi, txapeldun.

Baina zeu be,
barruan zagoz,
preso.

Lehenago, ostera,
kalerik kale txairo
musika ta guzti,
lagun artean,
nasai ta aske.

Ez ete gara
erdi-guzurrezko?
San Antolin...
Sasoi baten
txistu ta tanbolin,
sagardau ta txakolin.

Gizon adoretu,
zintzo eta bero,
San Antolin,
herritarrok
alkar maitatzeko
zeugaz urtero
ohi dogu atsegin.

1989ko irailean

GIZON URTETSUAREN LELOAK

LELO 1

Gorputzak, zahartze aldiratzean
bere berotasuna
sakabanatu dauanean
eguzkiari ostu nahi deutsa
urrunik bada be,
beroaren igurtzia,
uneroko guraria.

Horma zahar horituak
aspaldiko harlandu urreztatuak
bilatu ohi ditu,
zahartzaroaren arda motela
egunero edan daroan
gorputz horrek.

Hotzak bere burduntzi zorrotzagaz
zizt eta zazt egiten deutso
bizkarrean, lepoan,
belaunetan, oinetan.
Hatzamarretan eta beste nunbaiten
agureak berotasunik-eza
susmatzen dau,
eta nekea dakartso.

Bazkalostean
egunero burruka
lo-sumeak¹ bekainera
salto egiten deusanean.
Eguzkiaren maitale bihurtua;
bai emaztea bai amorantea

¹ Lo-suma: lo-kuku.

ahaztutze basoan zehar
murriz uxatu ditu.

Ai, eguzkiaren beroa,
igurtzi garbi sendoa
agureak aroa.
Bakartade antzeko horretan
eguzki gozo berotzaile
nahi leuke ohakide.

LELO 2

Gelaurreko leihoak
bai zirrikitu luze samurra,
haize hotzak hortxe zehar
sartzen deusku musturra.

Negua, zetarako?
Atso-agurak bildurtuerazoteko
seguru asko.

Eta ez da bapere gustagarri
inguruko hotz hori
gorputzeko haragi
ta hazurretaratzea.

Epeltasunaren kaltegarri
ondoezaren eremu
kaxkarrera garoakez,
atsegina
ezereztu,
ta atsekabe ta mina
gure maizter bihurtu.
Utikan ut!

Inungo atsok ez agurek
ez dau hotza maite.
Hotza, hobiaren senide dalako;
gizasemeok arrainak ez garealako.
Egun ilunen iragarle,
berorik-ezaz ez da inor maitale.

Betoz udaleheneko
eguerdi alaiak,
betoz udako
goizalde ta iluntze epelak.
Horrezaz jakitun dira
gure gelak;
eurek be, udea gurago,
zabal-zabal
ate eta lehio.

1989-X-13

EGUNEROKO PURGATORIOAK

Gaixorik dagoana,
edo preso, askatasun bage,
edo lan eta diru gitxi daukana ...
eurotarik edozein da
purgatorioko aulkijabe bakana.

Lehenak zetarako dau erromeriarik?
Bigarrenak, eguzkiaren distirarik?
eta azkenak,
finantzen haunditze ta gorakadarik?

Bakoitza bere zoroak daroa,
geureen esacra antzinakoa.

Baina bakotxaren zoroak
lagungin batzuk
eta eragozle ugari ditu.
Purgatorioaren taiuaz
ez dakigu ez txistu ez txilibitu.
Ta San Pauloren harako umezurtzak
purgatorio txikerretan
ibiliak dira, edo egonak.
Bada bai, atsekabe tokirik
mundu zikin honetan
ez da neurri jakinik noizari dagokionik.
Horraitio, Purgatorio honek
badau bere amaia,
bakotxa berari arnasea eteteen,
bihotza gogortzean,
burua zimeltzean ...
albista baltz horren emoile
elizako kanpaia
uri txikinean.

1989-X-13

ZIKINA INDARTUZ

Erromeri egunetan aldi baten
jente gaztea alai eta pozik,
arpegia eta eskuak baizen garbi
soinekoak.

Gazteri zein ederrak
ezagutu ditugun!

Orain beribila gehitu da
eta gasolinea,
ta soineko zatarra,
urratua ta iluna.

Buruetan kirikio uleak
beso eta iztar ugarrez beteak,
zikinaren erresuman
... gaztetxeak.

Ez da sinisgarri
detergenteen garaian
hainbeste gazte
neska ta mutil
etzunda zelaian
lotsariak agirian,
gose ta egarri
eta ganora barik.

Lanik ez dabe oraingo
gazte askok
—badakigu gurasook—
egia mingots honek
erraietan egiten deusku hots.

Heroina ta kokaina,
lapurretarako bide jakina,
hondamendirako ate,

besteak beste.
Gizaldi nekeak joa
gure seme ta bilobena:
txeratsuegi kulunkatua,
bigunkerian hazia...
gurasoen begia
malko iturria.

Euren egoereak
gure haragian
zelako zamtadea!
nork ikusiko ete dau
gazteri barria
zindotasunean
ganoraz jarria?

89-IX-11

BIDE ZIDOR

Sasibidean sartu ez dana
zorioneko da, nunbait,
bide edegiak,
trabagabeak besterik
idoro ez ditualako.

Ai, bakotxa bera
honelako bagina!

Gure erremina
ezerezturik bailitzateke;
harri koskorrak aitatzeke,
jakina.

Bideak mila dira
mundu txikian
(larregitan esan dogu
mundu *zabal* honetan),
munduki ikaragarriagoak
eskergak, kontaezinak
hor diralako urrunetan.

Txindurri edo hondarra
aina gara
gizaki bakotxa,
ta jainko izateko
ausardia, hemen dogu gogara;
baina bururatu gura ez
laster laburrean
gu be zuloratuak izan ondorean
inortxuk gomutan
izango ez gaituana.

AZAL BARRIA ZERGAITIK?

Ezer aldatu ez danean
izenari zetan ikutu?

Biskokalia¹ zana

Beheko kale dabe bihurtu.

Hizkuntzearen esan-moduak
ez dagiguzan murriztu.

Aldakuntzea egin dauanari
guk... didar, zarata, txistu.

Beheko kalea, izatekotan

Eskolapea izango zan,

orduana ba, beherago egoan.

Barrenkale be, izan eitekean.

Horrelan gabiltz

geure gauzetan

jatorra baztertu

arrotzaren onetan.

1989-IX

¹ Lekeition Beascocalea zan kalcaren izena, XV. mendetik oraintsurarte. Lehenago be, idatzi dogu honezaz, San Antolinetako programa baten.

EMON EGIDAZUE

“Sol implacable de julio
sin nubes en el azul denso
pienso...”

Goizak itsas azalean
esne-antza dauanean
lehiora naz,
ta itsas eder horri
begira geratu.
Zeruaren eta uraren
laztan amaiezina dirudit,
ixiltasunik handianean.
Horraitio,
itsasoaren gona luzearen
azkenetan uhin jolastiak
umetxuen bihurrikeri
arinetan dantzari.

Goiz honen barea
goiz honen gozoa!

Laster, goialdeak
mantu urdina zabalduko dau,
eta torratxoriek
olatu txikinek baino
bihurrikeri azkarragoak
gingo.

Uriko seme-alabak
eta heldubarriak lo dagoz,
jai entzutetsuarén ostein.
Ez dira egun guztiak bardinak.

Hor doaz nagiro potinak
txitxarro lerdinak

nun atrapako.
Bart egon da iretargia
laba ganean,
Karraspio auzoan.
Bai biribil, bai eder,
emakumearen irudia
gomutarazoten dauala.

Iretargiak
gizonagan dau eragina,
eta izadiagan,
emankor entzutea
daualako.

Horretara ezkerro,
berari nagoko
ta itsasoari
une honetan:

—Emon egidazu,
iretargi zuri,
ordu bakotxean
behar dodana,
ordu bakotxean
nahi neukeana.

Zeuk eta itsasoak dozue
lotuerea nigana
Lehorra... horixe ba,
lehorregia dalako.

Emon egidazue
min makal uneetan adorea;
ta behar bada, hasarrea.

Emon egidazue
gurutz aldietan
esnearen samurtasuna,
goxakien gozoa.

Bizitza-itsaso
asaldatu honetan
ontzilo neurea
—intxaur azala,
noizbait kantatua—
trubiando²
gerta ez nadin, urartean.

Zauriaren ordezt
osoaren jatortasuna
izan dagidan,
beti azalean iraun dagidan
murgil gaizto hondoratu barik.

Argia ta adorea,
eder-igurtzia
ta maitetasuna
emon egidazue.

1989-VII

² Trubiando: jitoan, nora ezean.

ATZENERANTZ

Geldiezinak dira aldiaren
erlojuaren besoak;
besook garoiez atzenerantz,
apurka-apurka beherantz.

Itxaropenaren izarrak
dirdisak makaltzen deuskuzanean,
zalantza bildurantz
sortzen da bihozpean,
ez jaku argitasunik sartzen
leihorik zabalenean.

Iluntzea da, ta zulora deia,
dei ixila, dei lupua, ankerra.
Zorabioa amaitu-hurren da.
Lagunei, gauzei, etxekoei, guztiei
agur egin beharra.
Agur betikorra.
Agur baltza.

89-X-10

AI, ALIA¹!

(Tokian tokiko)

Nun da, nun da, nun dogu
antzarren jaubea?
Sama samurregian
alperrik koipea.

Hil aurretik gosekil
egozan antzarrak
birritan eten dabez
soka ta amarrak.

Antzarrak bigun eta
sokak bigunago,
Aitita Mokordo be
lotsatuta dago.

Lekeitiarrok odol
zalcak ei gara,
hori esan dauanak
ez dau jan bedarra.

Agur, antzar gosekil;
agur, kofra² gazte,
Aittita ez dadila
lotsatu hainbeste.

“Ai, alia! Ai, alia!”
antzar lumakin dabil
olgetan umia.

1989 Antzar-egunaren ostean

¹ Alia: mesfidantza adierazteko esapidea.

² Kofre: zanga.

UDA BERO

Zigorra eskuetan aurtengo udeak
bere labako atea dangino edegi,
eta suzko olatuak —baina ikusiezinak—
burutik behera bialdu deuskuz.

Bedarrak hori,
errekastoak ur mehez,
arrainek ezin igeri.

Hodeiak, jolasti,
irri eta ixeka,
agertu eta ihesi,
ez zaparrada ta ez curi-tanta.

Urdinaren urdinez
zerua ederregi,
baina gizonaren gorputzak
nekea, izerdia, arnasestua.
Ai, urdinegi dan zerua!

Azkenaren buruan
hodeiek guzaz errukitu
eta sabel ezoa edegiaz
busti deuskue lurra,
ta hobatu da gure adurra.

Soineko barriz jantzi da
behin behinekoz, bedarra,
bai eder begiontzat
bedarraren berbea.
Itxaropenaren hasiera soila
besterik ez ete izango?
Erreka, aintzira, osin handiak
egarriz ta bular idor dagoz eta,
hodei euritsu emonkor gehiagoren
eskabidea gure barruak.
Entzun begisku zeruak.

1989-VIII

AHO ITXIAN (ERRAN ZAHAR)

Ezer esateko ez dauanak
hoba dau ixilik egotea,
edo ez idaztea.

Jakitunen esana da;
baina jakitun ez danak
ez dau aintzat hartzen.

Horrelan... entzuleak
edo irakurleak aspertu arren...

Bakotxa bere zoroak bizi
eta ekin barriketa hutsetan,
ekin zerrendetan
zirriborroketan.

ILUNTZEA

Ezetariko zaratarik bage
arrunkiro dator iluntzea:
uriko teilatuen gain
hodei mengel zuriskak,
luzangak, nagiro orekan.

Eguzkiak gorde dau
bere zarpa zabalean
azken distirea, azken gezia.

Ezarian, teilatu gorriak
teilatu baltz bihurtuko dira,
oraingo tximinietan
kerik ez dagoan arren.

Ume sostorrak etxera doaz,
erdi zikin, erdi logura.
Neon farolak berez
isiotu eta itzali,
buru arinaren antzera.

Azkenengo potin txikinak
hor datoz banan-banan kaira.
Arrain ixilak eskuratzen
eta jaki gozoaren bila,
gizona bai horretan abila.

Jateko jaio ete ginan?
Ba... horixe dogu
eguneroko zeregina.
Abereek (batzuek) alkar jan.
arrainek (gehienek) alkar jan.
Eta guk
abere eta arrain

jaten ditugu,
lehen eta orain.

Jateko jaio ete ginan?

Gorputzean dogun grina hau
ba ete dogu ariman?

Iluntzearen doinu bakarra
kanpantorran arimenak
dan, dan, dan...

Amaierako otoiaren kanpaiak.

Ilun dagoz teilatuak,
itsasoa ta zelaiak.

89-IX-5

BAI ETA EZ BURRUKA

Baietz(a), ezetz(a)

Orain ez dabil gure kalean
ez enararik udan,
ez saguzarrik gabaz.

Beribilak dabiltz,
lau burpilekoak gehienbat,
baina bikoak be bai,
zaratatsuak.

Kaleak estuegiak gertatu dira,
espaloietan bide medarra
pertsonek oinez ibilteko;
beribilek zapaltzen dabez
espaloiak
eta guk, oinezkook
kalerdira, kaltzadara
jetsi behar izango dogu
zapalduak edo azpiratuak
izateko arriskua dogula.
Zelako aldrebeskeria
munduaren adurra.

Ostera, lorategietan
eta parkeetan
bidesketan zehar joateke,
jentea bedartza lehen zainduak
aintzat hartu barik,
dogun bedar apurra zapaldu,
oimperatu beharrez...
Hau da saskeleria!

Espaloietan zehar
aukerarik ez dalako,

parkeetako bedar guri hezea
lorrindu gura.
Oraingo gizonari
(esango ala ez?)
kontradizinoa dario.
Astoa ez ei da aldakorra.
Gizon jakintsua, bai horraitio.

Antxinakoaren esana;
"Gure Marixe goruetan,
behar ez dan orduetan".

89-IX-15

IZEKOK ESANA

Olgetan benetan
esan eustan izekok:
“Zelako edo halako,
bizi izateko modua
izango dok”.

Arean, biziteko moduak
hainbat dira,
eta lekuak.
Inguruko onak izatea
horixe joera asean,
bizimodu ona izateko.

Maitatze, maitagabetze ...
bakartade, norberekeri ...
Aukeratuak izaten ete gara,
ala geuk aukeratzen ditugu
toki, lagun eta abarrak?
Ez dagoz beti argi
gure kaskarrak,
eta grinaren baten indarrak
okertzen, hausten,
lorrinduten gaitu.

Sarritan ezin ulertu,
baina hego haizeak
hautsak emoten deuskuz,
eta guk errez galtzen
uneak, asteak eta urteak.

“Zelakoa edo halakoa” ...
gure aldia be, badoa.
Hurrengoek ezagutuko
dabe hurrengoa.

89-IX-21

EULI ZIRINAK

Gure atzamarrakaitik
ez deuto ardurarik euliari,
ausarta da, guztiz mutiri,
arrisku jokoan;
eta noizik noizera
eskuaren eta zapiaren zapladek
hilda lagaten ditue.
Eta kitu.

BERTSO MENDITARRAK

*Alperrarria ezagutu ez dauan¹
Aita Santiri*

Atxuriartean² sortu,
jaio ta hazia
mendimutil sendoa
azkar ta bizia,
sokil³-hausten hasteko
ez zan egokia,
harik laster izango
kaleko txoria.

Fraile zuri-nabarrak
Markinan ikusi
mundu ta zerurako
bidea non hasi?
zana zala, eskolan
letrak iragazi,
ta kaskazur barruan
asmoak egosi.

“Fraile izate hori
ez dok hain motela,
altara ta kulpitu
jantoki ta gela,
praka estuen ordez
soineko zabala,

¹ “Alperrarria ezagutu ez dauan Aita Santiri Bertso Menditarrak”, *Karmel*, 1989-3, uztaila-iraila, 106 or.

Zornotzan omen baterako egina.

² Atxuriarte: Aita Santi Onaindia jaiotako baserriaren izena.

³ Sokil: mokil.

makailaua janda be
konforme sabela”.

Bizarrak urten hurren
agur gurasoak,
Zornotzan bazan Larra,
bazter erosoak,
kolore zurigorri
mutil bardingoak,
komentuko hormetan
zerurantz lehioak.

Gaztelania, latin
ta griego pitin
euskaldun menditarrak
zer ez gura jakin?
ikusi ta aztertu
zaharren hondakin,
idazleen zelaian
jolasten eurekin.

Jolasten eurekin ta
bai bakarrean be,
luma-jabe egin zanik
ez da izan herabe,
batu dau batzekoa
ipuin eta asele,
ogi gozoak deuskuz
bere laban erre.

Horra ba, Aita Santi
Abraham barria,
larogeta hamiar ume
bere familia,

euskal lurtean naro
erein dau hazia,
mutilzahar izateko
ezin sinetsia,

San Pedrok eskeiniko
ate edegia.

1989-V-13

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

26. NI KAZETA-EGILEA NAIZ.
ARTIKULU, BERRI, ISTORIO
Jean Hiriart-Urruti
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. HAURGINTZA MINETAN
Mikel Zarate
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. KRESALA
Domingo Agirre
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. ZORIONA. 31 ETA ESKU
Xipri Arbelbide
30. ABARRAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. IZARTU EUSKALDUNAK!
ELANTXOBETAR BATEN OLERKIAK ETA
ARTIKULUAK
Gorgonio Renteria
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone
Etxebarria
32. ABERRIAREN ALDE
ARTIKULU POLITIKOAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Biltzailea: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
33. GURE ABERRIAREN ELEA
KAZETARI-LANAK
Estepan Urkiaga. *Lauaxeta*
Sarrera: Xabier Altzibar
34. NEURE AMATXO MAITIA
EUSKERAZKO GUTUNAK
Balentin Berrio-Otxoa Santua
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKUBETE NEURTITZ • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria



LABAYRU IKASTEGIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ISBN 84-89816-09-3



9 788489 816091